



Koldo Zuazo

DEBA IBARREKO EUSKARA

Dialektologia eta Tokiko batua

DEBA IBARREKO EUSKARA

DIALEKTOLOGIA ETA TOKIKO BATUA



MUTRIKUKO
UDALA



DEBAKO
UDALA



MENDAROKO
UDALA



ELGOIBARKO
UDALA



EIBARKO
UDALA



SORALUZEKO
UDALA



ELGETAKO
UDALA



BERGARAKO
UDALA



ANTZUOLAKO
UDALA



ARRASATEKO
UDALA



ARAMAIOKO
UDALA



ARETXABALETAKO
UDALA



ESKORIATZAKO
UDALA



GATZAGAKO
UDALA



OÑATIKO
UDALA



MALLABIKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO
JAURLARITZA

© Badihardugu Euskara Elkartea

© Koldo Zuazo

© Mapak: Andoni Elordui

© Argazkien ardura: Egoitz Unamuno

Azala: Maite Rementeria

Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta Tokiko batua.

2006

Maketazioa eta inprimaketa: Gertu (Oñati)

Lege gordailua: SS- 1404/06

ISBN: 84-611-3813-9

Fernando Muniozgueni,

Eibarko euskara teknikari izan zenari.

aurkibidea

Hitzaurrea	9
-------------------	---

I. DEBA IBARRA

Lan esparrua	19
Deba ibarraren zenbait ezaugarri	20
Deba ibarra eta euskara	31
Deba ibarreko euskara	42

II. DEBA IBARREKO EUSKARAREN EZAUGARRIAK

Zein dira "ezaugarri"?	52
Bokalak	57
Kontsonanteak	63
Azentua	70
Izenaren morfologia	75
Aditzaren morfologia	81
Morfosintaxia	93

III. DIALEKTOLOGIA

Dialektoak sailkatzeaz	99
Dialektoak sailkatzeko irizpideak	102
Lexikoa eta aldaera lexikoak	115
Euskalkien izenak	118

Deba ibarreko hizkeren kokagunea

Deba ibarreko bereizgarriak	122
Mendebaleko berrikuntzak Deba ibarrean	128
Deba ibarreko alderdi batzuetako mendebaleko berrikuntzak	134
Deba ibarrera iritsi ez diren Bizkaiko berrikuntzak	141
Gipuzkoako eta Euskal Herriko erdiguneko berrikuntzak Deba ibarrean	144
Debagoieneko bereizgarriak. Arabako euskararen eragina	152
Oñatiko hizkeraren nortasuna	158

IV. SOZIOLOGUISTIKA

Estandarra, literaturako euskalkiak, herri hizkerak

Iraganeko bideak	170
Euskara batua	174
Etorkizuneko bideak	175
1. Euskara batuaren geroa	175
2. Herri hizkeren geroa	179
3. Literaturako euskalkien geroa	182
4. Tokiko batuak	183
5. Lagunarteko batua	184

Deba ibarretik euskara batura

Ortografia	187
Fonologia	188
Izenaren morfologia	191
Aditzaren morfologia	194
Morfosintaxia	196
Lexikoa	198
Aldaera lexikoak	202

Azken hitzak	207
---------------------------	------------

Argibide bibliografikoak	211
---------------------------------------	------------

HITZAURREA

Norbere hizkera aztertzea izan ohi da dialektologian dabiltzan askok egiten duten lehen urratsa. Etxean senideekin eta herrian auzokoekin entzun eta ikasi dutena oinarritzat hartu eta hortik abiatuta egiten dute ondorengo ibilbidea.

Bestelakoa izan da nire bilakaera. Arabako euskara zaharrean jarri nuen lehenengoz arreta, eta Araba ondoko Burunda haran nafarra izan zen hurrengo pausalekua. Errenteria eta Irun bitarteko hizkera gipuzkoarrak, eta haien ondoko Arano, Goizueta eta Bortzirietako nafarrak ezagutu nituen jarraian, eta Bonapartek XIX. mendearen erdialde-
ra egindako euskalki sailkapena zaharkituta zegoela iritzita, Euskal Herri osoa bazterrik bazter zeharkatzen hasi nintzen ondoren.

Eta horretan nenbilela, neure gertuko euskara aztertzeko aipatu zidan urruneko adis-
kide batek. Madrilen jaio eta Ipar Ameriketako Illinois estatuan bizi den Jose Ignazio Hualdek eman zidan Deba ibarreko euskara aztertzeko eta erakusteko aholkua.

Une hartan ez nintzen zuzen jabetzen alderdi horretako hizkeraren esanguraz, baina Jose Ignazio Hualde hizkuntza gaietan maisutzat eduki dudanez, hark esandakoa aintzakotzat hartu eta berehala ekin nion lanari. 1997-98 tartean gertatu zen hori.

Egiari zor, lehendik ere ibilia nintzen Deba ibarreko zenbait herritan: Deban, Mutrikun, Bergaran eta, batez ere, Oñatin. Hasiera-hasieratik berezia eta interes betekoa iruditu zitzaidan Oñatiko hizkera, baina norbaitek herri horretako XVIII. mendeko eskuiz-
kribuak azterten ziharduela, eta beste norbaitek hango hizkeraren gaineko tesia egin nahi zuela jakitean, bertan behera utzi nuen lantegia. Zoritxarreko erabakia, gaur egun ere egin gabe daudelako bai bata eta bai bestea.

Lanean jarri eta bildutako uza antolatzen hasi orduko, emaitza oparoegia zela ikusi nuen, eta ezingo nuela hura guztia aldizkari batean artikulua bezala plazaratu. Deba ibarre-

ko hizkerak ez zirela batere berdinak ohartu nintzen eta, aldi berean, Hualdek zioen egiaz jabetzen hasi nintzen: eskualde horretako euskarak bazuela nortasuna eta interesa. Azken batean, haren kokagunean zegoen gakoa; Bizkaiaren, Gipuzkoaren eta Arabaren artean egotean.

Liburuxka bat osatzea zen, beraz, irtenbidea, eta Eibarko Udaletxera jo nuen laguntza bila 1999ko udaberrian. Jakina, hantxe argitaratzeko egokitu nuen neure lana: liburu xumea zen, ahal nezakeen hizkerarik argienean eta zuzenenean idatzia.

Handik lasterrera, telefonoz deitu zidan Fernando Muniozgurennek, Eibarko euskara teknikariak. Egindakoa ondo zegoela, baina euskalkiak noiz, nola, non eta zergatik erabili azaltzeko eskatu zidan, eta atal berezia egiteko gai horren inguruan.

Norberak amaitutzat jo duen lanari berriro ere eranskinak egin beharra gutxitan izaten da gozoa, eta nik ere gogo txarrez hartu nuen Muniozgurenen eskea. Gainera, euskalkien auzia denon ahotan zebilen arren, egin gabe edo, behintzat, aurkeztu gabe zegoen horren inguruko hausnarketa sakona eta, osatu gabe, euskalkiak gizarteratzeko egitasmo zehatza.

Dena dela, ezarritako baldintza bete beste irtenbiderik ez nuenez, “apoa” irentsi eta liburuaren atal berria antolatzen hasi nintzen. Hasierako larrialdia gaindituta, gainera, zeharo zentzuzkoa begitandu zitzaidan Muniozgurenen eskabidea. Euskaltzaindiak euskara batuaren auzia esku artean hartu zuenetik, hitzetik hortzera aipatzen zuen euskalkiak babestu eta euskalkiek euskara batua hornitu eta aberastu beharra, baina sekula ere ez zuen zehazten hori egiteko modua.

Bestalde, euskalkien alde bizi eta bero ziharduten askoren arrazoiak ahulak eta desgokiak ziren nire iritzian. Alde batetik, gehiegizko erromantizismoa zerien: gure baserri-tar, artzain eta arrantzaleen hitzak eta esapideak betiko galtzea zen euren kezka eta samina. Beste aldetik, berriz, euskararen eta Euskal Herriaren osotasunaz ez jabetzea sumatzen nuen euskalkizale askoren barrenean. Euskara batua hotza, arrotza eta artifiziala zela esan, eta norbere txokoko hizkeran babestea, eta hartara mugatzea, ez zen jokabide zuzena eta zentzuzkoa nire iritzian.

Oso bestelakoak ziren, nik neuk, herri hizkeren alde egiteko neuzkan arrazoiak. Hizkuntzaren osasuna sendotzeko, etxeko eta lagunarteko *transmisioa* jotzen nuen ezinbesteko, eta herri euskaldunetan bertako hizkerak ziren euskara batua baino egokiagoak horretarako. Esate baterako, Altzürükün, Azpeitian edo Lesakan, etxeko eta herri barruko jarduna euskara batuan egiteari ez nion ikusten inolako zentzurik.

Hizkuntzaren osasuna sendotzeko, era berean, hiltunen *sena* lantzea jotzen nuen nahitaezko, eta hori ere euskara batuan baino bertako hizkeretan egin zitekeen herri euskaldunetan hobeto.

Hizkuntzaren *zeregin ludiko eta afektiboez* ere ohartzen nintzen eta, herri euskaldunetan, helburu horiek bertako hizkeretatik abiatuta bete zitezkeela ondoen uste nuen. Era berean, *erbestetik etorritakoak herri euskaldunetan bertakotzeko*, herri horietako hizkerak aintzakotzat hartzea iruditzen zitzaidan baitezpadako.

Herri hizkerek ekar zitzaizkien onurak zehaztu ondoren, non eta noiz erabili zen hurrengo galdera. Nik neuk, *herri euskaldunetako ahozko jardunetan* ikusten nuen, gehienbat, herri hizkeren barruti berezkoa. Idatzirako, berriz, euskara batua jotzen nuen egokiago, nahiz eta lagunarteko mezu eta hartu-emanetan, herri barruko ohar eta iragarkietan, eta literaturako zenbait sailetan, idatzian ere izan dezaketen lekua.

Horretan, dena dela, alde nabarmenak ikusten nituen Euskal Herriko leku batzuetatik besteetara. Gipuzkoan eta Nafarroako mendebalean ez dago euskara batua erabiltzeko ezinik idatzian, azken batean, erdialdeko euskalki horretan oinarritu delako euskara batua. Ipar Euskal Herrian, mendebalean eta Nafarroako alderdi batzuetan ikusten nuen herri hizkerak aintzakotzat hartzeko behar gorria, euskara batutik urrun samar gelditzen direlako eremu horietako hizkerak.

Baina herri hizkerak non, noiz eta zergatik erabili beharra ez ezik, euskara batua erabiltzeko modua ere bazen niretako buruhaustea. Esate baterako, Deba ibarreko eskoletan erabiltzen zen euskara batua ez zitzaidan iruditzen egokia. Zehatzago esateko, irakaskuntzan euskara batua erabiltzearen aldekoa nintzen, baina ez orduan —eta orain— erabiltzen zen ereduaren aldekoa. Adibide xume batekin azaltzeko, ondo ikusten nuen *dot-en* ordez *dut* esatea, baina ez *gabonak* esan beharrean, *eguberriak* esatea.



 *Herri hizkerak, erbestekoak herri euskaldunetan txertatzeko bitartekoak.*

Sasoi hartarako, gainera, herri barruko aldizkariak oso errotuta eta hedatuta zeuden Hego Euskal Herriko leku askotan; ia herri guztietan, Deba ibarrean. Ez nuen gaizki ikusten euskara batuan idatzita egotea, baina eramanezina gertatzen zitzaidan erabiltzen zuten —eta duten— euskara batuaren eredua. Deba ibarreko bizilagunendako ordezt, Euskal Herri osorako idatzita zeudela ematen zuen; Donibane Garazirako bezala, Arrasaterako. Azken batean, euskara batuaren barruan mailak edo esparruak bereizi beharra ikusten nuen eta, horietako bakoitzean, euskara batu mota jakin bat erabili ahal izateko aukera. Euskara batuaren barruko hizkera berezi horiei *tokiko batuak* deitu nien urte batzuk geroago.

Gogoeta eta proposamen xume horiekin osatu nuen liburuaren atal berria, eta hala plazaratu zen *Deba ibarreko euskaria* izenarekin 1999. urtean eta, hain zuzen, atal berri harexek sortu zuen oihartzun eta zeresan handiena liburua agertu berritan.

Gainera, nabarmendu beharreko beste kontu bat ere gertatu zen liburua kaleratzeko orduan. Hasiera batean Eibarko Udalak argitaratu behar zuena, Deba ibar osoko hamaika udalen artean atera zen. Ez zeuden denak, beraz, baina hamaika udal zerbait elkarrekin egiteko batzea ez zen eguneroko gertakaria. Are gutxiago euskararen gaineko liburu bat ateratzeko batzea. Miraria zirudien. Fernando Muniozguren eta Estepan Plazaola, Bergarako euskara teknikaria, egon ziren “mirariaren” atzean.



 Deba ibarreko aldizkariak, hizkuntza eta hiztunak gerturatzeko tresnak.

Liburua atera ondoren, berriz, hainbat aurkezpen antolatu ziren Deba ibar osoan, eta tartean ziren liburua argitaratzeko dirurik eman ez zuten zenbait udal. Jakina, gogo eta adore biziagoz, eta esker beroagoz, joan nintzen herri haietara.

Liburuaren aurkezpenek sortutako zurrunbiloan, Deba ibarreko herri guztietako euskara taldeetako kideak bildu eta, Fernando Muniozgurenen ahaleginari esker batez ere, *Badihardugu Euskara Elkarte*a egituratu zen 2000. urtean. Urrats handia zen indarrak batze hutsa, baina askozaz handiagoa batzeko jarri zen helburua. Euskara bere osotasunean landu eta indartu nahi zen: bai herri hizkerak eta baita euskara batua ere. Eta ez hori bakarrik: lagunarteko eta gazte jendearen hizkera zabaltze aldera ere egin nahi zen ahalegina. Elkaratearen helburuak, gainera, ez ziren hitza eta bitsa izan, beste askotan gertatu ohi den bezala. 2002. urtean *Deba ibarretik Euskararen Herrira* izeneko liburua plazaratu zen, *Berbeta berua* izeneko beste bat, 2003. ean, eta euskara bere osotasunean zuzentze aldera egindako *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak Debarroko hizkeretan* izenekoak, 2005 ean.

Niri neuri, Deba ibarrean ikusitakoak eta ikasitakoak Euskal Herri osora gogoeta zabaltzeko hizpidea eman zidan, eta horren haritik etorri ziren *Euskararen sendabelarrak* (2000) eta *Euskara Batua. Ezina ekinez egina* (2005) izeneko liburuak.

Gauza da 1999an plazaratutako *Deba ibarreko euskeria* liburuaren 2.125 aleak –hamaika udalek argitaratzearen ondorioa izan zen kopurua– agortu egin direla, eta zegoen-zegoenean berrargitaratu beharrean, goitik behera aldatzea eta guztiz eraberritzea erabaki dut. Banuen horretarako arrazoia.

Alde batetik, ondo jabetu naiz, dagoeneko, eskualde horretako euskararen esanguraz. Bizkaiarekin eta Arabarekin lotuta egon zen antzina, eta Gipuzkoaren babesean ibili da gerora. Hartu-eman horien guztion eragina agertzen da bertako hizkeretan, eta hizkuntza gogoko dutenei interesekoa eta atsegina egingo zaie gorabehera horien albistea izatea.

Deba ibarreko euskara hizpide hartuta, bigarrenik, euskal dialektologiari ere egin nahi nioke neure ekarria. Euskalkiak aztertzeko eta jendaurrean erakusteko irizpideak zehaztea, eta horretarako eredu bat aurkeztea izan da nire asmoa. Beraz, dialektologian

dabiltzanak, eta eskola eta ikastetxeetan euskalkiak irakasten dihardutenak eduki ditut betiere gogoan.

Joan den aspaldian, gainera, Bonapartek egindako euskalki sailkapena zaharkituta gelditu dela eta, ikuspegi berriak azaldu dira eta, ikuspegi berriein batera, azterbide berriak ere agertu dira. Deba ibarreko hizkerak, hain zuzen, aukera ezin hobea ematen dute horretarako. Hiru herrialderen arteko bidegurutzean daudenez, lantegi oparoa dira adibide egokiak aurkezteko eta aztertzeke.

Baina, jakina, euskalkiak eta herri hizkerak ez dira dialektologian eta irakaskuntzan dihardutenen esparru berezia. Gu guztion eguneroko tresna ere badira, eta Deba ibarreko euskara hizpide hartuta, bai herri hizkerak eta bai euskara batua —euskara bera, azken batean— zuzenago eta egokiago erabiltzeko irizpideak erakutsi nahi izan ditut. Esan dezadan, horren harira, *tokiko batuen* adibide bat aurkezten dela lehen aldiz saio honetan.


Nire iritzian, tokiko batuak joko handia eman dezakete gaur egungo eta bihar-etziko Euskal Herrian. Dagoeneko ere urratu da bidea Ipar Euskal Herrian: *Iparraldeko batua* da, azken batean, hango irrati, gau eskola, ikastola eta beste hainbat esparru jasotan erabiltzen den hizkera, eta arrakasta lortu du bertako gizartean. Baina saio honetan, gainera, tokiko batu horiek eraikitzeke *oinarriak* erakutsiko dira, betiere Deba ibarreko hizkerak adibidetzat hartuta. Gizarte hiritarra eta industria girokoa da Deba ibarrekoa eta, hala ere, bertako ohiko hizkerak ondo samar gorde dituen. Han ibilitako bidea beste alderdi batzuetarako ere izan daiteke, beraz, eredu.

Laugarrenik eta azkenik, oraina eta etorkizuna izan arren gu guztion kezka eta ardurar, iraganari ere egin diot lekua, eta Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako euskara hobeto-xeago ezagutzeko argibideak bildu eta erakutsi ditut. Gutxi dakigu euskalkietako gertakariak sortu ziren garaiaz, eta horren inguruan bildu ditut zenbait argibide. Ikusikodenez, gertakari horietako asko oraintsukoak dira. Ez erromatarren aurrekoak, hau da, alderdi hauetan karistiarak eta barduliarak bizi ziren garaioak, gure arteko zenbaitek uste izan duten bezala.

Liburuaren zertzeladak azaldu ondoren, lantegian lagundu didatenak ekarri nahi ditut gogora. Hasieran aipatu dut Jose Ignazio Hualdek eta Fernando Muniozgurenak saio honen sorreran izandako zerikusia. Txipi Ormaetxea aramaioarra izan dut oraingo honetan laguntzailea. Atonduta neukan zirriborroa irakurrita, hura doitzen eta egokitzen lagundu dit. Deba ibarreko beste bizilagun zenbaitekin ere zorretan nago, ondorengo hauekin bereziki: Oxel Uribe-etxebarria (Eskoriatza), Leire Okaranza (Aretxabaleta), Nekane San Migel (Arrasate), Iban Arantzabal (Elgeta), Serafin Basauri eta Asier Sarasua (Eibar), Jesus Mari Makatzaga (Elgoibar) eta Oier Iriondo eta Eider Zulaika (Deba). Euskal Herriko Unibertsitatean lankide ditudan Joseba Lakarrak eta Blanca Urgellek ere hainbat argibide eman dizkirate. Egoitz Unamunok eduki du argazkien ardura eta Andoni Elorduik, berriz, mapak egitearena. Aintzane Agirrebeñak, azkenik, hari mutur guztiak lotu eta merkatura bidean ipini du guk egindako lana. Horiei guztioi, eta euren hizkerak eta bizipenak ganoraz eta patxadaz erakutsi dizkidaten Deba ibarreko bizilagunei neure eskerrik zintzoena nahi diet aitortu.

Euskal Herrian, 2006ko urrian

DEBA IBARRA



Lan esparrua

Administrazioak hamasei herri bildu ditu Deba ibarrean, eta eskualde bitan daude banatuta: Debabarrena eta Debagoiena. Zortzina herri daude multzo bakoitzean, eta haxe da herrion zerrenda.

Debabarrenean Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze daude.

Debagoiengan, berriz, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati.

Badira egin beharreko zenbait ñabardura.

Batetik, Gipuzkoako hamalau herrirekin batera, Bizkaiko bi ere badira zerrenda horretan: Ermua eta Mallabia.

Bigarrenik, berriz, Deba ibarrarekin lotura estua duen herri bat utzi da kanpoan: Arabako Aramaio.

Debari dagokio hirugarren oharra. Nortasun beteko beste herri bat dago udalerri horren barruan: Itziar.

Laugarrenik eta azkenik, esparru berezia osatzen du *Leintz haranak* Deba ibarrean. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga daude bertan, eta sarri aipatuko da haran hori saio honetan, oso estua delako lau herrien arteko batasuna.

Deba ibarraren zenbait ezaugarri¹

Industria da Deba ibarraren ezaugarri nagusia. Bertako orografia menditsuaren ondorioa da, ez delako nekazaritzarako eta abeltzaintzarako batere egokia. Dena dela, ibar horretako bizilagunen kemenaren ondorioa ere bada, erbestera lanera joan beharrean, edo erbestetik zer etorriko zain egon gabe, Deba ibar meharrean sortu eta antolatu dutelako euren lantegia.

Burdinari lotuta egon da Deba ibarreko bizimodua. Armak eta era guztietako tresnak egin dira joan den aspaldi luzean, eta Arrasate, Bergara, Soraluze, Eibar eta Elgoibar izan dira industriagunerik esanguratsuenak.

Jakina, Deba eta Mutriku itsasbazterrean daudenez, itsasotik atera dute bizibidea; arrantzatik, portuko garraiotik, kontserba lantegietatik eta, azkenaldian, turismotik. Hegoaldeko muturrean dagoen Leintz Gatzagak, berriz, bere izenean erakusten du iraganean izana: garai batean hain estimazio handia zuen gatzaren ekoizlea.

XX. mendean gertatu zen Deba ibarreko industriaren gorakada, eta Estatu espainiarren buruan jarri zen zenbait arlotan. Sarrailek, ehuna, bizikletak, josteko makinak, makina-erreminta eta, batez ere, armak egin dira.

Leintz haranean garatu zen sarrailagintza: Arrasaten (*Unión Cerrajera* eta *JMA*), Aretxabaletan (*Cerrajería Valle Leniz* [CVL] eta *AZBE*) eta Eskoriatzan (*Talleres Escoriaza* [TESA]). Gainera, giltzarrapoak egiten dira Arrasateko *IFAM* lantegian. Bergara izan da ehungintzaren bihotza eta, zehatzago esateko, *Algodonera San Antonio*, orain *TAVEX* deitzen dena. Eibarren egin dira bizikletak: *Orbea*, *GAC*, *BH*. Eibarren eta Elgoibarren egin dira josteko makinak: *Alfa* (Eibar) eta *Sigma* (Elgoibar) lantegietan. Elgoibar da makina-erreminten ardatza (*Danobat*, *Kondia*, *Goratu*), baina inguruko herrietan ere bada:

¹ Mikel Alberdi "Orbe"-ri, Jabier Elorzari, Juan Mari Garaikoetxea "Txepe"-ri, Juan Jabier Garmendia "Salon"-i, Jon Mijangos Bergarari eta, batez ere, Jesus Oleagari eskerrak eman nahi dizkiet atal hau osatze aldera eman didaten laguntzagatik. Dena dela, eta laguntzak laguntza, izango dira hutsuneak eta akatsak, baina horiek neureak dira.



 Arrasate, sarrailagintzaren eta kooperatiben bihotza.

Eibarren (*Acha, Delteco, Egasca, Jaz-Zubiaurre*), Bergaran (*Soraluze Coop., Lazpiur*) eta Soraluzen. Esanguratsua izan da, esate baterako, azken herri horretako *Sacia* lantegia. Hainbat taller txikitan egin dira eskopetak eta era guztietako armak, baina Soraluzeko *SAPA* —Andoainen dago orain— eta Eibarko *AYA, Victor Sarasqueta* eta *Star* izan dira denetan ezagunenak.

Torlojugintzak ere indar handia dauka. Hainbat lantegi txikik dihardu horretan; gehienbat, Bergaran (*Ezenarro, Metagra, Tornillería Deba*), Soraluzen (*Oruesagasti, Pascual Txurruka, Alejandro Urrestarazu, Carmelo Mendizabal*) eta Eibarren.

Metalurgia alorrean, garai bateko *Amat* eta *Talleres Uribesalgo* Arrasaten eta *Aurrera* Eibarren dira nabarmendu beharrekoak. Gaur egun, berriz, *Garai* eta *Txintxurreta* Oñatin,



Eibar, armak, josteko makinak, bizikletak... denetarik egin den herria.

Mayc eta *Altos Hornos de Bergara* —orain *Arcelor*— Bergaran eta *Alfa* Eibarren dira esanguratsuenak.

Azken hamarkadotan inportantzia handia hartu du automobilendako osagaiak egiten dituen arloak: Bergarako *Fit*, Soraluzeko *Gol*, Eibarko *Mendiguren y Zarraua* eta *Engine Power*, Itziarko *Jegan*, Mallabiko *Monroe*... dira nabarmentzekoak.

Maila handiko beste lantegi ugari izan dira Deba ibarrean, eta gaur egun ere badira. Arrasaten, esate baterako, *Roneo* bulegoko altzari eta tresnagintzan, eta *ELMA* kafe errotagintzan, izan dira ezagunak. Eibarko *Lambretta* fabrian motorrak egin dira, eta lisaburdinak *Solac*-en eta *Jata*-n, labanak, berriz, Soraluzeko *Alberdi Hermanos*-en eta Ermuko *Cuchillería del Norte*-n. Ospe handikoak izan dira, era berean, armagintzarekin



 Danobat Kooperatiba (Elgoibar), makina-erremintaren ekoizle nagusia.

lotuta Eibarren garatu diren damaskinatua eta grabatua. Gaur egun, berriz, industriarako osagaiak egiten dituen *Goizper* eta automatismoak egiten dituen *Matz erreka* Antzuolakoak, pilak eta elektrizitate gaiak egiten diharduen *CEGASA* Oñatikoa, konpresoreak egiten dituen *ABC* Eibarkoa, eta beste asko dira aipatu beharrekoak.



 Antzuola, iraganean larrugintzan jardundakoa, eta gaur egun mota guztietako lantegiak dituena.



 *Fagor, MCCren zutaberik sendoenetakoa.*

Eta tankera horretako lantegiez gainera, oso bestelakoak ere izan dira; Mendaroko *Saint Giron*s eta Oñatiko *Zahor* txokolate fabrikak, esate baterako. Edo Altzolako bainuetxea Elgoibarren, azkenaldian bainuetxe izatetik ur botilatuaren ekoizle izatera aldatu dena. Antzuolan, berriz, larrua landu da, eta egurra Elgetan. Arrasaten, azkenaldian, *Arrasate Import* etxea sortu da, *Astore* eta *Ternua* izeneko kirol jantziak egiten dituen.

Kirola aipatu denez, arlo horrekin lotutako enpresak ere badira. Eibarkoak dira *Eibar* futbol taldea eta *Arrate* eskubaloit taldea. Espainiako Futbol Ligako 2. mailan luzaroan jardun ostean, aurrean jaitsi da *Eibar* 2B mailara. *Arratek*, berriz, “Asobal” Ligan dihardu, Espainiako eskubaloit lehiaketa nagusian. Eta kirol elkarte horietaz gainera, pilotaleku ezagun bi ere badira: Bergarakoa eta Eibarkoa. Pilotaren “katedrala” deitu izan zaio, hain zuzen, Eibarko *Astelena* frontoiari, baina itxita dago azkenaldi honetan.



 *Mondragón Corporación Cooperativa (MCC). Arrasateko egoitza nagusia.*

Horrekin guztiorrekin batera, jakina, kooperatiba sarea aipatu behar da. 1956an sortu zen, eta berogailuak eta sukaldeak egiten zituen Arrasateko *ULGOR* lantegia izan zuen ardatza. Sekulako hazkundera eta zabalkundera izan du harrezkero. Deba ibarrean eta Euskal Herri osoan ez ezik, nazioartean ere hedatu da eta, bertako iturrien arabera, 68.000 langile inguru ditu gaur egun mundu zabalean. Gipuzkoako industriagintzan bera da lehen taldea, eta herrialde horretako produktu gordinaren %8 sortzen du.



 *Ulma Taldea, Oñati.*



 *Eroski, MCCren banakuntza sarea.*

1991z gero, *Mondragón Corporación Cooperativa (MCC)* deitzen da egitura, eta hiru sail ditu bere barruan:

a. Finantziazioa: *Euskadiko Kutxa*. Horri atxikita, *Lagun Aro* aseguro etxea dago.

b. Banakuntza: *Eroski*.

c. Produkzioa. Lantegi asko dago honen barruan, eta hainbat gai lantzen da horietako bakoitzean. Hauexek dira esanguratsuenak: etxetresnak (*Arrasate*, *Eskoriatza* eta *Oñati*: *Fagor*), etxetresnen osagaiak (*Aretxabaleta*: *Copreci*), automobilendako osagaiak (*Eskoriatza*: *Ederlan*), urbero termoak (*Bergara*: *Geyser Gastech*), eraikuntza



Euskadiko Kutxa, MCCren finantziazioaren ardatza.



Arizmendiarieta apaiza,
kooperatiben sortzailea.

(Oñati: *ULMA* taldea), zerbitzuak (*LKS*, *Alecop* eta *Ikerlan* Arrasaten eta *Ideko* Elgoibarren)...

Azken hamarkadotan, leku ezak eraginda, industriagune berriak eraiki dira; Itziarkoa eta Mallabikoa dira esanguratsuenak. Eibarko eta Elgoibarko industria kokatu da, gehienbat, Itziarren, eta Eibarkoa eta Ermukoa, Mallabian. Deba ibarretik kanpora ere joan dira lantegi zenbait, Eibartik bereziki. Gehienbat, Gasteiz, Zumaia, Berriz eta Abadiño aldera aldatu dira.

Baina lantegiak ez ezik, lantegietako harrobiak ere sortu dira Deba ibarrean; ikastetxeak, alegia. Horretan ere ikusten da, beraz, eskualdearen kemena. Uste izatekoa denez,



 *Elgoibarko Makina-Erremintaren Institutoa, bere alorrean aitzindaria.*

bertako industriari lotuta dago irakaskuntza. Eibarko *Armeria Eskola* eta Arrasateko *Escuela de Aprendices de la Unión Cerrajera* eta *Eskola Politeknikoa* izan dira antzinakoenak eta ezagunenak.

1968an eraiki zen Eibarko Lanbide Unibertsitatea. EHuren barruan dago orain eta *Industria Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskola* deitzen da. Izen eta ospe handia bereganatu du, era berean, Elgoibarko *Makina-Erremintaren Institutuak*. Eta horiekin batera, Mondragón Corporación Cooperativaren babesean, 1997an sortutako *Mondragon Universidad* aipatu behar da. Hiru fakultate ditu bere baitan: Ingeniaritza Arrasaten, Enpresa Zientziak (ETEO) Oñatin, eta Irakasle Eskola (HUHEZI) Eskoriatzan. Ikastetxe horiek baino maila bat gorago, ikergune esanguratsu bat ere bada Eibarren: *Tekniker*, Deba ibarrerako ez ezik, nazioarteari begira ere lanean diharduena.



Eskoriatzako Irakasle Eskola (HUHEZI).



Arrasateko Eskola Politeknikoa, Mondragon Unibertsitatearen ardatz nagusia.



 *Jorge Oteizaren Apostoluak (Arantzazu). Lantegiez gainera, besterik ere bada Deba ibarrean.*


Helburu zabal eta orokorragoko ikastetxeak ere badira Deba ibarrean, eta oso antzinatik izan dira, gainera. 1540koa da *Oñatiko Unibertsitatea*. Ez zuen hura Deba ibarreko gizartearen kemenak eta eskabideak sortu, gehienbat Oñatiko semea zen Rodrigo Mercado Zuazola apezpikuaren grina errenazentistak baizik. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartek sortu zuen, era berean, *Bergarako Erret Mintegia* 1776an, urte gutxiren tartean bada ere, ikerkuntza eta irakaskuntza gunen indartsua eta esanguratsua izan zena. 1975az gero, *UNED*ek dihardu hura zegoen lekuan, eta 2001az gero, Eibarren dauka egoitza *Udako Euskal Unibertsitateak (UEU)*.

Deba ibarra eta euskara

Deba ibarreko gizartea guztiz euskalduna izan da oraintsu arte, eta bertako eguneroko jarduna hizkuntza horretan egiteaz gainera, euskararen aldeko lekukotasun garbiak utzi ditu historian barrena.

XVI. mendekoak dira euskarazko lehenengo izkribu ezagunak, eta leku nabarmena dauka ibar horretako bizilagun batek: Esteban Garibai arrasatearrak. Ahoz aho ikasitako kantuak eta esaera zaharrak bildu zituen.

Apurra da XIX. mendea baino lehen euskaraz idatzi den “literatura”, eta apur horren artean dago ibar horretako beste bizilagun baten lana: *Acto para la Noche Buena* teatroa, XVIII. mendearen lehen erdian idatzia. Aramaion jaio eta Arrasaten bizi zen Pedro Ignazio Barrutia da egilea.

Apurra da, era berean, euskarak Administrazioako idatzizko zereginetan izan duen lekua, eta esanguratsua da Deba ibarrak apur horretan daukan tarte zabala. Hiru udal agindu daude, hirurak XVIII. mendekoak: 1705eko Arrasatekoa, 1754 inguruko Eibarkoa, eta 1783ko Bergarakoa (hirurak in Trebiño 2001).

Baina ondorengo hauxe da euskararen aldeko lekukotasunik gardenena. 1863an, XIX. mendearen erdian bertan, euskaraz mintzo omen zen Bergarako jende gorenena. Bonapartek eman zigun albistea:

Begarako hizkera bizkaitarra —eta ez giputza— diodanean, ondo baino hobeto dakit giputz garbi izaten ahalegintzen den Begarako handi jendeak ez duela deitua hori atsegin. Ez diot ezetzik, eta badakit, gainera, apaiz jakintsuenen sermoiak, eta baita ondo hezitako jendearen eguneroko jarduna bera ere, euskara giputzean, eta Beterriko euskara giputzik garbienean, gainera, egiten direla sarritan².

² Hauxe zioen Bonapartek frantsesez (in Urkijo 1910: 257): “Quand je dis biscayen et non pas guipuscoan de Vergara, je sais fort bien que cette manière de parler déplait à Messieurs les Vergarais qui se piquent d’être de purs guipuscoans. Je ne dis pas non, de même que je ne nie pas que les sermons de leurs curés les plus instruits et que souvent même le langage ordinaire des personnes les mieux élevées soient non seulement en guipuscoan, mais même dans la variété la plus pure de Beterri”.



 Eibarko Markeskua jauregia, Udako Euskal Unibertsitatearen egoitza.

Bergarako handi jendeak, beraz, ez omen zuen erabiltzen herri xehearen hizkera bera, Beterriko euskara giputza baizik. Gero izango dugu jokabide horren ondorioez zehatzago jarduteko aukera, baina garbi gera bedi behintzat, euskaraz hitz egiten zuela, eta ez erdaraz, beste alderdi gehienetako handi jendeak bezala.

Eta horrela edo horrelatsu izan ziren gauzak 1936 arte. Franco jeneralaren “Altxamenduak” ekarri zuen euskararen beherakada, eta hark ezarritako zigor eta debekuek isildu zuten euskarazko jarduna. Gerra ostean, gainera, egundoko jende uholdea iritsi zen Espainiatik alderdi horretara, eta erbestetik etorritakoak ez ziren denak burumakur



Bergarako Erret Mintegia (1776). UNED eta Arantzadi ikastola daude gaur egun bertan.

agertu, ohiko etorkinak bezalatsu. Batzuek, behintzat, gerra irabazitakotzat zeukaten euren burua, eta mendeen hartutako lekuaz jabetzera zetozelakoan zeuden. Gertakari bi horien ondorioz, euskara zapaldu eta gaztelania zabaldu zen. Arrasaten, Elgoibarren eta Eibarren gertatu zen aldakuntza lehenengo, eta Bergarara, Soraluzera, Aretxabaletara eta Eskoriatzara hedatu zen gero.

Dena dela, Ermukoa izan da gertakaririk latzena eta garratzena. Herri txikia eta euskalduna izan da orain gutxi arte, eta goitik behera aldatu da haren izaera eta nortasuna oso denbora tarte laburrean: 1960an 3.000 bizilagun izatetik 10.000 izatera iritsi zen



 *Oñatiko Unibertsitatea, 1540an sortua.*

1965ean (in Aranberri 1996: 26). Euren herritik inora joan gabe, erabat arrotz agertu ziren betiko ermuarrak etxe barruan, eta galegoa eta, batez ere, gaztelania gertatu ziren nagusi berri.

Gaur egun 132.500 ingurukoa da Deba ibarreko bizilagun kopurua, eta horietatik 77.600 dira euskaldunak, %58 gutxi gorabehera (in EUSTAT 2001). Zehatzago esateko, haxe da egoera:

Herria	Bizilagunak	Euskaldunak	% euskaldunak
Mutriku	4.655	4.006	86,05
Aramaio	1.421	1.216	85.57
Elgeta	955	812	85.02
Oñati	10.433	8.278	79,34
Antzuola	1.858	1.426	76.74
Leintz Gatzaga	236	181	76.69
Mendaro	1.403	1.069	76,19
Deba	5.025	3.827	76.15
Mallabia	1.089	803	73,73
Bergara	14.596	10.219	70.01
Aretxabaleta	6.018	3.905	64.88
Elgoibar	10.219	6.225	60.91
Soraluze	4.083	2.471	60,51
Eskoriatza	3.791	2.253	59,43
Arrasate	22.664	12.660	55.85
Eibar	27.673	14.335	51.80
Ermua	16.379	3.988	24.34
Guztira	132.498	77.674	58.62



 *Goiena telebista (GOITB), Platoa.*

Aurreratu dugunez, txarra da Ermuko euskararen egoera (bizilagunen %24 baizik ez da euskalduna), baina Eibarkoa (%51), Arrasatekoa (%55), Eskoriatzakoa (%59), Elgoibarkoa eta Soraluzekoa (%60), Aretxabaletakoa (%64)... ez da harrotzeko modukoa. Horien ondoan, dena dela, euskara sendago dagoen lekuak ere badira: Mutriku (%86), Aramaio eta Elgeta (%85) eta, esanguratsuagoa dena, badira euskarari ondo samar eutsi dioten herri hazi bi: Bergara (%70) eta, bereziki, Oñati (%79).

Baina ahulezia eta makaltasun guztiak gorabehera, gaur egun ere agerian dago Deba ibarraren kemena eta euskararen aldeko jarrera.

1959an, frankismo garai gorrian, euskarazko solasa entzuteko aukera sortu zuen Eibarko *Arrate Irratiak*, eta gaur egun ere iristen dira hango kantuak eta kontuak Bizkaiko eta Gipuzkoako alderdi zabalera. Pedro Gorostidi, Arrateko abadearen ahaleginari esker jaio zen irratia.



 *Mendaro, euskarari eustearen aldeko.*

1983an, berriz, *Arrasate Euskaldun Dezagun (AED)* elkarte sortu zen. Arrasateko euskaldunak batzea, euren jarduna bateratzea, eta jardun horri etekin handiagoa ateratzea ziren elkartearen asmoak. Bakoitzak politikan, erlijioan eta bizimoduan zituen ikusmolde bereziak alde batera utzi eta euskara ezarri zen elkartearen ardatzean. Andre eta gizon, zahar eta gazte, denetarik bildu eta egitasmoa gauzatu zen. Ondorengo urteetan, Hego Euskal Herriko hainbat bazterretan agertu dira tankera horretako euskara taldeak.

1988an, gainera, *Arrasate Press* herri aldizkaria etorri zen elkarte horren eskutik plazara. Euskara hedabideen esparruan sartzea eta euskaldunak euskaraz irakurtzen ohi-tzea ziren egitasmoaren helburuak, baina baita era guztietako jendea —kazetariak, irakurleak, babesleak— aldizkariaren inguruan biltzea eta euskara herriko eguneroko bizimoduaren erdi-erdian ezartzea ere. Ona izan zen emaitza, eta tankera horretako hainbat aldizkari sortu ziren Hego Euskal Herrian ondorengo urteetan.



Goiena.net atariaren aurkezpen eguna.

Hedabideen arlo horretan, hain zuzen, beste urrats esanguratsu bat egin zen 2000. urtean, eta berriro ere Deba ibarra izan zen aitzindaria; Debagoiena, zehatzago esateko. Herri bakarreko ahaleginak ez zirela nahikoa ikusita, eskualdeka antolatu eta jokatu beharra erabaki zen, eta Debagoieneko herriak batuta, *Goiena* hedabide sarea sortu zen. Harrezkerokoak dira, haren eredura, *Hitza* izenarekin Gipuzkoa gehienez eta Bizkaiko alderdi batean zabaltzen diren eskualdeko egunkariak.

Euskara hedabideetan sartzeari eman zaio, beraz, Debagoienean lehentasuna, eta hizkuntzaren *transmisioan* jarri da, oster, Deba ibarreko beste herri batzuetan arreta. Eibar eta Bergara izan dira aitzindari horretan.

1965ean, Eibarko euskararen hiztegia plazaratu zuen Toribio Etxebarriak. Ez zen Euskal Herrian egindako lehena, bazituen aitzindariak, baina oso hiztegi zehatza eta aberatsa zen Etxebarriak egindakoa. 1988an, berriz, Bergarako euskara ezagutze eta erakusteko aldera, herri horretako euskararen gaineko liburua egin zuten UNEDen ziharduten



EMUNeko zenbait kide lanean.

zenbait ikaslek eta irakaslek: *Bergarako euskera*. Hori bazen aitzindaria, herri jakin bateko hizkera aztergai hartuta Euskal Herrian egindako lehena.

Harrezkero, gramatikak, hiztegiak, hiztegi berezituak, eskoletako lanabesak... denetarik egin da Eibarren eta Bergaran, eta horren beharra eta egokitasuna ikusita, Hego Euskal Herriko udal askotan sortu dira antzeko egitasmoak bideratzeko diru laguntzak.

XX. mende hondarrean, berriz, lantegietan euskara gutxi erabiltzen zela, eta lantegiek euskararen aldeko jardunean ez zutela parte hartzen ohartuta, egoera irauli beharra aipatu zen.

Deba ibarrari dagokionez, badirudi 1986an egin zela lehen urratsa, *Arrasate Euskaldun Dezagun* elkarteak *Euskalan* taldea sortu zuenean, baina lehendik ere bazi-ren euskara lantegietan sartzeko ahaleginak, 1976an *Ularco* taldeak eginak (argibideak in Unanue & Intxausti 2002). Dena dela, Antzuolako *Elay* lantegian hasi zen bertako



Elgetako Espaloia Kafe Antzokia, 2004an eraikia.



Txatxilipurdi (Arrasate). Gaztetxoek astialdian euskara erabiltzea bultzatzen duen elkartea.

jarduna euskalduntzeko egitasmoa 1991n, eta huraxe izan zen Euskal Herri osoan egindako lehena. 1998az gero, Arrasaten sortutako *Emun* elkartearen esku dago tankera horretako egitasmoak antolatzeko eta bideratzeko erantzukizuna. Une honetan —2006ko irailean— 76 lagun ari dira *Emun*-en lanean, eta bera da alorreko talderik handiena Euskal Herri osoan.

Baina hedabideak, eskolak, liburuak eta lantegiak ez dira hizkuntza suspertzeko tresna bakarrak. Oso esparru esanguratsuak dira, esate baterako, lagunartea eta jolasa, eta arlo horietan ere egin dira zenbait urrats. Elgetan 2004an eraikitako *Espaloia Kafe Antzokia* nahi nuke, besteak beste, gogora ekarri. Elgetakoa, jakina, ez zen izan aitzindaria, Bilbon sortu zelako lehenengo Kafe Antzokia, baina nabarmentzekoa da mila bizilagunera iristen ez den herrian horrelako gunea sortzea, eta zentzuz eta ganoraz lanean jardutea.

Deba ibarreko euskara

Manuel Larramendi jesuitarenak dira Gipuzkoako euskararen gaineko lehenengo albisteak, eta Bizkaiko euskalkiarekin batu zuen Deba ibarreko zatirik handiena. Hauxe zioen XVIII. mendearen erdialdera argitaratu zuen hiztegian (Larramendi 1745: xxx):

Los lugares rayanos de Bizcaya usan más del dialecto de Bizcaya: los interiores, empezando desde Elgoibar, o desde Azcoitia por el lado septentrional, y desde Cegama y Segura por el lado de Navarra hasta Irún y Fuenterrabía usan el dialecto de Guipúzcoa.

Elgoibartik hegoalderako hizkerak Bizkaiko euskararekin bildu zituen, beraz, eta zalantzak izan zituen Elgoibarkoarekin berarekin. Ez zuen garbi erabaki Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalkien arteko muga herri horretan edo Azkoitian non jarri.

Zertxobait zehatzago jardun zuen urte batzuk geroago idatzitako, baina orain dela gutxi arte argitaratu gabe egon den *Corografía de Guipúzcoa* liburuan (Larramendi 1969: 301):

En Elgoibar y más en Eibar empieza el dialecto de Vizcaya en mucha parte: *eman eus-tan, egin eben, buruagaz*, etc., y corre por Placencia, más o menos por Vergara, Mondragón, Arechavaleta, Escoriaza, Salinas, Oñate y todas aquellas aldeas. En la marina de Motrico hasta Fuenterrabía apenas hay distinción del dialecto común de Guipúzcoa.

Badirudi bigarren saio horretan Elgoibar mendebaleko euskalkitik gertuago ikusi zuela, baina argi utzita, betiere, Eibar zela euskalki hori garbiro egiten zen lehenengo herria. "Tarteko" hizkeratzat jotzen zuen, nonbait, Elgoibarkoa. Mutriku eta, beraz, baita Deba ere, euskara giputzean sartu zituen, eta ez zuen Mendaro aipatu.

XIX. mendearen erdialdera, Bonapartek aldakuntza txiki batzuk egin zizkion Larramendik aurreko mendean esandakoari. Euskara giputzean sartu zuen Mendaro, Deba eta Mutrikurekin batera, eta Elgoibarko Altzola auzoan jarri zuen Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalkien arteko muga. Euskara giputzean sartu zuen, era berean, Bergarako Elosua auzoa (Bonaparte 1863).

Bonapartek, gainera, euskalkien mugak ez ezik, azpieuskalkienak eta hizkerenak ere zehaztu zituen, eta badira nabarmendu beharreko zenbait gertakari.

Lehenengo eta hasteko, Ermua eta Mallabia Lea-Artibaiko hizkeren multzoan sartu zituen, Markina, Ondarroa, Lekeitio eta euren inguruko herriekin batera. Eta multzo bere-
ra ekarri zituen Durangaldeko herri bi: Elorrio eta Zaldibar.

Deba ibarreko gainerako hizkerak, berriz, multzo bitan banatu zituen: Elgoibar, Eibar, Soraluze, Elgeta, Bergara —Elosua auzoa izan ezik—, Antzuola eta Oñati sartu zituen batean, eta Leintz harana eta Aramaio —Oleta auzoa izan ezik—, bestean. Arabako herri txiki batzuk ere sartu zituen bigarren multzo horretan, Arratzu-Ubarrundia eta Barrundia udalerrietakoak guztiak: Uribarri Ganboa, Landa, Marieta-Larrintzar, Elgea, Zuhatzu Ganboa, Ozeta, Hermua eta Larrea.

Jose Antonio Uriarte fraide frantziskotarra izan zen Bonaparteren albiste emaile Deba ibarrean. 1859ko urtarrilean, Mutrikun *det, dezu* adizkiak erabiltzen zirela esan zion (in Ruiz de Larrinaga 1954: 276) eta, jakina, hortik etorri zen Bonapartek euskara gipuztean sartzeko erabakia. Beste haxe esan zion urte bereko maiatzean idatzitako gutunean (in Ruiz de Larrinaga 1954: 279):

He examinado minuciosa y detenidamente el bascuence que se habla en los pueblos de Motrico, Deva, Mendaro, Alzola, Elgoibar, Eibar, Placencia, Vergara, Anzuola y Oñate; y en resumidas cuentas he averiguado que el cálculo que tiene formado S. A. es exacto. Deva, Mendaro y Motrico deben agregarse al guipuzcoano, y Alzola con Elgoibar y demás pueblos al vizcaíno. En Elgoibar sucede que la parte de la población, que se halla situada hacia Azcoitia, participa algo más del guipuzcoano, pero aún debe agregarse a Vizcaya, aunque esto no acomoda a los guipuzcoanos.

Handik hilabete geroago, berriz idatzi zion Uriartek. Herri horietako hizkerak zehatzago aztertu zituela, eta Alzola ere euskara giputzean sartu behar zela esan zion. Hauexek haren hitzak (281. or):

He resuelto que los pueblos de Motrico y Deva con Mendaro y Alzola deben agregarse al guipuzcoano; y Elgoibar, Eibar, Vergara, Elgueta, Anzuola, Oñate, Mondragón, Arechavaleta, Escoriaza y Salinas a Vizcaya.

Deba ibarrean bazterrik bazter zebilen Uriarte misio lanetan aldi hartan, eta hauxe idatzi zion berriro ere handik lasterrera (282. or):

Si en mi última decía a S. A. que Alzola debía agregarse al guipuzcoano con Mendaro, Deva y Motrico, ha sido porque así me ha parecido en vista de lo que últimamente he observado, y puede S. A. poner así sin cuidado en su mapa. Hace muy poco que yo mismo pasé desde Azcoitia a Vergara por Elosua en donde hablé con varios caseros en vascuence: no tengo duda que en los caseríos contiguos a la Iglesia y toda la falda del monte, que está hacia Azcoitia y Villarreal, y por consiguiente todo el pueblo, o la gran mayoría de Elosua, es de agregarse al guipuzcoano, y sólo los caseríos que están hacia Vergara, que son pocos, participan algo más del dialecto de Vergara; pero, sin duda alguna, Elosua debe agregarse a Gipúzcoa.

Gauza bera esan zion egun batzuk geroago (284. or):

Respecto al dialecto de Elosua he averiguado con toda certeza que el que se habla es el guipuzcoano de Azcoitia y Villarreal.

Elosuari dagokionez, Uriarteri jarraitu zion Bonapartek, baina Altzola Bizkaikoan sartu zuen, Elgoibarrekin batera.

Bonapartek esandakoari aldakuntza bi egin zaizkio harrezkero. Azkuek (1905-1906: xxix) euskara giputzean sartu zuen Altzola, eta Pedro Irizarrek (1991-1), Altzola ez ezik, Elgoibar osoa ere euskara giputzero aldatu zuen. Dena dela, Azkuek ez zuen bere erabakiaren arrazoirik eman, eta indikatiboko aditz laguntzailean oinarritu zen soil-soilik Irizar.

Gure aurreko aztertzaileek esandakoa aipatu dugu, eta gaur egun ikusten denarekin alderatuta, adostasunak eta desadostasunak ditugu.

Aipa ditzagun adostasunak lehenengo.

Alde batetik, erabat euskara giputzean sartu beharrekoa da Deba, eta are gehiago udalerrri horretan dagoen Itziar. Euskara giputzean sartu beharrekoa da, era berean, Bergarako udalerrian dagoen Elosua, batez ere Elizalde eta Aizpurutxo auzuneak, Uriartek Bonaparteri esan zion bezala. Aramaioko Oleta auzoak ere ez dauka Deba ibarrekin zerikusirik. Udalez Aramaiokoa den arren, Otxandiori begira bizi da, eta Otxandiokoa bezalakoa da hango hizkera.

Hona hemen, berriz, Bonaparterekin eta haren ondorengoekin ditugun desadostasunak.

Ermuko euskara Eibarkoaren antzekoa da, ia-ia berbera. Baita Ermua eta Eibar artean dagoen Eitzaga auzokoa ere, udalez Zaldibarkoa dena. Badira aldeak hortik Mallabira, baina herri hori ere ez zait iruditzen erabat Lea-Artibaikoen barruan sartu beharrekoa. “Tarteko” hizkeratzat jotzen dut: Deba ibarraren, Durangaldearen eta Lea-Artibairen bitartekotzat (Mallabiko hizkeraren argibideak in Mugarza 2006).

Mallabiko hizkeraren egoera ulertzeko, herri horren izaera eduki behar da gogoan. Udalerrri zabala da, auzo askok osatua. Herrigunea, berriz, txikia da, eta ez du izan auzoak bere ingurura ekartzeko indar nahikoa. Eta, ostera, beste hirigune haziago batzuk izan dituzte auzo horiek gertuan: Durango, Markina eta Eibar. Azken batean, hiru hirigune horien eragina nabari da Mallabiko euskarari, batez ere auzo jakin batzuetako jardunean. Berriz eta Durangorako isuri garbia ikusten da, esate baterako, Zengotita auzoko hizkeran, eta Bolibar eta Markina aldekoa, berriz, Gereaa auzokoan. Elizaz ere, hain zuzen, Berrizi dagokio Zengotita eta bere parroikia dauka Gereak, baina Markinako artzapez-barrutian dago, eta Durangokoan, aldiz, Mallabiko gainerako auzoak. Kontuan eduki behar da, gainera, Bilbo-Durango-Markina-Ondarroa errepideak zeharkatzen duela Mallabia, eta nabarmena izan da errepide horren eragina. Labur esanda, Mallabiak Deba ibarreko gainerako herriek baino lotura estuagoak ditu Bizkaiarekin, eta hizkuntzan ere agerian dago hori.

Oñatiko hizkerari dagokionez, Elgoibar eta Bergara bitartekoekin batera sailkatu zuen Bonapartek, eta ez zait iruditzen erabaki zuzena. Alderdi horretako hizkerekin badauka kidetasuna, baina Leintz haranekoekin eta Aramaiokoarekin dauka antzekotasun handiagoa. Dena dela, nortasun beteko hizkera da Oñatikoa.

Gaur egun ezin dugu ezer esan Bonapartek Deba ibarreko herriekin batera kokatu zituen Arratzu-Ubarrundia eta Barrundia udalerrri arabarretako hizkereaz. Guk ezagutu gabe galdu dira, eta lekukotasun idatzirik ere ez dago alderdi haietan egiten zen euskaraz. Baina gauza bat indartuko luke Bonaparteren ikuspegia zuzena izateak: Leintz haranak eta Oñatik Arabarekin izan dutela iragan garaietan hartu-emana.

Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko hizkerak dira sailkatzen zailenak. Azken batean, ez han eta ez hemen sailkaezinak dira. Euskalki batetik eta bestetik elikatu dira, eta euskal-

ki bataren eta bestearen ezaugarriak dituzte aldi berean, Bizkaikoak bezala Gipuzkoakoak. Euskalkien, azpieuskalkien eta hizkeren arteko mugak lerro zehatz eta bakarraz bereizi dira Bonapartez gero etorri zaigun tradizioan, baina “tarteko hizkerak” aipatu dira Euskal Herritik kanpoko dialektologiagintzan. Elgoibarkoa, Mendarokoa eta Mutrikukoa horietakoak dira bete-betean.

Horren harira, Pedro Irizarren hitzak ekarri nahi ditut gogora. 2003ko udaberrian, hura hil baino hilabete gutxi batzuk lehenago, argitaratzeko prest neukan euskalkien mapa berriaren zirriborroa (in Zuazo 2003: 26-27) bidali nion Madrilara, bere iritzia eman ziezadan. Hauxe idatzi zidan, esku dardartiarekin, bere bizi luzean Euskal Herri osoko aditza etengabe aztertzen jardun zuen gizonak:

Aitatzen dituzun “tarteko hizkera” hoiek gustatu zaizkit. Buruhauste galantak izan nituen nik Elgoibarko hizkera Bizkaiko euskeran edo Gipuzkoakoan nun sartu erabakitze orduan. Zu lixtuagua izan zera. Ederki asmatu dezu.

Nik, jakina, ez nuen ezer “asmatu”. Erbestean aspaldi asmatuta zegoena ekarri nuen etxera.

Horiek horrela, hiru hizkuntza eremu bereizten ditut gaur egun Deba ibarrean, eta Debabarrena, Erdigunea eta Debagoiena deituko ditut:

1. **Debabarrenean**, Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko Astigarribia auzoa sartu ditut. Baita Mutriku bera ere, baina berezia da horko hizkera. Mendebaleko eta erdialdeko euskalkien arteko hizkerak dira Debabarrenekoak, euskalki handi bi horien arteko lotura egiten dutenak.

2. **Erdigunean**, berriz, Ermua, Zaldibarko Eitzaga auzoa, Eibar, Elgeta eta Soraluze sartu ditut. Baita Bergara —Elosua auzoa izan ezik— eta Antzuola ere, baina berezia da herri bi horietako hizkera, euskara giputzaren eragin bizia duena.

3. **Debagoienean**, azkenik, Aramaio —Oleta auzoa izan ezik— eta Leintz harana osatzen duten Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga sartu ditut. Baita Oñati ere, baina berezia da horko hizkera.

Mallabia, oster, *tarteko hizkeratzat* hartu dut: Deba ibarraren, Durangaldearen eta Lea-Artibai eskualdearen arteko lotura egiten duena.



Sailkapena egin ondoren, *hizkuntzak izaki biziak* direla ekarri nahi dut gogora, eten-gabe aldatzen ari direnak. Hiztunen ahoan bizi dira hizkuntzak, eta hiztunen jokabideak aldatu ahala, hizkuntza ere haiekin batera aldatzen da. Teorian denok aho batez onartzen dugun egia hori, praktikan ahaztu egiten dugu sarri.

Debabarrenean, esate baterako, aspaldi giputzago zen Mutriku bizkaitartzen ari da gaur egun. Ondarroara eta Markinara joan ohi dira mutrikuar asko ikastera, eta bai Ondarroa eta bai Markina oso herri euskaldunak direnez, hango hizkera kutsatu da mutrikuarren jardunean. Hartu-eman, gainera, ez da ikasketetara mugatu, astialdian ere sarri joaten direlako mutrikuarrak Ondarroara, eta hartu-emanaren ondorioz, bikote asko sortu dira herri bietako gazteak elkartuta. Jakina, bikote horien seme-alaben hizkerak ez dira gurasoenak bezalakoak, bien nahasketa baizik. Horixe da, labur esanda, Mutrikun gertatzen ari dena, eta Elgoibarren, Mendaron eta Mutrikuko Astigarribia auzoan, berriz, alderantzizko norabidea ikusten da: garai batean bizkaitarrago ziren hizkerak gipuzten ari dira.

Deba ibarreko erdigunean ere aldakuntzak nabari dira. Eibarri begira bizi zen Elgeta antzina. Haraxe joaten ziren lanera eta ikastera, eta Eibarrera lasterrago joateko egin zen gerra aurrean errepidea. Gaur egun, oster, Bergara da jomuga. Haraxe doaz 12 urte bete orduko Elgetako neskato-mutikoak eskolara eta, jakina, Bergarako hizkera ari da zabal-tzen Elgetara.

Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetako hizkerak ere bereziak izan dira oraintsu arte, Elgetakoaren antzekoagoak. Udalez ere Elgetakoak izan ziren 1928 arte eta oraindik ere Ubera Elgetari dagokio elizaz. Gaur egun, oster, Bergarako euskara zabalduta da auzo horietara, eta ez dago alde esanguratsurik hango eta Bergarako herri barruko gazteen jardunean.

Hemen aurkeztu dugun Deba ibarreko hizkeren mapa, beraz, une honetako euskara-ren isla da, laster barru alda daitekeena eta, ezbairik gabe, aldatu ere egingo dena. Ondorengo atalean erakutsiko da zertan oinarritzen dugun geure ikuspegia.

DEBA IBARREKO EUSKARAREN EZAUGARRIAK

Cer ete da andra erdiaen çauria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Alabaya, contrario da Milia:

Azpian lur oça, gañean arria.

Lasturrera bear doçu, Milia.

Ayta jaunac eresten dau elia,

Ama andreac apaynquetan obia.

Ara bear doçu, Milia.

Iausi da cerurean arria,

Aurquitu dau Lasturren torre barria,

Edegui dio almeneari erdia.

Lasturrera bear doçu, Milia.

Arren, ene andra Milia Lasturco,

Peru Garciac eguin deuscu laburto:

Eguin dau andra Marina Arraçolaco.

Ezcon bequio, bere idea dauco.

Milia Lasturkoaren kantuaren hasierako bertsoak,

Esteban Garibai arrasatearrak (1533-1599) jasoak.

Zein dira “ezaugarri”?

Dialektologiako lanak aspergarri eta gogaikarri gertatzen dira sarri. Hizkuntzan diren txikikeria eta bitxikeria guztiek liluratzen dute zenbait ikertzaile, eta irakurleari eraman ezina gertatzen zaio haiek aurkeztutako ezaugarri zerrenda amaigabea. Irakurlea izutzeaz eta uxatzeaz batera, hizkuntzaren ikuspegi lausoa eta okerra hedatzen dute, gainera. Bitxikeriak aipatzen dira, baina zenbat hitunek eta zenbat bider, non, noiz eta nola erabiltzen diren zehaztu gabe. Eta, jakina, “ñabardura” horiek oinarri-oinarrizkoak dira.

Guk oinarritzotzat dauzkagun gertakari horiei jaramon txikia egin zaie orain arteko euskal dialektologiagintzan eta, beraz, beste bide batzuk urratu nahi ditugu saio honetan. Jakina, Deba ibarreko euskara erabiliko dugu horretarako adibide eta eredu.

1. “Arauk” eta “bitxikeriak”

“Araua” eta “bitxikeria” zeri esaten diodan jakiteko, hona hemen zenbait adibide.

Mendebaleko *artazi* hitza erabiltzen da Deba ibarreko eremu zabalean, Euskal Herriko gainerako alderdietan *aiztur* edo *guraize* esan ohi dena, baina *artazi* ez ezik, *artati* ere entzuten da inoiz herri batzuetako hiztun batzuen jardunean. Hizkuntzalariek aipatzen duten “asimilazioa” gertatu dela ematen du, hau da, hots batek bere ondokoa bereganatu eta biak berdindu direla. Formula baten bidez azaltzeko, $t - z \longrightarrow t - t$ gertatu da.

Gauza da $t - z \longrightarrow t - t$ bilakaera ez dela betetzen gainerako hitzetan. Adibide bakartia da *artati* hori, ezustean gertatu dena. Adibide bakarti horren gaineko zehaztasunak biltzen baditugu, berriz, ondorengo honetaz jabetuko gara. Hasteko, Deba ibarreko erdiguneko herri gutxi batzuetan baizik ez da erabiltzen eta, jakina, eremu txikian erabiltzea berri samarra izatearen ondorio izan ohi da. Sarri esandakoa eta ondo frogatutakoa da eremu zabalean erabiltzen diren ezaugarriak antzinakoak direla, eta eremu urrikoak,

aldiz, oraintsukoak izan ohi dira. Bestalde, adin handi samarreko hiltzuek erabiltzen dute *artati* hori; ez gazteek. Beraz, iragana ez ezik, etorkizuna ere laburra izango duela antzematen zaio. Adineko hiltzuek ere, gainera, *artazi* nahiz *artati* biak erabiltzen dituzte. Gure *artati* bitxia, azken batean, ez da batere ohikoa Deba ibarreko eguneroko jardunean; guztiz bazterreko gertakaria da, oso bigarren mailakoa.

Antzekoa da ondorengo adibidea. Deba ibarreko zenbait herritako zenbait hiltzuek *baikotz* aldaera erabiltzen dute zenbait aldiz, *bakoitz* orokorrekin batera. Adineko hiltzuek dira *baikotz* bitxia esaten dutenak; ez gazteak. Hiltzuntzalariek aipatzen duten “metatesia” gertatu dela ematen du oraingo honetan, hau da, hots bat —*i* bokala, gure kasuan— lekuz aldatu dela. Adibide bakartia da hori ere, ezustean sortu dena, eta oso herri gutxitan erabiltzen denez, ziurrenera berri samarra dena.

Metatesia aipatu denez, badira beste adibide bitxi batzuk Deba ibarreko zenbait alderditan. Aramaion (Ormaetxea 2006: 184) eta Mallabian (Mugarza 2006: 370), esate baterako, erdarako *señal* hitza *senalle* bilakatu da, Deba ibarreko eta Bizkaiko beste zenbait alderditan bezala. Ez da hotsik lekuz aldatu oraingo honetan, baina hots baten propietatea —bustidura— beste batera iragan da. Hau da, jatorrizko *ñ* hotsa, bustidura galduta, *n* egin da, eta jatorrizko *l* hotsa, propietate hori hartuta, *ll* bilakatu da.

Alderantzizko bidea egin da gaztelaniako *manzanilla* ‘kamamila’ hitzean, *mantzeliña* gertatu da-eta zenbait hiltzuen jardunean; besteak beste, Eibarren (Basauri & Sarasua 2003: 50) eta Bergaran (Elxepuru 2004: 419). Oraingo honetan *ll* → *l* eta *n* → *ñ* egin dira euskarara aldatzerakoan eta, gainera, lekuz ere aldatu egin dira.

Bergaran, era berean, gaztelaniako *llaneza* hitzetik datozen *laiñeza* eta *laiñeztu* erabiltzen dira aurkako zentzuan, hau da, ‘harrokeria’ adieran (Elxepuru 2004: 385). Oraingo honetan ere *ll* → *l* eta *n* → *ñ* bilakatu dira. Gipuzkoako eremu zabalean erabiltzen da aldaera hori, eta Lapurdin eta Nafarroa Behere aldean ere bada *laño*, ‘apala’ adierazteko, gaztelaniako *llano* hitzetik datorrena. Esate baterako, *Itsasoa laño dago* kantu ezagunean agertzen da, gutariko askok oker ulertu eta itsasoa *bare* (= llano) egotearen ordeztu, *laiño*z estalita egotea dela uste izaten duguna.

Dakidala, bustidura gertakari horiek ez dira batere ohikoak euskararen barruan; aipatutako hirurak dira Deba ibarrean entzun ditudan adibide bakarrak (argibideak in

Mitxelena 1961 [1977]: 200-201 eta Oñederra 1990)¹. Deba ibarrari dagokionez, gainera, ez dute indar handirik. Adinekoen jardunean entzuten dira gehienbat, eta haien artean ere ez beti eta erabat.

Kontuak kontu, tankera horretako bitxikeriak egoki daude lagunarteko solas eta jola-saldietarako, baina zorabiatu eta nahastu egiten dute hizkuntza ikasi nahian dabilena. Hitzun jakin batzuek oso noizean behin erabiltzen dituzten *bitxikeriak* bigarren mailan utzi eta hitzun denek eta maiz erabiltzen dituzten *arauak* eskaini behar zaizkio halakoari, eta hizkuntzalariak horietan erakutsi behar ditu garden eta garbi. *Hizkuntza ahalik eta arau gutxienekin ahalik eta ondoen eta ahalik eta osoen* azaltzea da hizkuntzalari zuhurraren zeregina eta, horretarako, etekin handieneko arauak bilatzen eta bereizten ahalegindu behar du.

Zer da, beraz, *araua*? Zehatza da erantzuna: *sistematikotasunez eta erabat* bete ohi den gertakaria.

Eta zein da *etekin handiko araua*? Galdera horren erantzuna ere zehatza da: *ahalik eta hitzun gehienek ahalik eta sarrien* gauzatu ohi dutena.

Hona hemen etekin handiko arauaren adibidea. Deba ibar osoan *-a* batekin amaitzen diren hitzei *a* artikulua eranstean zaienean, *-a + a* $\rightarrow$ *-ia / -ie* gertatzen da: *gauza + a* $\rightarrow$ *gauzia / gauzie*, esate baterako. Infinitoa da *-a* batekin amaitzen diren hitzen kopurua eta, beraz, infinitu bider gauzatzen da *-a + a* $\rightarrow$ *-ia / -ie* bilakaera.

Deba ibar osoan ez ezik, Bizkaian, Urolaldeko alderdi batean, Goierrin eta Nafarroako Burundan ere betetzen da, eta Araba osoan eta, gutxienez, Nafarroako Lana eta Ameskua eskualdeetan ere bazen antzina. Milaka lagun dira, hartara, *araua* gauzatzen dutenak, eta milaka lagun dira iraganean ere gauzatu dutenak, gertakaria hain eremu zabalean egoteak, oso aspaldikoa izatea dakarrelako ezinbestean.

¹ Iñaki Gamindek *oliñe* 'kedarra' (<gast. 'hollín') jaso du Mungiako Larrauri auzoan (2001: 104) eta handik gertuko Arrieta herrian (2001b: 71). Jon Arretxek (1994: 238), berriz, *kanpaliña* 'txilina' (<gast. 'campanilla') jaso zuen Basaurin.

2. Arau “emankorrek” eta arau “ihartuak”

Beste bereizketa bat ere egin behar da, gainera, arauen artean: *ihartuta* ote dauden ala gaur egun ere *emankorrek* ote diren begiratu behar da.

Garai batean izan zena, baina gaur egun bizitasunik ez duena da *ihartutako* araua. Deba ibarreko erdiguneko hizkera batzuetan, esate baterako, *-tzuk* pluralgilea izenari eransteke joera egon da, eta gaur egun ere *zer zapatatzuk jantziko dituzu?* tankerako esaldiak entzuten dira noizean behin adin handiko hiztunen jardunean, ‘zein zapata’ edo ‘zeintzuk zapata’ orokorren ordean (Eibarko adibideak, esate baterako, in Areta 2003: 266-267, Sarasua, Agirrebeña & Zenarruzabeitia 2005: 150). Joera horrek, ostera, ez dauka bizitasunik, eta pentsaezina egiten zait gazte jendearen artean *zein kalimotxotzuk dira guretako?* bezalako adibideak entzutea.

Morfologia alorreko adibidea zen aipatu berri duguna, baina arauak *ihartzea* fonologia alorrean izaten dira ohikoagoak eta arruntagoak. Hona hemen horren lekukotasuna. Gipuzkoan eta haren inguruan *f* → *p* egiteko joera izan da, eta Deba ibarreko iparraldera ere iritsi zen bilakaeraren indarra, besteak beste, Elgoibarrera. Bertako adin handiko hiztunen jardunean bildu ditu Jesus Mari Makatzagak (2007) ondorengo adibideak: *apari* ‘afari’, *kapitesnia* ‘kafea eta esnea’, *konpesau* ‘konfesatu’, *palta* ‘falta’, *pamilixia* ‘familia’, *pattal* (< gazt. ‘fatal’), *perixia* ‘feria’, *prantzesa* ‘frantzesa’, *prontoe* ‘frontoia’... Adin handiko hiztunen artean emankorra da, nonbait, araua, eta *depentza* ‘defentsa’, *diperente* ‘diferente’, *golpeixa* ‘golferia’, *inpanteixia* ‘infanteria’, *pigura* ‘figura’, *pijo* ‘fijo’, *plakua* ‘flakoa’, *teleponua* ‘telefonoa’... ere egin dira. Gauza da gazteriak ez daukala /f/ esateko ezinik, eta bertan behera gelditu da *f* → *p* egiteko ohitura. Adin handiko hiztun batzuen artean arau emankorra den arren, ez da hala *elgoibartar gehienen* jardunean.

Aldiz, arestian hizpide izan dugun *-a + a* → *-ia* / *-ie* gaur egun ere arau emankorra da. Zahar eta gazte, handi eta ume, denek baliatzen dute, eta euskal hitz zaharretan ez ezik, erdaratik sartutako edo euskaratik sortutako berrietan ere gauzatzen da. Oso berria da, esate baterako, *viagra* hitza, eta *biagria* / *biagrie* bilakatu da Deba ibarreko jardunean. Garbi dago, azken batean, etekin handiko araua dela *-a + a* → *-ia* / *-ie* eragiten duena, eta hizkuntzalari zuhurrak horrelakoei eman behar lieke erabateko lehentasuna.

3. “Garatu gabeko” arauak

Hirugarren bereizketa bat egitea ere komeni da arauen barruan, eta *garatu gabeko arauak* direla-eta esan nahi ditut zenbait hitz.

Garai batean abian jarritako bilakaerak dira, baina erabat errotu eta hedatu ez direnak eta, jakina, dagoeneko ihartuta daudenak. Hona hemen horren adibidea. Ezaguna da mendebalean *u-* dagoela hitz jakin batzuen hasieran: *uger* ‘igeri’, *ule* ‘ile’, *untza* ‘iltze’, *(h)uri* ‘hiri’, *urten* ‘irten’, *urun* ‘irin’, *uzen* ‘izain’... dira horietako zenbait. Ez dira asko; aipatu direnak eta lau edo bost gehiago. Ezin esan daiteke, beraz, hitz hasierako *i-* —> *u-* egin dela mendebalean, hori ez delako ‘araua’, hitz gutxi eta jakin batzuetan gertatutako bilakaera baizik. Emankorra ere ez da, gainera, eta pentsaezina egiten da, esate baterako, gure artean oraintsu samar zabaldu den *intifada* hitza **untifada* entzutea inori.

Beraz, eta azken batean, Deba ibarreko *arau emankorrek* erakutsiko dira sail honetan. Tartean, dena dela, badira oraintsu arte arau emankor izan eta gaur egun ihartzen ari den bat edo beste ere. Euskara batua sortu eta irakaskuntzan, hedabideetan eta eguneroko bizimoduko esparru guztietan sartu denetik, baztertu eta galdu egin dira herri hizkeretako ezaugarri asko. Galtze horrek batzuetan ez dakar oker handirik, baina, besteeetan, hizkuntzan hutsuneak sortzea eta hizkuntza ahultzea izan da emaitza. Onurakoa izan daiteke, beraz, berriro biziartztea edo, besterik ez bada ere, hiztunari eskura dituela gogora ekartzea.

Bigarren mailan, eta arau emankorretatik argiro bereizita, *garatu gabeko arauak* ere erakutsiko dira.

Esan dezadan, sarrera hau ixte aldera, azterketa honetatik kanpo gelditu direla euskara giputz garbia egiten den Deba, Itziar eta Bergarako Elosua auzoa, euskara bizkaitar garbia egiten den Aramaioko Oleta auzoa, eta Bizkaiko eta Deba ibarreko hizkeren tartekoa den Mallabikoa. Dena dela, hizkera horietako argibideak ere ekarriko dira noizean behin mahai gainera.

FONOLOGIA

Bokalak

(1) Hego Euskal Herriko eremu zabalean *a* —> *e* egiteko joera dago *i* eta *u* bokalen ostean: *ogia* —> *ogie*, *laguna* —> *lagune*. Deba ibarrari dagokionez, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako baserri auzoetan, Aramaion eta Mallabian gertatzen da. Baita Markinatik gertu dagoen Eibarko Aginaga auzoan (Areta 2003: 70, Sarasua, Agirrebeña & Zenarruzabeitia 2005: 79) eta, inoiz edo behin, Bergarako Elosua, Osintxu eta Angiozar auzoetan ere (Elxepuru 2004: 25). Eibarko eta Bergarako kalean, ostera, *a* da nagusi. Baita Leinzko hiru herrietako gazte kaletarren jardunean ere, baina adineko jendeak *a* nahiz *e* biak esaten ditu. Araua, beraz, atzeraka doa Deba ibarrean.

Dena dela, herri denetan daude hitz bereziak. Antzuolan, esate baterako, nahiz eta gehienbat *a* bere horretan gorde, *behintzet* 'behintzat', *bieltu* 'bidaldu', *biheko* 'beharko', *bihetz* 'behatz', *die* (eta *dia*) 'dira', *ikeratu* 'ikaratu', *iketx* 'ikatz', *izen* 'izan', *maietz* 'maiatz', *Oñeti* 'Oñati', *ugeri* 'ugari'... esan ohi dira (Larrañaga 1998).

a —> *e* egiteko joera berri samarra da Deba ibarrean. Ez da agertzen XIX. mendea baino lehenagoko izkribuetan eta, Aramaioko hizkera dela eta, hauxe esan zion Pedro Luis Herranek Jose Antonio Uriarte, Bonaparteren laguntzaileari, 1862ko uztailean (in Ruiz de Larrinaga 1957: 439): herri horretan *eskua*, *burua*, *angerua* 'aingerua', *liburua*, *semia* 'semea', *basua* 'basoa', *otsua* 'otsoa' esaten zirela; *a*-rekin, beraz, beti.

Gaur egun, ostera, *a* —> *e* egiteko joera indartsua da Aramaion, eta artikulua denean ez ezik (*egune* 'eguna', *mutille* 'mutila'), beste ingurune zailago batzuetan ere gauzatzen da: *ezkondute* 'ezkonduta', *harrike* 'harrika', *dakigune* 'dakiguna', *nutzule* (< *neutsula*) 'nizula', *dozuleko* 'duzulako'... (Ormaetxea 2002: 20-23).

Gertakaria berria delako, ziurrenera, ez du Leintz Gatzagan indarrik hartu. Mendian gora joanda, Leinzko gainerako herrietatik bereiz samar dago Gatzaga, eta bere bakar-dadeak eragotzi du, beharbada, araua han hedatzea. Bere bakardadea izan daiteke, era berean, Oñatira iritsi ez izanaren arrazoia edo, bestela, bilakaera hori dotorea ez delakoan gaitzestea, Bergaran-eta gerta zitekeen bezala.

(2) Euskal Herriko beste alderdi askotan bezala, Deba ibar osoan ere /e + a, e, o/ → i eta /o + a, e, o/ → u bilakaerak gauzatzeko joera dago: *etxea* → *etxia* / *etxie*, *lepoa* → *lepua* / *lepue*. Emankorrek dira, gainera, arau biak: *aluzinantia* ‘aluzinantea’, *zedia* ‘CD-a’, *bideua* ‘bideoa’, *pornua* ‘pornoa’... 2002. urtean, *Prestige* izeneko petroliontzia hondoratzean zabaldu zen *chapapote* ‘galipota’ hitza, esate baterako, *txapapotia* / *txapapotie* esan zen eskualde horretako jardunean.

Arauen antzinatasunari dagokionez, XVIII. mendeko Pedro Ignazio Barrutia aramaiorren teatroan agertzen dira lehenengoz Deba ibarrean (in Latxaga 1983), baina sistematikotasunik gabe. 1754 inguruko Eibarko Udal Aginduan, ostera, erabat betetzen dira.

(3) Euskal Herriko eremu zabalean dago /i + a, e, o/ artean epentesiren bat sartzeko joera, baina Deba ibar aldeko bereizgarria da [j] hotsa, idatzian x bidez adierazi ohi dena: *mendia* → *mendixa* / *mendixe*.

Arau emankorra da: *anbulatorixua* ‘anbulatorioa’, *bikinixa* ‘bikinia’, *estrategixia* ‘estrategia’, *euforixia* ‘euforia’, *fotokopixia* ‘fotokopia’, *kibixa* ‘kiwia’, *pedofilixia* ‘pedofilia’, *uranixua* ‘uranioa’... 2004an gure artean zabaldu zen *tsunami* hitz japoniarra, era berean, *tsunamixa* / *tsunamixe* egokitu zen eskualde horretako jardunean.

Dena dela, arrazoi ezezaguneko salbuespenak ere badira Deba ibarreko hizkera gehienetan: *gorantziak*, *guztia*, *ipurdia*... Gaztelaniaz diptongoa duten hitz askotan ere ez da epentesirik sartzen zenbait hizkeratan; besteak beste, Eibarkoan: *burokrazia*, *farmazia*, *industria*, *justizia*... (Sarasua, Agirrebeña & Zenarruzabeitia 2005: 65). Aramaioko salbuespenak, esate baterako, argiro zehaztu ditu Txipi Ormaetxeak (2006: 99 hh).

Ahoskera horren antzinatasunari dagokionez, berriz, 1754 aldeko Eibarko Udal Aginduan agertzen da lehenengoz Deba ibarrean.

(4) Bizkai aldeko bereizgarritzat jotzen da $-a + a \rightarrow -ea$ ($> ia, ie$) egitea: *neska + a* $\rightarrow$ *neskea* ($> neskia / neskie$). Dena dela, uste hori ez da guztiz zuzena; Urolaldeko hizkera batzuetan, Goierri osoan eta Nafarroako Burundan ere betetzen da. Beraz, Deba ibar osoan ere bada, Deba eta Itziar barruan direla. Emankorra da araua: *astronautia* 'astronauta', *autistia* 'autista', *kokainia* 'kokaina', *koka-kolia* 'koka-kola', *metadonia* 'metadona', *pastillia* 'pastilla', *SEAT Ibiza* 'SEAT Ibiza', *sidia* 'SIDA', *kapsulia* 'kapsula'...

Deba ibarreko lekukorik zaharrenetarik hasita dauzkagu bilakaeraren adibideak. Esate baterako, Esteban Garibai arrasatearrak XVI. mendean argitaratutako Milia Lasturkoaren kantuan hiru bider agertzen da (in Mitxelena 1964: 75-79): *edegi dio almeneari erdia*, *Lasturko torre gorea* eta *bidaldu dogu zeruetara karte*. Beraz, *almeneari* ($< almena + ari$), *gorea* ($< gora + a$) 'garaia' eta *karte* ($< karta + a$) 'gutuna'.

Bestalde, $-a + a \rightarrow -ea$ araua bete ohi den lekuetan, berdindu egin dira $-a$ eta $-e$ amaiera duten hitzak NOR kasu singularrean, eta *neska + a* $\rightarrow$ *neskia* bezala, *labe + a* $\rightarrow$ *labia* esaten da. Hori dela eta, *neskia* hitza *neska*-tik datorrenez, *labia* hitza **laba*-tik datorrela pentsatu da eta, uste ustel horren ondorioz, berez $-e$ amaiera duten zenbait hitz $-a$ amaierakotzat hartu dira.

Aldatu diren hitzak ez dira beti berberak herri guztietan, baina hauexek dira Deba ibarrean zabalduen daudenak: *agura* 'agure', *andra* 'andre', *arata* 'ahate', *basurda* 'basurde', *bela* 'bele', *golda* 'golde', *hoba* 'hobe', *kurutza* 'gurutze', *laba* 'labe', *landara* 'landare', *larra* 'larre', *lora* 'lore', *ota* 'ote [zuhaixka]', *sarda* 'sarde', *suba* / *suga* 'suge', *untza* / *ultza* 'iltze'... Baita *-kume* eta *-une* atzizkien eratorriak ere: *txarrikuma* 'txerrikume', *aterruna* 'aterrune'.

Gaur egun ihartuta dago $-e \rightarrow -a$ bilakaera. Ez erdaratik sartzen diren hitzetan, ez euskaratik bertatik abiatuta sortzen direnetan, ez da izaten nahasterik. Gaztelaniatik hartutako *debate* edo *transplante* hitzak, esate baterako, horrelaxe esaten dira; ez **debata* edo **transplanta*. Dena dela, *alanbra* 'gazt. alambre [burdin haria]' entzun izan dut adin handiko zenbait hitzunen jardunean.

(5) Debagoienera bada aurreko arauarekin lotutako bilakaera berezia: $-tza + a \rightarrow -tzaia / -tzaie$ egin da ($-tzia$ gainerako lekuetan). Aramaion, esate baterako, *bedartzaie* 'belartza', *bizitzaie* 'bizitza', *gesaltzaie* 'gesaltza [elur urtua]', *konfiantzaie* 'konfiantza', *labrantzaie* 'labrantza', *lokotzarie* 'lokatza'... esan ohi dira (Ormaetxea 2002: 29).

(6) Ikusi den *-a + a* —> *-ea* arauak *joan* eta *eroan* ‘eraman’ aditzetan ere badauka eragina. Aditz bi horien forma trinkoak *-a* batekin amaitzen direnez —*doa, daroa*—, atzizkiren bat gehitzean —*an, ala, alako*—, *a* bi elkartzen dira, eta hor ere *ea* (> *ia, ie*) egiten da: *doa + ala* —> *doeala* (> *doiala / doiela*). Horrelakoetatik sortu dira gero *noia* ‘noa’, *doia* ‘doa’, *goiaz* ‘goaz’, *daroiat* ‘daroat [daramat]’, *daroiazuz* ‘daroazuz [daramatzazu]’, *daroia* ‘daroa [darama]’...

Adizki horiek ez dira Deba ibar osokoak. Eremutik kanpo dago Debabarrena. Aramaion, berriz, *joan*-en adizkietan sartzen da *-i-*, baina ez *eroan*-enetan, nahiz eta *daroie* ‘daramate’ (eta *darue*) esaten den. Dena dela, *daroie* adizkia berezia da; gainera koena baino zabalagoa da horren eremua.

(7) *eduki*-ren adizkietako *-au-* diptongoa bere horretan gordetzen da (*daukat*) edo, bestela, *-a-* bilakatzen da (*dakat*). Oñatin, Soraluzen, Elgetan, Ermuan, Eibarren eta Debabarrenean egiten da sarri bigarren aukera. Aldiz, Bizkai gehienean nagusitu diren *-eu-* / *-e-* arrotzak dira Deba ibarrean; *deukot* / *dekot*, *deuko* / *deko*, *deukozu* / *dekozu*... ez dira erabiltzen alderdi hartan.

Bestela ere *-au-* diptongoari ondo eutsi zaio Deba ibarrean: *aurre*, *eza(g)utu*, *gaur*, *gauza*... Ez dira hara iritsi Bizkaiko leku askotan *-au-* —> *-eu-* (—> *-e-*) egin duten *eurre*, *ezetu*, *geur*, *geuze* tankerako aldaerak. Partizipioetan ere *-au* dago Deba ibarrean: *kontau*, *pasau*... Bizkai aldeko *konteu* / *konté*, *paseu* / *pasé* arrotzak dira han.

GARATU GABEKO ARAUAK

(1) Bizkaian bezala, Deba ibarreko alderdi batean ere *u-* dago hitz jakin batzuen hasieran: *ule* ‘ile’, *untza* / *ultza* ‘iltze’, *urun* ‘irin’. Bergara —Angiozar eta Ubera auzoak ez bestea—, Antzuola eta Debabarrena daude eremutik kanpora; *i-* dago herri horietan. Aldiz, *urten* ‘irten’ Deba ibar gehienean dago, Deban bertan izan ezik; *erten* esaten da han.

Orokor samarra da *ugaraxo* ‘igel’ aldaera. Mendaro eta Deba daude eremutik kanpora, eta baita Oñati ere, *txantxiku* hitz berezia erabiltzen delako han.

Eremu zabalekoa izan da, era berean, *uzan* / *uzen* 'izain' aldaera, baina gaur egun oso galduta dago harra bera, eta animalia galtzeak hitza ahaztea ekarri du². Badirudi Debabarrena egon dela eremutik kanpora. Elgoibarren eta Mendaron behinik behin, *itzain* esaten da.

Gaur egun arrotza da Deba ibarrean (*h*)*uri* 'hiri' hitza, baina Debagoieneko toponimian badira *Uribarri* tankerakoak, eta *uri* idatzi zuten antzinako Garibaik eta Barrutiak. Aldiz, Bizkai gehieneko *uger* 'igeri' ez da Deba ibarrera iritsi³, eta ezta, jakina, Bizkaiko mendebaleko *uzen* 'izen' ere.

(2) Euskal Herriko beste leku askotan bezala, Deba ibar osoan egiten da *e* → *a* dardarkari azkarraren aurrean zenbait hitzetan. Dialektologiaren ikuspegitik begiratuta, badira orokor samarrak diren aldaerak (*baztar* 'bazter', *edar* 'eder', *hasarre* 'haserre'), baina baita euskalki edo eremu jakin bateko bereizgarri direnak ere. Esate baterako, mendebaleko euskarakoak dira *barri* 'berri' eta *txarri* 'txerri'. Deba ibar osoan esaten da *txarri*, baina *berri* dago Bergaran, Antzuolan eta Debabarrenean.

Mendebalean *bardin* 'berdin' ere erabiltzen da, baina hori Euskal Herriko beste zenbait alderditan ere bada; Zuberoan eta Nafarroa Beherean barrena, bereziki. Deba ibarreko hizkera batzuetan ere bada, baina oraingo honetan ere *berdin* esaten da Bergaran, Antzuolan eta Debabarrenean.

Bizkaiko barrualdean beste hitz batzuetan ere gertatzen da *e* → *a*, baina hango *agartu* 'agertu', *akar* 'aker' eta *garri* 'gerri' aldaerak, esate baterako, arrotzak dira Deba ibarrean.

Badira, era berean, Bizkai gehienera ohikoak ez diren aldaerak eta Euskal Herriko erdialdekoak diruditenak. Debabarrenera eta Deba ibarreko erdigunera ere iritsi dira

² Eibarren, gainera, bestelako izena ere eman zaio: *ur buztan* (eta zenbaitek *odol buztan*) (Basauri & Sarasua 2003).

³ Juan Martin Elexpuruk (2004: s.v. *igári*) Leintz haranean *uger* esaten dela dio bere hiztegi zehatz eta aberatsen, baina ez dabil zuzen horretan. Aramaioko Oleta auzoan baizik ez da erabiltzen aldaera hori, eta *igeri* esaten da Aramaioko gainerako auzoetan eta Leintzen.

horietako zenbait: *basarri* 'baserri', *bidar* 'bider', *eguardi* 'eguerdi', *izardi* 'izerdi', *iztar* 'izter', *muskar* 'musker', *pipar* 'piper', *pitxar* 'pitxer', *puzkar* 'puzker', *tallar* 'gazt. taller [lantegia]'...

(3) Bizkaian bezala, Deba ibar gehienez ere *-ain* → *-an* gertatu da ondorengo lau hitzok amaieran: *ezpan* 'ezpain', *laban* 'labain', *uzan* 'izain' eta *zan* 'zain'. Debarrena dago eremutik kanpora. Debagoienan, berriz, *erran* 'errain' ere esaten da, baina Bizkaiko *gan* 'gain' arrotza da Deba ibarrean.

Kontsonanteak

(1) Lau kontsonante txistukariak bitara ekarri dira Deba ibar osoan: $z \rightarrow s$ eta $ts \rightarrow tz$ egin dira. Mendebaleko ezaugarritzat jotzen da hori, baina ez da egia osoa. Halaxe da mendebalean, baina baita Gipuzkoako iparraldeko herri askotan ere; Irunen eta Hondarribian bertan, esate baterako (Sagarzazu 2005: 67). Gauza bera gertatzen da, hain zuzen, Deba ibarretik gertuko Urolaldeko hizkeretan; besteak beste, Azkoitian, Azpeitian, Zestoan eta Zumaian.

Deba ibarrari dagokionez, aspaldi berdindu ziren hizkera batzuetan. Eibarko 1685eko kopletan, esate baterako, nahastuta agertzen dira (in Lekuona, Luzuriaga & Narbaiza 1992) eta, aldiz, zuzen bereizi ziren XVII. mende bereko Juan Bautista Amileta antzuolarraren kristau ikasbidean (in Arejita & Alberdi 1985). Alderdi batzuetan, gainera, badirudi oraintsu gertatu dela erabateko nahasketa. Bergarako Osintxu auzoa aipatu da horren adibide (UNED 1988: 65).

Txistukarien alorrean badira nabarmendu beharreko beste gertakari bi.

Soraluzen eta Bergarako Osintxu auzoan $ts \rightarrow tx$ egiteko joera dago. Horren adibide dira *aberatxa* 'aberatsa', *atxena* 'atsedena', *bitxa* 'bitsa', *lotxa* 'lotsa', *matxa* 'mahatsa'... Erabatekoa da NOR-NORI-NORK saileko adizkietan: *dotxa* (< *deutsa*) 'dio', *notxan* (< *neutsan*) 'nion'... Ahoskera berezi hori dela eta, *hautx herrixa* 'hauts herria' esan ohi zaio adar soinuari Soraluzeri, *hautsa* $\rightarrow$ *hautxa* aldatzen delako bertan.

Soraluzen, gainera, tz (eta ts) $\rightarrow s$ egiteko joera ere bada: *arosa* 'arotza', *bakoisa* 'bakoitza', *balsa* 'beltza', *haisa* 'haitza', *maiasa* 'maiatza', *okosa* 'kokotsa'... Horrek ere, jaki-

na, sortzen du inguruko herrietan zeresana. Juan Martin Elexpuruk, esate baterako, bergarrek soraluzetarren berbeta imitatu nahian esan ohi duten *arrausak, legasa salsan eta gasatua jan genduan aso* aipatu zuen *Arrasate Press* aldizkarian (1990.01.27). Antxon Narbaizak (1998: 52), era berean, txirrindulari lasterketa batean Soraluzeko ikusle biren arteko alegiazko elkarriketa jaso zuen eibartarren ahotan: *–Nun datok, baiña, guria? –Asian datok*. Jakina, soraluzetarraren *asia* hori *atzia* ‘atzea’ zen⁴.

(2) Erdialdeko euskalkian bezala, hitz hasieran [x] ahoskera nagusitu da Deba ibar osoan: *jabe, jai, jaiki / jagi, jainko / jaungoiko, jaitsi, jaixo* ‘jaio’, *jakin, jan, jantzi, ja(ra)mon, jardun, jarein* ‘askatu’, *jarixo* ‘jario’, *jarraitu, jarri, jaso, jator, jaun, jaurti* ‘bota’, *jausi* ‘erori’, *jo, joko, jolas, jorratu, josi, ju(a)n* (eta *fan*) ‘joan’...

(3) Deba ibar gehienez NOR-NORI saileko adizkietan ere [x] ahoskera dago: *jat(a)* ‘zait’, *jako* ‘zaio’, *jatzu* ‘zaizu’... Baita **edun*-en, NOR-NORI-NORK sailekoen eta trinkoen hitano-ko adizkietan ere: *hartu jok* ‘hartu dik’, *emon jotsak* ‘eman zioik’, *hor jatok* ‘hor zatorrek’...

Oñati, Deba eta Mutriku dira salbuespena.

Oñatin [j] ahoskera dago adizki horietan guztietan, idazterakoan x bidez adierazi ohi dena: *xako* ‘zaio’, *xonat* ‘dinat’, *xoskuk* ‘ziguk’, *xatok* ‘zatorrek’. Ahoskera horrek, jakina, jardunerako hizpidea ematen du inguruko herrietan, eta *txantxikuarrak* ‘xik’ eta ‘xok’ hitz egiten dutela esaten da⁵.

Deban eta Mutrikun, berriz, z- dago NOR-NORI saileko adizkietan (*zako* ‘zaio’) eta, z-nahiz j-, biak entzuten dira Mendaron.

Deban eta Mutrikun oso galduta dago hitanoa, baina **edun*-en adizkietan d- orokorra izan da herri bietan: *diat / diñat* [dut], *dik / diñ* [du]. Mutrikun d- hori berori izan da NOR-NORI-NORK sailean eta trinkoetan ere: *dixuat / dixonat* ‘zioat / zionat’, *diok* ‘zioik’, *diakik* ‘zakik’, *diekak* ‘zaukak’, *diorrek* ‘zatorrek’... Deban, berriz, Euskal Herriko erdigunean

⁴ Honela dira esaldi bi horiek euskara batuan: ‘arrautzak, legatza saltsan eta gatzatua [mamia] jan genian atzo’ eta ‘–Non zatorrek, baina, gurea [gure txirrindularia]? –Asian [atzean] zatorrek’.

⁵ Oñatiarren ezizena da ‘txantxiku’, herri horretan horrela esaten zaiolako igelari.

nagusitu den z- erabili da adizki horietan (ikus in Bähr 1926-1935, Arrieta 1974, Irizar 1991-1).

Bestalde, NOR-NORI saileko adizkietan eta hitanokoetan ahoskera berezi hori izateak ondorio fonetiko bat ekarri du: adizki horiek ez partikularekin batzean, [tʃ] hotsa gertatu da, idatzian tx bidez adierazi ohi dena. Horren emaitza dira *etxako* 'ez zaio', *etxok* 'ez dik', *etxotsak* 'ez ziok', *etxatok* 'ez zatorrek' gisako ahoskerak, mendebaleko euskalkiaren bereizgarri direnak.

(4) Herri batetik bestera aldeak dauden arren, asimilazio bustidura indartsua da Deba ibar osoan: *in* → *iñ*, *il* → *ill* eta *it* → *itt* ez ezik, *ind* → *iñdd* (*iñddar* 'indar'), *int* → *iñtt* (*piñttura* 'pintura'), *ild* → *illdd* (*billddur* 'beldur') eta *ilt* → *illtt* ere (*hilltteko* 'hiltzeko') esaten dira. Dena dela, *iñdd*, *iñtt*, *illdd* eta *illtt* horiek galtzera egin dute gazteriaren jardunean eta mailegu sartu berri gehienetan ez da egiten bustidura.

Beste hirurak, berriz, indartsu daude, eta mailegu berri askotan ere gauzatzen dira: *emailla* 'e-maila', *misilla* 'misila', *gasoliña* 'gasolina', *deposittua* 'depositoa'... Erabatekoa da, hain zuzen, -ing amaierako anglizismo edo sasianglizismo ugarietan: *dopiña* 'dopping', *filiña* 'feeling', *futiña* 'footing', *marketiña* 'marketing', *raftiña* 'rafting', *zapiña* 'zapping'...

Bustidurak Deba ibarrean daukan indarra gorabehera, ez da antzinakoa. XIX. mendea baino lehenagoko izkribuetan *ñ* da aspaldikoen, baina, gehienbat, /j—V/ ingurunean baizik ez zen gauzatzen, hau da, *j* bokalerdiaren eta beste bokal baten artean zegoenean: *baña* 'baina', *baño* 'baino', *gañeko* 'gaineke', *gaztaña* 'gaztaina', *oraingaño* 'oraindaino' agertzen dira, esate baterako, Barrutiaren teatroan. Izkribu horretan dauzkagu, era berean, *il* → *ill* bilakaeraren lehenengo azarnak: *ollo* eta *milla*. Kontsonante bi horietaz gainera, ez dago besteren bustidurarik.

(5) Hego Euskal Herriko beste alderdi batzuetan bezala, *tt* → *tx* egiteko joera dago Deba ibar osoan: *aitxa* 'aita', *ditxu* 'ditu', *ikusitxa* 'ikusita'... Aspaldi samarrekoa da alderdi horretan, eta adineko askok ere halaxe ahoskatzen dute. Debagoienean gorde da *tt* ondoen, baserri auzoetan gehienbat, baina haietara ere iritsi da *tx* esateko ohitura.

(6) Bada mendebaleko bereizgarria den bustidura mota jakin bat: *j* bokalerdiaren ondorengo z eta tz busti eta x / tx egin dira eta, bustidura eragin ostean, *j* hori galdu egin ohi da sarritan. Formula honexekin adierazten da bilakaera: *Vj + z / tz* → *V(j) + x / tx*.

Ikus ditzagun lehenengo $Vj + z \rightarrow V(j) + x$ bilakaeraren adibideak: *axkora / askora* 'aizkora', *elexa / elixa* (< *eleiza*) 'eliza', *go(i)x* 'goiz', *ha(i)x* 'haize', *keixa* (< *kereiza*) 'gerezia', *le(i)xar* (< *leizar*) 'lizar', *nas* eta *has* 'naiz / haiz', *nos* 'noiz'.

Hauek dira, berriz, $Vj + tz \rightarrow V(j) + tx$ egin ondoren gertatutakoak: *atxur* 'aitzur', *bakotx* 'bakoitz', *ekatx* 'ekaitz', *gatx* 'gaitz', *haretx / haitx* (< *hareitz*) 'haritz', *hatx* 'haitz', *hurretx* (< *hurreiz*) 'hurritz'. Bilakaera horren ondorio izan daiteke mendebaleko *itxi* 'utzi' aldaera: **eutzi* $\rightarrow$ **eitzi* $\rightarrow$ **eitxi* $\rightarrow$ *etxi* $\rightarrow$ *itxi*.

Deba ibarrari dagokionez, Leintzen eta Aramaion egiten da bustidura. Ermuan, Eibarren, Elgetan eta Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetan, berriz, denetarik dago; bustiduradunak maiz, baina bustidura gabeak ere bai inoiz: *gatx* 'gaitz' eta *nais* 'naiz', adibidez. Gainerako hizkeretan ez dago bustidurarik, baina denetan esaten da *atxur* 'aitzur', eta ia denetan *keixa* 'gerezia'. Soraluzen eta bergarar batzuen jardunean baizik ez da entzuten bustidura gabeko *keisa*.

$Vj + z / tz \rightarrow V(j) + x / tx$ bilakaera ez da dagoeneko arau emankorra. Ez erdaratik sartzen diren hitzetan, ez euskarak berak sortzen dituenetan, ez da izaten aldakuntzarik. Azkenaldian zabaltzen den *Alaitz* andrazko izena, esate baterako, horrelaxe esaten da mendebalean ere, **Alatx* bihurtu gabe.

(7) Bizkai gehienera bada beste bustidura berezi bat. Herrialde horretan $z \rightarrow s$ aspaldi gertatu zenez, jatorriz z zuten hitzek x dute gaur egun: *bakixu* 'badakizu', *bixerdun* 'bizardun', *eixu* 'egizu', *gixon* 'gizon', *ixen* 'izan / izen', *ixerdi* 'izerdi'... Salbuespenen bat edo beste gorabehera, Deba ibarrera ez da bustidura mota hori iritsi.

(8) Bustiduraren saila ixteko, balio adierazgarrikoak ez direla ez ugariak ez emankorrak esan behar da. Badira ihartuta gelditu diren adibideak: *gixajo*, *kuttun*, *pattal* 'gazt. fatal', *txakil* 'zakil [harro gogaikarria]', *(t)xamar* 'samar', *txanda* (gazt. 'tanda'), *txanka* 'hanka', *txatal* 'atal', *txatxar* 'txiki-txikia', *txepel* 'epel', *(bide) txidor* 'zidor', *(t)ximur* 'zimur', *txindurri* 'inurri', *txintxilik* 'zintzilik', *txintxur* 'zintzur', *txipriztin* 'zipriztin', *txorta* 'sorta', *txotin* 'zotin', *(t)xurru* 'zurru', *xehetu* 'zehetu', *ximel* 'zimel', *xuhur* 'zuhur'... Haur hizkeran ere badira aztarna gutxi batzuk: *txatxa* 'sagarra / madaria', *txatxur* 'hagina', *txintx egin* 'zintz egin'... Baina salbuespen apur horiek alde batera utzita, arrotza da bustidura adierazgarria. Deba ibarra, beraz, gordetzaila izan da horretan, Bizkaia bezala.

(9) Aldeak alde, Deba ibar osoan dago $d \rightarrow r$ egiteko joera: *abare* 'abade [apaiza]', *adiskire* / *ariskire* 'adiskide', (*etorri*) *ari* 'hadi', *bire* 'bide', *eran* 'edan', *ero* 'edo', *errubera* 'gazt. rueda [gurpila]', *inbirixa* 'gazt. envidia', *iri* 'idi', *komerixak* 'gazt. comedias [gertakariak]', *lori* 'lodi', *moruan* 'moduan', *ura* 'uda'... sarri entzuten dira. Baita $-(k)ada \rightarrow -(k)ara, -tade / -dade \rightarrow -dare, -di \rightarrow -ri$ eta $-idu \rightarrow -iru$ bilakaerak ere: *bajara* 'bajada', *ostikara* 'ostikada', *bakardare* 'bakardade', *pagari* 'pagadi', *segiru* (< *segidu*) 'segitu'. Ohikoa da adizkien 1. pertsona singularrean: *emoiran* 'emaidan', *ditxuraz* (< *ditudaz*) 'ditut'... Baita herri batzuetako egon-en pluraleko adizkietan ere: *gare* 'gaude', *zare* 'zaude', *dare* 'daude', *zeren* 'zeuden'.

Deba ibarrari dagokionez, ertzetako herri bietan da bereziki indartsua; Aramaion eta Mutrikun. Baita haren ondoko Ondarroan, Lekeition eta Otxandion ere. Jose Agustin Arrietak (1974) adibide hauek jaso zituen Mutrikun: *asi ra* 'hasi da', *lau urte rakas* 'lau urte dakaz [dauzka]', *eindda ros* 'eginda dagoz [daude]', *ekarri rau* 'ekarri dau [du]', *ibilli ria* 'ibili dira'...

Erdaraz jarduterakoan ere gertatzen da $d \rightarrow r$. Jone Larrañagak (1998: 31), esate baterako, *dericao* 'dedicado', *he estaro* 'he estado' jaso zituen Antzuolan. Eibarren, era berean, *le ha mordiro el perro, no tengo ninguna dura* [duda], *no he poriro venir* bildu zituen Imanol Laspiurrek (1999: 33), eta Aramaion entzundako *he cogiro la rucha* 'me he duchado' aipatu zidan Arantza Ozaetak, Mondragon Unibertsitateko irakasleak. Jakina, tankera horretako adibideak ez dira ohikoak gazteriaren jardunean; are gutxiago eskolatuta daudenengan.

Euskaraz hitz egiterakoan, ostera, $d \rightarrow r$ egitea "euskalkiaren" ezaugarritzat hartu delako edo, ez da joera hori zuzentzeko ahaleginik egin, eta hizkera jasoa erabili beharreko esparruetan ere horrelaxe ahoskatzen ditu hiztun askok.

(10) ez partikula zenbait hitz eta adizkirekin lotzerakoan, ondorio bereziak izan ohi dira ahoskeran. Euskal Herri osoan bezala, $ez + b-$ eta $d-$ batzen direnean, $b \rightarrow p$ eta $d \rightarrow t$ egiteko joera dago Deba ibarrean: *ez bazatoz* $\rightarrow$ *ezpazatoz*, *ez dakigu* $\rightarrow$ *eztakigu*.

Aldiz, $ez + n-$, $ez + l-$ eta $ez + g-$ batzen direnean, ez dago erabateko araurik: *enaiz* / *ez neban* 'ez nuen', *elitzateke* / *ez leuke* 'ez luke', *ezkiñan* 'ez ginen' / *ez gara*, denetarik entzuten da. Azken horretan, $ez + g-$ batzen direnean, $g-$ ahoskatzeko joera nagusitzen dela ematen du.

Euskal Herri osoan, gainera, *ez + z-* —> *tz* egiteko joera dago: *ez + zetorren* —> *etzetorren*. Mendebaleko euskarari, ostera, 3. pertsonako adizki gehienetan *ø-* dagoenez, *z* da emaitza: *ez + etorren* —> *ezetorren*. 3. pertsonakoak ez diren adizkietan ere ahoskera bera entzuten da sarritan: *ezara* (eta *etzara*) ‘ez zara’. Horixe da, gehienbat, Ermuko, Eibarko, Elgetako eta Debagoieneko joera.

Gainerako herrietan, 3. pertsonan *z-* dagoenez, ohikoagoa da *tz* ahoskatzea. Antzuolan, esate baterako, *etzeben* ‘ez zuten’, *etzan* ‘ez zen’, *etzeuan* ‘ez zegoen’, *etzebillen* ‘ez zebilen’... jaso zituen Jone Larrañagak (1998), baina, dena dela, gazteen artean *z* esateko joera dago.

Bestalde, Euskal Herri gehienera dago *l, n* eta *r* ondoren *tz* egiteko joera. Halaxe gertatzen da mendebalean ere hitz barruan: *giltza*, *entzun*, *ertza*. Hitz bi batzen direnean, ostera, *z* esaten da: *hil ziren* (vs *hil tziren*), *egon zan* (vs *egon tzen*), *joan behar ziren* (vs *joan behar tziren*).

Deba ibar gehienak mendebalarekin egiten du bat, baina Debabarrenean —Deban eta Mutrikun batez ere— sarri entzuten da *tz*. Jose Agustin Arrietak (1974), esate baterako, *iltzan* ‘hil zen’, *etortzen tzea* ‘etortzen zara’, *biar tzoala* ‘behar zuela’, *beian tzauala* ‘behean zegoela’, *an tzabiltzen* ‘han zebiltzan’, *sartzen tzianai* ‘sartzen zirenei’... jaso zituen Mutrikun.

Gorago esan denez, azkenik, *ez + *j-* —> *tx* gertatzen da Deba ibar gehienera, Bizkaiko eremu zabalean bezala: *etxako* ‘ez zaio’. Dena dela, gazte jendeak bereizita ahoskatzen du sarri: *ez jako*.

GARATU GABEKO ARAUAK

(1) Mendebalean gehienbat, *-r-* zaharrari —gero *-d-* bilakatu denari— eutsi zaio *bedar* ‘belar’, *edur* ‘elur’, *idar* / *ider* ‘ilar’, *zidar* / *zider* ‘zilar’ hitzetan. Deba ibarra ere gordetzaille da, nahiz eta *-l-* dunak ere entzuten diren gazteen jardunean. Horiexek dira Deban nagusi.

(2) Mendebalean *n-* dago *narru* ‘larru’ eta *nasai* ‘lasai’ hitzetan, eta bat dator Deba ibarra, nahiz eta Debabarrenean *lasai* ere baden⁶. Debagoieneara, gainera, *nahar* ‘lahar’ aldaera erabiltzen da.

⁶ Adiera bana dute *nasai* eta *lasai* aldaerek: *nasai* ‘zabala’ (*praka nasaiak*) eta *lasai* ‘trankila’ (*egun lasaia*).

(3) Mendebalean *n* eta *l* ondoren, *p* eta *t* gorde dira hiru mailegutan: *altara* 'aldare', *denpora* 'denbora', *jente* 'jende'. Bat dator Deba ibar gehiena, baina Bergaran, Antzuolan eta Debabarrenean *b* eta *d* ere entzuten dira, eta Deba ibarreko beste alderdi batzuetan ere bai, gazteen jardunean.

(4) Ipar Euskal Herrian, Nafarroako Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Luzaideko hizkeretan eta mendebaleko euskaran **-ani* —> *-ain* egin da hiru hitzetan: *arrain*, *usain*, *zain*. Bilakaera berbera egin da Deba ibarrean, nahiz eta *zai* ere entzuten den Debabarrenean. Hain zuzen ere, *-ai* da Gipuzkoa eta Nafarroa gehieneko emaitza.

(5) Deba ibarreko erdigunean eta Debagoienez, *b / p* —> *f* egiten da hitz jakin batzuetan sarri: *flater* / *fratel* 'plater', *fraka* 'praka', *frijidu* (vs *prijidu*) 'frijitu', *fristixa* 'piztia', *hafixa* 'habia', *ifar* 'ipar', *ifini* 'ipini'.

Azentua

Arlo honetan herri batetik besterako aldeak ugariegiak direnez, gertakari orokor gutxi batzuk baizik ez ditut aipatu nahi.

(1) Mendebaleko eta erdialdeko beste leku askotan bezala, hitzen singularra eta plurala bereizten ditu azentuak Deba ibarreko alderdi batean. Hona hemen, esate baterako, Antzuolako bikote zenbait (Larrañaga 1998: 50):

NORI sing.	<i>txarrixái</i>	/	plurala	<i>txárrixei</i>
NON sing.	<i>etxían</i>	/	plurala	<i>étxetan</i>
NOREKIN sing.	<i>umiákiñ</i>	/	plurala	<i>úmiekiñ</i>
NORENDAKO sing.	<i>amandáko</i>	/	plurala	<i>ámendako</i>

Ikusten denez, azentua aurreratu egiten da pluralean.

Debagoiena, alde batetik, eta Mutriku eta Deba, bestetik, daude eremutik kanpora. Mutrikun behinik behin, badirudi azentua galtzea oraintsu samarrekoa dela, Jose Agustín Arrietak (1974: 35) azentu bereizgarriaren adibideak jaso zituelako bertan.

(2) Mendebaleko eta erdialdeko beste leku askotan bezala, era berean, esanahi banako hitzak ere bereizten ditu azentuak Deba ibarreko alderdi batean. Eibarkoak dira ondorengo bikoteak (Laspiur 1979: 255):

<i>artía</i>	'arte (zuhaitza)'	/	<i>ártia</i>	'arte, edergintza'
<i>asía</i>	'aza (barazkia)'	/	<i>Ásia</i>	'kontinentea'
<i>astía</i>	'7 eguneko'	/	<i>ástia</i>	'hastea, abiatzea'
<i>barría</i>	'barrea, irria'	/	<i>bárria</i>	'burdinazko makila / ostatueto osagaia'
<i>basúa</i>	'oihana'	/	<i>básua</i>	'edalontzia'

Askozaz bikote gehiago ere osa daitezke, gainera:

<i>begíra</i>	'begi + ra'	/	<i>bégira</i>	'zerbaiti adi'
<i>botía</i>	'oinetakoa / zahatoa'	/	<i>bótia</i>	'pilotek egin ohi duten jauzia'
<i>egúa</i>	'hegoa'	/	<i>égua</i>	'egoa, harrotasuna'
<i>emía</i>	'arra ez dena'	/	<i>émia</i>	'M letra'
<i>erría</i>	'suak errea'	/	<i>érria</i>	'R letra'
<i>estía</i>	'hestea'	/	<i>éstia</i>	'estea, ekialdea'
<i>galtzía</i>	'galtzerdia'	/	<i>gáltzia</i>	'aldentzea'
<i>kalía</i>	'karrika'	/	<i>kália</i>	'hutsa / landarea'
<i>kokúa</i>	'zomorroa'	/	<i>kókua</i>	'fruitua / mamua'
<i>kumía</i>	'umea'	/	<i>kúmia</i>	'sehaska'
<i>lengúan</i>	'lehengo berean'	/	<i>lénguan</i>	'joan zen aldian'
<i>lotúa</i>	'estekatua'	/	<i>lótua</i>	'Loto jokoa'

<i>lotzia</i>	'lotsa, ahalgea'	/	<i>lótzia</i>	'lotzea, estekatzea'
<i>mandúa</i>	'aberea'	/	<i>mándua</i>	'kontrolgailua / agintaria'
<i>onéna</i>	'honena'	/	<i>ónena</i>	'hoberena'
<i>ostéra</i>	'ordea / berriro'	/	<i>óstera</i>	'joan-etorria, itzulia'
<i>ostían</i>	'bestela'	/	<i>óstian</i>	'atzealdean'
<i>otía</i>	'otea (landarea)'	/	<i>ótia</i>	'O.T.A., aparkalekuetako zerga'
<i>pagúa</i>	'pagoa (zuhaitza)'	/	<i>págua</i>	'ordainkizuna'
<i>pikía</i>	'aldapatsua / bikea'	/	<i>píkia</i>	'lehia'
<i>salía</i>	'zalea'	/	<i>sália</i>	'egongela'
<i>saltzia</i>	'saltsa'	/	<i>sáltzia</i>	'diru truk ematea'
<i>serúa</i>	'ortzia'	/	<i>sérua</i>	'0 zenbakia'
<i>sosúa</i>	'zozoa (txoria)'	/	<i>sósua</i>	'gatz gabea'
<i>sumía</i>	'zumea (landarea)'	/	<i>súmia</i>	'batuketa'
<i>txistúa</i>	'tua'	/	<i>txístua</i>	'ziztua / zakila / musika tresna'
<i>urdiña</i>	'kolorea'	/	<i>úrdiña</i>	'perretxikua, russula virescens'
<i>urrítxa</i>	'hurritz arbola'	/	<i>úrritxa</i>	'perretxikua, russula cyanoxantha'

Erabatekoa da *ba-* baiezko eta *ba-* baldintzako aurrizkien arteko jokabide bikoitza: azentugabea da *ba-* baiezkoa eta azentuduna baldintzakoa. Horren adibide dira: *badá-tor* / (*baldin*) *bádator*, *badáki* / (*baldin*) *bádaki*, *badábil* / (*baldin*) *bádabil*...

Agintezko perpausen eta modu-denborazkoen arteko jokabide bikoitza ere erabatekoa da: azentua lehen silaban dago agintezkoetan, eta bigarreanean —ohiko lekuan— modu-denborazkoetan: *dátorrela!* 'etor dadila!' / *datorrela* (etxetik *datorrela ikusi dot*). Berdin beste hauetan: *dáuela!* / *dauela* 'dagoela', *dóiala!* / *doiala* 'doala', *dábillela!* / *dabillela* 'dabilela'...

Mutriku eta Debagoiena dira berriro ere salbuespena⁷.

(3) Hizpide dugun eremu horretan bertan, badira azentu berezia, azentu "markatua" duten hitzak. Hasierako silaban ezartzen da beti, baita atzizkiak gehitzerakoan ere, singularrean bezala pluralean. Esate baterako: *béste*, *béstiak*, *béstera* / *béstietara*, *béstetik* / *béstietatik*, *béstiaren* / *béstien*, *béstiakin* / *béstiekin*, *béstiangana* / *béstiengana*, *béstiangandik* / *béstiengandik*...

Herri batetik bestera aldeak dauden arren, hauexek dira Deba ibarrean zabalduen dauden hitz bereziak: *átzia* 'atzea', *áurria* 'aurea', *árrautzia* 'arrautza', *béstia* 'bestea', *Bílbo*, *Bízkaixa* 'Bizkaia', *égixa* 'egia', *láixia* 'laia', *máillia* 'maila', *málkua* 'malkoa', *múskarra* 'musker-
ra', *pótrua* 'barrabila', *símaurra*, *táldia* 'taldea', *tálua* 'taloa', *tántia* 'tanta', (t) *ártia* 'arte', bitarte-
tea', *téntia* 'zuta', *tókixa* 'tokia', *txálua* 'txaloa', *txíndurria* 'inurria', *txíngorra* 'kazkabarra', *txís-
tua* 'ziztua' / *zakila* / musika tresna', *txóndorra*, *txótxolua* / *txótxolia* 'ergela', *únia* 'unea',
úrdaixa 'urdaia', *úrritxa* 'perretxikoa', russula cyanoxantha', *ústia* 'ustea', *úzena* 'izaina', *zótña* 'zotina'...

Kontrakzioen bat izan eta silaba bat galdu ondoren sortutakoak dira batzuk: *átaixa* (< *atária*), *átsaldia* (< *arrátsaldea*), *bázkarixa* (< **barazkaria*), *dómekia* 'igandea' (< lat. *dominica*), *éuzkixa* (< *egúzkia*), *háíztixa* (< *haríztia*), *ítaixa* (< *igítaia*), *íxkua* (< *idíxkoa*), *jámona* (< *jarámona*), *kéizpia* (< *gerízpea*), *nástia* (< *nahástea*), *ókana* (< *okárana*), *óndño* (< *oráindino*), *órraittio* (< *horrégatio*), *sárdaua* (< *sagárdoa*), *úzaba* (< *ugázaba*)... Azentua lehen silaban dauka sarri *eguen* 'osteguna' hitzak. Badirudi diptongoa sortu eta silaba bat galdu duela: *egúena* —> *égwena*.

⁷ Oñatin behinik behin, oraintsukoa da azentu hori galtzea. Kandido Izagirrek (1970) honako bikote hauek jaso zituen XX. mendearen erdialdean: *basúa* 'oihana' eta *básua* 'edalontzia', *astía* 'heldulekua' eta *ástia* '7 egu-nekoa', *usúa* 'hegazia' eta *úsua* 'ohitua'.

Hitz elkartu eta eratorri garbiak dira asko: *áittitta* eta *ámama* 'aitona / amona', *ásterro*, *ázkuria* 'azkura', *bákarrik*, *básarrixa* 'baserria', *bátzarra*, *bénetan*, *bérbetia* 'hizkuntza / hizkera', *éarixia* 'edaria', *érderia* 'erdara', *éuskeria* 'euskara', *húrrengua* 'hurrengoa', *ílberia* eta *ílgora* 'ilbehera / ilgora', *íntxaurra*, *léhengusu* eta *léhengusiña*, *lúzeria* 'luzera', *óillarra* 'oilarra', *óillaskua* 'oilaskoa', *órtozik* 'oinutsik', *txábolia* 'txabola', *zíntzilik*... Ziurrenena, sail honetan sartu behar dira *bélarrixa* 'belarria' eta *éztarrixa* 'eztarria'. Baita *ártazixak* 'guraizea' eta *órratza* ere, azken hori Oñatin bokal luzearekin —*orraatza*— esaten dena (Villasante 1968: 86).

Erdaratik mailegatutakoak dira beste asko, azentua jatorrizko hizkuntzan zuten leku berean gorde dutenak: *ántzarra* 'antzara', *árbolia* 'zuhaitza', *dénporia* 'denbora', *férixia* 'feria', *gánbaria* / *kámaria* 'ganbara', *gánoria* 'ganora', *gélia* 'gela', *gónia* 'gona', *górúa*, *hápixia* / *hábixia* 'habia', *íngurua*, *káikua*, *káixolia* 'kaiola', *kánputa* 'kanpoa', *kárzelia* 'kartzela', *kóntua*, *kórtia* 'korta [ukuilua]', *lándaria* 'landarea', *lándia* 'landa [belardia]', *lángia* 'langa', *lékua*, *líburua*, *máixua* 'maisua [irakaslea / jakintsua]', *médikua*, *míspillia* 'mizpira', *óstia* 'ostea [atzealdea, ondorena]', *prémiña* 'premia [beharra]', *sékula*, *sóiñua* 'soinua', *txándia* 'txanda', *zápatua* 'larunbata'...

Jakina, mailegu berrietan erdaran daukaten leku berean ezartzen da azentua: *bíboria* 'sugegorria', *fúbola*, *zápiña* 'zapping', *zínia* 'zinea'...

MORFOLOGIA

Izenaren morfologia

(1) Bizkaian bezala, gradu hurbileko artikuluei ondo eutsi zaie Deba ibarrean. Antzuola da mendebaleko euskara egiten den azken herria, eta bertakoak dira adibideak (Larrañaga 1998): *botatze seben txendorreri* 'botatzen zuten txondorreri' (328), *sela itte sien, ba, mantarrok?* 'nola egiten ziren, ba, mantarrok?' (330), *senbat iraute seban txarrixorrek?* 'zenbat irauten zuen txerriorrek?' (337), *errubera aundixokiñ* 'gurpil handiokin' (355)... Dena dela, atzeraka doa gazteriaren jardunean.

(2) Sozietibo pluralean *-kin* erabiltzen da Deba ibar osoan, eta baita singularrean eta mugagabeen ere hizkera gehienetan. Besteetan, berriz, nahiz eta *-kin* izan ohikoena, *-az* ere bada. Ermuan, Eibarren eta Debagoienera —Aramaion, batez ere— entzuten da *-az*, baina adinekoen jardunean gehienbat.

Pluraleko *-kaz*, berriz, arrotz egiten da Deba ibarrean, nahiz eta haren aztarnak badi-
ren Leintz haranean. Estepan Plazaolak Arrasateko Udala auzoan entzundako *egunokaz*
eztot ikusi aipatu zidan, eta Jon Errastik, era berean, Eskoriatzan jasotako *urtiokaz pasau*
dittuk danok. Ikusten denez, denbora balioarekin erabili da adibide bietan.

Nabarmentzekoa da Eibarren *-az* atzizki berbera erabili dela bai singularrean eta bai
pluralean: *etxia(a)z*, *astua(a)z*, *txikixa(a)z* singularrean, eta *etxieaz*, *astueaz*, *txikixeaz* plu-
ranean (Areta 2003: 152).

(3) Destinatiboan *-endako* atzizkia erabiltzen da Deba ibarreko alderdi zabalean, nahiz eta *-entzat* (eta *-entzako*) lehiakide duen. Debarrena dago eremutik kanpora; *-entzat* (eta *-entzako*) erabiltzen da han beti.

Antzuola, beraz, *-endako* esaten den esparrukoa da, eta bertakoak dira ondorengo adibideak (Larrañaga 1998): *baserriko mutillendako gabeko eskolia eote san* 'baserriko mutillendako gaueko eskola egoten zen' (326), *bidegintzan ibilli sienendako* 'bidegintzan ibili zirenendako' (331).

(4) Ablatiboa dela eta, gauza bi daude esateko. Alde batetik, *-ti* zaharra gorde da herri batzuetan⁸. Antzuola, Elgeta, Oñati eta, batez ere, Aramaio daude tartean. Antzuolako adibideak dira horren lekuko (Larrañaga 1998): *Araosti etorritakuak* 'Araoztik [Oñatiko auzoa] etorritakoak' (324), *aragixa kaleti erute giñuan* 'haragia kaletik eramaten genuen' (340).

Motibatiboan, era berean, *-gati* zaharra erabiltzen da leku horietan. Antzuolakoak dira berriro ere adibideak: *areati urtetzen jakue alakua* 'hargatik irteten zaie halakoa' (325), *seati iñor etzan eoten surtidorian* 'zergatik inor ez zen egoten surtidorean' (356).

Dena dela, adinekoak dira *-ti* eta *-gati* erabiltzen dituztenak, eta *-tik*, *-ga(i)tik* orokorrak nagusitu dira gazteen jardunean.

Deba ibarreko iparraldera, gainera, *-tikan* / *-gandikan*, *-gantikan* eta partitiboko *-rikan* berriak ere iritsi dira. Debarrena eta Soraluze daude eremu horretan, baina Bergaran eta Antzuolan ere ezagunak dira. Antzuola bertakoak dira ondorengoak (Larrañaga 1998): *ausotikan ekarri sittuen oilluak* 'auzotik ekarri zituzten oiloak' (57), *andikan* 'handik'

⁸ Joan den aspaldian sarri entzun eta irakurri dugu amaierako *-k* galdu dela *-ti* atzizkian. Uste horren arabera, *-tik* da zaharra eta *-ti* berria. Horixe esan zen, esate baterako, euskalkiak aurkezte aldera 1983an plazaratutako *Euskal dialektologiaren hastapenak* liburuan (in Txillardegi & Aurrekoetxea 1983: 213). Jakina, *-k* ez da galdu, eta hona hemen hori baieztatzen duten hiru arrazoi: a) Euskararen fonologia egitura, salbuespen gutxi eta jakin batzuk kenduta (*ez dakit* —> *eztaik*, *ez dakik* / *ez dakin* —> *eztaik* / *eztain*...), /k/ ez delako galtzen, b) Izkribu zaharrak, gaur egun *-tik* dagoen leku batzuetan *-ti* zegoelako antzina, eta c) Dialektologia, bazterretako hizkeretan dagoelako *-ti*. Horixe erakutsi zuten, era berean, lehenagoko euskalariak: Lafonek (1948) eta Mitxelenak (1961 [1977]: 236-237), besteak beste.

(328, 335), *eldu aurretikan* 'heldu aurretik' (330), *nunbaitetikan* 'nonbaitetik' (339), *Zumarratikan* 'Zumarragatik' (343)...

(5) Bizkai aldeko ezaugarritzat daukagu ablatibo zaharreko *-rik* erabiltzea *mendirik mendi* tankerako esapideetan, baina ez da uste zuzena: Goierrin eta Urolaldean ere ezaguna da, eta baita, beraz, Deba ibar osoan ere. Juan Martin Elexpuruk (2004) honako hauek jaso zituen, besteak beste, Bergaran: *makiña bat eskeko ibiltzen zan sasoi baten etxeik etxe* 'hainbat eskale ibiltzen zen sasoi batean etxerik etxe' (s.v. *eskéko*), *erliak loraik lora gozuan billa ibiltzen die* 'erleak lorerik lore gozoaren bila ibiltzen dira' (s.v. *gózo*), *iguindduta nago tabernaik taberna ibiltzen* 'nazkatuta nago tabernarik taberna ibiltzen' (s.v. *iguinddu*), *goiz guztia dendaik denda ikusmiran ibili naiz* 'goiz guztia dendarik denda begira ibili naiz' (s.v. *ikusmíra*), *lenengo mendi gaillurra artu giñuan, eta gaiñik gain joan giñan tontorreraino* 'lehenengo mendi gailurra hartu genian, eta gainik gain joan gintuan tontorreraino' (s.v. *mendi-gáillur*).

(6) Bizkaiko ekialdean bezala, hurbiltze adlatiboko *-rutz(e)* atzizki berezia erabiltzen da Deba ibar gehienez: *ezkerrerutz*, *etxeruzkuan* 'etxerako bidean', *goizalderutz*, *udabarri alderutz*...

Gainerako hizkeretan, berriz, erakusleetan (*honutz*, *horrutz*, *harutz*) eta hitz gutxi batzuetan (*barrurutz*, *beherutz*, *gorutz*) baizik ez da erabiltzen. Oñati, Antzuola, Elgoibar, Mendaro eta Deba daude eremu horretan, baina gaur egun *-rutz* sarri entzuten da herri horietako gazteen jardunean.

(7) Aditz izena mugimenduzko aditzen osagarri denean, eta norabidea edo helburua adierazten duenean, NON kasuan erabiltzen da Bizkaian. Baita Leintzen eta Aramaion ere, eta azken herri horretakoak dira adibideak (Ormaetxea 2002): *beras gure niñdduen erutie bere errire maas batzen* 'berarekin nahi ninduen eramatea bere herrira mahats biltzen' (83), *ia etorten asen domekan baskaitten* 'ea etortzen haizen igandean bazkaritan' (125).

Aldiz, Deba ibarreko gainerako hizkeretan —Mallabia ere tartean dela— NORA kasua aukeratu da, Euskal Herri osoan bezala.

(8) Bizkaian bezala, erakusleek erro bera dute singularrean eta pluralean ia Deba ibar osoan: *honek* 'honek / hauek', *horrek* 'horrek / horiek', *harek* 'hark / haiek', *honen* 'honen /

hauen', *horretan* 'horretan / horietan', *harekin* 'harekin / haiekin'... Deba da salbuespena. Mutriku, aldiz, eremu barruan dago, eta bertakoak dira adibideak (Arrieta 1974): *orrek etorri dia* 'horiek etorri dira' (32), *'erletokixa' esate sakue onei* 'erletokia esaten zaie hauei' (51).

Dena dela, badira batzuk eta besteak bereizteko bideak. Debagoienean *-i-* bokala sartzen da pluralean: *honek / honeik, horrek / horreik, harek / hareik, honen / honein, horrekin / horreikin, haretan / hareittan*... Gainerako hizkeretan azentuak bereizten ditu: *honék / hónek, honén / hónen, honékin / hónekin, honétan / hónetan*... Ikusten denez, azentua aurreratu egiten da pluralekoetan.

(9) 'izenordain galdetzailea + *edo* + izenordain galdetzailea' egiturako izenordainen artean, *noiz edo noiz, zer edo zer* (> *zeozer*), eta azken horren eratorriak (*zeozertan, zeozela, zeozekin*...) erabiltzen dira, gehienbat, Deba ibarrean. Hizkera batzuetan —Mutrikun, batez ere— *nunonun, nunedonundik, nuonora* ere entzuten dira, baina, dena dela, Deba ibarrera ez da iritsi Bizkaian sortu den *nonor, nonori, nonoren, nonogaz, nonongana, nonongandik*... sail osoa.

(10) '*edo* + izenordain galdetzailea' egiturako izenordainen artean, berriz, *edozein, edozer* eta euren eratorriak (*edozeinekin, edozergatik, edozela*...) dira Deba ibarrean ohikoenak.

Mallabian eta Ermuan sail osoa dago, Bizkaian bezala, eta badirudi Eibarren ere bazi-rela antzina. Toribio Etxebarriaren hiztegian (1965), hain zuzen, gaur egun eibartarren jardunean arrotzak diren *edonola, edonor, edotarikua* 'edozein motatakoa' ageri dira. Dena dela, gaur egun ere bizirik daude *edonoix, edonora* eta *edonun* (Areta 2003: 291).

Mutrikun ere badute indarra, eta *edonora, edonun* eta *edonundikan* behinik behin, ezagunak dira. Herri batzuetan (Ermua, Eibar, Elgoibar, Elgeta, Bergara, Mutriku) *edozenbat* ere erabiltzen da 'asko' adierarekin.

(11) Bizkaian bezala, *neu, heu, geu, zeu, zeuek* (eta *neuk, neuri, neure*...) egiturako izenordain indartuak erabiltzen dira Deba ibar osoan, Deba eta Itziar barruan direla. Arrotzak dira Gipuzkoa eta Nafarroa aldean zabaltzen diren *neroni, neronek* tankera-koak.

(12) Moduzko adberbioetan *-n* eransteko joera dago Bizkaian: *zelan* (eta *ezelan*, *edoze-lan*, *zeozelan*), *holan* (eta *holantxe*), *halan* (eta *halantxe*), *bestelan*...

Deba ibarrari dagokionez, Leintzen, Eibarren eta, batez ere, Aramaion eta Ermuan era-biltzen dira *-n* dutenak, baina *-n* gabekoekin lehian betiere. Aipatu den eremua baino zabalagoa dauka *zelan* aldaerak.

(13) Bizkaian bezala, erdal *-(c)ion* —> *-(z)iño* egiten da Deba ibar gehienez, eta arau emankorra da gainera: *anbiziño*, *dokumentaziño*, *espropiaziño*, *globalizaziño*, *inbersiño*, *inkomunikaziño*, *inseminaziño*, *insumisiño*, *klonaziño*, *kontaminaziño*, *korruptziño*, *kotizazi-ño*, *maketaziño*, *obulaziño*, *rehabilitaziño*... nahiz eta, horiekin batera, *demonio*, *komunio* eta *reunixo* esaten diren (vs Bizkaian *demoniño*, *komuniño*, *reuniño*). Debarrena da sal-buespena; *-(z)io* egiten da han, Gipuzkoa eta Nafarroa gehienez bezala.

(14) Deba ibar gehienez dago mendebaleko *-ginan* / *-ginen* atzizkia, Euskal Herriko beste alderdi batzuetan ‘*-gintzan*’ izan ohi dena. Mendarokoa da adibidea (Euskaltzaindia 1999: 53): *erroskillaiñen da biskotxoiñen earki sakixan arek* ‘erroskillagin-tzan eta bizkotxogintzan ederki zekien hark’.

Bergarakoak dira beste hauek (Elxepuru 2004): *zozuak asitta dare apixagiñan* ‘zozoak hasita daude habiagintzan’ (s.v. *ápixa*), *Goimendixan ikazgiñak eta bajanaz, da ikasiñ egur-giñan* ‘Goimendian [Bergara eta Elgetaren arteko auzoa] ikazginak-eta bazauden, eta ikas ezan egurgintzan’ (s.v. *egurgíñan*), *atsua eoten zan ero gorutan ero galtzagiñan* ‘atsoa egoten zen edo goruetan edo galtzerdiak egiten’ (s.v. *gáltza*).

Sarri erabili ohi da ondorengo hitzekin: *apeagiñan*, *bidegiñan*, *eskopetagiñan*, *etxegi-ñan*, *gaztaigiñan*, *ikazgiñan*, *jersegiñan*, *kakagiñan* eta *txixagiñan*, *karegiñan*, *torlojugiñan*, *zulogiñan*...

Atzizki hori emankorra da adin jakin bateko hiztunen jardunean. Mallabian, Deba ibarraren ertzean, ondorengo hauek entzun ditut, esate baterako: *barrikadagiñen ziharduela agertu zittuan zipaiuok* ‘barrikadaginaren zihardutela agertu zituan ertzai-nok’, *berak etxuan erretzen, baiñe artistie zuan porrogiñen* ‘berak ez zian erretzen, baina trebea zuan porroginan’. Gazte jendearen artean, osteraz, ez da ohikoa, eta emankorra ere ez, beraz.

Atzizkiaren antzinatasunaren erakusle, berriz, Esteban Garibaik XVI. mendean bildutako esaera aldatuko dut hona: *nok bere gogoaz esaginen* (beraz, *esaginen* 'etxeginen').

(15) Debagoienean bizirik daude *-dui / -doi* aldaera zaharrak (orokorra *-di*). Aramaion *-doi* erabiltzen da, eta bertakoak dira adibideak (Ormaetxea 2002: 76): *arbolaroi* 'arboladi, zuhaizti', *arestoi / agestoi* 'harizti', *arteroi* 'artadi', *gastañoi* 'gaztainadi', *intxaurdoi* 'intxausti', *leixardoi* 'lizardi', *maastoi* 'mahasti', *pagaroi* 'pagadi', *piñudo* 'pinudi', *urkidoi* 'urkidi', *urresdoi* 'hurrizti'...

GARATU GABEKO ARAUAK

Bizkaian *-to* atzizkia erantsi ohi zaie adberbio gutxi batzuei: *ederto*, *polito*, *txarto*, *zartarto*... Leintzen, Aramaion eta Deba ibarreko erdiguneko hizkera batzuetan ere bada, baina ia beti *-ki* atzizkia lehiakide duela. Aldiz, Antzuolan, Bergaran, Oñatin eta Debabarrenean *-ki* da nagusi: *edarki*, *gaizki*, *galanki*, *poliki*, *txarki* eta *zatarki* jaso zituen, esate baterako, Jone Larrañagak (1998) Antzuolan. Baina horiekin batera, *zihezto* 'zehazki' ere bildu zuen —baita Kandido Izagirrek (1970) ere Oñatin—, eta horrek *-to* atzizkiak antzina zeukan indar eta hedadura handiagoaren berri ematen digu.

Jakina, *ondo* eta *hobeto* esaten dira Deba ibarrean, baina berezia da hitz bi horien eremua, Nafarroako Burunda ibarrean eta Gipuzkoa osoan ere erabiltzen direlako. Oiartzunen, Hondarribian eta Irunen baizik ez dira esaten *ongi* eta *hobeki*. Alderantziz ere, Deba ibar gehienean —Debabarrenean, Erdigunean eta Oñatin, bereziki— oso zabalduta dago *gaizki* (vs bizk. *txarto*).

Aditzaren morfologia

(1) Bizkaian bezala, *-o-*, *-au-* eta, iraganaldian, *-eu-* agertzen dira **edun*-en erroan Deba ibar gehienera: *dot, dok / don, dau* ‘du’, *dogu, dozu, dozue, dabe* (< *daue*) ‘dute’, *neban* (< *neuan*) ‘nuen’, *(z)eban* (< *(z)eu*) ‘zuen’, *(z)eben* (< *(z)eu*) ‘zuten’, *baneu* ‘banu’, *neuke* ‘nuke’...

Deba, Mutriku eta Mendaro dira salbuespena; euskara giputzeko *-e-* erroa dagoelako hiru herri horietan orainaldiko adizkietan: *det, degu, dezu*... Ezaguna da, era berean, Elgoibarko Altzola auzoan. Dena dela, Deba ibar osoan dago *-eu-* erroa: *deu* ‘du’, *debe* ‘dute’, *neban* (eta *nuan*) ‘nuen’, *zeban* ‘zuen’, *zeben* ‘zuten’ esaten dira Deban bertan.

Erro hori, gainera, iraganaldi pluraleko adizkietara ere hedatu da Debagoienera. Leintz haranean *geuen / gauen* ‘genuen’, *zeuen* ‘zenuen / zenuten’ esaten dira (Elortza et alii 1998: 114). Oñatin eta Aramaion urrunago joan da. Oñatin *u* —> *b* bilakatu da: *neben* ‘nuen’, *geben, zebein, zebein*. Aramaion, berriz, laburtuta esaten dira: *nen, gen, zen*.

(2) NOR-NORK sailean, NOR ‘ni’ den adizkietan, osterat, ia Bizkai osoan *-o-* erroa duten *nok / non* ‘nauk / naun’, *nozu* ‘nauzu’ eta *nozue* ‘nauzue’ ez dira erabatekoak Deba ibarrean. Erro hori bada, baina *-a-*, *-ai-* eta *-au-* ere bai.

Debabarrean eta Erdigunean *-a-* entzuten da sarri, eta *-ai-*, berriz, Debagoienera. Aramaion, esate baterako, *nok / nauk / naik, non / naun / nain, nozu / nauzu / naizu, nozue / naizue* lehian dira (Ormaetxea 2002: 95). Ermuan bertan ere *nozu / nazu, nozue / nazue* esaten dira (Aranberri 1996: 90).

(3) Euskara giputzeko *-e-* erroa hedatu da Debabarrenean *izan*-en orainaldi pluraleko adizkietan: *gera, zera, zerate*. Elgoibarren *-a-* ez da oraindik zeharo galdu eta, jakina, horixe da Deba ibarreko gainerako hizkeretan erabiltzen dena.

Leintz haranean, gainera, *-e* amaiera duten *gare* ‘gara’ eta *zare* ‘zarete’ —hau Aramaion ere bada— esaten dira. Pluralaren ezaugarria da, nonbait, *-e* hori.

(4) Bizkaian bezala, *eutsi* da NOR-NORI-NORK saileko erroa Deba ibar gehienez, leku batetik besterako aldakuntza fonetikoak gorabehera: *dosta* Erdigunean eta Oñatin / *desta* Eibarren / *dust* Leintzen eta Aramaion (orokorra 'dit'). Debarrenen hizkerak dira berriro ere salbuespena; Euskal Herriko erdiguneko *-i- erroa hedatu da haietara.

(5) NOR-NORI-NORK saileko orainaldian, datiboa 'hari / haiei' denez, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK sailetako adizkiak gurutzatu direla ematen du Antzuolan eta Bergaran: *jat* 'diot', *jao* 'dio', *jau* 'diogu', *jatzu* 'diozu', *jet* 'diet', *jaue* 'die / diete / diote', *jeu* 'diegu', *jetzu* 'diezu', esate baterako, Antzuolan (Larrañaga 1998: 123). Oñatin ere erabiltzen dira horrelakoak, baina datiboa 'hari' denez soil-soilik. Oñatin, jakina, x- dute hasieran: *xat* 'diot', *xao* 'dio'...

Dena dela, "arauzkoak" diren *dotsat* 'diot' tankerakoak ere ezagunak dira, eta hitanorori horiek erabiltzen dira (ikus, esate baterako, in UNED 1988: 113).

(6) Mendebalean bezala, *egin* erroa erabiltzen da aditz iragankorren ahaleran, aginteran eta subjuntiboan Deba ibarrean. Mutrikukoak dira ondorengoak (Arrieta 1974): *arrixak jo estaixan* 'harriak jo ez dezan' (79), *artu leike orrek* 'har dezake horrek' (82), *atera isu kontua* 'atera ezazu kontua' (83).

Deban, Mutrikun eta Mendaron **ezan* erroa ere entzuten da gaur egun: *esan zazu*, *pentsa zazu*, esate baterako, Deban (Txurruka & Urbietak 2003), baina oraintsu samar sartutakoa ematen du.

(7) Bizkaian eta Gipuzkoako alderdi zabal batean bezala, Deba ibarrean ere *eduki* ia guztiz nagusitu da, **edun*-en kaltean. Antzuolako adibideok ematen digute horren lekukotasuna (Larrañaga 1998): *pisarriña osua geunkanian arro eote giñan* 'arbeltxoa osoa geneukanean harro egoten ginen' (327), *arek eseukan diruan anbisiñoik* 'hark ez zeukan diruaren anbiziorik' (336), *bi urte be es neuskan artian* 'bi urte ere ez neuzkan artean' (354)... Dena dela, **edun* ez da erabat arrotza: *emengua seban andria* 'hemengoaren zuen andrea' (337).

(8) Bizkaian bezala, Deba ibar osoan ere arrotza izan da oraintsu arte *ari izan*. Ordezkoak egon eta *ibili* dira: *ikasten dago* / *ikasten dabil*.

Deba ibar gehienez *jardun* ere bada, eta berorren adizki trinkoek, gainera, bizitasun handia dute hizkera gehienetan: *dihardut, diharduk / dihardun, dihardu, dihardugu, diharduzu, diharduzue, dihardue, niharduen, ziharduen...* Bergarakoak dira ondorengo adibideak (Elxepuru 2004): *eurixa bota-ala diardu* 'euria bota ahala ari da' (s.v. *ala*), *berbetan diarduarian etxako gustatzen etetia* 'hitz egiten ari denean, ez zaio gustatzen etetea' (s.v. *éten*), *kanpofubola markatzen ziarduan atsaldeko partidurako* 'futbol zelaia marrazten ari zen arratsaldeko jokorako' (s.v. *markáu*). Adizki horiek Deba ibarrean daukaten bizitasunaren ezaugarri, *Badihardugu* izena jarri zitzaion Deba ibarreko herriak batzen dituen Euskara Elkarteari.

Leintzen eta Aramaion ez dago *jardun*-en trinkorik, baina, aldiz, **erautsi* erroko adizkiak erabili izan dira adiera berarekin. Jesus Mari Garaik eta Estepan Plazaolak Arrasaten jasotako adibideak dira ondorengoak (in Elortza et alii 1998): *badarautzie santaarrok jaten* 'ari dira santagedatarrok [Santa Ageda auzokoak] jaten' (232), *i, Paula, gure andrak bajarautziene fin asko* 'hi, Paula, gure andreak ari ditun fin asko' (233).

Txipi Ormaetxeak (2002: 119) bildu ditu **erautsi* horren adizkiak Aramaion: *darutset, darutsek / darutsen, darutso, darutsau, darutsezu, darutsezue, darutsie*. Dena dela, gainbehera doaz. Adineko banaka batzuek baizik ez dituzte erabiltzen, eta galduta daude gazteriaren jardunean.

Antzina Oñatin ere ezagunak zirela ematen du. XVIII. mende amaierako *Osaba baten instruccinuac* izeneko izkribuan, esate baterako, honako hau agertzen da (177): *mundutarren beren moduko Ebangelio bi aietatik zeñen fabore daguan derautsagun materian Jesus Dibinuaren Ebangelio santuba?*[*derautsagun materian* 'ari garen gaian'].

Esanak esan, joan den aspaldian asko zabaldu da *ari izan*; Debabarrenean, gehienbat.

(9) Euskara giputzeko *nijua* 'noa', *dijua* 'doa' tankerako *joan*-en adizkiak zabaldu dira Deban eta Mutrikun. Bereziak, baina hauek ere giputzen gertukoak, erabiltzen dira Elgoibarren eta Mendaron: *nixe* 'noa', *dixe* 'doa', *dixez* 'doaz'...

(10) Euskara nafarrean eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan eutsi zaio ondoen *-a-* bokalari aditz trinkoen iraganeko erroan: *zakien* (vs *zekien*). Mendebal eta erdialde gehienez, oster, *-e-* berria nagusitu da. Debabarrena da *-a-* gorde den lekuetako bat, eta Debagoienez ere sarri entzuten dira tankera horretako adizkiak. Bergaran eta

Antzuolan ere badira aztarnak. Txipi Ormaetxeak (2006: 305-306) Aramaion jasotakoak dira ondorengoak: *nabillen* ‘nenbilen’, *abillen* ‘zebilen’, *gabitzen* ‘genbiltzan’, *nakixen* ‘nekien’, *akixen* ‘zekien’, *gakixen* ‘genekien’, *atorren* ‘zetorren’, *auen* ‘zegoen’, *akarren* ‘zeka-rren’, *auken* ‘zeukan’...

Gaur egun, oster, euskara batuaren zabalkundeak -e- nagusitzea ekarri du eta, gainera, -a- hori euskalgaitza, orainaldiko adizkietatik “analogiaz” sortutakoa dela pentsatu da, eta horixe izan da berez zuzena zena “zuzentzeko” beste arrazoietako bat.

(11) **edun*-en hitanoko adizkiak bereziak dira mendebalean. Deba ibar gehiena bat dator horretan, Antzuolako adibideok erakusten duten bezala (Larrañaga 1998): *in bi juat* ‘egin behar diat’, *itte juan* ‘egiten zian’, *itten juen* ‘egiten zitean’, *pasatze jittuan* ‘pasatzen zitian’, *emute jittuen* ‘ematen zitiztean’, *enajuan esautu* ‘ez nian ezagutu’, *pasau najittuan* ‘pasatu nitian’...

Gorago esan denez, Deba eta Mutriku dira salbuespena.

(12) Aditz trinko iragangaitzen orainaldiko 3. pertsonetako hitanoan *d-* erabiltzeko joera zabaldu da Deba ibarreko hizkera batzuetan. Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar eta Mendaro daude tartean. Ermukoak dira adibideak (Aranberri 1996: 106): *daok* / *daon* ‘zagok / zagon’, *daoza* / *daonaz* ‘zaudek / zauden’, *datok* / *daton* ‘zatorrek / zatorren’, *datoza* / *datonaz* ‘zatozek / zatozen’, *dabik* / *dabiñ* ‘zabilek / zabilen’, *dabixak* / *dabiñaz* ‘zabiltzak / zabiltzan’. Salbuespena *joan*-en adizkiak dira; *j-* dago horietan: *joiak* / *joian* ‘zihoak / zihoan’, *joiagak* / *joianaz* ‘zihoazek / zihoazen’.

Deba ibarreko gainerako hizkera gehienetan —Deban eta Mutrikun ez besteetan— *j-* horixe dago adizki guztietan, Bizkaian moduan.

(13) Bizkaian, eta baita Euskal Herriko beste hainbat alderditan ere, arrotza da NOR-NORI saileko iraganaldiko *zit-* aurrizkia. Gehienbat Euskal Herriko erdigunean dagoenez, berria ematen du *zit-* horrek eta, hori horrela izatera, egoera zaharrari eutsi dio Deba ibar gehienak. Alderdi horretan, beraz, nahikoa da orainaldiko adizkiei -n gehitzea: *jat(a)* → *jatan* ‘zitzaidan’, *jako* → *jakon* ‘zitzaion’... Debabarrena da salbuespena; Mendaro eta Deba, batez ere. Hizkera horietan *zit-* dunak dira nagusi, baina *Ø-* dunekin lehian betiere.

Mutrikun, berriz, adinekoen artean entzuten da *zit-* sarrien, eta *zit-* gabeko *zaten* ‘zitzaidan’, *zakon* ‘zitzaion’, *zakun* ‘zitzaigun’... erabiltzeko joera dute gazteek. Badirudi, beraz, alderantzizko bidea ibiltzen hasi direla gazteak berriro, eta “zaharrak berri” gertatu direla.

(14) Bizkaiko hizkera gehienetan *Ø-* da iraganaldiko 3. pertsonetan NOR argumentuari dagokion ezaugarria: *eban* ‘zuen’, *ebilen* ‘zebilen’, *egoan* ‘zegoen’, *eukun* ‘zeukan’... Debabarrenean *z-* dago, gainerako euskalkietan bezala, eta *z-* / *Ø-* lehia dira Deba ibarreko gainerako alderdietan. Adinaren arabera da lehia sarritan: adin handikoek erabiltzen dute gehienbat *Ø-*, eta *z-*, aldiz, gazteek. Juan Martin Elexpuruk (2004: s.v. *ógro*) Bergaran jasotako esaldi honetan daukagu lehiaren adibide ona: hiltun berak esaldi berean eta adizki berean *z-* eta *Ø-* darabiltza biak batera. Hona hemen esaldia: *etzeban etxetik urten nai, ograduak jango eban billurrez* ‘ez zuen etxetik irten nahi, ogroak jango zuen beldurrez’.

Ermuan, Elgetan, Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetan eta Debagoienean eutsi zaio ondoen mendebaleko joerari, baina han ere *z-* zabaldu da belaunaldi gazteen jardunean.

Jakina, adizki batzuetan beti dago *z-*: *izan*-enetan (*zan*, *ziran*), **edun*-en objektu pluralekoetan (*zittuan* ‘zituen’, *zittuen* ‘zituzten’), *jardun*-enetan (*ziharduan* ‘ziharduen’, *ziharduen* ‘ziharduten’), *irudit*-enetan (*zirudixan* ‘zirudien’, *zirudixen* ‘ziruditen’), eta **edin*-en (*zeiñ* ‘zedin’, *zitzezen* ‘zitezen’, *zeikian* ‘zitekeen’) eta *egin*-en batzuetan (*zeixan* ‘zegien [zezan]’, *zeixon* ‘zegion [ziezaion]’, *zeikixon* ‘ziezaiokeen’).

(15) Euskarak aditzen plurala egiteko daukan aukera zabaletik (*-it-*, *-zki-*, *-z-*, *-z-*, *-tza*, *-de...*), mendebalean bati eman zaio erabateko lehentasuna: *-z* hautatu da.

Deba ibarrean oso jokabide bereziak daude arlo horretan.

Harritzekoa bada ere, *-z* pluralgilea indartsu dago Debabarrenean, baita Deban bertan ere. Elgoibarkoak dira, esate baterako, ondorengo adibideak (Leon 2004): *daukadaz* ‘dauzkat’, *naukazen* ‘neuzkan’, *zitzatazen* ‘zitzaizkidan’, *zidazen* ‘zizkidan’, *ziguezen* ‘zizkiguten’... Nolabaiteko salbuespena *egon*-en adizkiak dira, *-de* ere badagoelako horietan, baina *-z* lehiakide duela: *zauden* / *zaguazen* ‘zeuden’. Egitura pleonastikoak ere badira, hau da, pluralgile bi dituztenak: *geundezen* ‘geunden’. Baita **edun*-en adizkietan ere: *dittuzuz* ‘dituzu’, *zittuezen* ‘zituzten’, *jittuaraz* ‘ditiat’.

Nabarmentzekoa da, beraz, NOR-NORI-NORK saileko erroa mendebalean arrotza den *-i- izan arren, plurala egiteko -z hartzen dela. Bitxiak gertatzen dira *dioz* ‘dizkio’, *diazuz* ‘dizkidazu’, *niozen* ‘nizkion’ tankerakoak, Debabarreneko bereizgarri direnak.

(16) Pluralgileei dagokienez, bada bereziki nabarmendu beharreko beste gertakari bat. Deba ibarreko hegoaldean ez da aditzaren eta objektu pluralaren arteko komunztadura egiten. Halaxe gertatzen da NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK saileko adizkietan eta trin-koetan. Hona hemen Aramaioko zenbait adibide (Ormaetxea 2002: 89): *gustetan jatien asko kangrejuek* ‘gustatzen zitzairen asko kangrejoak’, *berak paga’uskun danak* ‘berak ordaindu zigun denak’, *eran daigun kopak* ‘edan dezagun kopak’, *emen poltzan diskuek eta liburuak daruet* ‘poltsa honetan diskoak eta liburuak daroat [daramat]’, *nik enakixen orreik gausa gustiok* ‘nik ez nekien gauza horiek guztiok’, *suk pentzamentu txarrak dabitzu or buruen* ‘zuk pentsamendu txarrak darabilzu buru horretan’...

Debagoiena, Antzuola eta Bergara —Ubera auzoa izan ezik— daude eremu barruan. Pedro Irizarren arabera (1992-2: 385, 387), Bergarako Angiozar auzoan komunztadura arauzkoa da NOR-NORI sailean, baina ez NOR-NORI-NORK sailean.

Antzuolan eta Bergaran, gainera, trinko gehienek zuzen egiten dute komunztadura: *dauzkat*, *leizke* tankerakoak, esate baterako, arauzkoak dira herri bi horietan (UNED 1988).

Bestalde, leku guztietan egiten da komunztadura NOR-NORK saileko adizkietan NOR ‘haiek’ denean: *ditut*, *ditu*, *ditugu*..., baina ez nahitaez NOR eta NORK biak ‘haiek’ direnean. Antzuolako huetan daukagu lekukotasuna (Larrañaga 1998: 101): *orduan bailabliak jote seben danak* ‘orduan dantzan egitekoak jotzen zuten [doinu] denak’, *arek porruak gordiñik jate seben* ‘haiek porruak gordinik jaten zuten’, *batzuk ebaltze seben surixak*, *beste batzuk ebaltze seben beltzak* ‘batzuek erabiltzen zuten zuriak, beste batzuek erabiltzen zuten beltzak’.

(17) Debagoienean, gainera, NOR-NORK saileko -it- pluralgilea kentzeko joera dago NOR ‘haiek’ denean ez besteetan. Aramaion, esate baterako, *zau* ‘zaitu’, *zaut* ‘zaitut’, *zaue* ‘zaituzte’, *zauet* ‘zaituztet’, *gau* ‘gaitu’, *gaizu* ‘gaituzu’... esaten dira. Inoiz, gauzak “ondo” esan nahian, behar ez dena zuzendu eta *naittu* ‘nau’, *naittue* ‘naute’ gisakoak ere entzuten omen dira (Ormaetxea 2002: 95).

(18) Aditzaren pluralgileak direla eta, badira egin beharreko ñabardura gehiago. Dagoeneko aurreratu denez, -z- tartekatuta, eta ez mendebalean bezala amaieran jarrita, erabiltzen da Antzuolan eta Bergaran **edin* eta *eduki*-ren adizkietan: *dauzka* (vs mend. *daukaz* / *dekoz*), *leizke* (vs mend. *leikez*). Bestalde, *ekarri* eta *jakin*-en adizkietan -z- dago Bergaran eta -z- / -tze- arteko lehia Antzuolan: *dazkat* / *dakartzet* (vs mend. *dakadaz*), *dazkit* / *dakitzet* (vs mend. *dakidaz*). Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetan -z da adizki horietan guztietan pluralgilea, mendebaleko euskalkian bezala (UNED 1988).

Bergaran eta Antzuolan, gainera, -de (> -re) dago *egon*-en adizkietan: *gare* 'gaude', *zare* 'zaude', *dare* 'daude', *genden* 'geunden', *zeren* 'zeuden'... Horrelakoak, dena dela, Debabarrenean eta Deba ibarreko erdiguneko gainerako hizkeretan ere badira, -z pluralgiledunekin batera. Erdiguneko hizkerotan, agerian dago sartu berriak direna, zuka-koan baizik ez direlako erabiltzen -de pluralgiledunak. Hitanoan -z da nagusi. Beraz, *dare* 'daude', alde batetik, eta *daozak* / *daonaz* 'zaudek / zauden', bestetik, entzuten dira.

Adizki horien bokaletan gertatutako bilakaerek ere inguruko hizkera giputzetatik hartu direla salatzen dute: orainaldian -au- → -a- egin da (*gare*, *zare*, *zarete*, *dare*) eta iraganaldian -eu- → -e- (*genden*, *zenden*, *zendeten*, *zeren*). Esan dezagun, gainera, Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetako adinekoek *dagoz* tankerakoak erabiltzen dituztela oraindik ere (UNED 1988: 124).

Mutrikun, azkenik, gorago aipatu den -z pluralgilearen aldeko joera ikusten da horretan ere. Gerhard Bähr-ek (1929: 336), adibidez, *gooz* eta *gaurez*, *zooz* eta *zaurez*, *dooz* eta *daurez* lehian ikusi zituen gerra aurrean, eta *goz*, *zoz*, *zozte*, *doz* dira gaur egun entzuten direnak. Horrelakoak erabiltzen dira, era berean, mendebaleko euskalkiari lotuen dau-den Ermuan eta Debagoienez: *gaz* 'gaude', *zaz* 'zaude', *zaze* 'zaudete', *daz* 'daude', esate baterako, Aramaion (Ormaetxea 2002: 111).

(19) Esan dezadan, era berean, **edun*-en adizkietan -it- pluralgilea dela Deba ibarrean ohikoena: *dittut* (vs bizk. *dodaz* / *dotez*), *jittuat* (vs bizk. *joadaz*)..., baina Debabarrenean eta Erdigunean -z aukeratzen da iraganaldi pluraleko adizki gehienetan: *genduzen* / *giñuzen* 'genituen', *zenduzen* / *ziñuzen* 'zenituen', *zenduezen* / *ziñuzten* / *ziñuezen* 'zenituzten'. 3. pertsonan *zittuen* eta *zittuezen* erabiltzen dira. Debagoienez, oster, *gittuen* 'genituen', *zittuen* 'zenituen' / *zenituzten* esaten dira.

Gauzak bere lekuan ipintze aldera, gogora dezagun **edun*-en iraganaldi pluraleko adizkietan -z izatea ez dela inondik inora “bizkaieraren” edo “mendebaleko euskararen” bereizgarria, oso eremu zabaleko gertakaria baizik. Nafarroan, esate baterako, Ultzaman eta haren inguruetan erabiltzen dira tankera horretako adizkiak: *giñuzen*, *ziñuzen*, *ziñuzten* jaso zituen Orreaga Ibarrek (1995: 437) bertan.

(20) Pluralgileen auzia ixteko, “analogiaren” indarrari jarraituaz, -z inoiz beharrik gabe eransten dela esan behar da, *izan*-en adizkietan gehienbat: *garaz* ‘gara’, *zaraz* ‘zara’, *diraz* ‘dira’, *giñazen* ‘ginen’, *ziñazen* ‘zinen’, *balitzez* ‘balira’, *litzekez* ‘lirateke’... Mendebal osoan daude tankera horretako adizkiak.

(21) Bizkaian, Euskal Herriko beste bazter batzuetan bezala, -(i)e atzizkia dago NOR saileko adizkien 2. pertsona pluralean. Halaxe da Debagoienean eta Deba ibarreko erdiguneko hizkera batzuetan ere: *zare* ‘zarete’, *zitzién* ‘zineten’, *zeikie* ‘zaitezketen’, *zaittezen* ‘zaitezten’, *zaze* ‘zaudete’, *zatoze* ‘zatozte’, *zabitzte* ‘zabiltzate’, *zoieze* ‘zoazte’..., esate baterako, Aramaion (Ormaetxea 2002).

Aldiz, Euskal Herriko erdigunean zabaldu den -te berria iritsi da Bergara, Antzuola, Soraluze eta Debabarrenera. Horixe da, beti ez bada ere, sarri behintzat, hizkera horietan erabiltzen dena. Sartu berria denez, hain zuzen, indikatiboko adizkietan erabiltzen da gehienbat, *zatozte*, *zoiazte* tankerakoetan, eta beste aldi batzuetan -ie zaharra ere entzuten da. Bergaran, esate baterako, *ziñakie* ‘zinateketen’, *zeinkie* ‘zaitezketen’, *zeinkien* ‘zintezketen’, *zaittezen* ‘zaitezten’ esaten dira (UNED 1988: 94).

Jakina, iragankorren 3. pertsona pluralean -e dago Deba ibar osoan; ez Euskal Herriko erdigunean nagusitu den -te: *dabe* / *debe* ‘dute’, *(z)eben* ‘zuten’, *dakixe* ‘dakite’, *da(u)ke* ‘daukate’, *dihardue* ‘dihardute’, *dotse* / *dixue* ‘diote’... Gazte jendeak, dena dela, -te erabiltzen du sarri, euskara batuak eraginda.

Aldaera bereziak daude Oñatin (Bedita Larrakoetxea UE 2005). NOR saileko adizkien 2. pertsona pluralean -ai erabiltzen da: *zarai* ‘zarete’, *ziñain* ‘zineten’, *zabiltzai* ‘zabiltzate’, *zagozai* ‘zaudete’, *zatozai* ‘zatozte’, *zoiazai* ‘zoazte’...

Iragankorren 3. pertsona pluralean -ai / -ei lehian dira: *zittuain* ‘zituzten’, *nindduein* ‘ninduten’, *dostei* ‘didate’, *otzain* ‘zioten’, *dakixei* ‘dakite’, *dakoi* ‘daukate’, *eukain* ‘zeukaten’, *doiai* ‘daramate’...

Datibo pluraleko atzizkia ere -airi da herri horretan: *gurasuairi* ‘gurasoei’.

(22) Bizkaian eta Gipuzkoako alderdi zabalean bezala, Deba ibarrean ere 'partizipioa + TA' nagusitu da. Antzuolakoak dira ondorengo adibideak (Larrañaga 1998): *Deskargan arutz pasautakuan* 'Deskargan [mendatea] harantz pasatutakoan' (324), *Araosti etorritakuak* 'Araoztik [Oñatiko auzoa] etorritakoak' (324), *ikisittako euseria* 'ikasitako euskara' (325), *erderas pentzauta* 'erdaraz pentsatuta' (325), *kumuniua iñdda* 'jaunartzea eginda' (332)...

Dena dela, 'partizipioa + RIK' zaharra ez dago guztiz galduta (*pentsaurik, jakinik...*), baina ez da emankorra, eta gaztelaniatik hartutako aditz berriekin beti erabiltzen da TA: *elaborauta, entxufauta, estafauta, kolokauta, plastifikauta, prefabrikauta, txapauta...*

Aramaion gorde dira ondoen -RIK atzizkidunak (Ormaetxea 2002): *Jose Luisek ekarriko kotxie oso antiguala da* 'Jose Luisek ekarririko automobila oso antzinakoa da' (125), *beteik asen* 'beterik zeuden' (128).

(23) Gaztelaniako -ado partizipioak -au egin dira mendebalean: *aparkau* 'aparkatu', *arri-mau* 'arrimatu', *depilau* 'depilatu', *operau* 'operatu', *pasautakuan* 'pasatutakoan', *pentsauta* 'pentsatuta'... Urolaldean eta Goierrin ere bada -au, baina alderdi horietan gaztelaniatik hartutako aditzetan ez ezik, jatorriz euskaldunak direnetan ere amaiera bera dago: *aldau, urrau, zulau...* Horrelakoak, ostera, arrotzak dira mendebaleko euskalkian.

Bitan banatuta dago Deba ibarra. Mendebalarekin bat datoz Debagoiena eta Deba ibarreko erdigunea, eta Urolaldean eta Goierrin bezala dira gauzak Debabarrenean. Mutrikun, esate baterako, *aukerau* 'aukeratu', *beirau* 'begiratu', *eskau* 'eskatu', *hasarrau* 'haserretu', *zorau* 'zoratu'... esaten dira.

Emankorra da partizipioetako -au: *aluzinau, fastidixau, flipau, inplikau, matxakau, rezi-klau, sofistikau, txutau...*, baina Deban eta Mutrikun -atu indartzen ari da.

(24) Gaztelaniako -ido partizipioak, era berean, -idu egin dira mendebalean. Baita Deba ibarrean ere, eta arau emankorra da: *aburridu, defendidu, despedidu, dibertidu, diskutidu, enkojidu, entendidu, entretenidu, kabidu, kubridu, mantenidu, mobidu, serbidu, sumergidu, transmitidu...* Deban eta Mutrikun, dena dela, -itu (> -itxu) indartu da, eta bera da gaur egun ohikoena: *eskribitxu, kabitxu, kunplitxu*, esate baterako, Mutrikun (Arrieta 1974).

(25) Aditz izenak egiteko aukera zabala izatea da mendebaleko euskararen ezaugarria, eta berarekin bat dator Debagoiena. Hona hemen alderdi horretan diren arauak (Elortza 1994, Elortza et alii 1998, Erostarbe 1994, Ormaetxea 2002):

a. Partizipioa $\{-l, n, r\}i, -gi, -ki, -a, -e, -o$ eta $-l$ denean, $-ten$ erabiltzen da: *ibilltten* 'ibiltzen', *ifiñtten* 'ipintzen', *ekarten* 'ekartzen', *jagitten* 'jaikitzen', *eukitten* 'edukitzen', *botaten* 'botatzen', *erretten* 'erretzen', *ittoten* 'itotzen', *hilltten* 'hiltzen'. Leinzko auzo gutxi batzuetan eta Aramaion $-tan$ ere baliatzen da partizipioa $-e$ batekin amaitzen denean: *betetan*, *erretan*, *gordetan*.

b. Partizipioa $-tu$ amaierakoa eta silaba bitik gorakoa denean, $-ketan$ erabiltzen da: *ezkonketan* 'ezkontzen', *eskaketan* 'eskatzen', *gorriketan* 'gorritzen'. Inoiz, gainera, silaba biko aditzekin ere erabiltzen da, arauaren jatorrizko muga zabaldu den seinale: *deiketan* 'deitzen', *mozketan* 'mozten', *sorketan* 'sortzen', *zainketan* 'zaintzen'...

c. Partizipioa $-au$ amaierakoa denean, aukera bi daude. Leintzen eta Aramaion mendebaleko $-etan$ erabiltzen da: *asmetan* 'asmatzen'. Oñatin, berriz, $-iten$ dago, eta bertako bereizgarria da: *asmaitten*.

d. Partizipioa $-idu$ denean, $-i(d)uten$ egiten da Leintzen, Aramaion eta Oñatiko Araotz auzoan: *sentiuten* 'sentitzen'. Oñatin $-iten$ dago horietan ere (*sentitten* 'sentitzen'), eta Aramaion ere entzuten dira inoiz horrelako aditz izenak.

e. Partizipioak $-tu$ eta $-i$ amaierakoak eta silaba bikoak direnean, $-ten$ / $-tzen$ dira gaur egungo atzizkiak, baina $-teen$ / $-tzeen$ izan dira oraintsu arte, eta NOR kasuan agertzen dira horien aztarnak: *galtzeia* / *galtzeie* 'galtzea', *hartzeia* / *hartzeie* 'hartzea', *hasteia* / *hasteie* 'hastea', *sartzeia* / *sartzeie* 'sartzea'... entzuten dira Debagoieneko alderdi batzuetan.

Deba ibarreko gainerako alderdietan $-ten$ eta $-tzen$ orokorrak erabiltzen dira, eta gainerako euskalkietan bezalatsu banatzen dira bataren eta bestearen esparruak. Deba ibarreko erdigunean, hala ere, ohikoak dira *ebaten* / *ebaitten* 'ebakitzen', *hilltten* 'hiltzen' eta *joten* 'jotzen' bereziak. Era berean, zaharrak diren *ebalten* 'erabiltzen', *ibilltten* 'ibiltzen', *ipiñtten* 'ipintzen', *ekarten* 'ekartzen', *etorten* 'etortzen'... entzuten dira inoiz alderdi horretako adineko hiztunen berbetan.

Eibarren gehienbat —baina Debabarrenean ere ez da guztiz ezezaguna—, partizipioa $-n$ batekin amaitzen den aditz batzuekin $-tzen$ izaten da aditz izena. Eibarkoak dira

ondorengoak: *ekitzen, entzutzen, erantzutzen, ereintzen* 'ereiten', *etetzen, etzintzen* 'etzaten', *irakitzen, irauntzen* 'irauten', *itxointzen* 'itxaroten', *jakitzen, jardutzen*.

Esan dezadan, horren harira, gainerakoak baino eremu zabalagoan erabiltzen dela *urtetzen / ertetzen* 'irteten'.

(26) Jokamolde bereziko aditzak:

a. Mendebalean bezala, Deba ibarrean ere iragankorrak dira *igo, jardun, jarraitu / segidu* eta *urten / erten* aditzak: *igo dot, jardun dogu, jarraitu dotsa, urten dabe*. Dena dela, *igo* eta *urten* iragangaiztat ere sarri hartzen dira gazteen jardunean: *igo naiz, urten naiz*.

b. Badira ohiko jokamoldeaz gainera, NOR-NORI era onartzen duten aditzak Deba ibar gehienean: *aditu / entenditu* 'ulertu', *akordatu* 'gogoratu / bururatu' adierekin, *egin / kunplitu, haserretu / amorratu / ernegatu / berotu, pentsatu, zoratu...*

Hona hemen zenbait adibide: *orri politikian gaiñian asko entenditzen jako* 'horri politikaren gainean asko entenditzen zaio' (Elxpuru 2004: s.v. *entendídu*), *etxat akordatzen sela san* 'ez zait akordatzen nola zen' (Larrañaga 1998: 102), *Kortatxon dauke tio zar bat, larogetamar urte kunplidu jakon* 'Kortatxon [leku izena] daukate osaba zahar bat, laurogeita hamar urte kunplitu zitzaion' (Elxpuru 2004: s.v. *kunplídu*), *aittai asarretzen bajako, ikusiko'zue!* 'aitari haserretzen bazaio, ikusiko duzue!' (Elxpuru 2004: s.v. *asarrétu*), *Euskal Telebistako euseria se pentzatze jatzu?* 'Euskal Telebistako euskara zer pentsatzen zaizu?' (Larrañaga 1998: 325), *soratu in jatzu ala, ori eitteko?* 'zoratu egin zaizu ala, hori egiteko?' (Ormaetxea 2002: 87).

c. *ekin* aditza, berriz, NOR erara jotzen da eskualde horretako hizkera gehienetan: *maionesia gausa goson bat dalakuan, ekin die jaten kutxarilliakiñ* 'maionesa gauza gozoren bat delakoan, ekin dira jaten kutxaratxoarekin' (Larrañaga 1998: 103).

(27) *-t(z)eke* aditz atzizkia erabiltzen da Deba ibarreko erdiguneko hizkeretan, Ermuan ez bestetan. Euskal Herriko gainerako alderdietan 'partizipioa + *gabe*' izan ohi da ordezkoa. Bergarakoak dira ondorengo adibideak (Elxpuru 2004): *aspaldixan ikusteke neukan Lezarriko Gillermo* 'aspaldian ikusi gabe neukan Lezarriko Gillermo' (s.v. *agurátu*), *lanera akostunbratzeke nago* 'lanera ohitu gabe nago' (s.v. *akostúnbrau*), *biar esamiña eta oinddio estudixatzen asteke* 'bihar azterketa eta oraindik ikasten hasi gabe' (s.v. *frésko*),

etxoin puxkat, oinddio gertatzeke nago ta 'itxaron pixka bat, oraindik prestatu gabe nago eta' (s.v. gertáu), illabete pasau ein ddau erretzeke 'hilabete baino gehiago egin du erre gabe' (s.v. pasáu).

Oñatin gaur egun ez da entzuten, baina Kandido Izagirrek (1970) adibide bi jaso zituen, *-tzaka* itxurapean: *akordatzaka* 'akordatu gabe', *heltzaka* 'heldu gabe'.

(28) Mendebalean gehienbat, partizipioan *-gi* duten zenbait aditz erabiltzen dira. Deba ibar gehienekoak dira *eba(g)i* 'ebaki' eta *jaurti* (vs *jaurtiki*). Debagoienean eta Erdigunean —baita Elgoibarko adinekoen jardunean ere— *eraba(g)i* 'erabaki', *eralgi* 'eralki', *ere(g)i* / *ire(g)i* 'ireki' eta *ese(g)i* / *ixe(g)i* 'eseki' ere badira, eta *ja(g)i* 'jaiki' ere bai Debagoienean. Gainera, Debagoieneko bereizgarria da —baita Bergarako adinekoen jardunekoa ere— *egogi* 'egoki' aldaera.

Gaur egun, berriz, arrotza da Deba ibarrean *edugi* 'eduki', baina XVII. mendeko Juan Bautista Amileta antzuolarraren kristau ikasbidean eta XVIII.eko Pedro Ignazio Barrutia aramaioarraren *Acto para la Noche Buena* teatroan hori ere bada.

MORFOSINTAXIA

(1) Gipuzkoa gehienez eta Nafarroan *ala* eta *edo* nahastu eta bigarrena nagusitu da. Berrikuntza hori ez da Deba ibarrera —eta mendebalera, oro har— iritsi, eta bizirik dago *ala*, nahiz eta, Debabarrenean gehienbat, galtzera egin duen gazte jendearen artean. Antzuolakoak dira ondorengo adibideak (Larrañaga 1998): *suei esate sotzuen tabernia ixteko, ala jendiai etxea juteko?* ‘zuei esaten zizueten taberna ixteko, ala jendeari etxera joateko?’ (332), *sela sekisun sortzirak ala sortzitterdiak sian?* ‘nola zenekien zortziak ala zortzi eta erdiak ziren?’ (353).

Galderen amaieran, bigarren osagaia isildu denean, sarri agertzen da *ala* Deba ibar osoan, mendebaleko isuriari jarraituaz. Antzuolakoak dira hauek (Larrañaga 1998): *artillesko galtzaik etzeben erabiltzen, ala?* ‘artilezko galtzerdirik ez zuten erabiltzen, ala?’ (329), *suek entzute siñuen, ala?* ‘zuek entzuten zenuten, ala?’ (352).

(2) Galderetan, era berean, *al* partikula zabaldu da erdialdeko euskalkian, eta Debabarrenera ere iritsi da. Debakoak dira adibideak (Txurruka & Urbietta 2003): *eon al tziñan?* ‘egon al zinen?’ (15), *ondo al dabiltza aitta ta ama?* (85).

(3) Bizkaian eta Gipuzkoako alderdi zabalean, perpaus osagarriak egiteko *-(e)na* atzizkia erabiltzen da aditz jakin batzuekin eta perpaus osagarria galdegaigunean ez dagoenean: *aditu* (> *aittu*) ‘ulertu’, *agerian egon*, *antzeman*, *argi egon*, *egia izan*, *entzun*, *esan*, *eza-gun izan*, *gogoan eduki* / *gogoratu* / *akordatu*, *igarri*, *ikusi*, *jakin*, *kontuan eduki* / *konturatu*, *sinistu*, *ukatu*, *uste izan*, *ziurra izan* / *ziur egon*... dira adizkiak. Harridura perpausetan ere erabiltzen da; *eskerrak etorri zarena!*, *jakina ekarri doguna!*, *horixe ezagutzen dozuna!* tan-kerako esapideetan, gehienbat.

Deba ibar osoan dago *-(e)na*, eta Aramaioko adibideotan daukagu lekukotasuna (Ormaetxea 2002: 123): *iños neguen be fiñ emote'skun abariek eskolie, ikusi, ba, premiñie euena ta* 'inoiz neguan ere zintzo ematen zigun apaizak eskola, ikusi, ba, beharrizana zegoena eta', *nik igerri nutzan ak totokixak esan sittuena* 'nik igarri nioan hark ergelkeriak esan zituena'.

(4) Bizkaian eta Gipuzkoako alderdi batean, era berean, kausazko perpausetan arrotza da *bait-* eta, aldiz, *'aditza + (ela) eta'* erabiltzen da maiz. Eremu horretan dago Deba ibarra, eta Aramaiokoak dira adibideak (Ormaetxea 2002: 135-136): *eon trankillo, etxat esebe pasau te* 'egon lasai, ez zait ezer ere gertatu eta', *ango jefioi geixotu in sala ta, egun batzuetan fueteko lagunketan* 'hango ugazabaori gaixotu egin zela eta, egun batzuetan joateko laguntzera'.

(5) Mendebaleko euskaran eta Gipuzkoako ipar-mendebalean bizirik iraun du perpaus kontzesibo eta kausazkoetako *arren* menderagailuak. Deba ibar osoan ere bada, beraz, eta Antzuolakoa da adibidea (Larrañaga 1998: 229): *oiñ asko irabasten dala pentzau arren, pagakisun ueri dao* 'orain asko irabazten dela pentsatu arren, pagakizun ugari dago'.

(6) Ikusi berri dugun *arren* horren ereduari jarraituaz, ziurrenera, *-tearren* atzizkia sortu da mendebalean, kausa eta helburu perpausetan erabiltzen dena. Deba ibar osoan dago, eta Antzuolakoak dira adibideak (Larrañaga 1998): *dantza ittearren be dirua pagatze san* 'dantza egitearren ere dirua pagatzen zen' (346), *ingo sittuen gausa orretzek, atrebidienak, sustatzearren* 'egingo zituen gauza horietzek, ausartenak, ikaratzearren' (351).

(7) Mendebaleko gaur egungo euskaran erakusleak izenaren aurrean jartzeko ohitura nagusitu da. Deba ibar gehienara ere iritsi da berrikuntza, baina ez da indartsua Bergaran, Antzuolan, Oñatiko Araotz auzoan, Deban eta Mutrikun. Aramaion, oster, guztiz ohikoa da (Ormaetxea 2002): *fixetan nas orreikin gisonokiñ* 'fiatzen naiz gizon horiekin' (72), *setan dabis, bañe, orreik umiok?* 'zertan dabilta, baina, ume horiek?' (86), *auxe lanau akabetan doanien, banoixuek neu be ogera* 'lan haxe amaitzen dudanean, banoak neu ere ohera' (128).

(8) Mendebaleko euskaran bizirik dirau *bi* zenbatzailea izenaren eskuinean ipintzeko joerak. Deba ibarrean ere ez da guztiz galdu, baina ezkerrean jartzen da askotan, baita

adin handiko hiztunen jardunean ere. Bergaran, Antzuolan, Oñatin eta Debabarrenean da joera hori indartsuena. Hona hemen Antzuolako zenbait lekukotasun (Larrañaga 1998): *bi illabete* (327), *bi lagun* (329), *bi jostarratzekiñ* (333)... Dena dela, eskuinean ageri da esaldi honetan birritan: *beso bixekiñ alde bixak joteko moduan* ‘beso biekin alde biak jotzeko moduan’ (326).

Eskuinean ezartzen da, era berean, fosilduta gelditu diren zenbait esapidetan: *bizitza biko basarrixa*, *egun birik behin*, *erdibitu*, *gorringo biko arrautzia*, *horma bikua* [pilotako jokaldia], *hortz biko atxurra*, *kontu bi kontau*, *okotz biko gizona*, *ordubixak*, *tiro biko esko-petia*...

9) Mendebaleko ezaugarria da aditz trinkoak galdegai direnean ‘partizipioa + adizki jokatua’ egitura erabiltzea: *joan noa*, *etorri gatoz*, *eduki dauka*...

Deba ibarrari dagokionez, Leintzen eta Aramaion erabiltzen da, baina, zoritxarrez, egin diren liburuetan ez da adibide askorik erakutsi. Kandido Izagirrek (1970: s.v. *fuan*) Oñatiko Araotz auzoan bildutakoa da hau: *berori fuan doa?* ‘berori joan doa?’ Txipi Ormaetxeak (2006: 397) beste hauek jaso ditu Aramaion: *etorri ator ala juen oie?* ‘etorri hator ala joan hoa?’, *ibili dabill* ‘ibili dabil’, *fuen goietzen Jabier da bixok etxea* ‘joan gindozen Jabier eta biok etxera’.

Mallabitarren jardunean, Deba ibarraren ertzean, neuk entzundakoak dira ondorengoak: *ibilli dabill dde isengo dau esbierren bat* ‘ibili dabil, eta izango du ezbeharren bat’, *aprobauko es eban, ba!* *Jakiñ ddaki orrek, gero!* ‘aprobatuko ez zuen, ba! Jakin daki horrek, gero!’, *jo bátera ta jo bétera ibilli ei die eskonbarrixok...* *bai, ba, euki dáuke ta!* ‘jo batera eta jo bestera ibili omen dira ezkonberriok... bai, ba, eduki daukate [dirua] eta!’, *beñ óneske-ro estosue bier bai, da eruen daroiet* ‘behin honezkero ez duzue behar bai, eta eraman daramat’.

DIALEKTOLOGIA

Dialektoak sailkatzeaz

Azkenaldi honetan euskalkiak sailkatzeko grina bizia zabaldu da gure artean, eta hori, berez, ez da inolako lehentasuna. Premiazkoagoa da, esate baterako, gaur egungo hizkeren deskripzioa egitea, batez ere kontuan hartzen bada hutsaren hurrengo daki-gula leku askotan egiten den euskararen gainean. Ipar Euskal Herrikoa da denetan ezezagunena, eta galbide lasterrean doazkigu alderdi hartako hizkerak. Edo berdintzen, gal-tzen ez direnak.

Nik neuk dialektologiaren betebeharrak nagusia zehaztu behar izatekotan, honako haur jarriko nuke denen aurrean: aldakuntzak non, noiz eta zergatik sortu diren, eta nora eta nola hedatu diren azaltzea. Euskarari dagokionez, galdera horiei erantzun ego-kia ematekin oso urrun gaude eta, hain zuzen, galdera horiei erantzun ondoren zehaztu ahalko dira euskalkien mugak. Beherago itzuliko gara gai horretara.

Baten bat, beharbada, harritu egingo da nork eta nik hau esateaz, urte mordo-ka daramatzadalako euskalkiak sailkatzeko ahaleginean. Ezinbestean ekin nion zereginari, 1869koa zelako azkenengo euskalki sailkapena, eta ordutik hona nabarmen aldatu dela-ko euskalkien izaera eta mapa. Eta, aldiz, Bonaparteren mapa eta Bonaparteren sailka-pena izan dira oraintsu arte erabat nagusi eskoletako ikasliburuetan, entziklopedietan, eta baita hizkuntzalari eta euskalari adituen aipamenetan ere.

Begi bistakoa da, oster, euskalkiek izandako bilakaera, hizkuntzalari eta euskalari ez den edonork ere erraz antzemateko modukoa. 1960 aldetik hona gehienbat, euskara

batua sortu eta gure eguneroko bizimoduan sartu denetik, nabarmen berdindu da euskara, bai Hego Euskal Herrian, eta baita —eta argiago, gainera— Ipar Euskal Herrian ere.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Bonapartek aipatutako lau euskalkien ordez, bi besterik ez daude: zuberotarra, bata, eta Lapurdin eta Nafarroa Beherean nagusitu dena, bestea; *nafar-lapurtarra* deitu ohi dena.

Hego Euskal Herriari dagokionez, berriz, Gipuzkoan eta Nafarroan izan dira aldakuntzarik larrienak. Euskalki bi bereizi zituen Bonapartek Nafarroan, eta bakarra agertzen da orain. Galdu egin da Nafarroako eremu zabaleko euskara eta, han ere, galdu ez dena, batu egin da.

Nafarroako iparraldeko hizkerak, berriz, Ipar Euskal Herrikoekin lotu zituen Bonapartek, baina, kidetasunak kidetasun, horretan ez zuen guztiz asmatu. Mitxelenaren (1961 [1977]:41) ondoren, Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa eta Baztango hizkerak Hego Euskal Herrikotzat hartu dira¹. Gaur egun, gainera, asko nasaitu da mugaren alde bietako euskaldunen arteko hartu-emanak. Luzaide da Ipar Euskal Herriatik gertuen dagoena, baina hango gazte gehienengan ere agerian dago Hego Euskal Herriko isuria, eta nabarmenagoa da Urdazubi eta Zugarramurdiko gazteengan.

Nafarroako mendebalean, oster, Gipuzkoa dago gertuan, eta handik elikatzen dira alderdi horretako euskaldunak. Agerian dago oraindik nafar sustrai zaharra, baina Iruñeko euskara itzalita dagoenez, eta Iruñeaz besteko hirigune hazirik ez dagoenez, Gipuzkoa da hangoendako eredia eta iparra. Aldakuntza eta berrikuntza guztiak handik iristen dira.

Badira esaten dudana onartzen ez dutenak. Nafarrak dira gehienak, eta ez dakit nafar zaletasun edo nabarrismo gehiegitzo ez ote dagoen euren buru-bihotzetan. Dena dela, orain ia mendebete nafar peto jator batek esandakoa aldatuko dut hona.

¹ Egiari zor, Pedro Irizarrek (1997) lapurtarraren barruan sartu zuen berriro ere Baztan, baina ez zituen bere arrazoiak argiro azaldu. Baztango hizkeraren berri zabalagoa eta zehatzagoa izateko, ikus Salaburu & Lakar 2005.

Hauxe zioen Arturo Campion iruindarrak euskara giputzaren indarraz (in Campion & Broussain 1922: 9):

Le distinguen arrestos invasores; desposee de su jurisdicción al alto-navarro septentrional en los pueblos de Guipúzcoa, donde le hablaban, y va infiltrándose intersticialmente en Navarra por la comarca de Cinco Villas y de los valles de Araiz y de la Burunda.

Zuzen zebilen Campion, eta Oiartzun-Irun bitarteko alderdia eta Nafarroako Araitz ibarra euskara giputzaren eraginpean daude bete-betean. Baita Larraun, Basaburua eta, ahulago izan arren, Imotz bera ere. Burunda ere bai, jakina, baina oso nabarra da alderdi horretako hizkera.

Gaur egun, gainera, euskara batua erdialdeko euskalkian oinarritu denez, euskalki horren indarra ikaragarri hazi da: Euskal Herri barruan ez ezik, euskalki horixe ari da zabaltzen atzerrian euskara ikasten dihardutenen artean ere.

Jakina, aldakuntza larriagoak gertatu dira Bonapartek ezarritako azpieuskalkien eta hizkeren mugetan. 25 azpieuskalki eta 36 hizkera bereizi zituen, eta horien kopurua ere nabarmen gutxitu da, eta euren mugak, era berean, nahitaez aldatu eta ego-kitu behar dira.

Dialektoak sailkatzeko irizpideak

Arestian esan denez, dialektoak sailkatzea ez da inolako lehentasuna, baina horretan jarduteak onura bat, behintzat, ekarri du gurera: lanerako irizpideak zehaztu beharra egon da. Joera bi nabarmenduko nituzke orain arteko bidean. Batetik, *Euskal dialektologiaren hastapenak* liburuan urratutakoa dago (Txillardegi & Aurrekoetxea 1983), gero, aldeak alde, Pedro Irizarrek (1991-2002) eta Iñaki Caminok (gehienbat in 2004, 2004b, 2005, 2006) jarraitu dutena eta, bestetik, Gotzon Aurrekoetxeak (1992, 1995) ibili duena.

Oso bestelakoa da nire eredua, baina ez da batere berria eta originala, nazioartean hainbat hizkuntzalarik landu dutena baizik. Hona hemen irizpide nagusiak zein diren:

1. Arau emankorrek

Arau emankorrek dira betiere dialektoak sailkatzeko oinarria edo, hizkuntzalariek esan ohi dutenez, *arau sinkronikoak*. Salbuespen gutxi batzuk kenduta, horrelakoak aurkeztu ditut aurreko atalean: Deba ibarrean gaur egun zahar eta gazteen jardunean erabat eta sistematikotasunez gauzatzen diren arauak.

Ez da hori euskal dialektologiako ohiko jokabidea.

Batetik, arauak, aldaerak eta bitxikeriak, denak nahasten dira. Bestetik, berriz, adin handikoen hizkera hartzen da lanerako oinarri. Beste inoiz ere esan dudanez, *dialektologia* ez, *arkeologia* egitea dugu gogoko.

Jakina, ez dut horrekin esan nahi adinekoen hizkera aintzakotzat hartu behar ez denik. Ezta hurrik eman ere! Euskarari dagokionez, gainera, eten nabarmena gertatu da guraso eta seme-alaben arteko transmisioan, eta ezinbestekoa da adinekoen hizkeran arreta jartzea eta baita, zenbaitetan, hura berreskuratzen ahalegintzea ere. Baina hori da gauza bat eta *dialektoak sailkatzea* beste bat. Eta dialektoak sailkatzen dihardugunean, ezin gara adin handikoen hizkerara mugatu. Helduena eta gazteena ere kontuan hartu behar dugu, eta adin handikoen hizkeran dauden arauak gazteen jardunean ere bizirik ote dauden begiratu. Bizirik dauden horiek dira, hain zuzen, dialektoak sailkatzeko lehentasuna dutenak.

2. Berrikuntzak eta arkaismoak

Arauen artean, berriz, *arkaismoak* eta *berrikuntzak* bereizi ohi dira nazioartean, dialektoak sailkatzeko orduan.

Antzinako ezaugarriak, han eta hemen —bazterretako hizkeretan, gehienbat— gordetzen direnak dira arkaismoak. Berrikuntzak, ostera, hizkuntzan gertatutako aldakuntzak dira, eta horiexek dira dialektologiaren ardatza eta muina. Hizkuntza aldatzen denean sortzen dira dialektoak. Beste era batera esateko, aldakuntzak direlako daude dialektoak. Arkaismoak, ostera, geldi egotearen ondorio dira, lehenari itsatsita irautearen emaitza. Berrikuntzak non sortu eta nora hedatu diren aztertzea da dialektologiaren zeregin-a, eta horren arabera ezartzen dira dialektoen arteko mugak. Berrikuntzen sorgune oparoak dira dialektoen ardatza, eta berrikuntzak onartzen eta bereganatzen dituzten eskualdeek osatzen dute dialektoaren eremua.

Gatozen Deba ibarrera, eta ikus dezagun hizkerak sailkatzeko zein arau den egoki eta zein desegoki.

NONDIK eta ZERGATIK kasuetan, esate baterako, hiru aukera daude alderdi horretan: a) *-ti* eta *-gati* (*etxeti*, *ikustiagati*), b) *-tik* eta *-gaitik* (*etxetik*, *ikustiagaitik*), eta c) *-tikan* eta *-gaitikan* (*etxetikan*, *ikustiagaitikan*).

Zaharrak dira *-ti* eta *-gati*, Euskal Herriko zenbait bazterretan gaur arte bizirik iraun dutenak. Berriak dira *-tik* eta *-gaitik*, baina oso aspaldikoak, dagoeneko Euskal Herri osora

hedatuta daudenak. Orintsuagokoak dira, aldiz, *-tikan* eta *-gatican*, batez ere Gipuzkoa gehienez —Goierri ez bestean— eta Nafarroako ipar-mendebalean —gehienez Bortzirietan, Malerrekan eta Bertizaranan— indartu direnak. Azken horietan dira hizkerak sailkatzeko egokiak. Zaharrak diren *-ti*, *-gati* eta Euskal Herri osora zabaldutakoak diren *-tik*, *-gatik* ez dira esanguratsuak. Aldiz, Gipuzkoa aldean indartu diren *-tikan* eta *-gatican* Deba ibarreko alderdi batera iritsi izanak, alderdi hori euskara giputzari begira dagoela salatzen du ozen eta garden.

Hona hemen beste adibide bat. NOR saileko 2. pertsona pluralean ere hiru aukera daude Deba ibarrean: a) *zuek zara*, b) *zuek zar(i)e*, eta c) *zuek zarete*.

Arkaismoa da *zuek zara*, Deba ibarreko erdiguneko adin handiko zenbait hiztunen ahotan oraindik ere noizean behin entzun daitekeena (Eibarko adibideak, esate baterako, in Sarasua, Agirrebeña & Zenarruzabeitia 2005: 269). Berrikuntza da, berez, *zuek zar(i)e*, baina oso aspaldikoa, gaur egun arkaismotzat jo dezakeguna: Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun, Bizkaian, Nafarroako Sakanan eta Deba ibar gehienez gorde da. Berriagoa da *zuek zarete*, Euskal Herriko erdigunean indartu eta Lapurdin, Nafarroa Beherean, Nafarroa gehienez eta Gipuzkoa gehienez hedatu dena, eta Deba ibarreko alderdi batera ere iritsi dena. Horixe da dialektologiaren aldetik esanguratsua: Deba ibarreko alderdi hori Gipuzkoara begira eta Gipuzkoari lotuta dagoela argi salatzen duena.

Esan dezadan, horren harira, arkaismoak eta berrikuntzak ez direla batere kontuan hartu 1980az gero egin den euskal dialektologian. 1983an plazaratutako *Euskal dialektologiaren hastapenak* saioa izan zen aro berriaren abiaburua, eta berrikuntza / arkaismo bereizketa guztiz alboratu zen edo, zehatzago esateko, ez ziren horren esanguraz ohartu ere egin².

² Onura txikia ekarri zion liburu horrek euskal dialektologiari, eta halaxe esan zuen Joseba Lakarrak ere (1986: 673) aspaldi: "Oso liburu eskasa, bestalde, Gabilondoren erronkarierari buruzko atala salbu". Erronkarieraren atalarekin batera, zuberotarrarena ere "salbu" jarriko nuke nik, baina gainerakoan bat nator Lakarrarekin. Arkaismoak eta berrikuntzak ez bereizteaz gainera, multzo berean sartu ziren arauak, aldaerak eta bitxikeriak, arau emankorrek nahiz arau ihartuak. Anabaren adibide gardenak da euskara giputzaren egitura fonologikoaren aurkezpena (Txillardegi & Aurrekoetxea 1983: 124-141). Horretaz guztiaz gainera, bere hartan onartu ziren Bonapartek erabilitako irizpideak eta hark egindako euskalki sailkapena, nahiz eta mendebete baino lehenagokoak izan.

Eta, jakina, oso ondorio okerrak ekarri ditu horretaz ez jabetzeak. Izan dira, esate baterako, Bizkaiko eta Zuberoako hizkerek dituzten kideetasunak aipatu eta goraiatu dituztenak, eta horretan, ostera, ez dago ezer berezi eta harrigarririk: Bizkaiko eta Zuberoako kideetasunak *arkaismo* hutsak eta soilak dira, azken batean. Eta arkaismoetan bat etortzea ez da berezia, edo berezia bada, oso beste arrazoi bategatik da nabarmendu beharrekoa: Bizkaian eta Zuberoan ezaugarri berdinak izateak, euskalkiak ez direla horren antzina-koak salatzen duelako. Euskalkiak sarritan esan ohi den bezain aspaldikoak balira —antzinako leinuekin ere lotu izan dira (bereziki, Caro Baroja 1943, 1946)—, ez litzateke egongo Euskal Herriko bazter bietan hainbesteko kideetasunik. Tankera horretako ondorioak ateratzeko dira arkaismoak kontuan hartzekoak; ez dialektoak sailkatzeko.

Nazioartean, beraz, berrikuntzak hartzen direla kontuan esan da, baina Euskal Herrian bertan ere izan zen 1983a baino lehen bide horietan barrena ibili zenik. Aspaldi azaldu zuten Mitxelenak arkaismoen eta berrikuntzen arteko aldea, eta aspaldi nabarmendu zuten berrikuntzen lehentasuna. Honela mintzatu zen 1964an —orain 42 urte!— argitaratutako *Sobre el pasado de la lengua vasca* liburuan (orain in Mitxelena 1988-1: 16):

La conservación conjunta de un arcaísmo en dos o más variedades de una lengua no supone, por el hecho de tratarse de algo pasivo que se explica por simple inercia, ninguna relación especial entre ellas. Si *iratzarri* ‘despertado’ o *urt(h)arri* ‘enero’ son comunes al vizcaíno y a los dialectos del extremo oriental del país, no prueban en manera alguna que entre uno y otros haya existido una comunidad o estrechos contactos, hipótesis que la historia y la geografía desmentirían a una. La manera más económica de explicar tales coincidencias entre áreas extremas, que siempre ha sorprendido a los observadores, es suponer que innovaciones iniciadas en zonas más centrales no han llegado hasta ellas. De ello se sigue naturalmente que el guip[uzcoano] *esnatu* ‘despertado’ o *ilbeltz* ‘enero’, p. ej., son más recientes con ese valor que las anteriores.

Garbi dago, azken batean, euskalkiak sailkatzeko orduan ez dugula *iratzarri* eta *urt(h)arri* non esaten diren begiratu behar, *esnatu* eta *ilbeltz* non esaten diren baizik. Mitxelenak zuzen zioenez, *pasibotasunaren* eta *inertziaren* ondorio dira *iratzarri* eta *urt(h)arri* erabiltzea, eta hizkuntzan gertatutako aldakuntzaren emaitza, ostera, *esnatu* eta *ilbeltz* esatea. Berririo diot: aldakuntza non gertatu den eta aldakuntzaren oihartzuna nora hedatu den aztertu behar du dialektologian diharduenak. Horrexegatik, hain zuzen, Deba ibarreko hizkerak sailkatze-

rakoan, *etxetikan*, *ikustiagaitikan* eta *zarete* non esan diren aipatuko dugu, eta alde batera utziko ditugu *etxeti* / *etxetik*, *ikustiagati* / *ikustiagaitik* eta *zara* / *zar(i)e*.

Deba ibarreko hizkerak sailkatzeko orduan, era berean, alde batera utziko ditugu *izan*-en *gara*, *zara* eta *zar(i)e* adizkiak. Deba ibarrean eta Bizkaian adizki berberak erabiltzeak ez du frogatzen ezer; leku bietan egoera zaharrari eutsi zaiola besterik ez. Aldiz, Deba ibarreko zenbait alderditan -e- erroa duten *gera*, *zera*, *zerate* erabiltzeak Gipuzkoan egindako berrikuntza onartu dela esan nahi du. Horixe da esanguratsua: berrikuntzetan batera ibiltzea, ez arkaismoetan bat etortzea.

Tankera horretako adibide ugari aipa ditzakegu. Esate baterako, ez Bizkaian ez Deba ibarrean bustidura adierazgarriak ez dauka indarrik; ez da berrikuntza hori hara iritsi eta egoera zaharrari eutsi zaio. Era berean, Bizkaian eta Deba ibar gehienez —eta Erronkarin, Zaraitzun eta Sakanako mendebalean— *n*, *l* eta *r* ondoren ez da *tz* ahoskera nagusitu hitzak batzerakoan (*egon zan* vs *egon tzen*), baina lehengoan irautearen ondorio soila da hori ere. Bizkaian, Deba ibarrean eta Sakanan *bedar*, *edur*, *idar*, *zidar* aldaera zaharrak gordetzeak ere ez du erakusten hizkera horien arteko batasuna eta lotura. Bizkaian eta Deba ibarrean —eta Zuberoan eta Erronkarin— *n* eta *l* ondoren *p*, *t* egotea ere (*altara*, *denpora*, *jente*) jatorrizko aldaerei eutsi izanaren ondorioa besterik ez da.

Morfologian ere badira Deba ibarrean eta Bizkaian gorde diren arkaismoak: plural hurbileko artikulua (*lagunok*), NOR-NORI saileko adizkien iraganaldian *zit-* eza (*jatan* vs *zitzaidan*) —Zuberoan ere, esate baterako, ez dago—, aditz izenetako -*ten* (*jarten* vs *jartzen*) —Zuberoan ere badago— eta partizipioetako -*gi* (*iregi* vs *ireki*), Sakanan ere badena.

Morfosintaxian, berriz, *ala* juntagailua dago Deba ibarrean eta Bizkaian —baita Ipar Euskal Herrian ere— eta *bi* zenbatzailea izenaren ondoren jartzen da sarri, baina hori ere askoz eremu zabalagoan zegoen aspaldi. Bizkaiko eta Deba ibarreko —eta Urolaldeko— perpaus kontzesiboetako *arren*, era berean, eremu zabalagokoa zela ematen du; Ettxepare (1545) garaztarraren *Bascoac oroc preciatzen* / *heuscara ez iaquin harren*, horren lekuko.

Aldaera lexikoen artean, era berean, ez dira aipatuko zaharrak diren *habia* eta *uzker*, eta bai *hapia/hafia* eta *puzkar* berriagoak. Lexikoan, azkenik, alde batera utziko dira mendebal gehienez gordetako *ha* ‘hura’ erakuslea eta *orri* ‘hostoa’ bezalako hitzak, antzina Euskal Herri osokoak edo, behintzat, eremu zabalagokoak zirenak.

Berriro esango dut: ezaugarri horiek guztiok arkaismoak dira, eta ezin dira hizkerak sailkatzeko erabili.

3. Dialektoak sailkatzeko ezaugarri kopurua: garaian garaiko berrikuntzak

Behin irizpideak ezarrita, eta dialektoak sailkatzeko ardatzak *arau emankorrak* eta *berrikuntzak* direla argituta, bada oraindik askatu beharreko beste korapilo bat: hizkera edo dialekto bat sailkatzeko *zenbat ezaugarri* eduki behar ote diren kontuan.

Hiztun xeheak berehala eraiki ohi ditu dialektoak. Herri batetik bestera aldatzen diren hitzak, ahoskera bereziak, azentua... arrazoi nahikoa izaten dira hizkerak bata bestea-rengandik bereizi eta "dialekto" deitzeko.

1998an, saio hau lehen aldiz egiten jardun nuenean, Eibarko eta Soraluzeko hizkerak berdinak ote ziren galdetu nion eibartar bati, eta erabatekoa izan zen haren erantzuna:

—*Konpletamente diferente*ak.

Horren arrazoiez galdetuta, Soraluzen *ts* —> *tx* egiten zela, eta ohiko esaera ekarri zidan gogora: *hautx herrixa* zela Soraluze. Eibarko *peoria* 'ataria' hitza ere Soraluzen arrotza zela aipatu zidan. Eta gertakari xume bi horietan oinarrituta egin zituen Soraluzeko eta Eibarko hizkerak "konpletamente diferente".

Dialektologian adituak edo, behintzat, arituak direnek ere berdintsu jotatzen dute sarritan. Pedro Irizarrek, esate baterako, lau hizkera bereizi zituen Deba ibarreko erdigunean: a) Eibar, b) Soraluze, c) Elgeta-Bergara-Antzuola, eta d) Oñati. Eta hauexek horretarako aurkeztu zituen arrazoiak (1992-2: 373):

1. Bergara aldean *dotsa, ja(o)* esatea.
2. Eibarren *detsa* esatea.
3. Soraluzen *dotxa* esatea.
4. Oñatin *xao* esatea.

Beste era batera esateko, Eibarren NOR-NORI-NORK saileko erroan -e- izatea zen bereiz jartzeko arrazoiak: *deutsa* —> *detsa* egitea. Soraluzen *ts* —> *tx* ahoskatzea zen nor-

tasun berezia aitortzeko gertakaria, eta NOR-NORI-NORK saileko erroan -o- izatea (*deutsa* —> *dotsa*) eta orainaldian, datiboa 'hari / haiei' denean, *jao* 'dio' tankerako adizkiak erabiltzea, berriz, Bergara aldeko hizkerai izaera beregaina emateko oinarria. Oñatiren beregaintasuna, azkenik, adizki jakin batzuetan [j] ahoskera izateari zegokion: *xao* esatea *jao*-ren ordeaz.

Leintz eta Aramaio ere banandu egin zituen Irizarrek, eta hauexek horretarako zituen arrazoiak (1992-2: 487-490):

1. Aramaion *nen* 'nuen', *zen* 'zenuen', *gen* 'genuen' esaten zirela, eta -be- zuten *neben*, *zeben*, *geben*, berriz, Leintzen.

2. Aramaion *gaitu* eta *zaitu* adizkiak *gau*, *zau* tankerakoak baino "sarriago" esaten zirela, Leintzen ez bezala.

3. Aramaion *jatie* 'zaie' esaten zela eta *jakue*, berriz, Leintzen.

Garbi dago, oraingo honetan ere, aurkeztutako hiru arrazoiak urriak eta oso oinarri ahulekoak direla. Bokalarterko -b- galtzea (*neben* —> *nen*) ohiko gertakaria da, euskalki guztietan jazotzen dena. Txipi Ormaetxeak (2006: 324) dioenez, bigarrenik, Aramaion *jatie* adizkiarekin batera, *jakue* —eta *jake*, *jate*— ere erabiltzen da eta, hiru-garrenik eta azkenik, *gau* / *gaitu* adizkiak Leintzen baino gehiago edo gutxiago erabiltzen ote diren neurtu ez badut ere, *gau* tankerakok ezagunak dira Aramaion. Lehenago edo geroago, indartsuago edo makalago, hara ere iritsi da berrikuntza eta, azken batean, horixe da balio duena.

Bonapartek berak ere arau gutxiegi erabili zituela iruditu zait beti, eta haren zenbait sailkapen oker horren ondorio direla. Esate baterako, Bruno Etxenike lankideari 1864an egindako gutun batean, Zaraitzu eta Erronkari ibarretako hizkerak euskara zuberotarrarekin batzeko, hiru arrazoi zituela esan zion (in Urkijo 1910: 280):

a. *izan*-en *niz*, *zira*, *gira* tankerako adizkiak vs *naiz*, *zara*, *gara*.

b. Zuketa eta xuketa tratamenduak: *bizi nuzu* / *bizi nuxu* vs *bizi naiz*.

c. -a galdera atzizkia: *joan daia?* 'joan al da?'

Bestela bereizi zituen 1869an: Erronkariko hizkera euskara zuberotarraren barruan jarri zuen, eta Zaraitzukoa ekialdeko behe nafarrean. Batean zuketa eta bestean xuketa egotea ziren horretarako arrazoi bakarrak.

Mitxelenak, arestian aipatu dugun *Sobre el pasado de la lengua vasca* liburuan, ederki erakutsi zuen gauzak oso bestela ikus zitezkeela hizkuntza zabaltasun handia goz aztertuta. Fonologia saila aukeratu zuen Erronkariko eta Zaraitzuko hizkerak Zuberoakoarekin bat ote zetozen ala ez erakusteko. Bederatzi arau bereizi eta berrikuntza edo arkaismo ote ziren ikusi zuen. Hona hemen bederatzi ezaugarriok zein ziren (in Mitxelena 1988-1: 17-18):

(1) *u* → *ü* bilakaera: *esku* → *eskü*.

(2) *i - u* → *u - u / ü - ü* asimilazioa: *il(h)un* → *ulun* (Erronkarin) / *ülhün* (Zuberoan).

(3) *au* diptongoa → *ai* egitea: *gau* → *gai*.

(4) Sinkopa edo bokal galtzea: *zaitu* → *ztu*.

(5) Hasperena galtzea: *hasi* → *asi*.

(6) Hitz hasierako **j*- → [j] ahoskatzea: *jakin* → *xakin*.

(7) Bokalkarte *i* → *x / g / ø* egitea: *leiho* → *lexo* (Erronkarin) / *le(g)o* (Zaraitzun).

(8) *n* eta / ondorengo *p, t* → *b, d* egitea: latineko *tenpora* → *denbora, voluntate* → *borondate*.

(9) *rz* → *st* egitea: *berze* → *beste*.

Berrikuntzak (+) zeinuarekin adierazi zituen eta arkaismoak (–) bidez, eta ondorengo taula osatu zuen:

Ezaugarriak	Zaraitzuarra	Erronkariarra	Zuberotarra
(1)	–	–	+
(2)	–	+	+
(3)	–	+	+
(4)	+	+	–
(5)	+	+	–
(6)	+	+	–
(7)	+	+	–
(8)	+	–	–
(9)	–	– / +	+

Taulan ikusten denez, Erronkariko euskarak eta zuberotarrak berrikuntza bitan egiten dute bat: (2) *i - u* —> *u - u* asimilazioan (—> *ü - ü* Zuberoan) eta (3) *au* —> *ai* bilakaeran. (9)an ez dago batasunik Erronkari barruan: lekurik gehienetan *-st-* egin zen, Zuberoan bezala (*beste, bost*), baina *-rz-* gorde zen Uztarrozen eta Bidankozen, Zaraitzun moduan (*berze, borz*).

Baina gehiago ziren —lau, guztira— Erronkariko euskarak, Zuberoatik aldendu eta Zaraitzurekin eta Nafarroako beste hizkera batzuekin batera egindako berrikuntzak: (4) bokalen sinkopa, (5) hasperena galtzea, (6) hitz hasierako **j-* —> [ʃ] ahoskatzea, eta (7) bokal arteko *i* galtzea edo *x* (Erronkarin) edo *g* (Zaraitzun) egitea.

Arkaismo batean ere (8) bat zetozen Erronkariko euskara eta zuberotarra: bietan gorde ziren *n* eta *l* ondorengo *p* eta *t*; bietan esan izan da *boront(h)ate*, adibidez. Baina, Mitxelenak zioenez eta dagoeneko ikusi denez, arkaismo berberak izateak ez du adierazten hizkeren arteko lotura.

Labur eta laster esateko, Erronkariko eta Zaraitzuko hizkerek Zuberoakoarekin —eta Ipar Euskal Herrikoekin, oro har— dauzkaten kidetasunak gorabehera, nafarrak —edo Hego Euskal Herrikoak, nahiago bada— dira gehienbat. Nafarroako hizkerek batera egin dituzte *berrikuntza* gehienak, eta horixe da fonologiako araurik esanguratsuenak kontuan hartuta —azentua utzi zuen kanpoan— Mitxelenak atera zuen ondorioa. Eta ondorio berberera iritsiko ginateke fonologiaz gainera, morfologia, sintaxia eta lexikoa ere kontuan hartuko bagenitu.

Ni neu zeharo bat nator Mitxelenaren jokabidearekin eta, gainera, hizkuntzan gertatu diren berrikuntza guztiak aztertu behar direlakoan nago, ez bakarrik fonologiakoak. Ez dut garbi ulertzen, bestalde, zer dela eta arau batzuk gainerakoak baino esanguratsuagoak izan behar ote duten. Niretako, esate baterako, oso aintzakotzat hartzekoa da zuketa tratamendua egotea, baina oso aintzakotzat hartzekoak dira, era berean, *u* → *ü* egitea, bokalen sinkopa, **j*-ren [j] ahoskera edo hasperena galtzea.

Ez dut argi ikusten, horren harira, zer dela eta **edun*-en *dut* / *det* / *dot* adizkien eremu banaketa horren erabatekoa, beste guztien gainetik jartzekoa izan behar ote duen, euskal dialektologian egin ohi den moduan.

Ohartzen naiz eta onartzen dut *dut* / *det* / *dot* horiek daukaten esanguraz, baina eduki dezagun gogoan adizki horiek aspaldi egindako aukerak direla, XVI. menderako guztiz gauzatuta zeudenak eta, beraz, askozaz lehenago ere indarrean zirenak. Eduki dezagun gogoan, era berean, mendeen joan-etorrian aldatu egiten dela hizkuntza eta, antzinako garaietan mugarri garbia zena, gaur egun guztiz lausotuta egon daitekeela.

Deba ibarrean bertan daukagu horretaz jabetzeko adibidea: *dot* saileko adizkiak erabiltzen dira Elgoibarren, eta *det* sailekoak, berriz, Mendaron. Hori horrela da, baina herri bi horietako hizkerak *osotasunean* hartuta, nekez esango genuke “euskalki” bi direla. Ezta “azpieuskalki” bi direla ere, hain da hazia gainerako arlo guztietan bien artean dagoen berdintasuna eta batasuna.

Alderantzizko adibidea ere badaukagu Deba ibarrean: *det* saileko adizkiak erabiltzen dira Mutrikun eta Deban, baina herri bi horietako hizkerak ezin dira gaur egun multzo berean kokatu. Saioaren sarreran esan da mutrikuarrek hartu-eman estua dutela ondarrutarrekin, eta nabarmen bizkaitartu dela hango euskara. Debatarrekin, oster, ez dute izan bizkaitarrekin loturarik. Zehatzago esateko, Debako gazteak Elgoibarrera joaten dira

ikastera edo astialdiak igarotzera, baina Elgoibarren euskara hain bizirik ez dagoelako-
edo, hutsa edo hutsaren hurrengoa da debatarrengan daukan eragina. Gainera,
Elgoibarrera ez ezik, Gipuzkoako beste alderdi batzuetara ere (Azpeitia, Zarautz...) sarri
joaten dira debataarrak, eta gauza da euskara giputzeko berrikuntza denak edo gehienak
sartu direla haien hizkeran.

Beste alderdi batzuetan ere antzeko gertakariak nabari dira. Bonapartek *det* saileko
adizkiak erabiltzen zirelako sartu zuen Etxarri Aranatz euskara giputzean. Halaxe da gaur
egun ere, baina adizki horiek gorabehera, txikia da Etxarri Aranazko euskarak bere ondo-
ko Goierriko hizkera giputzarekin daukan berdintasuna, eta handia, ostera, Bonapartek
euskara nafarrean sartu zituen Arbizu eta Sakanako gainerako herriein daukana. Halaxe
erakutsi dute, hain zuzen, Jose Luis Erdoziak (2001) oraindik orain aurkeztu dituen
datuek.

Lezo eta Erretereria, era berean, *dut* sortako adizkiak erabiltzen direlako kokatu dira
azkenaldian euskara nafarrean, baina adizki horiek gorabehera, Lezo eta Erretereriako
hizkerak eta *det* erabiltzen den Pasaia eta Astigarragakoak berdintsuak dira, eta nabar-
men desberdinak, aldiz, ondoko Goizueta eta, batez ere, Lesaka herri nafarretakoak.

Azken batean, beraz, *dut* / *det* / *dot* adizkietan arreta guztia jartzea, hizkuntzaren
ikuspegi *estatikoa* edukitzea da nire iritzian, hizkuntzak etengabe ari direla aldatzen
kontuan ez hartzea. Berrikuntzak uneoro sortzen dira, eta berrikuntza horiek guztiak
aztertu behar ditu euskalkiak sailkatu nahi dituenak; eta *garaian garaikoak*, gainera.
Hau da, XVI. mendeko euskalkiak eta XXI. mendekoak sailkatzeko ezin dira ezaugarri
berberak erabili; bost mendeko tarte luzean hizkuntza ez dela batere aldatu onartzea
litzateke hori.

Gertakarien kronologia ere, beraz, ondo gogoan eduki behar da dialektoak sailka-
tzeko orduan. Har dezagun Larraun, Basaburua eta Imotz ibar nafarretako adibidea.
Alderdi horretan euskara nafarra egiten dela diotenek, instrumentaleko -s atzizkia
(*burus* 'buruz'), erdal -on amaiera -ona egitea (*melon* —> *melona*), aditzen 2. pertsona
singularreko *y-* (*yaiz* 'haiz') eta NOR-NORI-NORK saileko -*it-* pluralgilea (*nitio* 'niz-
kion') aipatzen dituzte iritzi horren alde (ikus in Camino 2004: 83-84). Eta zuzen
daude: ezaugarri horiek euskara nafarraren berrikuntzak dira, Nafarroako hiru ibar
horietara ere iritsi zirenak.

Dena dela, arau horiek *emankorrek* ote diren egiaztatu behar genuke lehenengo, hau da, ia gazte jendeak ere erabiltzen ote dituen. Eta hori egingo bagenu, ziurrenera ezus-tekoren bat hartuko genuke. Nik neuk, behinik behin, lau arau horietatik bakarra baizik ez dut aurkitu bertako gaztetxoek jardunean bizirik: erdal *-on* amaiera *-ona* egitea. Gainerako hirurak ezin izan ditut egiaztatu.

Behin ezinbesteko urrats hori egin ondoren, berrikuntzok noizkoak ote diren ikusi behar genuke. Eta garbia da erantzuna: aspaldikoak oso. Halaxe erakusten dute izkribu zaharrek, eta baita lau gertakari horien eremuaren zabaltasunak ere.

Antzinako garaietan, beraz, Nafarroatik —Iruñetik, ziurrenera— elikatzen ziren ibar horiek. Ados horretan. Baina, eta gaur egun? Nondik iristen dira berrikuntzak orain? Horren erantzuna ere garbia da: Gipuzkoatik, gehienbat.

Horren lekuko dira, besteak beste, hitz hasierako **j*-ren [x] ahoskera (*jan* vs *yan*), trin-koen iraganaldiko erroan *-e*- nagusitzeko joera (*zekien* vs *zakien*), geroaldiko *-go* atziz-kiaren zabalkundea (*egingo* / *eginko* vs *eginen*), *eduki* nagusitzeko joera (*daukat* vs *dut*), 'partizipioa + TA' egitura (*ikusita* vs *ikusirik*), perpaus osagarrietako *-(e)nik* atzizkia (*ez du esan etorriko denik*), kausa perpausetako 'aditza + eta' egitura (*goazen hemendik, berandu da eta*), *al* galdera atzizkia (*sartuko al dituk?*), *egin* aditz indargarria (*etorri egin da* vs *etorri da*)...

Eskualde horretan, gainera, erdialdeko eta ekialdeko ezaugarrien arteko lehia ikusten da sarri, baina gehienetan, adineko hiztunek erabiltzen dituzte ekialdekoak, eta gazteek erdialdekoak. Horren adibide dira *-(e)lako* / *-(e)lakit* atzizkiak: *egin duelako* vs *duelakit*.

Lexikoari begiratuta ere, Gipuzkoa aldeko zenbait hitz nagusitze bidean direla ikusten da, edo zeharo nagusi direla dagoeneko: *aitona* (vs *aitatxi*), *asko* (vs *aunitz*), *aurre* eta *atze* (vs *aitzin* / *gibel*), *behatz* (vs *eri*), *esnatu* (vs *iratzarri*), *hirurogei* eta *laurogei* (vs *hiruetan hoge* / *lauetan hoge*), *kale* (vs *karrika*), *katagorri* (vs *katapurtxintxa*), *mami* (vs *gaztanbera*), *neskame* (vs *neskato*), *triku* (vs *sagarroi*), *txilbor* (vs *xilko*), *txukun*, *urruti* (vs *urrun*)...

Arturo Campionen eta bion artean, gainera, bihotz eta buru hotzez jokatu duten beste nafar batzuk ere ohartu dira aldakuntza giroaz. Pedro Irizarren berriemaile izan zen Azpirotz herriko bizilagunak, esate baterako, argiro salatu zuen Larraungo jokabidea. Hauexek haren hitzak (in Irizar 1981-2: 212):

Este colaborador no encuentra una uniformidad total en las flexiones verbales y piensa que posiblemente existan dos capas, una la que ha venido empleando la generación anterior, y la otra con bastante influencia de Tolosa, que actualmente y debido a las facilidades de los medios de comunicación, se ha podido ejercer sobre estas gentes, para las cuales el mejor euskera es el de Tolosa.

Egiari zor, urte batzuk lehenago ere euskara giputzaren eragina nabarmendu zuen Larraungo mendebaleko herrietan, inguru hura ondo asko ezagutzen zuen Damaso Intza araiztarrak (1957: 92):

Araitz-tik urbillen gelditzen diran errietan, Albiatsu, Errazkin, Azpirotz eta Gorritin, gipuzkerara geien ematen duten joerak dituzte aditzaren erabilketan.

Laburbilduaz, Nafarroako mendebal osoan ikusten dira Pedro Irizarren berriemaileak aipatzen zituen kapa edo geruza biak: nafarra da geruza zaharra eta giputza berria. Nafarroako iparraldean, berriz, alderantzizkoa da hurrenkera: Ipar Euskal Herriarekin batzen du geruza zaharrak, eta Nafarroarekin —eta Hego Euskal Herriarekin, oro har— geruza berriak. Gertakari horiek oso kontuan eduki behar ditu dialektoak sailkatu nahi dituenak.

Lexikoa eta aldaera lexikoak

Behin eta berriro esan da orain arteko aurkezpenean, *arau emankorrek* direla dialektoak sailkatzeko euskarriak. Horiexek dute erabateko lehentasuna, horiexek direlako neurtzen eta azaltzen ere errazena. Dena dela, lexikoa eta aldaera lexikoak ezin dira erabat utzi alde batera; horiek ere hizkuntzaren zati dira eta badute euren esangura.

Argitu dezagun, lehenengo, batzuk eta besteak zer diren. Leku batetik bestera aldatzen diren hitzak, erro berezia dutenak dira *lexikoaren* aztergaia. Esate baterako, *irten / atera / jalgi, ipini / paratu / jarri, bits / apar, ei / omen, oratu / atxiki / heldu* tankerakoak.

Aldaera lexikoak, ostera, hitz berberetik eratorritakoak dira. Esate baterako, *irten / erten / urten* ez dira hiru hitz, hitz berberaren aldaera soilak baizik. Era berean, *atera / atara / etara / ateri / atra, ipini / ifini / imini, bits / pits, omen / emen, oratu / obatu / ebatu* hitz berberen aldaerak dira.

Ezinbestekoa iruditzen zait batzuk eta besteak zuzen bereiztea, nahiz eta badiren batzuk eta besteak multzo berean sartzen dituztenak (esate baterako, in Camino 2003). Garbi dago *irten / atera / jalgi* hirukoteak ez daukala bata bestearekin zerikusirik: erro bana dute, jatorri banakoak dira. Aldiz, aldaera lexikoak arrazoi fonetikoen ondorio izan ohi dira; *ipini / ifini / imini*, adibidez.

Euren eremuak ere ez dira bat etortzen. Hitzak egonkorragoak dira eta eremu trinko eta zabalagoak osatzen dituzte; mendebal oso-osoan erabiltzen da, esate baterako, *ipini* hitza. Aldaerak, ostera, errazago sortzen dira, eta herri berean eta hiztun berak bat baino gehiago erabil ditzake aldi berean. Belene Salazarren (2001) arabera, adibidez, *imini, ifini* eta *ipini*, hirurak erabiltzen dira, gehiago edo gutxiago, Bizkaiko Ugao herrian.

Beste alde batetik, berriz, ez zait iruditzen hitz eta aldaera guztiek balio eta esangura bera dutenik. Deba ibarreko ezaugarriak aurkezterakoan esan da *artati* ‘artazi’, *baikotz* ‘bakoitz’ eta *senalle* ‘seinale’, esate baterako, ez zirela aipatu ere egingo. Oso hitzun gutxi —adin handikoak beti— eta oso noizean behin erabiltzea zen horren arrazoia. Berri itxurakoak dira, gainera, herri gutxi batzuetan baizik erabiltzen ez direnak.

Lexikoan ere sarri gertatzen dira horrelako adibideak. Badira hizkuntzetan oinarritzakoak diren hitzak: gorputz atalen izenak (*bekoki* / *kopeta*), senidetasuna adierazten dutenak (*anaia* / *neba*), denbora neurtzeko unitateak (*asteazken* / *eguazten*), eguraldi gertakarienak (*kazkabar* / *txingor*), geografia gertakarienak (*baso* / *oihan*), janari eta edari izenak (*gatzatu* / *mami*), animalia izenak (*erbinude* / *ogitagaztai* / *satandere*), koloreen izenak (*hori* / *beilegi*), jai egunen izenak (*gabonak* / *eguberriak*)... Horrelakoak egonkorrak izaten dira, dialektoak bereizteko egokiak.

Beste batzuk, berriz, aldakorragoak dira; zenbait tresnaren izenak, adibidez. Eibarko burdingintzan sortutako *barauts*, *maratila*, *zulakaitz* tankerako hitz bereziak, esate baterako, ez dira Eibarko euskara *euskalki* edo *hizkera beregaina* dela aldarrikatzeko helduleku egokiak.

Txikikeriak eta bitxikeriak saihesteko, beraz, dagoeneko aipatu dugun irizpidea hartuko dugu kontuan. Eremu zabaletan erabiltzen diren ezaugarriak zaharrak izan ohi direla esan da, eta eremu murrizketan erabiltzen direnak, aldiz, berri samarrak. *lzkribu zaharretan* agertzen diren hitzak eta aldaerak, eta hargatik, *eremu zabalean* ezagunak direnak eta gaur egun ere *bizirik* daudenak erakutsiko ditugu geure kontakizunean.

Hitzen eta aldaeren harira, badaukat egiteko ohar bat: euskal dialektologian ez direla ia aintzakotzat hartu. Zehatzago esateko, Bonapartek lexikoa aztergai izan zuen hizkera jakin batzuen inguruan egindako txostenetan, baina haren ondorengoek ez zioten horretan jarraitu. Hori dela eta, apurra da, eta ez oso ziurra, hitzen eta aldaeren eremuez dakiguna.

Egiari zor, baditugu oso helduleku gotor bi eskura: Azkueren hiztegia (1905-1906) eta Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* (1961), baina euren handitasuna gorabehera, ezin dira bere horretan baliatu. Horko datuak egiaztatu eta gaurkotu egin behar dira, urteak ere badirelako lan erraldoi horiek egin zirela.

Azkenaldian, dena dela, gauzak zertxobait aldatu dira, eta lexikoan —ez hainbeste aldaeretan— arreta jartzen hasi da. Gainera, helduleku egokiagoa ere badaukagu irispi-dean: *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Saio hau berau da ibili den bidearen erakuslea. 1999an egindakoa oraingo honekin alderatzen bada, nabarmen gelditzen da lexikoaren eta aldaeren sailean egin den aurrerakuntza. Baina aurrerakuntzak aurrerakuntza, oraingo honetan ere izango dira zuzendu beharreko akatsak eta osatu beharreko hutsuneak. Dakiguna dakargu, eta lanean jarraituko dugu.

Euskalkien izenak

1997ko azaroaren 24an, Iruñean, euskaldunon hiriburuan, euskalkien mapa berria aurkeztu nuenetik, batek baino gehiagok leporatu dit bazterrak nahasteko gogoia. Bonaparteren mapa bikaina gutxiesteaz (!?) gainera, euskalkien izenak ere aldatu izana eramanezina gertatu zaio zenbaiti.

Euskalkien mugetan Bonaparteren garaitik hona izandako gorabeheraz arestian mintzatu naiz, eta sakonago eta zabalago ere jardun dut lehenago ere inoiz (1998 eta 2003). Gatozen, ba, izenetara.

Egiari zor, bi besterik ez ditut nik asmatu: *erdialdeko euskalkia* eta *ekialdeko nafarra*. *Mendebaleko euskalkia* aspaldi aipatu zuen Georges Lacombe, 1924an *Les langues du monde* liburu ederrean idatzitako “Langue basque” txostenean, eta harrezkero ere hizkuntza gaietan jardun dutenek sarri erabili dute *mendebal* hitza. *Euskara nafar-lapurterra*, berriz, Pierre Lafittek egin zuen ezagun, 1944an *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)* saioa plazaratu zuenean.

Nori berea aitortu ondoren, izenon zuzentasunaz eta egokitasunaz jardungo dugu.

Gauza da herrialdeen izenetan oinarritu direla euskalkien izenak, eta hizkuntzaren mugak ez etortzen administrazioak ezarritakoekin bat! Bizkaian egiten den euskararen antzekoa da Gipuzkoako Deba ibarrekoa eta Arabako alderdi euskaldunekoa, eta eremu horretako zenbait ezaugarri esparru zabalagokoak ere badira, gainera. Esate baterako, dagoeneko sarri aipatu den *-a + a* —> *-ea / -ia / -ie* bilakaera Urolaldeko herri batzuetan, Goierri osoan eta Nafarroako Burundan gauzatzen dela ikusi da, eta haxe da nire gal-

dera: esan ote daiteke $-a + a \rightarrow -ea$ egitea “bizkaieraren” bereizgarria dela? Orain arte horixe esan da, baina ez da inondik inora zuzena eta zehatza.

Horren eremu berdintsuan betetzen diren beste ezaugarri batzuk ere badira. Esate baterako, partizipioetako *-au* (*gustau* ‘gustatu’), *egin* erroa (*daiket* ‘dezaket’), perpaus konzesiboetako *arren* menderagailua (*jakin arren*, *ez du esan nahi*), kausa eta helburu perpausetako *-tearren* (*zeu ikustearren etorri naiz*)... Lexikoan ere Bizkaiko mugak gaindizten dituzten hitz ugari dago: *abade*, *albo*, *astun*, *bits* / *pits*, *izara*, *izeko*, *laba(i)n*, *lapiko*, *okaran*, *papar*, *praka*, *zapatu*, *zarata*, *zil*... Baita aldaera lexikoak ere: *ete*, *gaztai*, *keixa*, *kipula*, *narru*, *txixa*... Hitzun xehea lasai eta nasai geldituko da ezaugarri horiek guztiok “bizkaierarenak” direla esanda, baina beste zorroztasun eta zehaztasun batekin jokatu behar du hizkuntza lanbide duenak.

Hizkuntza, gainera, ezin da gaur egun denera mugatu; iragana ere badu. Eta iragan horretan gora egiten bada, Bizkaikotzat dauzkagun ezaugarri asko Araban, Errioxan eta Burgosen ere bazirela ikusiko da. Horrexegatik, beraz, zuzenagoa eta zehatzagoa da *mendebala* deitura, *bizkaiera* baino.

Bada aintzakotzat hartu beharreko beste gertakari bat, behin baino gehiagotan bertatik bertara bizi izan dudana. Deba ibarreko bizilagunei ea “bizkaiera” hitz egiten ote duten galdetu diedanean, harrituta eta, inoiz, bekozko beltza jarrita erantzun didate eurak gipuzkoarrak direla eta, beraz, Gipuzkoako euskara erabiltzen dutela. Eta, azken batean, badute arrazoia: Deba ibarreko euskara bertakoa da, autoktonoa, dakigula behintzat, Bizkaitik etorri edo ekarri ez dena. Alderdi horretatik begiratuta ere, beraz, egokiagoa da herrialdeen izenak alde batera uztea, eta *mendebaleko euskara* deitzea.

Gauza bera gertatzen da *gipuzkera* edo *giputz* deiturarekin: Gipuzkoan ez ezik, Bizkaian eta Nafarroan ere betetzen dira zenbait ezaugarri. Zuzena ote da hitz hasierako **j*-ren [x] ahoskera “gipuzkerarena” dela esatea? Zuzena, *-a* berezkoaren egonkortasun eza “gipuzkerarena” dela esatea (*gauz bat* vs *gauza bat*)? Zuzena, galderetako *al* partikula “gipuzkerarena” dela esatea? Zuzena, *aitona*, *arkakuso*, *esnatu*, *hots egin*, *ilbeltz*, *neskame*, *triku*... hitzak “gipuzkerarenak” direla esatea? Zuzena, *bezela*, *eskubi*, *iltze*, *pake*, *parre* / *farre*, *txingurri* / *txindurri*... aldaerak “gipuzkerarenak” direla esatea? Halaxe esan da orain arte, baina egokiagoa eta zehatzagoa da *erdialdekoak* direla esatea.

Ekialdeko nafarra dela eta, ez da izena arazo nagusia, nortasun handiko hizkera bi —Zaraitzukoa eta Erronkarikoa— multzo berean sartzea baizik. Bakoitzari bere nortasuna aitortuta ere, biek egin dute antzeko ibilbidea, biek hartu dituzte iturri berberetatik berrikuntzak, eta horixe da multzo berean sartzeko arrazoia. Ibar horietako hizkerak gehienbat “nafarrak” direla kontuan hartuta, eta Nafarroa barruan “bazterreko egoera” daukatela ikusita eman diet izena.

Euskalkien deituren inguruan beste arazo bat ere bada: *-era* atzizkiak sortzen duena. Horixe erabiltzea erabaki zuen Euskaltzaindiak 1996an (in *Arauak*, 323-324): *bizkaiera*, *gipuzkera*, *lapurtera*, *nafarrera*, *zuberera*. Berri samarrak dira izenok. Orain arte —eta orain ere— *-tar* atzizkia zuten *zuberotarra*, *lapurtarra*, *nafarra*... erabili izan dira, edo *Nafarroako euskara* tankerakoak, bestela.

Egiari zor, ondo zetorren euskalkien izenak eta mundu zabaleko hizkuntzen izenak atzizki berarekin osatzea: *errusiera* bezala *bizkaiera*. Kontua da gauzak bere onetik atera direla, eta *abaltzisketera*, *arabera*, *baztanera*, *bilbokera*, *burundera*, *eibarrera*, *etxarriera*, *mundakera*, *oreretera*, *sakanera*... bezalako trakeskeriak ugaritu eta nagusitu direla. Gazteen —eta ez hain gazteen— jardunean “arau” bilakatu diren deitura bitxi horiei muga jartze aldera itzuli naiz iraganera. Egokiagoak iruditzen zaizkit, esate baterako, lehengo *Baztango euskara* edo *euskara baztandarra* oraingo *baztanera* baino. Bide beretik, beraz, *euskara bizkaitarra*, *nafarra*, *lapurtarra*, *zuberotarra* aukeratu ditut, eta baita lehengo *giputz* —geroago jardungo dugu hitz horretaz— eta *aetz* izenak ere, *gipuzkera* eta *aezkera* berrien ordeez.

Bada oraindik hirugarren kontutxo bat izenen sail horretan. Asko zabaldu da *mendebalde* aldaera joan den aspaldian, garai batean Euskal Herri osoan, hala Iparraldean nola Hegoaldean erabiltzen zen *mendebal* aldaeraren kaltean. Azkenengo horixe agertzen da, esate baterako, XX. mende hasierako Azkueren hiztegian; ez *mendebalde*. Era berean, *Orotariko Euskal Hiztegira* begiratuta ere, berehala jabetuko gara *mendebal* aldaeraren orokortasunaz eta ugaritasunaz, eta *mendebalde* lehiakidearen berritasunaz eta urritasunaz.

Inguruko erdaretan dauka hitz horrek jatorria: fr. *vent d'aval*, gazt. *vendabal*, kat. *vent d'aball*... eta jatorri horren isla zen Euskal Herri osoko *mendebal*. Dirudienez, *iparralde*, *hegoalde* eta *ekialde* hitzen oihartzunera sortu da *mendebalde* berria.

Gauza jakina da “analogiak” hizkuntza guztietan daukan indarra. Gure auzoko gaztelanian, esate baterako, *roto*-ren ordez *rompido* entzuten da zenbait hiztunen ahotan, baina, hala ere, *roto* erabiltzen da hizkera jasoan. Euskaran, era berean, *izandu*, *egondu*, *jakindu*, *betetu*, *ateratu* tankerakoak sortu dira, baina *izan*, *egon*, *jakin*, *bete* eta *atera* hobesten dira euskara batu jantzian. Nik ere, beraz, *mendebal* aldaera zahar eta jatorrari eutsi diot maila horretako jardunean.

Eta behin euskalkiak sailkatzeko irizpideak eta euskalkien izenak zehaztu eta aurkeztu ondoren, ikus dezagun zein euskalkitakoak diren Deba ibarreko hizkerak.

DEBA IBARREKO HIZKEREN KOKAGUNEA

1. Deba ibarreko bereizgarriak

Deba ibarreko bereizgarriak ba ote den jakitea da lehen galdera. Eta haxe erantzuna: bereizgarriak badira, baina bereizgarri horietako gehienak ez dira Deba ibar osokoak eta, Deba ibar osokoak diren apurak, handik kanpo ere badira; Artibai ibarrean, gehienbat. Ondarroa, Berriatua, Markina, Etxebarria eta Bolibar daude eskualde horretan. Eibarren eta Elgoibarren gertutasunak azaltzen du kidetasuna, bi horiexek izan direlako inguruko herri nagusiak. Azkoitiko hizkerak ere badauka Deba ibarrekoarekin lotura, eta Elgoibarren ondoan egotea da horren arrazoia. Durangaldean, azkenik, Berrizen, Zaldibarren eta Elorrion nabaria da Deba ibarraren eragina edo, zehatzago esanda, Eibarren, Bergararen eta Arrasateren indarra.

Ondorio bi atera ditzakegu egoera horretatik.

Bata, berrikuntza sorgune esanguratsua izan dela Deba ibarra. Ez da hori harritzekoa, euskara bizitasun handiko hizkuntza izan delako, eta hirigune hazi samarrak daudelako bertan: Arrasate, Bergara, Eibar eta Elgoibar, gehienbat.

Bigarrena, berriz, Deba ibarrean ez dela batasunik izan. Hizkuntzari begiratuta, hiru eremu agertzen dira behin eta berriro: Debagoiena, Erdigunea eta Debabarrena. Jakina, eremu horien arteko mugak ez dira inondik inora zorrotzak eta zehatzak. Oñati, esate baterako, sarri agertzen da Bergarari begira, eta Bergara, Antzuola eta Elgeta, era berean, Debagoienarekin batera dabilta askotan. Elgoibar eta Eibar ere bata bestearekin lotuta ibili dira, eta Elgoibarri jarraitu dio Mendarok gehienetan.

Hona hemen Deba ibarreko bereizgarrien zerrenda:

(1) /i + a, e, o/ arteko *x*: *mendixa* / *mendixe* 'mendia'. Deba ibar osoan gauzatu da, Deba, Itziar eta Mallabia barruan direla. Handik kanpo, berriz, Artibai ibarrean eta Zaldibarren ere bada. Oso antzekoa da Azkoitiko ahoskera —*dx* tankerakoa—, eta baita Zumaiaiko herri barruko adinekoena ere (gazteek eta inguruko auzoetakoek y egiten dute).

(2) NOR-NORI saileko eta hitanoko adizkietan [x] ahoskera dago Deba ibar gehienez: *jako* 'zaio', *juat* 'diat'. Oñati, Deba eta Mutriku dira salbuespena, eta Mendaron ere *z*- nahiz *j*- erabiltzen dira NOR-NORI saileko adizkietan. Mallabian eta Artibai ibarreko hizkeretan —Ondarroakoan ez besteetan³— dago ahoskera bera, eta Nafarroako Burundan ere bai, hitanoko batzuetan.

(3) *tt* —> *tx* bilakaeraren antzintasuna eta Deba ibar osoan daukan ia erabateko nagusitasuna da nabarmendu beharrekoa: *ditxugu* 'ditugu'. Bestela, bilakaera bera Hego Euskal Herriko beste alderdi batzuetan ere bada; batez ere gazte jendearen jardunean.

(4) Debagoienez eta Erdigunean destinatiboan *-endako* atzizkia erabiltzea ere nabarmendu beharrekoa da: *danendako laiñ ekarri dogu* 'denentzako beste ekarri dugu'. Mallabian eta Durangaldeko hizkeretan ere ezaguna da, eta ezagunagoa zen antzina. Frai Juan Zumarraga, apezpiku durangarrak, Mexikotik arrebari 1537an egindako gutunean, esate baterako, hiru bider erabili zuen destinatiboa, eta *-endako* dago hiruretan (in Sarasola 1983: 231-236).

Deba ibarrarekin mugan dauden Goierriko hiru herritan ere behinik behin, ezaguna da *-endako*: Legazpin, Zerainen eta Zegaman. Gainera, ohikoa da Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako alderdi zabalean; besteak beste, Deba ibarretik gertuko Burundan eta Sakana osoan. Arabako Legutianon ere bada (Carrera&Garcia 2005).

(5) Hurbiltze adlatiboko *-rutz(e)* atzizkia ere indartsu dago Deba ibarreko hizkera batzuetan: *ezkerrerutz* 'ezker aldera'. Ez, hala ere, guztietan. Oñatin, Antzuolan, Elgoibarren, Mendaron eta Deban ez da izan ohikoa, sarriago entzuten bada ere gaur egungo gazte-

³ Bilakaera berezia egin da NOR-NORI saileko adizkietan Ondarroan; *g*- gertatu da: *gasta* 'zait', *gako* 'zaio', *gasku* 'zaigu', *gatzu* 'zaizu', *gatzue* 'zaizue', *gakoie* 'zaie'. Bestalde, ez dago hitanoaren aztarnarik herri horretan. Txomin Agirrerren arabera (1901 [1967]: 12), XX. mende hasierarako hitanoa galduta zegoen Ondarroan.

en jardunean. Deba ibarretik kanpora, berriz, Durangaldeko eta Lea-Artibai eskualdeko hizkera batzuetan erabiltzen da. Arabako lekuko zahar batzuetan ere bada: Gasteizen egina dirudien Nicolao Landuchioren hiztegia (1562) eta XVI. mende bereko Joan Perez Lazarragaren izkribuetan.

(6) NOR-NORI-NORK sailean, datiboa 'hari / haiei' denean, *jao / xao* 'dio' tankerako adizkiak erabiltzen dira Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Bertako bereizgarritzat jo zituen Juan Mateo Zabala (1848: 57) gramatikariak XIX. mendearen erdian, baina askozaz lehenago, XVI. mendean bertan erabili zituen Joan Perez Lazarraga arabarrak: *Jaun zerukoai emaiten jagot, oi asko geraziarik* [*emaiten jagot* 'ematen diot'] (41), *semerik badeu, esaten jago, aita egidak jakea* [*esaten jago* 'esaten dio'] (42). Deba ibarrean bertan, tankera horretako adizkiak erabili zituen Amileta antzuolarrak XVII. mendean.

(7) Aditz trinko iragangaitzen orainaldiko 3. pertsonetako hitanoan *d-* erabiltzeko joera zabaldu da Deba ibarreko erdigunean: *datok / daton* 'zatorrek / zatorren'. Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar eta Mendaro daude tartean. Deba ibarretik kanpora, Zaldibarren ere badira, eta Berrizen ere ezagunak dira.

(8) Indartsu daude *jardun*-en adizki trinkoak Debabarrenean, Erdigunean eta Oñatin: *dihardut, dihardu, ziharduen*... Mallabian ere indartsu daude (Mugarza 2006: 160), eta Bizkaiko ekialdeko beste hizkera batzuetan ere badira, baina, gehienbat, adineko hiztunen jardunean.

(9) Deba ibar gehieneko bereizgarria dirudi *ekin* NOR erara jokatzek: *lanian ekin naiz* 'lanari ekin diot'. Aldiz, zenbait aditz (*aditu, akordatu, haserretu, pentsatu, zoratu*...) NOR-NORI erara jokatzea Mallabian eta Lea-Artibai eskualdeko hizkera batzuetan ere behintzat, ezaguna da.

(10) Deba ibarreko erdigunean erabiltzen da *-t(z)eke* aditz atzizkia: *egiteke* 'egin gabe'. Handik kanpo, Azkoitian eta Elgoibarko adinekoen jardunean dago eta, antzinatasunari dagokionez, Perez Lazarragaren izkribuak dira gogoan hartzekoak. Sarritan agertzen da haietan, *-zaka* itxurapean: *begirazaka* 'begiratu gabe', *bisitazaka* 'bisitatu gabe', *faltazaka* 'faltatu gabe', *sentizaka* 'sentitu gabe'... Aldaera zaharra dirudi *-zaka* horrek, eta halaxe agertzen da Amileta antzuolarraren XVII. mendeko kristau ikasbidean: *apro-*

betxazaka ‘aprobetxatu gabe’, *baliazaka* ‘baliatu gabe’, *bateazaka* ‘bataiatu gabe’. Esan dugunez, itxura horrexekin iraun du gaur arte Oñatin, *akordatzaka* eta *heltzaka* aditzetan, eta *-t(z)eka* erabiltzen da Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetan. Eibarren ere *-t(z)eke* eta *-t(z)eka* biak entzuten dira.

ALDAERAK ETA GARATU GABEKO ARAUAK

Garatu gabeko arauen artean, Debagoieneko eta Erdiguneko hizkera batzuetako *b / p* → *f* egiteko joera da aipatzekoa: *flater / fratel* ‘plater’, *hafixa* ‘habia’, *ifini* ‘ipini’...

Aldaeren multzoan, berriz, Debabarrenean —Deba eta Itziar tartean direla—, Soraluzen, Bergaran eta Antzuolan erabiltzen den *haura* ‘hura’ erakuslea da nabarmendu beharrekoa. Eibarren ere ezaguna da, eta Deba ibarretik kanpora, Zestoan, Azkoitian, Azpeitian —*hare* aldaera hemen—, Urretxun eta Zumarragan erabiltzen da. Gutxi gora-behera, antzeko eremua dauka —baina Urolaldeko alderdi zabalagoan ere bada— *erten* ‘irten’ aldaerak.

Deba ibar gehienez esaten dira *etzin* ‘etzan’ eta *gizur* ‘gezur’. Araban ere bazen *etzin* aldaera antzina, eta gaur egun ere bizirik dago Sakanan eta Nafarroako beste alderdi batzuetan. Era berean, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin esaten den *hapixa* ‘habia’ aldaera Goierri gehienez erabiltzen da.

Debagoien eta Erdigune gehienez *txirtxil* ‘kilker’ esaten da, Bizkaiko ekialdeko beste zenbait hizkeratan bezala.

Azkenik, Euskal Herriko alderdi zabalarekin bat eginez, *burdina* (vs *burni*) eta *matrail* (vs *masail*) esaten dira Deba ibarrean.

LEXIKOA

Lexikoan ere ez dago Deba ibar osoan erabiltzen den bertako hitz berezirik. Berezitat jo daitezkeenak eskualde horretako alderdi jakin batzuetan erabiltzen dira soil-soilik. Hona hemen zein diren: *anabasa* ‘nahas-mahasa, kaosa’ (Erdigunea eta

Mallabia), *antxitxika* ‘lasterka’ (Erdigunea, Oñati, Elgoibar eta Azkoitia), *emendatu* ‘itzali’ (Erdigune gehiena, Elgoibar, Mendaro, Oñati, Azkoitia, Urretxu, Zumarraga, Legazpi), *enor* ‘garitxo’ (Elgoibar, Eibar, Ermua, Mallabia, Zaldibar), *hazkarri* ‘legamia’ (Bergara, Antzuola, Oñati), *masma* ‘armiarma’ (Elgoibar, Eibar, Ermua eta Bizkaiko ekialdeko hizkera batzuk), *satandera* ‘erbinudea’ (Erdigunea, Elgoibar, Mendaro eta Azkoitia)⁴, *zaltai* ‘ukuilua’ (Bergara eta Antzuola).

Aurkaritza adierazten duen *barren* lokailua erabiltzen da Deba ibarreko hizkera batzuetan. Mendaro, Elgoibar, Soraluze, Eibar, Ermua eta Mallabia daude tartean. Handik kanpora, Zaldibarren, Azkoitian eta, dirudienez, Zestoan (Azpeitia 2003: s.v. *barren*) erabiltzen da. Eibarkoak dira adibideak (Laspiur 1999: 42): *erlojuaren billa zabiz? Eskuturrian dakazu, barren!* ‘erlojuaren bila zabiltza? Eskumuturrean daukazu eta!’, *nora zoiaz ain goiz, oindiok seirak dira barren!* ‘nora zoaz hain goiz, oraindik seiak dira eta!’

Alderdi horretako hitzen buru-bihotzetan oso sartuta dago *barren* hitza eurena dena. Hori dela eta, esate baterako, *ElgoiBARREN* izena jarri diote elgoibartarrek euren herriko aldizkariari.

Debagoieneko hitz bereziak ere badira, baina horiek beherago —6. atalean— erakutsiko ditugu.

Ondorengoak Deba ibar osoan edo gehienez erabiltzen dira, baina handik kanpo ere ezagunak dira; Bizkaiko ekialdean, gehienbat: *aditu* (> *aittu*) ‘ulertu’ adierarekin (herri batzuetan galbidean), *begitandu* ‘iruditu’ (eta *begitanzino* ‘irudipena’) (herri batzuetan galbidean), *bekoki* ‘kopeta’, *gaitzizen* / *gatzizen* ‘ezizen, goitizen’, *itxuria* / *itxurie* ‘itxura [itxura denez, antza denez]’;⁵ *jarri* ‘jesarri, eseri’ adierarekin, *txingor* ‘kazkabarra’, *zatar* ‘itsusia’.

Bada Deba ibarra bitan banatzen duen hitz bikotea: Debagoieneko eta Erdiguneko hizkera batzuetan *aita puntako* eta *ama puntako* esaten dira, eta Debabarreneko eta

⁴ *satandere* hitza ez da Deba ibarreko bereizgarria. Euskal Herriko beste alderdi batzuetan ere izan da; Erronkarin, Zaraitzun eta Arabako Zuia eskualdean, esate baterako (Agud & Mitxelena 1968: 75). Antzina eremu zabalagoan ezaguna zen hitza da ziurren, bazter hizkera horietan gorde dena.

⁵ Hona hemen *itxura* hitza agertzen den Eibarko adibide bi (Areta 2003): *itxuria, diru danak jokuan galdu sittuan* ‘dirudienez, diru denak jokoan galdu zituen’ (270), *amen, itxuria, eskolaren bat seuan* ‘hemen, nonbait, eskolaren bat zegoen’ (312).

Erdiguneko gainerakoetan, berriz, *aita besoetako* eta *ama besoetako* (orok. 'aitabitxi / ama-bitxi'). Debagoienean eta Erdigune gehienera, gainera, *aitajaun* eta *amandre* 'aitona / amona' esaten dira, eta Deba ibarreko herri batzuetan (Bergara, Antzuola, Oñati) eta Azkoitian *ugaz* osagaia duten hitz elkartuak erabiltzen dira: *ugezaita*, *ugezama*, *ugezalaba*, *ugezanai*, *ugezarreba*, *ugezume*...

Hego Euskal Herriko beste bazter batzuetan bezala (ikus Zuazo 1994: 351-352), 'zela + NOR-NORI adizkia + izena' egitura dago Deba ibarreko erdigunean, 'nola deitzen zara? / zein da zure izena?' esapideen balioa duena. Jone Larrañagak (1998) adibide hauek jaso zituen Antzuolan: *sela jatzu izena?* 'nola zaizu izena?' (106), *amai Braulia jakon isena* 'amari Braulia zitzaion izena' (106), *ari jakon isena "pittarra"* 'hari zitzaion izena *pittarra*' (339). Galbidean dago gaur egun.

2. Mendebaleko berrikuntzak Deba ibarrean

Oso berrikuntza gun e indartsua izan da mendebala, eta Deba ibarra ere horietako askotan partaide gertatu da. Deba ibar osoan gauzatu direnak ikusiko ditugu lehenengo, baina horietako gehienak Urolaldean, Goierrin eta Nafarroako Burundan ere ezagunak dira. Araba ere, antzina, eremu barruan agertzen zen sarritan.

Hiru ondorio nagusi atera daitezke egoera horretatik.

Alde batetik, behin baino gehiagotan aipatu eta aupatu den mendebaleko eta gainerako euskalkien arteko etena ez dela inondik inora erabatekoa. Etena badago, baina lotura ere bai. Asko dira Goierrin —Seguran, Zegaman eta Legazpin, bereziki— betetzen diren mendebaleko ezaugarriak (ikus Azurmendi 1996, 1998, Hurtado 2001, Etxabe&Garmendia 2003, 2004) eta, askozaz gehiago, Urolaldean betetzen direnak. Horixe esan zion Gerhard Bähr hizkuntzalariak Hugo Schuchardti 1921ean (in Jauregi 2005:200):

Hace poco en una excursión a la costa, entre Ondarroa y Zarauz, tuve muchas posibilidades de hacer observaciones. Especialmente pude comprobar cómo el vizcaino y el guipuzcoano que aquí en Legazpia y Oñate están separados uno del otro muy claramente, se están fundiendo el uno en el otro.

Zalantzarik gabe, orografiak eta ekonomiak badute horretan zerikusia. Menditsua da Goierri eta Deba ibarraren arteko muga, eta lauagoa eta, beraz, ibiltzen errazagoa iparraldeko alderdia. Estua izan da, eta da, bestalde, Gipuzkoa eta Bizkaiko itsasbaterreko herri arrantzaleen arteko hartu-eman.

Bigarrenik, berriz, Arabako alderdi zabala ere mendebaleko eremuari lotuta zegoela ikusten da eta, ziurrenera, Araban barrena heldu ziren mendebaleko berrikuntza zenbait Nafarroako Burunda ibarrera. Izan ere, mendebaleko bereizgarri multzo hasia dago Burundan, Arabaren bitartekotzarik gabe nekez azal litekeena (ikus Zuazo 1994).

Hirugarrenik eta azkenik, eremuaren zabalera handia ikusita, garbi dago berrikuntzok aspaldikoak direla. Toponimia eta izkribu zaharrak ere, jakina, antzinatasunaren lekukoak dira.

Gauza da Deba ibarreko bizilagunen buru-bihotzetan oso sartuta egon dela Bizkaiarekiko lotura eta Gipuzkoarekiko urruntasuna; *kiputx* hitza da horren adibidea. Gaur egun ilunduta dago hitzaren jatorrizko esangura, eta 'Gipuzkoako bizilaguna' izatearekin berdindu da. Oraindik hain aspaldi ez dela, ostera, hizkuntzarekin zeukan zerikusia. Kandido Izagirrek XX. mendearen erdialdera Oñatin jasotako hiztegian bizirik dago adiera zaharra, eta hauxe esaten da *Kiputzak* sarreran: "Ixkixio (sic) aldekuak: Segura, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Idiazabal, Zegama ta bazter ortakoak".

Luis Villasante ere (1968: 85) argiro mintzatu zen: "Legazpia, Zegama ta alde oietakori *kiputza* deitzen diote oñatiarrak. Kiputza, au da, gipuzkoar dialektua".

Juan Martin Elexpuruk Bergaran jasotako hiztegian ere badator (2004: s.v. *kiputz*): "Udanatik haruzkoa, ez Deba ibarrekoa". Oñati eta Legazpiren artean dago Udana mendatea.

Eibarko adinekoen jardunean ere jaso da (Basauri & Sarasua 2003: 175, s.v. *giputz*): "Ez jakixat nungua ete zan, baiña hamen ingurukua ez; euskeria kiputxa jekan behiñipeñian". Esanguratsua da, era berean, Eibarko *Kiputxanekua* toponimoa (Euskaltzaindia 1995: 289). Administrazioz Gipuzkoa da Eibar, baina toponimo horrek hara bizitzera-edo joan zena administrazioz ez ezik, hizkuntzaz ere "giputza" zela salatzen du.

Hona hemen, beraz, Deba ibar osoan betetzen diren mendebaleko aukeren eta berrikuntzen zerrenda:

(1) $-a + a \rightarrow -ea$ ($> ia, ie$): *neskia* / *neskie* 'neska'. Baita horren ondorioz zenbait hitzetan gertatu den $-e \rightarrow -a$ bilakaera ere: *lora* 'lore'.

- (2) Ablatiboko *-rik* atzizki zaharra, *etxerik etxe* tankerako esapideetan.
- (3) Erakusleetakako erro bera singularrean eta pluralean: *honek* 'honek / hauek'. Deba dago eremutik kanpora.
- (4) *neuk* egiturako izenordain indargarriak.
- (5) **ezan* erroa baztertu eta *egin* nagusitu: *kendu eiozu* (vs *ken iezaiozu*). Azkenaldian, dena dela, berriro zabaldu da **ezan* Debabarreneko alderdi batzuetan, euskara batuak eraginda.
- (6) **edun* baztertu eta *eduki* nagusitu: *gogua daukat* (vs *gogoa dut*).
- (7) *egon*, *ibili* eta, hizkera batzuetan, *jardun* erabiltzen dira *ari izan*-en lekuan. Gaur egun, dena dela, *ari izan* ere entzuten da gazteriaren jardunean; Debabarrenean, gehienbat.
- (8) 'Partizipioa + RIK' baztertu eta 'partizipioa + TA' nagusitu: *aspertuta nago* (vs *aspertu-rik nago*).
- (9) Partizipioetakako erdal *-ado* —> *-au* eta *-ido* —> *-idu* bilakaerak: *akostunbrau* 'akostun-bratu [ohitu]'; *permitidu* 'permititu [baimena eman]'
- (10) *urten* (eta *erten*), *igo*, *jardun* eta *jarraitu* iragankorrak: *urten dau* (vs *irten da*), *igo dau* (vs *igo da*), *jardun dau* (vs *jardun da*), *jarraitu dotsagu* (vs *jarraitu gatzaizkio*). Gazte jendeak iragangaitz erara ere erabiltzen ditu *igo* eta *urten*.
- (11) Galderetan, bigarren osagaia isildu eta *ala* juntagailuarekin amaitzea: *ez zatoz, ala?*
- (12) Perpaus osagarrietako *-(e)na* atzizkia: *badakigu etorri dana*.
- (13) Kausa eta helburu perpausetako *-tearren* atzizkia: *berari laguntziarren etorri gara*.

ALDAERAK ETA GARATU GABEKO ARAUAK

Honako hauek dira Deba ibar osoan edo gehienean erabiltzen direnak. Deba alden-du egiten da sarri, eta ez dugu hartuko kontuan:

(1) *-*ani* amaieratik -*ain* egin duten *arrain*, *usain* eta *zain*, baina *zai* ere bada Debarrenean.

(2) Hitz hasieran *n-* duten *narru* 'larru' eta *nasai* (eta *lasai* hizkera batzuetan).

(3) Hitz amaieran -*n* duten *mamin* 'mami', *ipuin* (vs *ipui*) eta *suhi* 'suhi'.

(4) *eurak* 'berak' (eta *euren*, *eurei*, *eurekin*...) tankerako izenordainak.

(5) Mendebaleko beste aldaera hauek ere badira: *ardao* 'ardo', *aterri* 'ateri', *eskuma* 'eskuin', *eskutur* 'eskumatur', *ete* 'ote', *gaztai* 'gazta', *guntzurrin* 'giltzurdin', *hamen* (eta *hemen*), *hazur* 'hezur', *keixa* 'gerezia', *kipula* 'tipula', *kuma* 'kuna [sehaska]', *lehelengo* (eta *lehenengo*), *mailuki* 'marrubi', *okotz* 'kokots', *txarri* 'txerri', *txixa* 'pixa', *urten* 'irten' (eta *erten* hizkera batzuetan).

LEXIKOA


Deba ibar osora edo gehienara iritsi dira mendebaleko ondorengo hitzak. Deba da, berriro ere, besteengandik sarrien aldentzen dena, eta ez dugu hartuko kontuan. Mutriku ere eremutik kanpora agertzen da inoiz.

(1) Asteko egunen izenak: *martitzen* 'asteartea', *eguzten* 'asteazkena', *eguen* 'osteguna', *bari(xa)ku* 'ostirala', *zapatu* 'larunbata', *domeka* 'igandea'.

(2) *zeintzuk* eta *zertzuk* pluraleko izenordainak. Alderdi batzuetan *nortzuk* ere erabiltzen da, baina, gehienetan, *zeintzuk* da horren ordezkia.

(3) Mendebaleko beste hitz hauek ere badira: *ahalegindu* 'saiatu', *albo* 'aldamen', *argal* 'mehea', *astun* 'pisua', *berakatz* 'baratzuria', *bider* 'aldiz', *bits* 'aparra', *buzkantz* 'ardi odolarekin egindako odolkia'⁶, *ei* 'omen', *eragin* (> *erain*) 'arazi', *esegi* / *eseki* 'zintzilikatu', *gabonzar*

⁶ Bizkai barruan beste adiera batzuk dauzka *buzkantz* hitzak. Zenbait lekutan odolkiari deitzeko hitz generikoa da, eta beste leku batzuetan, berriz, odolki handiari ematen zaio izen hori.



'Urtezahar', *gatzatu* 'mamia, gaztanbera', *geriza* / *gerizpe* (> *keriza* / *kerizpe*) 'itzala/itzalpea', *hur* 'hurbil', *igarri* 'asmatu, antzeman, nabaritu', *inor* 'beste' adierarekin, *i(re)targi* 'ilargia', *isio-tu* 'piztu', *itzal* / *itzel* 'berebizikoa', *izeko* 'izeba' (baina gaztelaniako *tia* da erabiliagoa), *jaramon* (> *jamón*) 'kasu egin' (herri batzuetan galbidean), *jaurti* 'bota', *jausi* 'erori', *katamixar* 'katagorria, urtxintxa', *laba(i)n egin* 'irrist egin', *lain* 'beste, adina', *lapiko* 'eltzea', *odoloste* 'odolkia', *okaran* (vs *aran*), *okela* 'haragia', *oratu* (> *obatu* / *ebatu*) 'heldu, atxiki', *osatu* / *sania-tu* 'sendatu' adierarekin, *ostera* 'berriro / ordea' / *joan-etorria*, *ostian* / *ostantzian* 'bestela', *otzara* 'saskia', *papar* 'bularra', *potro* 'barrabila', *sarri* 'maiz' adierarekin, *zarata* 'hotsa', *zela(n)* 'nola', *zil* 'zilborra'...

(4) Erdaratik hartutako mailegu garbiak ere badira, baina mendebalean joan den aspal-di luzetik errotuta daudenak: *abade* 'apaiza', *abarketa* 'espartina' (herri batzuetan galbidean), *armozu* 'gosaria', *azoka* 'merkatua', *baba* 'indaba', *berba* 'hitz' (eta *berbeta* 'hizkuntza, hizkera'), *bezero* 'saltzaile baten ohiko eroslea', *ganora* 'trebetasuna', *izara* 'maindirea', *karu* 'garestia', *korta* 'ukuilua', *kuma* 'sehaska', *lau* 'ordokia', *ortu* 'baratza', *oste* 'atzealdea, ondorena', *praka* / *fraka* 'galtza', *puxika* 'maskuria'...

3. Deba ibarreko alderdi batzuetako mendebaleko berrikuntzak

Deba ibarreko alderdi batzuetara baizik ez dira iritsi mendebaleko berrikuntza zenbait. Leintz harana, Aramaio eta Erdiguneko hizkera batzuk (Soraluze, Elgeta eta, batez ere, Eibar eta Ermua) daude, gehienbat, eremu barruan. Zalantzarik gabe, alderdi horrek dauka Bizkaiko euskararekin loturarik estuena.

Dena dela, ezaugarri horietako batzuk Deba ibarreko eremu zabalagoan ziren antzina, baina azken hiru mendeotako euskara giputzaren nagusitasuna dela eta, ezaugarri bizkaitarrek atzera egin eta giputzek hartu dute haien lekua. Gauza da, Debabarrena, Bergara, Antzuola eta, inoiz, Oñati mendebaletik bereiz agertzen direla.

Ondoren erakutsiko diren ezaugarriak mendebaleko euskarak aspaldi egindako berrikuntzak dira ia guztiak, Bizkaian eta Deba ibarreko barruti horretan ez ezik, Arabako alderdi batzuetan ere bazirenak. Eremuaren zabaltasuna da, oraingoan ere, antzinatasunaren erakusle, nahiz eta oraintsu samarreko gertakariren bat edo beste tartean baden.

Hona hemen ezaugarrien zerrenda:

(1) *joan* eta *eroan*-en adizkietan *-i-* dago Debagoienez eta Erdigunean: *doia* / *doie* 'doa', *daroia* / *daroie* 'daroa [darama]'. Oraintsuko gertakaria da. Deba ibarreko XIX. mendea baino lehenagoko izkribuetan, esate baterako, ez dago horien adibiderik. Berri samarra delako, hain zuzen, ez da mendebal osokoa.

Zabalagoa da —eta ziurrenera, zaharragoa— *joan*-en adizkietako *-i*- bokala: Deba ibarreko alderdi horretaz kanpora, Busturialdeko hizkera batzuetan, Durangaldeko beste batzuetan eta Lea-Artibai gehienera erabiltzen da (Gaminde 1985-2: 285-292)⁷. Aldiz, *eroan*-en adizkietako *-i*- Deba ibarreko alderdi horretan eta Lea-Artibai gehienera baizik ez dago (Gaminde 1985-2: 457-464).

(2) ez partikula **j*-kin hasten diren adizkiekin batzen denean, *tx* ahoskatzen da Deba ibar gehienera; Deban eta Mutrikun ez bestean: *etxako* (vs *etzaio*) ‘ez zaio’. Dena dela, atzera-ka doa gazteen jardunean, eta ez partikula eta adizkia bereiz esateko joera nagusitzen ari da: *ez jako*.

(3) Aditz izenak mugimenduzko aditzen osagarri izan eta helburua edo norabidea adierazten dutenean, NON kasuan erabiltzen dira Leintzen eta Aramaion: *zu ikusten nator* (vs *zu ikustera nator*). Mendebalean antzina egindako aukera da, Arabako alderdi batean ere bazena. XVI. mendeko Perez Betolatza eta Perez Lazarraga arabarrek badituzte horren adibideak.

(4) Moduzko adberbioetan *-n* gehitzen da inoiz Leintzen, Eibarren eta, batez ere, Aramaion, Ermuan eta Mallabian: *holan* ‘hola’. Mendebaleko berrikuntza zaharra da, Arabako alderdi batera ere iritsi zena. Erruz agertzen da, esate baterako, Landuchioren hiztegian.

(5) Erdal *-(c)ion* → *-(z)ino* egin da Debagoienera eta Erdigunean: *klonaziño* ‘klonazio’. Mendebaleko aukera zaharra da, Joan Perez Betolatza arabarrak ere ezagun zuena.

(6) NOR-NORI-NORK sailean **eutsi* erroa dago Debagoienera eta Erdigunean: *dotsat* / *detsat* / *dutset* ‘diot’. Mendebaleko euskarak antzina egindako aukera da, bertako izkriburik zaharrenetan agertzen dena.

Baliteke, dena dela, Deba ibarrean Bizkaian baino geroago egin izana erro horren aldeko erabateko hautua. Esteban Garibairi esker ezagutzen dugun Milia Lasturkoaren

⁷ Iñaki Gamindek Legutiano-Otxandio-Oleta-Ubide alderdian ere badirela dio, baina nik ezin izan dut egiaztatu. Oletan, behinik behin, *nue* ‘noe’, *due* ‘doa’ tankerakoak erabiltzen direla dio Txipi Ormaetxeak (2006:536).

kantuan, esate baterako, *eutsi* eta **-i-* agertzen dira aldi berean. Ohikoena *eutsi* da, baina biak daude datiboa 'hari' denean: *artu deusat* eta *edegi dio*. Dirudenez, gauza bera gertatzen zen Arabako ekialdean, baina mendebaleko Joan Perez Betolatzak *eutsi* erabili zuen beti.

(7) **edun*-en erroan *-o-* dago Deba ibar gehienez; Deban, Mutrikun eta Mendaron ez bestean: *dot* 'dut'. Mendebaleko lekukorik zaharrenetatik hasita egin da erro horren aldeko aukera. Arabako alderdi batzuetan ere bazen, eta Perez Betolatzak, Perez Lazarragak eta Julian Garzia Albeniz araiarrak badituzte horren adibideak, baina beste erro batzuekin lehian ia beti: *dot* / *det* / *dut* / *deut*.

(8) **edun*-en hitanoan mendebaleko adizki bereziak daude Deba ibar gehienez; Deban eta Mutrikun ez bestean: *juat* 'diat'. Mendebaleko bilakaera zaharra da. XVI. mendeko Garibai arrasatearraren gramatika oharretan, esate baterako, *joaat* / *jonat* 'diat' / *dinat* 'adizkiak aipatzen dira (in Urkizu 1989: 57).

(9) Aditzetan *-z* pluralgilea dago Deba ibar gehienez, baina Debabarrenean ez da erabatekoa, eta eremutik kanpora daude Bergara eta Antzuola.

Aspaldiko berrikuntza da, Araba osora hedatu zena, eta mendeen joan-etorrian gero eta indartsuagoa egin dena, *diraz* 'dira', *dituzuz* 'dituzu' tankerako berriak sortuaz. Dena dela, *egon*-en adizkietako *-de* (> *-re*) oso zabalduta dago Debabarrenean eta Erdigune gehienez: *gare* 'gaude', *dare* 'daude'...

(10) Aditz izenetan *-etan* eta *-iduten* atzizkiak daude Leintzen eta Aramaion: *asmetan* 'asmatzen', *entendiduten* 'entenditzen'. Aspaldikoa da *-etan*, mendebaleko izkribu zaharretan agertzen dena; Landuchioren hiztegi arabarrean, besteak beste. Berriagoa da *-iduten*.

Debabarrenean eta Erdigunean, ostera, Euskal Herri gehienez nagusitu diren *-tzen* eta *-ten* atzizkiak baizik ez dira erabiltzen eta, gehienbat, han bezala banatzen dira batarren eta bestearen esparruak.

(11) Erakusleak izenaren aurrean jartzeko joera dago Debagoienez eta Erdiguneko hizkera batzuetan; Bergaran eta Antzuolan ez besteetan: *hau etxiau* 'etxe hau'. Gaur egun Bizkai osoan eta Deba ibarreko barruti horretan erabiltzen den arren, ez da gertakari

zaharra. Deba ibarrean, esate baterako, ez da XIX. mendea baino lehenagoko izkribuetan azaltzen⁸.

(12) Aditz trinkoak galdegai direnean, 'partizipioa + adizki jokatua' erabiltzen da Leintzen eta Aramaion: *etorri dator*. Ezaugarri hori ez da izkribu zaharretan ageri, baina mendebal osokoa (izan) da.

ALDAERAK ETA GARATU GABEKO ARAUAK

(1) Hitz hasieran *u-* duten *ule* 'ile', *untza* / *ultza* 'iltze', *urun* 'irin' aldaerak daude Debagoienez eta Erdiguneko hizkera batzuetan, Bergaran eta Antzuolan ez besteetan. Zabalagoa da, Erdigune osoa hartzen duena, *u(r)zan* / *uzen* 'izain' aldaeraren eremua. Deba ibar gehienez, gainera, *urten* 'irten' eta *ugaraxo* 'igel' esaten dira.

(2) Dardarkari azkarraren aurrean *e* → *a* egin duten *bardin* 'berdin' eta *barri* 'berri' aldaerak daude Debagoienez eta Erdigune gehienez, Bergaran eta Antzuolan ez bestean.

(3) Hitz amaieran *-ain* → *-an* egin da Debagoienez eta Erdigunean, *ezpan* 'ezpain', *laban* 'labain', *u(r)zan* 'izain' eta *zan* 'zain' hitzetan. Debagoienez *erran* 'errain' ere bada.

(4) Deba ibar gehienez, *n* duten *premina* 'premia' eta *zentzun* 'zentzu' aldaerak daude, eta *mihin* 'mihi' ere bai Debagoienez eta Erdiguneko hizkera batzuetan. Debabarrena eremutik kanpo agertzen da gehienetan, nahiz eta *zentzun* aldaera hango alderdi batera ere iristen den.

(5) *esan*-en adizki trinkoetan mendebaleko *-n-* dago Deba ibarreko erdigunean: *dinot* 'diot', *dino* 'dio', *dinozu* 'diozu'...

⁸ Iñaki Caminok (2003: 77) arkaismotzat dauka egitura hori, baina ez du bere ustearen zergatia erakutsi. Antzinako izkribuak dira horrelako erabakiak hartzeko euskarria, eta horietan guztietan izenaren eskuinean agertzen da erakuslea.

(6) Leintzen eta Aramaion / —> r egin duten *arkondara* 'alkandora' eta *aurki* 'aulki' erabiltzen dira, Bizkaiko hizkera gehienetan bezala. Ermuan eta Eibarren ere ezagunak dira.

(7) Adberbioetako -to atzizkia dago Leintzen, Aramaion eta Erdiguneko hizkera batzuetan, Bergaran eta Antzuolan ez besteetan: *ederto* (vs *ederki*). Mendebaleko euskararen berrikuntza zaharra da, Arabako Landuchioren hiztegian eta Perez Lazarragaren izkribuetan ere sarri agertzen dena. Nabarmentzekoa da Perez Lazarragak erdal hitzei erantsita ere erabili zuela: *kortesdo*, *kureldo* (< gazt. 'cruel'), eta horrek, jakina, emankorra zela salatzen du.

(8) *baltzitu* 'belztu', *hotzitu* 'hoztu' eta *hutsitu* 'hustu' partizipioak erabiltzen dira Debagoiengan eta Erdigune gehiengan. Mutrikun ere ezagunak dira *hotzitu* eta *hutsitu*.

(9) Hona hemen Debagoiengan eta Erdigunean erabiltzen diren mendebaleko beste aldaera batzuk: *barik* (< *bagarik*) 'gabe', *be* 'ere', *emon* 'eman', *hamazortzi* 'hemezortzi', *inuntz* / *inontz* / *iruntz* 'ihintz', *iruntsi* 'irentsi'. Alderdi horretan ez ezik, Elgoibarren ere ezagunak dira *ahizta* 'ahizpa' —Mutrikun ere bada—, *postura* 'apostu' eta *urriin* 'urrun'.

Zertxobait murriztagoa da *baltz* 'beltz' eta *solo* 'soro' aldaeren esparrua. Debabarrenaz gainera, Bergara —Angiozar eta Ubera auzoak izan ezik—, Antzuola eta Oñati ere eremutik kanpo agertzen dira. Aldiz, *solo* erabiltzen da Elgoibarren eta Mutrikun. Mendebaleko *itxi* 'utzi' Debagoiengan, Elgetan, Bergarako Angiozar eta Ubera auzoetan eta Ermuan erabiltzen da, eta *guzur* 'gezur' Leintzen, Aramaion, Ermuan eta Eibarren.

Berezia da *gitxi* 'gutxi' aldaeraren eremua: Debabarrenean eta Erdiguneko hizkera batzuetan erabiltzen da. Leintzen eta Aramaion, azkenik, *azkero* (eta *ezkero*) '-z gero' erabiltzen da, eta mendebaleko *etzun* 'etzan' Ermuan eta Eibarren ezaguna da.

LEXIKOA

Debagoiengan eta Erdigunean erabiltzen dira mendebaleko ondorengo hitzak, baina Elgoibarren eta Mutrikun ere ezagunak dira horietako gehienak: *adur* 'lerdea', *artazi* 'guraizea', *atzamar* 'hatza' (eta *atzapar* leku batzuetan), *bekar* 'makarra', *eroan* 'eraman',

gaitz / *gatx* 'zail' adierarekin⁹, *inausi* 'kimatu', *kirikixo* 'sagarroia, trikua', *oinaztu* / *oinaztarri* 'tximista', *sats* 'simaurra', *txarto* / *txarki* 'gaizki', *ugaraxo* 'igela', *ugazaba* 'jabea'. Azkueren (1905-1906: s.v. *aiñube*) arabera, mendebaleko hitza den *ainube* 'leku itzaltsua' Debagoiengan eta Erdigunean ere bada.

Zertxobait murriztagoa da ondorengoan esparrua. Debabarrena ez ezik, Bergara eta Antzuola ere eremutik kanpora daude, eta Soraluze eta Elgeta ere bai sarri: *erpe* 'atzaparra', *garau* 'alea / pikorra', *gura* 'nahi'¹⁰, *ira* 'iratzea', *larregi* 'gehiegi', *pernil* 'urdaiazpikoa'. Leintzen eta Aramaion *ogitagaztai* 'erbinudea' ere bada.

Debabarrenera eta Erdiguneko hizkera batzuetara iritsi direnak ere badira: *aitita* eta *amama* 'aitona / amona', *amaitu* 'bukatu', *lantzean* (*behin*) 'noizean (behin)'.

Deba ibarreko alderdi gutxi batzuetan baizik ez dira erabiltzen mendebaleko beste hitz hauek: *amatatu* 'itzali' (Ermua, Eibar, Elgoibar), *aratoste* 'inauteria' (Erdigunea, Mutriku), *ardi* 'arkakuso' adierarekin (Aramaio, Ermua, Eibar, Mutriku), *arineketa* 'lasterka' (Leintz, Aramaio, Ermua), *astiro* 'poliki' (Erdigunea), *behar* (> *bihar*) 'lan' adierarekin (Erdigune gehiena eta Elgoibar), *legar* 'gatzagia' (Ermua, Eibar, Elgeta), *lorrin* 'lardatsa' (Ermua, Eibar, Elgeta), *sama* (vs *lepoa*) (Erdiguneko hizkera batzuk eta ezaguna Aramaion eta Leinzko zenbait alderditan), *ugar* / *uger* 'herdoila' (Aramaio, Ermua, Eibar, Elgoibar, Mutriku).

Mendebaleko zenbait hitz galbidean edo ia guztiz galduta daude hizkera gehienetan: *baino* 'baizik' adierarekin (Debagoien eta Erdigune gehiena)¹¹, *enparauak* 'gainera-koak, bestek' (Oñati, Eibar, Ermua), *erdu* 'etorri' (Leintz, Aramaio), *eztegu* 'ezteiak' (Aramaio eta Erdigune gehiena), *gomuta* 'oroitzapena' (Debagoiena), *lako(xe)* 'bezalako(xe)' (Debagoiena eta Erdigunea)¹², *legez* (> *letz* / *letxe*) 'bezala(xe)' (Debagoiena eta

⁹ Deba ibarreko hizkera horietan eta Bizkaian *zail* ere bada —*zal* aldaera Bizkaian—, baina, gehienbat, 'haragi gogorra' adierazteko mugatu ohi da.

¹⁰ Hitz beregain bezala *nahi* erabili arren, hitz elkartuetan ohikoa da *gura* Deba ibar osoan, eta baita Gipuzkoa gehienean ere: *azkura*, *barregura*, *botagura*, *haundigura*, *jakingura*, *logura*, *negargura*, *pixagura*... tankerakoetan agertzen da.

¹¹ Bergarakoa da adibidea (Elexpuru 2004: s.v. *ikuskizun*): *jentia ezta plaiara joaten bañatziaaittik, ikuskizunaaittik baiño* 'jendea ez da hondartzara joaten bainatzeagatik, ikuskizunagatik baizik'.

¹² Bergarakoa da adibidea (Elexpuru 2004: s.v. *lako*): *gu lakuai eztotse kasoik pe itten* 'gu bezalakoei ez diete jaramonik ere egiten'.

Erdigunea), *ostarku* 'ostadarra' (Erdigunea eta Oñati), *sorki* (Debagoieneko eta Erdiguneko hizkera batzuk)¹³, orobatasuneko *zein* 'nahiz' juntagailua (Elgoibar, Eibar, Ermua, Aramaio). Egoera horretan daude hilabeteen izen batzuk: *marti* 'martxoa' (Debagoiena, Erdigunea eta Elgoibar), *zemendi* 'azaroa' (Debagoiena, Erdigunea, Mutriku).

¹³ Bizkaiko mendebalean adiera bi ditu *sorki* hitzak: 1) andrazkoek buru gainean pisua erabiltzeko ipintzen zuten oihalezko babesa, 2) sukaldeko zapia. Deba ibarrean lehen adieran baizik ez da ezaguna.

4. Deba ibarrera iritsi ez diren Bizkaiko berrikuntzak

Sail honetan erakutsiko diren ezaugarrietako batzuk Bizkaian oraintsu samar eginda-ko berrikuntzak dira, eta horrexegatik ez dira Deba ibarrera iritsi. Kontuan eduki behar da Gipuzkoa izan dela euskararen ardatza XVIII. mendeaz gero eta, gehiago edo gutxiago, hara begira ibili dira gainerako eskualdeak. Uste izatekoa denez, administrazioz eta elizaz Gipuzkoari lotuta egon den Deba ibarrean beste inon baino zuzenagoa eta sakonagoa izan da eragina. Dena dela, zaharrak diren bilakaerak ere badira tartean, eta horietan ez dago argi zein ote den Deba ibarrera heldu ez izanaren arrazoa.

Hona hemen ezaugarrien zerrenda:

(1) *-au-* → *-eu-* (→ *-e-*) egiteko joera: *geur* 'gaur', *dekot* 'daukat', *konteu* 'kontau' [konta-tu]. Bilakaera berria da; ez da Bizkaiko izkribu zaharretan ageri.

(2) *z* (→ *s*) → *x* bustidura: *dakixu* 'dakizu'. Bilakaera berria, Bizkaiko izkribu zaharretan agertzen ez dena.

(3) Sozietibo pluraleko *-kaz* atzizkiak ez du ematen Deba ibarrean indarrik izan duenik. Antzinako izkribueban ere ez da ageri, Oñatiko XVIII. mende amaierako *Osaba baten instruccinuac* izeneko eskuizkribuan izan ezik; erruz agertzen da horretan. Singularreko *-gaz*, oster, zabalduago egon zen antzina. XVII. mendeko Amileta antzuolarrak, esate baterako, *-gaz* eta *-kin* biak erabili zituen neurri beretsuan.

(4) '*edo* + izenordain galdetzailea' egiturako izenordainen sail osoa: *edonora, edonogaz...* Deba ibarrean, Mallabian eta Ermuan baizik ez da ezaguna, baina Eibarren eta Mutrikun ere badauka indarra. Mendebaleko aspaldiko berrikuntza da, Arabara ere hedatu zena. Landuchioren hiztegian, esate baterako, sail oso samarra agertzen da.

(5) 'izenordain galdetzailea + *edo* + izenordain galdetzailea' egiturako izenordainen sail osoa: *nonor, nonogaz...* Deba ibarrari dagokionez, Mallabian baizik ez dago sail osoa. Oraintsu samarreko berrikuntza ematen du; izkribu zaharretan ez dago horrelakoen lekukotasunik.

(6) NOR-NORK sailean NOR 'ni' den adizkietan, -o- ez da erabatekoa Deba ibarrean: *nok / non, nozu, nozue*. Pedro Irizarren (1992-1) arabera, Deba ibarretik gertuko Bizkaiko herri batzuetan ere ez dago: Lekeitio, Ondarroa eta Elorrio. Arabako Legutianon ere ez dago, eta Zigoitian ere ez zegoen, euskaraz egiten zenean. Dena dela, bilakaera zaharra da -o- egitea, izkribu zaharretan agertzen dena.

(7) Denborazko perpausetako -keran atzizkia: *dendatik urtekeran ikusi dot* 'dendatik irte-terakoan ikusi dut'. Mendebaleko euskarak aspaldi egindako berrikuntza da, baina Deba ibarrera iritsi gabea.

ALDAERAK ETA GARATU GABEKO ARAUAK

(1) Hitz hasieran *u-* duten *uger* 'igeri' eta *uzen* 'izen' arrotzak dira Deba ibarrean. Bizkaiko alderdi batzuetan esaten diren *ukusi* 'ikusi' eta *ukutu* (vs *ikutu*) 'ukitu' aldaerak ere ez dira entzuten Deba ibarrean.

(2) Arrotzak dira, era berean, dardarkari azkarraren aurrean *e* → *a* egin duten *agartu* 'agertu', *akar* 'aker' eta *garri* 'gerri'.

(3) Hitz amaieran -ain → -an egin duen *gan* 'gain' ez da Deba ibarrera iritsi.

(4) Bizkaian -rt- kontsonante multzoa desegin egin ohi da 3. graduko erakusleetan: *haren-tan / hatan, haretara / hatara, haretatik / hatatik, haretako / hatako...* Deba ibarrean ere badira horrelakoak, baina baita -rt- kontsonante multzoa dutenak ere: *hartan, hartara, hartatik, hartako...*

(5) Bizkai gehienez arauzkoak diren *eperdi* 'ipurdi', *gorpu* (vs *gorputz*), *lebatz* 'legatz', *mustur* 'mutur' eta *orio* 'olio' aldaerak arrotzak edo bazterrekoak dira Deba ibarrean. Berdin Bizkaian hain hedatuta dagoen orobatasuneko eta perpaus kontzesiboetako *nahi* 'nahiz' aldaera ere.

LEXIKOA

Bizkai gehienez erabiltzen diren zenbait hitz arrotzak edo bazterrekoak dira Deba ibarrean: *atundu* 'gertatu, antolatu' (Mallabia), *erosta* 'auhena', *neba* (Mallabian eta Aramaion, baina hemen sarriago *anaia*), *olgau* 'jolas egin' (Mallabia, Ermua, Eibar, Mutriku), *udagoen* 'udazkena' (Mallabia, Ermua, Eibar, Elgoibar), *zama* 'mahai gaineko oihala' (Mallabia, Ermua eta Eibar).

Egiari zor, aipatu diren hitz horietako bi, behintzat, Deba ibarreko eremu zabalagoan erabiltzen ziren antzina, eta galdu egin dira gerora. Esate baterako, *neba* hitza Kandido Izagirrek (1970) jaso zuen Oñatin, eta baita *olgau* ere, *zerraittia olgaittia*, *arilketia nekaittia* esateran. Jaione Isazelaiak (1997: 139), era berean, azken horren antzekoa entzun zuen Bergaran: *goruetia olgetia*, *a[r]ilketia neketia*. Litekeena da, dena dela, *olgau* hitza esaera horretan baizik ez izatea ezaguna.

Kandido Izagirrek Oñatin bildutako hiztegian, bestalde, oraingo oñatiarren jardunean arrotzak diren *garagarri* 'uztaila' eta *sama* (vs *lepoa*) hitzak ere agertzen dira. Garbi dago, azken batean, gaur egun arrotza dena, oraintsu arte bizirik egon dela.

5. Gipuzkoako eta Euskal Herriko erdiguneko berrikuntzak Deba ibarrean

Dagoeneko sarri esan denez, euskararen indarra Gipuzkoan egon da XVIII. mendeaz gero, eta indar hori areagotu egin da XX. mendearen erdialdetik aurrera, hango euskalkia aukeratu delako euskara batuaren oinarriako. Eskolan, hedabideetan eta, azken batean, eguneroko jardun arruntean ere gero eta handiagoa da euskara horren eragina.

Aspaldikoak dira euskara giputzaren ospea aipatzen duten albisteak Deba ibarrean. Jose Antonio Uriarte fraide frantziskotarrak, Leintz haranean misioak egiten ziharduela, honako haxe idatzi zion Bonaparteri, 1859ko urtarrilean (in Ruiz de Larrinaga 1954: 276):

El domingo pasado principiamos la misión que concluiremos el día 17. Predicamos en el dialecto guipuzcoano de Beterri, pues están acostumbrados a este dialecto en el púlpito.

Uriarteren hitzetan, apaizak ez ezik, eliztarrak ere ohituta zeuden euskara giputzera. Urte bereko maiatzetan, beste gutun bat egin zion Uriartek Bonaparteri, eta Deba ibar osoko egoera erakutsi zion bertan. Honela zeuden gauzak haren esanetan (in Ruiz de Larrinaga 1954: 279):

Sucede en todas estas poblaciones que miran con desdén el bascuence de Vizcaya y son muy apasionados al dialecto del Beterri: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterri y muchísimas personas hacen estudio de ese dialecto por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido “guipuzcoanizar” al vulgo.

Aintzakotzat hartzekoa Uriartek esandakoa. Beterriko hizkera zela ospeduna bage-nekien, baina Deba ibarreko bizilagunek eurena *gaitzesten* zutela ere esaten digu hemen. Eta elizgizonek ez ezik, gizarteko handi jendeak ere Beterrikoa ikasi eta erabil-tzen zuela argitzen digu. Azken batean, gizarte mailen ezaugarria zen hizkera bata edo bestea erabiltzea: Beterriko giputza zerabilen jende gorenak, eta bertako betiko mende-baleko euskalkia herri xeheak. Gorago ikusi denez, gauza bera esan zuen Bonapartek 1863an, Bergarako egoeraz mintzo zela:

Begarako hizkera bizkaitarra —eta ez giputza— diodanean, ondo baino hobeto dakit giputz garbi izaten ahalegintzen den Bergarako handi jendeak ez duela dei-tura hori atsegin. Ez diot ezetzik, eta badakit, gainera, apaiz jakintsuenen ser-moiak, eta baita ondo hezitako jendearen eguneroko jarduna bera ere, euskara giputzean, eta Beterriko euskara giputzik garbienean gainera, egiten direla sarri-tan. Baina horrek guztiorrek ez du ezertan aldatzen nire iritzia. Bergararrek biz-kaitarrak eta euren euskara gogoko izan edo ez, gauza da Bergarako herri xeheak eta baserritarrek darabilten hizkera ekialdeko bizkaitarra dela, hizkuntzaren ikus-pegitik begiratuta.

Gugandik gertuagoko beste albiste bat erakutsiko dugu jarraian, XX. mendearen erdialdekkoa. Sebero Altube (1949: 202) arrasatearrarena da, egoera bertatik bertara bizi zuen lekuko batena. Berdina da, dena dela, honek eta aurrekoek ziotena:

Es sabido que en la conjunción de los territorios de Vizcaya y de Guipúzcoa, hay una vasta zona lingüísticamente vizcaina, pero que administrativamente forma parte de la llamada provincia de Guipúzcoa (...). Pues bien: todos estos miles de habitantes, cuyo idioma propio es el euskera neta y puramente vizcaino, prefieren para la lectura el guipuzcoano, lo entienden perfectamente y la mayoría hasta lo habla en forma aceptable.

¿A qué obedece este fenómeno? Sencillamente a que el Obispado de Gasteiz envía a las parroquias de esos pueblos, casi siempre, sacerdotes de Guipúzcoa, pero de toda ella, sin distinción de zonas lingüísticas (...). Toda la predicación y demás actos religiosos en las iglesias de los guipuzcoanos de habla vizcaina se efectúan, pues, con pocas excepciones, en el euskalki guipuzcoano, y esto basta para que los habitantes de dichas zonas, como queda dicho, lo entiendan sin dificultades, lo hablen pasablemente y, lo que es más interesante, lo prefieran en los libros de misa, en la Doctrina Cristiana y en toda clase de lecturas.

Aldakuntza nabarmena mende bateko tartean izan dena. Hizkuntza ez da, dagoeneko, gizarte mailen ezaugarria. Jende gorena ez ezik, herri xehea ere Beterriko hizkerara lerratu da.

Oraintsuagokoa da aipatuko dudan azken lekukotasuna, Arantzazuko komentuan luzaroan bizi izandako Luis Villasante frantziskotarrak ikusia eta erakutsia. Tolosaldeko euskararenganako lilura eta Oñatikoarenganako lotsa agertzen dira hemen ere argiro, eta Tolosaldeko hizkera zabaltze aldera Elizak egin duen ahalegina nabarmentzen da berriro. Baina Elizaz gainera, euskara txikiak eta txikituak izan duen bigarren heldulekua ere aipatzen du Villasantek: bertsolaritza. Izan ere, Beterri-Tolosaldeko hizkera erabili dute bertsolariek euren jardunean. Hona hemen Villasantek (1968: 270) esandakoa:

Beste arrazoi bat ere bada, nere ustez, txar konpleju ori esplikatzeke. “Euskera ona, Tolosa aldekoa, kiputz-aldekoa”. Lelo au ere maiz entzuten da. Sermoi, itzal-di eta liburuetarako beti euskera ori erabiltzen da. Eta ori eskatzen du jendeak ere. Emen Oñatin ere bai. Ango euskera apain eta dotoretzat jotzen da. Bertsolariek ere ura maite dute.

Hizkuntzari begiratuta, Debabarrenean da euskara giputzerantzko isuria aspaldi-koena eta sakonena, hau da, Elgoibarren, Mendaron, Mutrikun eta, bereziki, Deban. Azken herri hori, hain zuzen, erdialdeko euskalkian ezar daiteke bete-betean. Mendebaleko bereizgarri gutxi dago bertan; mendebaleko ohiko mugak gainditu eta Urolaldera eta Goierriira iritsi direnak, gehienbat. Gorago, (2) atalean erakutsi dira. Horietaz gainera, -z aditz pluralgilearen indarra da mendebalarekin batera daukana. Esanguratsua da, era berean, /i + a, e, o/ arteko *x* epentesia (*mendixa* ‘mendia’), Deba ibarreko gainerako herriein batzen duena. Baina horixe da guztia. Horixe besterik ez da mendebalarekin lotzen duena. Aldiz, erdialdeko berrikuntza gehienak iritsi dira Debara. Handik elikatzen da.

Debabarreneko gainerako herrietan ez da hain erabatekoa euskara giputzerako isuria, eta gaur egun joera hori nagusitzen ari bada ere, bizirik daude oraindik mendebaleko zenbait ezaugarri. Mutrikun, gainera, Bizkaia-erikiko lotura estutzen ari da, bertako gazte jendeak Ondarroarekin daukan hartu-emanak dela eta. Gaur egun, beraz, “tarteko hizkeratzat” jo daitezke Elgoibar, Mendaro eta Mutrikukoak, mendebaleko eta erdialdeko euskalkien arteko lotura edo zubi lana egiten duten hizkeratzat.

Bergaran eta Antzuolan, era berean, aspaldikoa da euskara giputzerako isuria, baina, isuriak isuri, herri horiek mendebaleko euskalkikoak dira. Ahulago izan arren, Soraluzen eta Oñatin ere agerikoa da euskara giputzaren indarra.

Dena dela, ez dira euskara giputzaren ezaugarriak Deba ibarrera iritsi diren bakarrak. Euskal Herriko erdigune osoan egindako berrikuntzak daude tartean, Gipuzkoan ez ezik, Lapurdin eta Nafarroa bietan ere gauzatu direnak.

Hona hemen berrikuntzon zerrenda:

(1) Erdialdeko euskalkian bezala, hitz hasierako **j*-ren ahoskera [x] da Deba ibar osoan: *jakin* (vs *yakin*). Bizkaiko ekialdera ere iritsi da: Durangaldera, Lea-Artibai gehienara eta Busturialdeko eremu zabalera.

(2) Euskal Herri gehienez bezala, *l*, *n* eta *r* ondorengo *tz* ohikoa da Debarrenean hitzak batzerakoan: *egon tzan* 'egon zen'. Batez ere Deban eta Mutrikun da ahoskera hori indartsua.

(3) Soziatiboko *-kin* atzizkia zabaldu da Deba ibar osoan.

(4) Euskal Herriko erdigunean bezala, *-tikan* / *-gandikan*, *-gantikan*, *-rikan*, *-(e)nikan* aldaerak hedatu dira Debarrenean eta Soraluzen, eta ezagunak dira Bergaran eta Antzuolan: *etxetikan*, *gurasuengandikan*, *ikustiagaitikan*, (*eztakat*) *dirurikan*, *eztot uste etorriko danikan*.

(5) Erdal *-(c)ion* → *-(z)io* egin da Debarrenean, Gipuzkoa eta Nafarroa gehienez bezala: *falsifikazio*.

(6) NOR-NORI-NORK saileko adizkietan Euskal Herriko erdiguneko **-i-* erroa dago Debarrenean: *digu*.

(7) **edun*-en orainaldian euskara giputzeko *-e-* dago Deban, Mutrikun eta Mendaron, eta ezaguna da Elgoibarko Altzola auzoan: *det* 'dut'.

(8) *izan*-en orainaldi pluraleko adizkietan euskara giputzeko *-e-* dago Debarrenean: *zera* 'zara'.

(9) NOR-NORK saileko adizkietan NOR 'ni' denean, *-au-* —> *-a-* egin ohi da erdialdeko euskalkian: *nazu* 'nauzu', *nazue* 'nauzue'. Debabarrenera eta Deba ibarreko erdigunera ere iritsi dira horrelako adizkiak. Baita Ondarroa, Lekeitio eta Elorriora ere, Pedro Irizarren (1992-1) arabera.

(10) Erdialdeko hizkera askotan, era berean, *-au-* —> *-a-* egin ohi da *eduki*-ren orainaldi-ko adizkietan: *dakat* 'daukat', *dakazu* 'daukazu'... Debabarrenean, Erdiguneko zenbait hizkeratan eta Oñatin ere bada.

(11) Ondoko hizkera giputzetatik heldu da *egon*-en orainaldi pluraleko *-a-* erroa (*gare* 'gaude', *zare* 'zaude', *zarete* 'zaudete', *dare* 'daude') eta iraganaldiko *-e-* (*genden* 'geunden', *zenden* 'zeunden', *zendeten* 'zeundeten', *zeren* 'zeuden'). Debabarrenean eta Erdigunean erabiltzen dira horrelako adizkiak.

(12) Euskara giputzeko *dijua* tankerako *joan*-en adizkiak iritsi dira Debara eta Mutrikura, eta *dixe* tankerakoak daude Elgoibarren eta Mendaron.

(13) NOR-NORI saileko iraganaldian Euskal Herriko erdigunean oso zabalduta dagoen *zit-* dago Debabarrenean; Deban eta Mendaron, gehienbat: *zitzaizun*.

(14) Euskal Herriko erdiguneko *z-* iritsi da Debara NOR-NORI-NORK saileko eta trinkoen hitanoko adizkietan: *ziok* / *zion* [dio], *zagok* / *zagon* [dago].

(15) Iraganaldiko adizkien 3. pertsonetan Euskal Herri gehieneko *z-* dago Debabarrenean (*zeban* 'zuen'), eta horixe ari da nagusitzen gaur egun Deba ibar guztian; batez ere Antzuolan eta Bergaran. XVII. mende amaierako Amileta antzuolarraren kristau ikasbidean, esate baterako, *ø-* dago beti: *eban* 'zuen', *ebeen* 'zuten', *euskun* 'zigun', *eoden* 'zeuden', *eukan* 'zeukan'... eta, aldiz, *z-* dunak dira orain nagusi.

Ezaugarri horren ondorioz, gainera, ez partikularekin batzean, *tz* ahoskatzen da Debabarrenean: *etzeban* 'ez zuen' (vs mend. *ezeban*). Baina, gehienbat, adinekoen jardun-ean gertatzen da hori, ez gazteenean.

(16) NOR saileko 2. pertsona pluralean Euskal Herriko erdigune guztian zabalduta den *-te* atzizkia dago Debabarrenean, Bergaran, Antzuolan eta Soraluzen: *zarete*, *zatozte*.

(17) Erdal jatorriko partizipioetan ez ezik, euskal jatorrikoetan ere *-au* dago Debabarrenean: *hasarrau* 'haserretu'. Urolaldekoa eta Goierrikoa da joera hori, mende-
baleko euskalkian erdal jatorriko berrietan baizik gertatzen ez delako.

Gaur egun, gainera, mendebaleko *-au* bilakaerarekin batera, *-atu* ere sarri entzuten da Deban eta Mutrikun (*pasatu* vs *pasau*), eta sarriago *-itu*, mendebaleko *-idu* amaieraren ordeztu (*eskribitxu* vs *eskribidu*).

(18) Galderetan erdialdeko *al* partikula zabaldu da Debabarrenean: *etorriko al tzero?*

(19) Euskal Herri gehienean bezala, *bi* zenbatzailea izenaren ezkerrean jartzeko joera nagusitu da Deba ibar osoan eta, bereziki, Debabarrenean, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin: *bi lagun*. Lekuko zaharretan —Antzuolako XVII. mendeko kristau ikasbidean, esate baterako— eskuinean agertzen da beti: *bide bi, modu bitan*.

ALDAERAK ETA GARATU GABEKO ARAUAK

(1) Euskal Herriko erdigunean —zehaztu gabe dago eremua— *e* → *a* egiteko joera dago dardarkari azkarraren aurrean hitz jakin batzuetan. Debabarrenean eta Deba ibarreko erdigunean ere bada joera hori: *basarri* ‘baserri’, *bidar* ‘bider’, *edar* ‘eder’, *eguardi* ‘eguerdi’, *izardi* ‘izerdi’, *iztar* ‘izter’, *muskar* ‘musker’, *pipar* ‘piper’, *pitxar* ‘pitxer’, *puzkar* ‘puzker’.

(2) Hitz hasierako herskariak (*p*-, *t*-, *k*- eta *b*-, *d*-, *g*-) ez dira Bizkaian bezala erabiltzen beti: *barkatu* (vs *parkatu*) (Deba ibar gehiena), *pake* (vs *bake*) (Debabarrena, Oñati, Arrasate, Elgeta)...

(3) *n* eta *l* ondoren, *t* nahiz *d* eta *p* nahiz *b* entzuten dira Debabarrenean, Bergaran eta Antzuolan, *aldare* / *altara*, *denbora* / *denpora*, *jende* / *jente* hitzetan, eta Deba ibar osoan ari dira zabaltzen *b* eta *d* dituzten aldaerak gazte jendearen jardunean.

(4) *erak* ‘eurak’ (eta *erek* ‘eurek’, *eren* ‘euren’...) tankerako erakusleak erabiltzen dira Bergaran eta Antzuolan, Goierri aldean bezala.

(5) *nere* ‘nire’ (eta *neri* ‘niri’, *nerekin* ‘nirekin’...) gisako izenordainak erabiltzen dira Debabarrenean, Erdigunean eta Oñatin.

(6) Partizipioetan *-ki* duten *ebaki* (eta *ebai*), *erabaki*, *eseki* eta *iriki* dira Debabarrenean ohikoak, eta Deba ibar osoan esaten da *jaiki* (eta *jagi* Debagoienean). Gaur egun, tankera horretako partizipioak ari dira zabaltzen Deba ibar osoko gazte jendearen jardunean.

(7) Euskara giputzeko eta Euskal Herriko erdiguneko beste aldaera batzuk ere badira: *eskubi* 'eskuin' (Debabarrena), *igo* (vs *igon*, *igan*) (Deba ibar osoa), *kerten* 'kirten' (Debabarrena, Erdigunea, Mallabia), *puzkar* (vs *uzker*) (Debabarrena eta Erdigunea), *sapai* 'sabai' (Deba ibar gehiena), *txindurri* 'inurri' (Deba ibar osoa eta Bizkaiko ekialdea)...

Debagoienean, Bergaran, Antzuolan eta Elgetan *gutxi* (vs mend. *gitxi*) esaten da, baina aldaera horrek euskara giputzarekin ez, antzinako Arabakoarekin egin dezake lotura.

LEXIKOA

Euskara giputzean bezala, *zein* izenordainak ia erabat baztertu du *nor* Deba ibar osoan: *zein etorri da?* Jakina, *norbera* bezalako aztarnak badira.

Bizkaian arrotzak diren beste hitz hauek ere iritsi dira Deba ibar osora edo gehienena: *agor* 'irail' adierarekin (gaur egun galbidean), *bailara* 'ibarra, harana', *berehala* (> *berihela* / *bela*), *izugarri*, *puska* (eta *puskatu*, *pusketa*), *sukalde*, *zeharo* (> *zihero*)...

Debabarren eta Erdigune gehienekoak dira hauek: *ahate* (> *arata*)¹⁴, *armiarma* / *miar-ma*, *baldin*, *bezain* (> *bezin*), *esnatu* 'iratzarri', *garo* 'iratzte' adierarekin, *laga* 'utzi'¹⁵, *pareta* 'horma', *peto*, *poliki*, *txukun*, *urtezahar*...

Ondorengoak, gehienbat, Debabarrenean, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin zabaldu dira. Soraluzen ere badira batzuk: *bezela* 'bezala', *bukatu*, *faborez* 'mesedez', *guraize*, *hitz egin* (eta *hizketa*), *hots egin* 'deitu', *ilbeltz* / *ilbaltz* 'urtarrila' (gaur egun galbidean), *katagorri* 'urtxintxa', *mingain* 'mihia', *nola*...

Beste hauek ere badira Debabarren gehienean: *apaiz*, *eskale*, *galdetu*, *lapurtu*, *nazka*, *omen* (> *emen*), *triku* (vs *kirikino*), *urruti*...

¹⁴ Hitzun askok *paita* eta *ahate* biak erabiltzen dituzte, baina adiera banarekin: etxekoa da *paita* eta basatia *ahatea*.

¹⁵ Gipuzkoako iparralde guztian erabiltzen da *laga* / *laja* hitza, eta eremu horrekin egiten dute bat Deba ibarreko iparraldeak eta Ondarroak. Dena dela, Bizkaiko ipar-mendebalean ere bada, *larga* itxurapean.


Eremu urriagoko batzuk ere badira: *aitona* eta *amona* (Mutriku), *amildu* (Mutriku, Oñati), *apreta* ‘espartina’ (Antzuola), *aurrena* ‘lehena’ (Deba, Mutriku, Mendaro, Bergara), *baratxuri* (Deba, Mutriku), *baratza* (Deba, Mutriku), *behatz* ‘hatza’ (Deba, Mutriku, Mendaro, Bergara, Antzuola), *eraman* (Deba, Mutriku, Mendaro), *eskuminak* ‘goraintziak’ (Deba, Mutriku), *galtza* (vs *praka*) (Mutriku), *ilargi* (Deba, Mutriku, Antzuola), *laiotz* ‘leku itzaltsua’ (Elgoibar, Oñati, Antzuola), *lantxurda* ‘antzigarra’ (Bergara, Antzuola, Soraluze), *mikatz* (Deba, Antzuola, Bergara), *neskame* (Deba, Antzuola)...

6. Debagoieneko bereizgarriak. Arabako euskararen eragina

Honainoko zerrendetan ikusi denez, Leintz harana eta Aramaio dira mendebaleko ezaugarri gehien dituztenak, Eibarrekin eta Ermuarekin batera. Horren zergatien bila hasita, ez du ematen alderdi horrek Bizkaiarekin hartu-eman estuagoa izatea denik arrazoa. Aldiz, alderdi horren nolabaiteko bakardadean eta euskara giputzaren eragin txikiagoa izatean egon daiteke gertakariaren gakoa. Egin dezagun kontu oraintsu arte, harik eta errepide erosoak egon arte, luzea eta nekeza izan dela eskualde horren eta euskara giputzaren eremuaren arteko bidea.

Bakardadeak eta euskararen eremuaren bazterrean egoteak azaltzen du, era berean, zenbait arkaismo gorde izana alderdi horretan eta, Leintz haranari eta Aramaiori, Oñati gehitu egin behar zaie oraingo honetan. Horren adibide dira ablatiboko *-ti* eta motibatiboko *-gati* atzizkiak, *-dui* / *-doi* aldaerak (*pagadui* / *pagadoi* 'pagadi'), iraganaldiko aditz trinkoen erroko *-a-* bokala (*abilen* 'zebilen'), NOR saileko adizkien 2. pertsona pluraleko *-e* atzizkia (*zatoze* 'zatozte'), aditz izenetako *-ten* atzizkia (*etorten* 'etortzen'), aditz izenetako *-t(z)eia* / *-t(z)eie* atzizkiak (*hartzeia* / *harteie* 'hartzea'), eta geroago erakutsiko diren zenbait aldaera eta hitz.

Baina "bakardadea" sekula ez da erabatekoa, eta Debagoiena "bazter hizkera" izatea ere ez da betikoa. Hain aspaldi ez dela, euskalduna izan da haren hegoaldeko Arabako lautada, eta lautada horretan egon da, hain zuzen, inguru guztiko hirigune nagusia: Gasteiz. Zalantzarik gabe, Debagoienak Gasteizekin eduki du hartu-emanik estuena eta, uste izatekoa denez, hango ezaugarriak eta hango berrikuntzak iritsi dira bertara.



Gasteizendako, era berean, itsasora heltzeko ezinbesteko iraganbidea izan da Deba ibarra. Bertatik joan dira Debara edo, bestela, Durangon barrena, Bermeora. Bi horietan izan dira, aspaldiko denboretatik hasita, Gasteizen eta itsasoaren arteko loturaguneak, eta Deba ibarrean zehar zihoan bidea, hain zuzen, bietan laburrena eta erosoena (Díaz de Durana 2003: 172).

Administrazioak ere batu egin ditu Debagoiena eta Araba (García Fernández 2003). Honen eraginpean, eta Gipuzkoatik bereizita, egon da hura luzaroan: 1493an erantsi zitzaion Leintz Gatzaga Gipuzkoari, 1566an Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza, eta 1845ean, XIX. mendearen erdian, Oñati (Barrena 1995: 111). Gogora dezagun, gainera, Aramaio gaur egun ere Arabakoa dela, baina herri hori Bizkaiari lotuta egon zen XV. mende amaiera arte.

Elizaz ere Arabarekin egon da lotuta Deba ibar gehiena; ez bakarrik Debagoiena. Harekin eta Bizkai gehienarekin batu zen IX. mendearen amaieran Armentiaiko Elizbarrutian, eta batuta jarraitu zuten XI. mende amaieratik 1861 arte, Calahorrako Elizbarrutian.

Esan dezadan, horren harira, nik neuk ez dudala sinesten euskalkien eta elizbarrutien arteko loturetanitsu-itsuan, baina garbi dago Elizak bereizi dituen esparruek hizkuntzan ere izan dutela eragina. Beste lotura da batere argi ez dagoena, hau da, antzinako euskalkien eremuak aintzakotzat hartuta eraiki zuela Elizak bere egitura, Serapio Mujikak (1914-1917) esan zuen bezala.

Eztabaida hori utzi eta geure gaira itzuliaz, esan dezadan gaur egun bertan ere bizi-rik dirauela hartu-emanak, eta Debagoieneko bizilagunendako Gasteiz da zenbait sale-rosketa eta astialditarako jomuga.

Ikus dezagun, beraz, hartu-emanak hizkuntzan izan duen eragina:

(1) Debagoienean *-tza + a* → *-tzaia / -tzaie* egiten da: *berdatzaie* 'belartza'. Arabako erdi-guneko toponimian ere badira bilakaera horren lekukoak eta, antzinatasunari dagokio-nez, oso gogoan hartzekoa da, esate baterako, 1025eko Donemiliaga Kukullako herri zerrendan agertzen den *Elhorzahea* (gaur egun *Elorza*) (Zuazo 1998b: 135-136). Litekeena da, beraz, Arabatik zabaldutako berrikuntza izatea.

(2) Debagoienera **edun*-en iraganaldian erabiltzen diren *neuen* / *neben* / *nen* 'nuen', *geuen* / *geben* / *gen* 'genuen', *zeuen* / *zeben* / *zen* 'zenuen' tankerako adizkiak haren mugako herri arabarretan ere izan dira eta badira: Legutianon eta Zigoitian dago horien lekukotasuna (Gaminde 1999: 248, Irizar 1992-1: 413, Carrera & Garcia 2005: 31). Berrikuntza hori ere, beharbada, Arabatik zabaldu zen Debagoienera.

Arabako izkribu zaharretan, hain zuzen, indarrez agertzen da *-eu-*, eta iraganaldian ez ezik, orainaldiko lehenengo pertsonetan ere bada: *deut* 'dut' erabili zuten Perez Lazarragak eta Garzia Albenizek, eta *deugu* 'dugu' Sabandoko Gamizek (in Goikoetxea 1982).

(3) Leintz haraneko *gare* 'gara' eta *zare* 'zarete' adizkiek ere Araban dute jarraipena; Legutianoko udalerrian (Gaminde 1999: 247, Irizar 1992-1: 417, Carrera & Garcia 2005). Dauzkagun argibideak kontuan hartuta, ezin dugu ziurtatu adizki horiek Arabatik Debagoienera etorri direla, baina Debagoienaren eta Arabaren arteko lotura salatzen dute behinik behin.

Esan dezadan, horren harira, *gare*, *zare* tankerako adizkiak ez direla Arabako bereizgarria. Bizkaiko ipar-mendebalean ere badira, esate baterako, Uribe Kosta eta Txorierri eskualdeetan (Irizar 1992-1: 562, 599)¹⁶.

(4) Objektu pluralarekin komunztadura ez egitea da Debagoieneko bereizgarri nagusia; ahulago izan arren, Bergaran eta Antzuolan ere gertatzen dena. Arabako eremu zabalean ere bazen, eta XVI. mendeko izkribuetan dago horren lekukotasuna; Landuchioren hiztegian eta Joan Perez Lazarragaren idazlanetan: *belarri andiak daukana* [*daukana* vs *dauzkana*] agertzen da, esate baterako, Landuchioren hiztegian.

Gertakari bera dago Goierri eta Urretxu-Zumarraga alderdian, hain zuzen ere Arabarekin hartu-emanik estuena izan duten lekuetan eta, jakina, Arabatik zabaldu zen ustea indartzen du kidetasunak.

¹⁶ Ziurrenera, Bittor Kapanagak idatzi eta Xeberri eta Gontzal Mendibil kantariak musikatutako poema izan da adizki horiek Arabakoak zirelako uste ustela hedatu duena: *Araban bagare*, / *Gipuzkun bagera*, / *Xiberun bagire*, / *ta Bizkaian bagara*... dio kantu ezagunak.

(5) Debagoienean NOR-NORK saileko adizkietan *-it-* pluralgilea galtzeko joera dagoela aipatu da: *gau* 'gaitu'. Legutianoko udalerrian ere badira horrelakoak (Gaminde 1999: 248, Irizar 1992-2: 352) eta Zigoitian ere izan ziren (Irizar 1992-1: 410). Perez Lazarragaren izkribuan, era berean, *zaut* 'zaitut' eta *zau* 'zaitu' ageri dira.

(6) Aditz izenetako *-ketan* atzizkia da Debagoieneko beste bereizgarri esanguratsuenetako bat: *ezauketan* 'ezagutzen'. Tankera horretako adibide ugari dago Landuchioren hiztegian, Perez Lazarragaren izkribuetan eta Garzia Albeniz araiarraren itzulpenean. Arabatik etorria izan daiteke hori ere, beraz.

Jakina, Debagoieneko berrikuntza guztiek ez dute nahitaez Araban izan behar jatorria. Hona hemen horrelako hiru:

(1) Azentuak ez dauka inolako balio bereizgarriarik. Ez singularra eta plurala bereizten ditu, ez esanahi banako hitz bikoteak bereizten ditu. Azentu markatuko hitzik ere ez dago.

(2) *i* eta *u* bokalen ondoren, *a* → *e* egin da Aramaion, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten, gaur egun atzera berriro *a* nagusitzen ari den arren: *ogixe* 'ogia'. Leintz Gatzagan eta Oñatin gauzatu ez denez, ez dirudi Arabatik etorritakoa denik. Gertakari berria da, gainera, Gasteiz erdaldundu ondoren gauzatutakoa.

(3) Pluraleko erakusleetan *-i-* bokala sartzen da: singularrean *honek* vs pluralean *honeik*. Bertako berrikuntza izan daiteke, izkribu zaharretan agertzen diren *honeek* gisako bokal bikoitzetatik *ee* → *ei* eginez sortutakoa¹⁷.

ALDAERAK

Debagoieneko aldaera bereziak dira ondorengoak: *betik* 'beti', *birki* 'biki', *egogi* 'egoki', *emun* 'eman', *irago* 'igaro', *nahar* 'lahar', *txikin* 'txiki'. Leintzen eta Aramaion —baita Legutianon ere—, *xei* 'sei' esaten da.

¹⁷ Debagoieneko berrikuntza hori berori egin zen, dena dela, Bizkaiko beste ertzean, Nerbioi ibarrean. Basaurin, esate baterako, *onek* 'honek' vs *oneik* 'hauek', *orrek* 'horrek' vs *orreik* 'horiek'... jaso zituen Jon Arretzek (1994: 106-107).

Aldaera horietako batzuk inguruko herrietan ere badira: Elgetan eta Bergaran, gehienbat. Perez Lazarragaren izkribuetan ere, gainera, sarri agertzen da *emun*. Debagoienetik urrun, Erronkarin ere bazen *betik*, eta baita *ñar* 'lahar' ere Erronkarin eta Zaraitzun. Arabarekin egiten du lotura *irago* aldaerak eta, azkenik, Urolaldeko hizkera batzuetan ere bada *xei* 'sei'.

Hego Euskal Herriko beste alderdi askotan bezala, *fan* / *fuen* 'joan' esaten da Debagoienean, eta Deba ibarreko erdiguneko hizkera batzuetan ere bada, Bergaran, Antzuolan eta Elgetan.

LEXIKOA

Debagoieneko hitz bereziak dira ondorengoak: *itxungi* / *atxingi* 'itzali', *laru* 'horia', *lekaio* 'oihua, irrintzia' —Eibarren ere ezaguna da—, *samur* 'erraz' adierarekin, *takarrada* 'lasterka', *tril egin* 'topo egin'... Alderdi horretako hizkera batzuetan *itua* 'ukuilua' ere bada, eta *txirritola* (Aramaion) / *sirixola* (Gatzagan) esaten zaio argizariari. Aramaioarrek, hain zuzen, *txirritola* euren hitz berezizat daukatenez, izen horixe ipini diote herriko Euskara Elkarteari.

Nafarroako Sakanan daukate jarraipena *jaregin* 'askatu' / bertan behera utzi / narrasa' —Burundaraino iristen da— eta *petrina* 'gerrikoa' hitzek (Erdozia 2004). Legazpin ere, behintzat, bada *jaregin*.

Mendebaleko beste alderdi batzuetan —Arabian, gehienbat— ezagunak (izan) diren hitzak gorde dira Debagoienean: *amarraz* 'armiarma' adierarekin¹⁸, *beilegi* 'hori', *biao* 'bazkalosteko lo kuluxka', *erripa* 'aldapa' —Eibarren (Basauri & Sarasua 2003: 202, s.v. *errepa*) eta Mallabian ere (Mugarza 2006: 297) ezaguna—, *etzilimo* 'etxidamu', *garbatu* 'damutu' —Mallabian ere ezaguna (Mugarza 2006: 306)—, *garranga* 'izotz burruntzia', *irastu* 'tximista', *justuri* (eta *fusturi*) 'trumoia, ostotsa', *susuma* 'higuina'...

Ondorengo beste hitz hauetan ere agerian dago Debagoienaren izaera gordetzailea: *eguakitz* 'ostiral' adierarekin¹⁹, *tu* (> *txu*) (vs *txistua*), *zerba*...

Lexikoaren sail honetan ikusi diren hitzetako asko inguruko herrietan ere badira: Bergaran, Antzuolan eta Elgetan, gehienbat.

¹⁸ Bizkaiko itsasbazterreko zenbait herritan olagarroari deitzen zaio *amarrazta*.

¹⁹ Gogora dezagun Nafarroa Beherean ere badela horren antzeko hitza, baina 'larunbat' adierarekin.

7. Oñatiko hizkeraren nortasuna

Debagoienaren barruan batasun handia dago Leintz haraneko hizkeren eta Aramaiokoaren artean. Herri hori Arabakoa izan arren, Arrasateri begira egin du bizi-modua, batez ere XX. mendean Arrasateko industria suspertzen hasi zenetik hona. Hori



Oñatiko Udaletxea eta plaza nagusia.



Arantzazuko Santutegia.

dela eta, berdintsuak dira bateko eta besteko hizkerak, Txipi Ormaetxeak (2006) erakutsi berri duen bezala. Oñatikoa da gauza askotan desberdina.

Herri bakartia da Oñati, inguruko guztietatik argiro bereizia, eta bereiz egotea ez da bakarrik arrazoi orografikoen ondorioa. Arestian esan denez, XIX. mendearen erdialdean, 1845ean batu zen Gipuzkoarekin, eta nolabaiteko izaera beregaina gorde zuen ordu arte.



 Araotz, Oñatiko auzo bakartia.

Dena dela, bakardadea ez dela sekula erabatekoa ere esan da, eta ondo gogoan eduki behar da 1540az gero unibertsitatea izan dela Oñatin, eta bateko eta besteko lagunak bildu direla bertara. Arantzazuko santutegiak, era berean, hainbat lagun ekarri du Oñatira. Jakina, oñatiarrak eurak ere irten dira kanpora: Bergarara bereziki, baina baita Araba aldera ere sarri. Oñati eta Legazpiren artean ere beti izan da hartumana.

Gertakari horien oihartzuna erraz ikusten da Oñatiko hizkeran: a) gainerako alderdietan galdutako ezaugarriek luzaroago iraun dute Oñatin, b) Leintz haranera eta

Aramaiora Bizkai aldetik sartu diren berrikuntza zenbait ez dira iritsi Oñatira, c) Bergaran eta, beharbada, Legazpin barrena ezaugarri giputzak zabaldu dira Oñatira, eta d) berta-ko bereizgarri batzuk ere badira. Egin ditzagun horretaz guztiaz zenbait hitz.

7.1. Oñatiko bereizgarriak

(1) NOR-NORI saileko eta hitanoko adizkietako [j] ahoskera da guztien gainetik nabar-mendu beharrekoa: *xako* 'zaio', *xostak* 'zidak', *xatok* 'zatorrek'.

Ahoskera horren antzinatasunari dagokionez, gauza bakarra daukat esateko. XVIII. mendeko *Osaba baten instruccinuac* izeneko eskuizkribuan *i-* agertzen dela NOR-NORI saileko adizkietan (ez dut hitanokorik aurkitu): *iako* 'zaio', *iaku* 'zaigu', *iatzu* 'zaizu', *iatzube* 'zaizue', *iate* 'zaie'. Litekeena da, beraz, gaur egungo *x-* berri samarra izatea.

(2) Adizkien 2. eta 3. pertsona pluraleko *-ei* / *-ai* amaierak: *zarai* 'zarete', *dostei* 'didate'. Datibo pluralean ere *-airi* dago Oñatin: *gizonairi* 'gizonei'. Dena dela, Oñati Deba ibarre-an bakarti agertzen den arren, mendiez bestaldean antzera dira gauzak Nafarroako Burunda ibarrean (Zuazo 1994: 326, 330).

(3) Partizipioa *-au* duten aditzek *-iten* egin dute aditz izena: *asmaitten* 'asmatzen'. Oñatiko bereizgarria da gaur egun, baina XVIII. mendeko Garzia Albeniz araiarrak ere erabili zuen, eta horren antzeko *-itan* dago Landuchioren hiztegiari: *abisaitan* 'abisatzen'. Hain zuzen ere, *-itan* dago Oñatiko XVIII. mendeko eskuizkribuan: *apuntaitan*, *eskarmenitaitan*, *pensaitan*, *pagaitan*... Arabatik Oñatira etorritakoa izan daiteke, beraz.

Oñatin, gainera, partizipioa *-idu* duten aditzek ere *-iten* egin dute aditz izena: *sentitten* 'sentitzen'. Hori, dena dela, ez da Oñatiko bereizgarria; atzizki berbera dago (*-itan* / *-iten*) Bizkaiko zenbait alderditan: Uribe Kostan, Mungialdean, Txorierrin, Nerbioi ibarrean... eta baita Arabako Legutianon ere.

(4) Oñatiko aldaera batzuk ere nahi ditut gogora ekarri: *kiltza* 'giltza', *madura* 'padura' —Bergaran eta Antzuolan ere bada— eta *pultza* 'bultza'. Hirurak agertzen dira Landuchioren hiztegi arabarrean.

7.2. Inguruetatik etorritako berrikuntzak

Oñati eta Leintz-Aramaio alderdia bereizten dituztenak aipatuko ditut soil-soilik.

(1) Deba ibarreko iparraldeko beste hizkera batzuetan bezala, Gipuzkoa aldeko *-a-* erroa dago Oñatin *eduki*-ren adizkietan: *dakot, dakok / dakon, dako, dakogu, dakozu, dakozue, dakoi* (Bedita Larrakoetxea UE 2005: 12).

(2) Bergaran, Antzuolan eta Perez Lazarraga arabarraren izkribu zaharretan bezala, NOR-NORI-NORK saileko orainaldian, datiboa 'hari' denean, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK sailetako adizkiak gurutzatzen dira Oñatin: *xat* 'diot'.

(3) Deba ibarreko iparraldeko hizkeretan bezala, Oñatin ere badira *jardun*-en adizki trinkoak: *dihardut, dihardu*...

(4) Aldaera lexikoetan ere badira aldeak. Oñatiko *ahizpa, beltz, hapixa* 'habia', *soro* ez dira Leintz-Aramaio alderdira iritsi. Oñatin, era berean, *nere* (eta *neri, nerekin*...) tankerako izenordainak erabiltzen dira.

(5) Lexikoan, azkenik, Oñatiko *antxitxika* 'lasterka', *armiarma* (eta *amarratz*), *emendatu* 'itzali' eta *hazkarri* 'legamia' hitzek bereizten dute Leintz-Aramaio alderditik.

7.3. Oñatira iritsi gabeko berrikuntzak

Oraingoan ere Leintz-Aramaio alderdira sartu diren berrikuntzak, eta Oñatira iritsi ez direnak aipatuko dira soil-soilik.

(1) Oñatin ez da izan *u* eta *i* ondoren *a* $\rightarrow$ *e* egiteko joera: *dirua* (ez *dirue*).

(2) Oñatin ez da egin *Vj + z / tz $\rightarrow$ V(j) + x / tx* bustidura: *gaitz* (ez *gatx*).

(3) Hurbiltze adlatiboko *-rutz(e)* atzizkia ez da iritsi Oñatira: *mendi aldera* (ez *mendirutz*).

(4) Aditz izenak mugimenduzko aditzen osagarri izan eta helburua edo norabidea adierazten dutenean, NORA kasuan erabiltzen dira Oñatin: *ikustera noia* (ez *ikusten noie*).

- (5) Moduzko adberbioetan ez da *-n* eranstean Oñatin: *hola* (ez *holan*) 'honela / horrela'.
- (6) Euskal Herri gehieneko *-ki* atzizkia dago adberbioetan: *ederki*. Aldiz, salbuespenen bat edo beste gorabehera (*politto*, *zihezto*), arrotza da mendebaleko *-to*.
- (7) *izan*-en pluraleko adizkietan *-a/-ai* daude Oñatin: *gara*, *zarai* (ez *gare*, *zare*).
- (8) Arrotzak dira Oñatin aditz izenetako *-etan* (*asmetan* 'asmatzen') eta *-iduten* (*entendi-duten* 'entenditzen') atzizkiak.
- (9) Gaur egun behinik behin, arrotza da Oñatin 'partizipioa + adizki jokatua' egitura, aditz trinkoak indartu nahi direnean: *jakin daki*.

7.4. Oñatiko arkaismoak

(1) Oñatin iraun duten bokal bikoitzak erakutsi nahi ditut sail honetan. Galtzera egin dute joan den aspaldian, baina gaur egun ere entzuten dira adineko hiztunen jardunean; Arantzazu eta Araotz auzoetan, gehienbat. Zehatzago esateko, Aretxabaletako Goronaeta auzoan ere badira, Oñatiren mugan.

Kandido Izagirrek XX. mendearen erdialdera bokal bikoitzen adibide ugari jaso zituen Oñatiko auzo bi horietan, eta ingurune jakin eta zehatz batzuetan gertatzen direnak nabarmendu nahi ditut²⁰:

a. Bokal arteko hasperenaren aztarna diruditenak: *aal* 'ahal', *aardi* 'ahardi', *aari* 'ahari', *aaztu* 'ahaztu', *bee* 'behe', *miiñ* 'mihi', *naar* 'lahar', *naastu* 'nahastu', *oostu* 'ohostu', *xeetu* 'xehetu', *zaar* 'zahar'...

²⁰ Alde batera utziko dira, beraz, Euskal Herri osoan dauden bokal bikoitzak, esate baterako, bokal arteko *b, d, g, r* kontsonanteak galdu ondoren sortutakoak: *zabald* → *zaaldu*, *adarkada* → *adarkaa*, *ditugu* → *dittuu*, *buruko* → *buuko* tankerakoak. Baita indargarri erabiltzen direnak ere: *eedarra* 'ederra', *pooolitto* 'polito', *see-ekulakuak* 'sekulakoak'...

b. -a batekin amaitzen diren hitzen NOR kasu pluralekoak: *abarkaak* 'abarkak', *aizpak* 'ahizpak', *arramaak* 'arramak [adarrak]', *arrautzaak* 'arrautzak', *askaak* 'askak', *babaak* 'babak [indabak]', *erlaak* 'erleak', *erropaak* 'arropak', *frakaak* 'prakak', *gaztañaak* 'gaztainak', *gonaak* 'gonak', *kaltzaak* 'galtzak', *lukainkaak* 'lukainkak', *maillaak* 'mailak', *sokaak* 'sokak'...

c. -a batekin amaitzen diren hitzen NON kasu singularrekoak: *bistaan* 'bistan', *errekan* 'errekan', *gainberaan* 'gainbeheran', *jorraan* 'jorran'...

d. Silaba biko aditz izenetakoak: *artzeen* 'hartzen', *asteen* 'hasten', *austzeen* 'hausten', *bustzeen* 'bustitzen', *eltzeen* 'heltzen', *galtzeen* 'galtzen', *kentzeen* 'kentzen', *leuntzeen* 'leuntzen', *sortzeen* 'sortzen'... Jakina, bokal bikoitz horien ondorio dira gaur egun Debagoieneko zenbait alderditan NOR kasuan entzuten diren *hartzeia* / *hartzeie* 'hartzea' tankerako aditz izenak.

e. Hitz elkartu eta eratorrietakoak: *aldeerdi* 'alderdi', *besaarte* 'besarte', *jorraaldi* 'jorraldi', *luzeera* 'luzera', *mugaari* 'mugarri'... Erabatekoa da -a batekin amaitzen diren aditzei -atu partizipioa gehitzean: *aginkaatu* 'haginkatu', *akulaatu* 'akuilatu', *arrikaatu* 'harrikatu'... Baita -a batekin amaitzen diren hitzei -ari atzizkia gehitzean ere: *agintaari* 'agintari', *akulaari* 'akuilari', *albaitaari* 'albaitari', *eraari* 'edari', *errementaari* 'errementari', *errotari* 'errotari', *ibilkaari* 'ibilkari', *igarilaari* 'igerilari', *jokalaari* 'jokalaria', *kantaari* 'kantari', *pelotaari* 'pilotari'... Berdin animalia eta hegazti izenak *ar* hitzarekin elkartzerakoan: *astar* 'astar', *kataar* 'katar', *oillaar* 'oilar'...

Beste hitz zenbait ere jatorriz hitz elkartuak izan daitezkeela salatzen dute bokal bikoitzek: *artaazixak* 'artaziak [guraizeak]', *garraaxi* 'garrasi', *goraantziak* 'goraintziak', *orraatz* 'orratz'... Uste horixe sendotzen dute bigarren osagaia *arri* duten *belarri* 'belarri' eta *eztaari* 'eztari' hitzek, eta baita bigarren osagaia *tor* duten *jaator* 'jator' eta *saator* 'sator' hitzek ere.

f. Beste batzuk: *aabixa* / *aafixa* 'habia', *aabixua* 'apioa', *aar* 'har', *jaaten* 'jaten', *jaarixo* 'jario', *laarregi* 'larregi [gehiegii]', *txaarra* 'txarra'... Adibide horietan ez da garbi ikusten bokal bikoitzen arrazoia.

Bokalen iraupenaren arabera adiera bana hartzen duten hitz bikoteak ere badira lzagirreraren hiztegian: *aardi* 'txerri emea' vs *ardi* 'ardia', *miiña* 'mihia' vs *miña* 'oinazea'...

(2) Lexikoan ere gordetzaile izan da Oñati, eta Kandido Izagirreren (1970) hiztegian ageri diren zenbait hitz nahi ditut gogora ekarri: *ahaide* 'senidea' —Bergaran ere bada—, *baratz* 'astiro, poliki', *donga* 'gaiztoa', *ene* 'nire', *eguzari* 'jaia', *gainueta* / *kainubeta* 'labana', *itendu* 'galdetu', *kixkora* 'kazkabar xehea'²¹, *mirabe* 'zerbitzaria' —Bergaran ere bada—, *sehin* 'haurra', *unain* 'behizaina'...

²¹ Txipi Ormaetxearen (2006: 519) arabera, *txirkoria* erabiltzen da Aramaion ere 'elur xehea' adierazteko.

SOZIOLOGISTIKA

Ez dakit
nongo euskara zela ona,
esan zidaten.
Niretzat, egiten dena,
edo
Eibarkoa.

Bitoriano Gandiaga
Poema Argitara gabeak (2005)

ESTANDARRA, LITERATURAKO EUSKALKIAK, HERRI HIZKERAK

Iraganeko bideak

Inprenta asmatu eta euskaraz ere liburuak egiten hasi orduko, herri hizkeren ugaritasunean ikusi zen horretarako oztopoa, eta denendako hizkera bakarra eta berbera antolatzea izan zen idazleen helburua. Ipar Euskal Herrian sortu zen kezka, eta bertan egin zen helburura iristeko ahalegina.

Urrats galanta egin zuen Joanes Leizarragak XVI. mendean. Galantegia, ziurrenera, ez dirudielako hark asmatutako hizkera garai hartako euskaldunendako erraza eta gertukoa izan zenik. Ez zuen, behintzat, jarraitzaile ezagunik eduki.

Zentzuzkoagoa izan zen XVII. mendeko idazle lapurtarrek egindako aukera, Lapurdiko itsasbazterreko hizkera oinarritzat zuena. Hizkera bizia zen eta bizitasun handikoa, jende ugari bizi zelako alderdi hartan, eta oso aurreratua zegoelako bertako bizi-modua. Gainera, Gipuzkoaren eta Nafarroaren mugan zegoenez, bilgune egokia zen hizkera hura: euskaldun gehienendako ulertzeko samurra.

Oinarri egokiari eta Axular bezalako idazleen trebetasunari esker, oihartzun eta arrakasta zabala lortu zuen Iparraldean. Hegoaldean, oster, ez zuen jarraitzailerik eduki, baina arrazoia ez zen eredia bera, euskararenganako ardura apurra baizik.

Hegoaldekoak suspertu zirenerako, itzalita zegoen Lapurdiko handitasuna, eta euren eskualdean bilatu zuten lanari ekiteko euskarria: Gipuzkoako erdigunean, Tolosa eta Beterri arteko ardatzean. Zentzuzkoa zen jokabidea, herri haziak eta azpiegitura egokia zeudelako eskualde hartan. Gainera, Lapurditik eta Nafarroatik hur egonda, eta Bizkaitik eta Arabatik ez urrun, euskaldun guztiendako gerta zitekeen bilgune egokia.

Usteak, osterak, erdiak ustel atera ziren. Ereduak lortu zuen ospe eta arrakasta zer bait, baina ez zeuden denak amore emateko gertu. Bizkaian eta Zuberoan bertako ereduak antolatu zituzten, eta gainerako lau herrialdeetan hotz samar agertu ziren.

Gainera, eztabaida eta tirabira giroa baretze aldera, euskalkien aldeko mezua zabaldu zen. Euskalki guztiak zirela onak, eta aberastasuna eta onura zekartela esan zen, eta bakoitzak berea erabili eta gainerakoekin begirunez joka zezala. Halaxe mintzatu ziren, esate baterako, Larramendi, Kardaberatz eta Juan Antonio Mogel, XVIII-XIX. mendeetan.

Garai eta egoera hartan, bete-betekoa izan zen Bonaparte printzearen eragina. Alde batetik, helburu zientifikoek eraginda, herri hizkerak ikertzen jardun zuen eta, bestetik, literaturan erabiltzen ziren lau euskalkiak babestu eta indartu zituen: lapurtarra, zubero-tarra, bizkaitarra eta giputza.

Bonapartek XIX. mendearen erdialdean suspertutako lau ereduak gutxiegi iruditu zitzaizkion Sabino Aranari mendearen azkenaldian. Herrialde bakoitzak bere nortasunari eta bere euskalkiari eutsi beharra aldarrikatu zuen. Nafarroa eta Nafarroa Beherea batuta sei herrialde ikusten zituenez, beste horrenbeste euskalkik osatu behar zuten eraiki nahi zuen Euzkadi berria.

XX. mendearen hasieratik aurrera entzun ziren anabasa hura konpontzeko eta batasuna lortzeko deiadarrak, baina ugariak eta nabarrak izan ziren aurkeztutako irtenbideak.

Euskara giputza zen batzuen ustez helduleku egokia. Zalantzarik gabe, hantxe zegoen euskararen indarra, eta euskaldun guztiendako ulertzeko erraza zen. XVIII. mendeara gero, gainera, bide oparoa zeukan eginda literaturan. Horixe zen, besteak beste, Sebero Altube arrasatearrak eta Federiko Belaustegigoitia laudiarrek esaten zutena.

Giputza bai, baina gainerako euskalki guztiek osatua zen beste batzuen ustez irtenbide hobea. Euskara giputza bere bakardadean baino sendoago eta aberatsago ikusten zuten gainerako euskalkiekin hornituta. Horrela jokatuta, gainera, giputz ez zirenek lasterrago eta gogotsuago onartuko zuten eredua. Resurreccion Maria Azkue bizkaitarra izan zen aukera horren bultzatzailea, eta *gipuzkera osotua* jarri zion egitasmoari izena.

Beste era batera lortu nahi zuten beste batzuek osotasuna: euskara lapurtarra eta giputza uztartuta. Antzinako literatura tradizio aberatsa eskaintzen zuen lapurtarrak, eta bizitasuna eta kemena, aldiz, euskara giputzak. Arturo Campion eta Pierre Broussain euskaltzainak agertu ziren horren alde.

Bazen batasuna Bizkaiko euskararen oinarritu nahi zuenik ere. Alde batetik, euskalki horixe zela denetan zaharrena, aberatsena eta arauzkoena aipatzen zuten, eta abertzaletasuna Bilbon sortu eta Bizkaian indartu zenez, instituzioek euskararen alde egin zezaiketen lana gogora ekartzen zuten. Hazia zen, gainera, Bizkaiko euskaldunen kopurua, eta haziagoa hango bizilagun guztiena. Besteak beste, Bittor Gaubeka agertu zen aukera horren alde.

Bazen, hala ere, zahartasunaren eta antzinatasunaren bila joanda, Bizkaiko euskara baino oinarri egokiagoa aurkitu uste zuenik. Azken batean, euskalki guztiak euskara bakar batetik etorriak zirenez, euskara bakar hartara itzultzean ikusten zuten konponbiderako gakoa. Jakina, ez zen hori egiteko samurra, inork ere ez zekielako nolakoa zen balizko euskara bakar hura. Baina jende gogotsuarendako aldaparik izaten ez denez, berehala askatu zuten korapiloa: ezagutzen ez zena *asmatzea* zen irtenbidea. Soloeta-Dima eta Ayengiz bizkaitarrak izan ziren langilerik saiatuenak, baina izan zituzten bide-lagunak; Orixe nafarra, besteak beste.

Batzuek, beraz, aldi urrunetan bilatu zuten konponbidea, eta besteek, berriz, alde urrunetan jarri zuten arreta; non eta Ameriketara. Herrialde euskaldun guztietatik joan direnez Ameriketara, herrialde guztietako euskarak nahasi omen dira bertan, eta berez eta modu naturalez sortu omen da guztiek ulertzen eta erabiltzen duten euskara batua. Francisco Grandmontagnek aurkeztu zuen konponbidea *Los inmigrantes prósperos* liburuan (1933), eta harrezkero ere izan dira Ameriketako adibidea gogora ekarri dutenak.

XX. mendearen erdialdean beste aukera bi agertu ziren. *Lapurtera klasikoa* deitu zion Federiko Krutwig bizkaitarrak bereari, eta ez zen, beraz, batere berria. Leizarragaren eredu, Euskal Herrian sekula egon omen den jasoena eta landuena gaurkotzea zen haren asmoa.

Bigarren eredu ere ez zen batere berria: euskalki guztiak nahastean zetzan. Azkueren *gipuzkera osotua* zabaldu eta gainditu nahi zen, eta Ameriketara gertatu omen zen nahasketa Euskal Herrian bertan gauzatu. Jose Basterretxea "Oskillaso" bizkaitarra izan zen bultzatzailea, eta *euskara osotua* deitu zuen bere bidea.

Labur esateko, literaturako lau euskalki zeuden XX. mendearen erdialdean: giputza, bizkaitarra, nafar-lapurterra eta zuberotarra. Horiekin batera, berriz, batasuna lortzeko beste hiru eredu zeuden mahai gainean: gipuzkera osotua, euskara osotua eta lapurtera klasikoa. Mahai azpian, berriz, beste batzuk zeuden erdi baztertuta: lapurtarraren eta giputzaren arteko batasuna, bizkaitarra, "jatorrizko" euskara eta Ameriketako euskara.

Euskara batua

Uste izatekoa denez, anabasa ikaragarria zegoen 1960 aldean, eta anabasari aurre egin behar zioten ikastolak zabaldu nahi zituztenek, euskara erdaldunek erraz eta eroso ikasteko moduan aurkeztu nahi zutenek, literatura egin nahi zutenek, zazpi herrialdeek osatutako Euskal Herri beregaina eraiki nahi zutenek eta, azken batean, euskaraz bizi eta jardun nahi zutenek. Euskaldun guztiendako hizkera bakarra, ahalik eta zehatzen arautua behar zuten horiek guztiok, eta 1964an hasi ziren urratzen bidea.

Benetan zaila izan zen hasiera. Oso errotuta zeuden literaturako lau euskalkiak, eta ez zen samurra haietara ohituta zeudenak goizetik gauera beste bide batera ekartzea. Batasunera iristeko beste aukera batzuk ikusten zituztenek ere ez zuten berehalakoan etsi eta amore eman, eta gipuzkera osotuaren eta lapurtera klasikoaren aldekoek bereziki, gogor eutsi zioten euren bideari. Aurkaririk sutsuenak, dena dela, "euskara bihotzean eta erdara ezpainean" taldekoak gertatu ziren. Euskara batu bakarrak euskalkien eta herri hizkeren xarma eta goxotasuna galduko zituela zioten. Eta "xarma" eta "goxotasuna" ziren haiendako hizkuntzaren balio nagusiak, ez zazpi herrialdeetako euskaldunen arteko komunikazioa, ez eta euskara ardatz izango zuen gizartea.

Gogorrak eta nabarrak ziren, beraz, batasunaren aurkako indarrak, baina gogorra eta geldiezina zen, era berean, batasunaren aldeko oldarra. Bazuten, gainera, batasunaren alde jokatzera bultzatzen eta behartzen zituen ziri zorrotza: euskara eta Euskal Herria hiltzorian jarrita zituen Franco jeneralaren diktadura militarra.

Uste izatekoa denez, eztabaida bizia piztu zen batasunaren aldekoen eta aurkakoen artean eta, eztabaidaren beroan, gauzak bere onetik atera ziren. Batasunaren aurkakoek euskara batuak herri hizkerak galduko zituela zioten, eta batasunaren aldekoek, berriz, batasun ezak euskara bera galduko zuela uste zuten. Zurrumbilo hartan, euskalkizale sutsu bihurtu ziren batzuk, eta euskalkien etsai amorratu, berriz, bestea.

Etorkizuneko bideak

1. Euskara batuaren geroa

Gauzak beste era batera ikusteko eta egiteko aukera daukagu une honetan. Alde batetik, euskararen egoera ez da komeni bezain ona, baina gauzak osotasunean hartuta, ez da 1960-1980 hamarkadetakoa bezain txarra. Heriotzaren ezpata urrunago ikusten da, eta ez du ematen iraganean bezain zorrotza. Dena dela, gauzak ez dira berdin ikusten leku guztietan; Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko egoera ez baita batere lasaia.

Bestalde, euskara batuak egin du, dagoeneko, bere bidea, eta ondorioak neurtzeko moduan gaude. Eta ona da, guztira, euskara batuaren emaitza. Beste inoiz ere esan dut sei onura nagusi ekarri dituela:

1. Euskaraz jardun dezakete zazpi herrialdeetako euskaldunek euren artean. Batak besteari ulertzeko, ez dute nahitaez erdarara jo beharrik dagoeneko.

2. Edozein gairen gainean jardun daiteke euskaraz: medikuntzaz, ingeniariartzaz, legesgintzaz... Euskara bera behintzat, gauza da horretarako.

3. Euskara ikasi eta euskaldun egin daiteke edozein erdaldun, eta erdaldun asko egin da, dagoeneko, erabateko euskaldun.

4. Euskara ikasi duten horiei esker, hain zuzen, euskara Euskal Herri osora eta mundu zabal guztira hedatu da.

5. Euskara batuak batu egin ditu euskaldunak, eta Herri bateko eta bereko kide egin ditu.

6. "Hizkuntza" izaera lortu du euskarak; ez da dagoeneko "dialekto sorta" bat.

Euskara batua bera ikaragarri hobetu da 1964tik hona: gertukoago egin da, goxoago bilakatu da, naturalago bihurtu da. Dena dela, bada oraindik zer hobetua, eta lan galanta egin beharko da aurrerantzean ere arlo horretan.

Euskara batuaren sorreran bertan dago gaitzaren arrazoia. Euskara batuaren aitzindari nagusietakoa zen Txillardegi, eta euskara batuaren araugile nagusietakoa zen Mitxelena bazuten batasunerako oinarri argia: Gipuzkoa aldeko euskara. Hantxe zegoen euskararen indarra, euskaldun guztiek ulertzeko egokia zen hango euskara, eta bazuen prestigioa gizartean.

Oso bestelakoa zen Bilbo aldeko zenbaiten egitasmoa. Alde batetik, lapurtera klasikoaren lilura oso barneratuta zeukaten. Eduki dezagun gogoan, Bilbo izan zela eredu horren sorlekua eta gotorlekua. Bilbon biltzen zen Federiko Krutwig, ereduaren bultzatzaile nagusia, Lino Akesolorekin, Mikel Arruzarekin, Imanol Berriatua, *Anaitasuna* aldizkariko hizkuntza zuzentzailea izan zenarekin, Bernardo Garro "Otxolua" idazlearekin, eta Eusebio Erkiaga, Juan Gorostiaga eta Luis Villasante euskaltzainekin. Gabriel Arestik ere ezagutu zuen elkarte hura eta, haren bitartez, gazteagoengana hedatu zen. Tartean Xabier Kintana zegoen.

Dena dela, euskara lapurtarra erabiltzetik baino, beste alderdi batetik etorri zen kalte larriagoa. 1960-70 hamarkadaz gero, euskara gizarte hiritar, moderno eta industrialarendako kultura tresna bilakatzea zen euskaltzale askoren grina. Orduko euskaldunek erabiltzen zuten euskara oinarri hartuta egin zitekeen bidea, baina Bilbo aldeko euskaltzaleei euskara hura nahikoa duin iruditzen ez, nonbait, eta Lapurdiko harrobi zaharretik, batzuetan, eta euren kolkotik elikatuta, gehienetan, antolatu zuten iraultza.

Sekula erabili gabeko eta oso itxura exotikoko hitzak plazaratu ziren, esate baterako, Xabier Kintanaren zuzendaritzapean argitaratutako *Euskal hiztegi modernoan* (1977). Ni neu ere hiztegia egiten jardun zuen taldekoa izan nintzen, eta hainbat atzizki eta aurrizki garatu eta indartu genituen bertan:

-*aia*: *aldamiaia* 'andamiaje', *bandidaia* 'bandidaje', *brikolaia* 'bricolage', *engranaia* 'engranaje', *lumaia* 'plumaje', *voltaia* 'voltaje'...

bir-: *birbaiezpen* 'reafirmación', *birbalidapen* 'reválida', *birgogorapen* 'recuerdo', *birkreapen* 'recreación', *birlandaketa* 'transplante', *birlortu* 'recuperación', *birpasa* 'repaso', *birplan-teiu* 'replanteamiento', *birsaltzapen* 'reventa'...

des-: *desastundu* 'desgravar', *desbabes* 'desamparo', *desezur* 'incierto', *deserdiratu* 'descentralizar', *desesan* 'desdecir', *deseskeki* 'descolgar', *desezur* 'deshuesar', *dezehatz* 'inexacto'...

-eiu: *blokeiu* 'bloqueo', *brontzeiu* 'bronceo', *dantzeiu* 'bailoteo', *flirteiu* 'flirteo', *frankeiu* 'franqueo', *letreiu* 'deletreo', *planteiu* 'planteo', *saboteiu* 'sabotaje', *tekleiu* 'tecleo'...

ez-: *ezbaikor* 'indeciso', *ezakort* 'disidente', *ezaskitasun* 'insuficiencia', *ezbete* 'incumplido', *ezelastiko* 'inelástico', *ezgizakor* 'inhumano'...

-(g)ailu: *aparailu* 'aparato', *berretgailu* 'refuerzo', *edergailuztatu* 'adornar'...

-garri: *bideragarri* 'viable', *edangarri* 'potable', *egingarri* 'factible', *emangarri* 'transmisible', *entzungarri* 'audible', *eskagarri* 'exigible', *jangarri* 'comestible'...

-go: *administralgo* 'administración', *entzulego* 'audiencia', *funtzionalgo* 'funcionariado', *ikaslego* 'alumnado', *merkatalgo* 'comercio', *ministralgo* 'ministerio', *proletalgo* 'proletariado', *unibertsitalgo* 'conjunto de estudiantes universitarios'...

-keta: *adaptaketa* 'adaptación concreta', *botaketa* 'votación', *harrijasoketa* 'levantamiento de piedra', eta txapela eranstekoa den *bankuporrotketa* 'bancarrota'.

-pen: *aluzinapen* 'alucinación', *berraspen* 'reanudación', *berrerorpen* 'recaída', *berreskapen* 'reivindicación', *bihurpen* 'devolución', *burutzapen* 'realización', *desberdintzapen* 'diferenciación', *disposapen* 'disposición', *eguzkitzapen* 'insolación', *erregelamendapen* 'reglamentación', *harritzapen* 'asombro', *inportapen* 'importación', *jeneralpen* 'generalización', *konposapen* 'composición', *modernapen* 'modernización', *moltsapen* 'aglomeración'...

Berrikuntza horiek guztiok, uste izatekoa denez, sekulako kaltea ekarri dute; Bizkai aldera, batez ere. Gehienbat herrialde hori astindu zuen XX. mende hasierako garbizale-tasunaren izurria sendatzen hasi zeneko, beste garbizaletasun mota hau hedatu zen mendearen amaieran, Ibon Sarasolak ere oraindik orain gogora ekarri duenez (in Pagola 2005: ix-xi).

Alde batetik, euskararen betiko bidea alde batera utzi eta sekula izan ez den hizkera zabaldu da. Hitzunek, berriz, euskara batua zaila dela, eurek egiten dutenetik oso urruna

eta, okerrena dena, euren hori txarra dela sinetsi dute. Jakina, Bilbo aldean hedatu zen hizkera berri hura zen ustela, eta ez dirudi, gainera, harrezkero ere gauzak erabat zuzendu eta bere onera etorri direnik. Oraindik orain, 2002. urtean Jesus Rubio barakaldarrak plazaratu duen *Euskararen garabideak* saio harrigarria da horren adibidea.

Etorkizunari begira jarrita, beraz, garbi dago zein den gaitzaren sendabidea: *euskara bizian* hartzea oinarria. Eta, jakina, herri euskaldunetan egiten diren hizkerak dira “euskara bizia”. Horiek doitzea, lantzea eta aberastea da egin beharreko lana. Ez da zentzuzkoa herri hizkerari ezikusiarrena egin eta gauza berriak eta exotikoak asmatzeari ekitea. Zalantzarik gabe, asmatu egin behar da, gauza berriak sortu behar dira eta hizkuntza etengabe elikatu behar da, baina asmakuntzak eta aldakuntzak dagoena ezagututa eta aintzakotzat hartuta egin ohi dira. Eta zerbait badagoenean, dagoena egokia denean, eta dagoen hori hitzun denek edo gehienek erabiltzen dutenean, ez da zentzuzkoa hura baztertu eta haren ordezkoko berriak sortzen hastea. Beste era batera esateko, hizkuntzan ez dagoena da sortu edo aldameneko hizkuntzetatik hartu behar dena.

Jakina, herri hizkerak bata bestearengandik urrun eta aldentuta daudenez, aukerak egin behar izaten dira sarritan, eta horrelakoetan ere garbi dago zein den konponbidea: *eremurik zabalenean eta hitzunik gehienen jardunean* erabiltzen denak dauka lehentasuna. Kontu handia eduki behar dugu, beraz, bateko eta besteko txokokeria eta bitxikeriekin. Lehentasuna ez dauka sekula gure ustez eder, jator, zuzen eta zahar denak, euskaldunik gehienek ezagutzen eta erabiltzen duenak baizik.

Aspaldi esan zuen hori Deba ibarreko bizilagun batek, eta ekarri egingo ditut hona, gaurko euskarara zertxobait egokituta, Sebero Altube arrasatearraren hitzak (1920-1921: 46-47), gaurkotasun osokoak dira eta:

Idatz-izkeriak, erriaren era askotako baiña esangura bardiñeko itz eta gramatikakietatik, *bizitzarik sakon, sendo ta zabalena dabeenak aukeratu bear ditu (...)*; auxa da, beti, geure gogoaren barru-barruan sartuta euki bear dogun jarraipidea. Idatz-euskerarik egokiena ezta, beraz, aintxiña, erriaz urrin bizitzeak il zittuan izkera andizurenezkoen edertasun eta aberastasun antzekoz jantzitakoa; ezta, noski, gure usteak ederrenentzat, garbientzat, txukunenentzat etsi leikeana; ezta zeatzen edo zentzunenezkoen eretxi leikeoguna ere; euskaldunik geienen belarrietan zear bigunen eta aittukorren sartu leittekena baiño (...). Itz batez, tokirik geiene-

tako euskaldun jator geienen artean zabalen, sakonen eta sendoen sustraittuta bizi diran izkerakiak zeintzuk diran azaldu, ikusi ta argittu, eta eurok izan daittezela idatz-izkeriaren gorputza osotu dagienak.

2. Herri hizkeren geroa

Herri euskaldunetan bizirik dauden hizkerak babestearen aldekoa naiz zeharo eta erabat. Denok dakigu jakin, herri hizkerak nondik datozen: hiltunen arteko hartu-emanik eza, edo batzuk besteengandik bereizi eta nabarmendu nahia izan ohi dira dialektoen jatorria. Euskal Herrian bada hori guztiori areagotu duen gertakaria: herri zatitua izatea. Estatu handi biren artean banatuta dago joan den aspaldi luzean, eta beste banaketa batzuk ere egin dira estatu horietako bakoitzean: Zuberoa bereizi da Ipar Euskal Herrian, eta Nafarroa, Hegoaldean. Eta, jakina, herri zatituaren emaitza da hizkuntza zatitua.

Beste arrazoi batek ere piztu eta indartu ditu dialektoak Euskal Herrian: euskara hizkuntza ofiziala ez izateak; irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan eta gainerako esparru publiko gehienetan ia guztiz baztertuta egoteak. Euskara, gehienbat, herri eta eskualde barruko ahozko jardunetan erabili da, eta horrexegatik dago hain apurtuta eta deseginda. Horrexegatik dago hainbeste euskalki, hainbeste azpieuskalki eta hainbeste hizkera, eta horrexegatik dira hain nabarrak.

Jatorri beltzekoak dira, beraz, euskalkiak, baina hortxe daude, eta aspaldi luzetik sustraituta daude, gainera, gure artean. Herri euskaldunetan jaio eta bizi denak bihotzean daramatza eta ezpainean darabiltza, eta ezin da, besterik gabe, txarrak eta kaltegarriak direla esan, eta euskaldun horien jardunetik errotik erauzi. Eta azkenaldian, horrela jokatuta da sarritan, euskara batua lehenbailehen aurrera atera beharra zegoen aitzakiapean.

Eskola izan da tresnarik esanguratsuenetakoa zeregin horretan. Mende luzeetan barrena, zorioneko "eratzuna" erabilita, erraieran geneukan euskara erauzten ahalegindu zen bezala, erraien azken txokoan geneukan euskalkia erauzten ahalegindu da azkenaldi honetan. Beste nonbait aipatu nuen adibidea ekarri nahi dut berriro gogora, Deba ibarrean bertan gertatutakoa.

Alberto Telleria elgetarrak kontatu zidanez, iloba txikia zaintzea egokitu zitzaion larunbat batean. Herriko eskolara joaten hasiberri zegoen iloba txikia, eta eskolako kontuak hartu zituzten solaserako gai. Hauxe izan omen zen gutxi gorabeherako jarduna:

—*la, zer ikasi dozu, ba, eskolan? Asteko egunen izenak ikasi dittuzu? la, hasi, ba, esaten: astelehena...*

Eta ilobak:

—*Astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, zapatua eta domekia.*

Eta hauxe osabak niri esan zidana:

—*Eskerrak zapatueta eta domeketan ez dagoela eskolarik, bestela agur gure euskaria!*

Barregura eragin zidan adiskidearen gogoetak, baina gauzak hotzean hartuta, negar eragitekoak dira, hainbeste ahaleginen ondorioz, euskara aurrera ateratzeko sortu dugun eskolak hain arreta eta begirune apurrez jokatzeari ez delako txantxetako.

Eta gaizki ulerturik egon ez dadin, eta gaizki ulertuak egoten direlako, argiago azalduko dut esan nahi dudana.

Ez diot nik eskolan herri bakoitzeko hizkera irakatsi behar denik. Alderantziz, eskolan hizkuntza estandarra, euskara batua, irakatsi behar da, baina zenbait irizpide linguistiko eta metodologiko eduki behar dira gogoan.

Alde batetik, euskara batuak ezin du hain itxia eta estua izan. Malguagoa eta zabala goa izan behar du, eta egoera jakin bakoitzerako ganoraz egokitu. Unibertsitatean erabiltzen den euskara batuak eta Elgeta bezalako herri euskaldun bateko eskolan lau urteko umeekin erabiltzen denak ez dute zertan berberak izan behar. Ezta Elgetako eskolan eta Sohüta herri zuberotarreko ikastolan erabiltzen direnak ere. Geroago erakutsiko denez, *tokiko batuak* bereiz daitezke euskara batu orokorraren barruan.

Bestetik, berriz, euskara batua ez dago erabat eta bat-batean zertan irakatsi. Ez naiz gaian aditua eta ez dakit nola izan behar den bilakaera, baina garbi dago behinik behin, herri euskaldunetan kontuan hartu behar dela bertako betiko hizkera, kontuan hartu umeak etxetik eta herritik eskolara dakarrena. Horrela ez jokatzeari haurraren hizkuntza sena eten dezake, eta herriko eta familia barruko hizkuntza transmisioa ere bai.

Ez dut horrenbestez esan nahi, herri euskaldunetan dauden irakasleek bertako hizkera jakin behar dutela nahitaez. Ezta hurrik eman ere! Askotan, gainera, ezinezkoa izaten da hori, ordezkioak-eta egiten tarte laburregiak egoten direlako herri bakoitzean. Baina lanean diharduten herriko hizkera jakin ez arren, begirunea eduki behar zaio behinik behin, eta buru argikoa izatea ere komeni da, zuzen dagoena alferrik zuzentzen ez ibiltzeko. Elgetan, esate baterako, zuzenak dira *martitzena*, *eguaztana*, *eguen* eta *barikua*, eta ez dago horiek baztertuta, *asteartea*, *asteazkena*, *osteguna* eta *ostirala* lau urteko umearen buruan zertan sartu.

Euskara batua zabaltzeko modua eta mezua ere goitik behera aldatu behar lirateke. Herri hizkeren *ordezko* modura aurkeztu ohi da orain arte euskara batua, herri hizkerak baino zuzenagoa, aberatsagoa eta egokiagoa balitz bezala. Hori ez da inondik inora egia. Mundu zabaleko hizkuntzalari guztiek diote aho batez ez dagoela berez eta izatez besteak baino txarragoa edo besteak baino hobea den hizkerarik.

Euskaldunok bata besteari erraz eta eroso ulertzeko egin zen euskara batua, ez euskalkiak txarrak eta ezgauza zirelako. Erdialdeko euskalkian oinarritu zen euskara batua, baina ez zen hori euskalkirik onena, zuzenena eta aberatsena zelako aukeratu, oso bestelako arrazoiengatik baizik: hitzun askok erabiltzen duelako, Gipuzkoan herri haziak eta azpiegitura sendoa daudelako, eta Gipuzkoa Euskal Herriaren erdigunean dagoenez, hango euskalkia euskaldun guztioi ulertzeko erraz samarra gertatzen zai-gulako. Ezaugarri soziolinguistikoak dira, beraz, erdialdeko euskalkia aukeratzeko arrazoiak; ez euskalki horren bikaintasuna eta gainerakoen ezdeustasuna.

Azken batean, atzerriko hizkuntzak ikasteko modua erabili behar genuke euskara batua zabaltzeko orduan. Ingelesa ikasten dugunean, esate baterako, ez zaigu esaten euskara txarra eta ezdeusa delako ikasi behar dugula, ingelesa jakiteak beste herri batzuekin errazago hartu-emanetan sartzeko, beste herri batzuetan erosoago ibiltzeko, liburuak irakurtzeko eta era guztietako albisteak zuzenago eta lasterrago jasotzeko balio digulako baizik.

Euskara batuak, era berean, beste alderdi batzuetako euskaldunekin hartu-eman erosoagoa izateko, Euskal Herri osoan barrena lasaiago ibiltzeko, liburu eta hedabideetara errazago iristeko balio duela erakutsi behar genuke, eta ez herri hizkeren ordezkio edo herri hizkeren lehiakide izateko. Modu horretan jokaturik, hitzunek lasterrago eta gogo-

tsuago onartuko dute euskara batua, eta lotsa eta konplexurik gabe jarraituko dute erabiltzen euren betiko hizkera.

Behin hori esanda, beste korapilo bat daukagu askatzeko: herri hizkerak non eta noiz erabili behar ote diren zehaztea. Ez naiz ni hori erabakitzeko nor, baina esparru batzuk behintzat, berezkoak ditu: *herri eta eskualde barruko ahozko jarduna* eta baita, behar bada, idatzizko zeregin zenbait ere; bertako bizilagunenak ohar, mezu eta iragarkiak, gehienbat. *Lagunarteko jarduneko* tresna ere badira herri hizkerak.

3. Literaturako euskalkien geroa

Dagoeneko esan denez eta denok ondotxo dakigunez, lau euskalki erabili dira literaturan, hedabideetan, elizan eta beste zenbait jardun jasotan: nafar-lapurtarra, zuberotarra, bizkaitarra eta giputza. Beste hiru ere izan dira iragan garaietan: Leizarragarekin jaio eta, ziurrenera, berarekin batera joan zen lapurtarra, XVII. mendean Lapurdiko itsasbazterreko hizkeran oinarritu zena, eta Mogeldarrek, Astarloatarrek eta beste zenbaitek Markinako hizkeraren gainean eraiki zutena.

Ukaezina da literaturako eredu horiek ekarri duten onura: euskara bizirik iraunarazten lagundu dute, eta euskara erabat desegin ez zedin ere balio izan dute. Baina, dena dela, iraganeko Euskal Herriaren emaitza dira, Euskal Herri zatituaren isla. Gaur egun ere, jakina, zatituta dago Euskal Herria, baina batuta ikusten dugu geure buru-bihotzetan, eta batuta geure etorkizuneko egitasmoetan. Euskara batuak ekarri du, hain zuzen, ikuspegi hori izatea eta egoera hori gauzatzea.

Beste alde batetik, berriz, nahasbide gerta daiteke une honetan euskara batuaz gainera literaturako euskalkiei eustea. Gaur egungo euskaldunen eguneroko beharризanei erantzuteko, herri hizkerak eta euskara batua izan daitezke nahikoa.

Dena dela, XVIII-XIX. mendeetatik datoz literaturako euskalkiak eta ez dirudi zentzuzkoa egun batetik bestera baztertzea eta desegitea. Euskara batua egin berri dagoenez, izan dezakete oraindik ere lekua. Gainera, badira oso bereziak diren eremu bi: Zuberoa eta Bizkaia. Euskara batutik nabarmen aldentzen dira alderdi horietako hizkerak, eta literaturako euskalkiak lagungarri gerta daitezke oraindik ere epe bate-

an. Batez ere Zuberoan. Oso homogeneoa da herrialde horretako euskara, eta literaturako euskalkia eguneroko ahozko jardunean darabiltenaren erregistro jaso da, azken batean.

4. Tokiko batuak

Tokiko batuak dira, nire iritzian, literaturako euskalkien lekua etorkizunean har dezaketanak. Egin dezagun kontu euskara batua sortu zenean, oso helburu jakin eta zehatzarekin plazaratu zela: ikastoletan eta gau eskoletan irakasteko, ikasliburuak eta literatura lanak idazteko eta, azken batean, zazpi herrialdeen arteko hartu-eman euskaraz egin ahal izateko.

Gaur egun, oster, euskara batua oso sartuta dago gu guztion eguneroko bizimodu, eta ezinbestekoa gertatzen da ia edozein unetan eta gunetan: mezuak eta iragarriak jasotzeko, hedabideak entzuteko eta irakurtzeko... eta geu bizi garen herritik irten gabe da, gainera, behar-beharrezkoa.

Une honetan, beraz, beste era batera ikusi beharra dago euskara batua. Ez da bakarrik bizkaitarra Zuberoara doanerako, edo nobela bat edo Euskal Herri osoko aldizkari bat irakurri behar denerako, edo Euskal Herri osoko irrati edo telebista bat entzun behar dugunerako... Geure herrian bertan da gero eta beharrezkoago, gero eta gauza gehiago egiten direlako euskara batuan. Eta hori ona da, oso ona, euskara normalizatze bidean den erakusle, eta orain arte erdarenak izan diren zenbait esparru bereganatzen ari den salatzaile. Baina, aldi berean, euskara batua egokitu beharra dakar. Zehatzago esanda, herri euskaldunetan euskara batu orokorraren barruan zeregin jakin batzuetarako egokiak diren hizkerak sortu beharra: *tokiko batuak*.

Oñatiko Udaletxeak ateratzen duen oharra, esate baterako, ez dago Donibane Lohizunekoak ateratzen duen oharreko euskara batu berebean zertan idatzi. Oñatiko herri aldizkaria, era berean, ez dago Euskal Herri osoko egunkariaren euskara batu berebean zertan egon. Oñatiko eskola eta ikastetxeetan ere ez dago Unibertsitateko euskara batu berebean zertan jardun. Esparru horietan euskara batua erabiltzen bada —eta jokabide zuzena da hala egitea—, Oñatiko egoerara egokitzea komeni da.

Tokiko batuak dira, era berean, herri hizkerek euskara osatzeko eta aberasteko esparru egokia. Joan den aspaldi luzean egon gara Euskaltzaindiak egingo zuenari begira. Euskaltzaindiak joan den aspaldi luzean esan digu euskalkietatik elikatu behar duela euskara batuak, baina sekula ere ez du zehaztu zein ote den iraganbidea, eta zer den iragan beharrekoa eta zer alde batera uztekoa. Eta bada gauza horiek zehazten hasteko garaia.

Egiari zor, dialektologian jardun dugunok ere bagenuen geure erantzukizuna. Ezagutzen genituen gertakarien zertzeladak aurkeztu behar genituen jendaurrean: gauza bakoitza zein eremutan eta zenbatsu hitzunek erabiltzen zuten argitu. Eta hori egin beharrean, bitxikeriak biltzen, txokokeriekin txoratzen, eta aztergai genuen hizkera euskalki honi edo hari ote zegokion hausnartzen eman dugu denbora.

5. Lagunarteko batua

Euskara batu orokorraren barruan, lekuen arabera hizkerak bereiztearen egokitasuna aipatu da, baina jardun motaren arabera hizkerak zehaztea ere komeni da. Esan dugunez, jardun jasoetarako egin zen euskara batua: irakaskuntzan erabiltzeko, literaturarako, hedabideetarako..., baina hizkuntza ez da horretan amaitzen eta horretara mugatzen. Gehiago esango dut: horiek ez dira hizkuntzaren esparrurik oinarritzkoenak. Eguneroko jarduna, etxe barrukoa, lagunartekoa, herritarren artekoa... dira horiek baino aurreragokoak, eta geroz eta gehiago dira esparru horietan ere euskara batua erabiltzen dutenak. Kontuan eduki behar dugu asko direla gaur egun guraso euskaldun berrien etxeetan jaio diren seme-alabak, eta asko direla eremu erdaldunetan jaio eta bizi direnak, eta euskara batua besterik ez dakitenak. Lagun horiek guztiek euren eguneroko bizimodurako hizkera egokia behar dute.

Gaur egungo euskara batua, oster, ez dago horretarako pentsatuta, jardun jasoetarako baizik: kongresuetarako, hitzaldietarako, irrati-telebistetan erabiltzeko, eta tankera horretako zereginetarako. Eta, jakina, hizkera hori pedante samarra gertatzen da lagunarteko jardun arruntetarako.

Ez dago lagunarteko hizkera arautzerik, baina ezagunak eta nazioartekoak dira haren ezaugarriak: a) hitzak laburtzen dira, b) hitzak bata bestearekin batzen dira, c) arau fonologiko zenbait aldatzen dira, eta d) lexikoa eta esapideak bereizten dira.

Euskarari dagokionez, adibidez, oso ohikoa da bokal arteko *b, d, g* eta *r* kontsonanteak galtzea: *gabiltza* → *gailtza*, *eduki* → *euki*, *egin* → *ein*, *eraman* → *eaman*. Baita bokalak asimilatzea ere: *zuen* → *zun*, *zegoen* → *zeon*... Ohikoa da, era berean, *han zegoen* → *hantzeon*, *omen zuen* → *omentzun* gisara hitzak batzea. Aldatzen diren arau fonologikoen artean, berriz, /e + a, e, o / → *i* eta /o + a, e, o/ → *u* dira, ziurrenera, orokorrenak eta ohikoenak: *etxea* → *etxia*, *beroa* → *berua*. Hitz hasierako **j*- ere ahoskera askokoa da lekuen arabera, eta hots bustiak erabiltzeko orduan ere aldeak daude eskualde batzuetatik besteetara. Jakina, lexikoaren eta esapideen sailean izaten dira gorabehera gehienak: *gizonezkoa* vs *morroia*, *utz nazazu*, *mesedez*, *bakean!* vs *joan hadi pikutara!* dira jardun jasoa eta lagunartekoa bereizten duten adibideak.

DEBA IBARRETIK EUSKARA BATURA

Deba ibarreko euskaran oinarrituta, herri hizkerek euskarari ekar diezaioketen onuraz jardungo dugu atal honetan. Tokiko batuak eraikitzeko erabil daitezkeela esan da, herri edo eskualde barruko zereginetan baliatzeko: herri euskaldunetako irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan, herritarrendako mezu, ohar eta iragarkietan, hitzaldietan...

Lehen aldiz egiten da gure artean honelako proposamena, eta izango da, beraz, zer zuzendua eta zer hobetua. Baina ibiltzen haste hutsa bada urratsa, eta baita —eta bereziki— ibiltzen hasteko irizpideak jartzea ere. Benetako adibidea erabiliko da, gainera: Deba ibarrean egiten diren hizkerak. Eta alderdi horretako adibidea kontuan hartuta, beste alderdi batzuetakoek ere izan dezakete eredua edo, behintzat, zeri heldua.

Deba ibarreko batuak nola osa daitezkeen erakustearekin batera, euskara batuaren gaineko argibideak ere ekarriko dira gogora, oso iritzi okerrak daudelako gai horren inguruan gure artean. Behin baino gehiagotan entzun dugu, esate baterako, mendebaleko *jausi* euskara batuan *erori* dela, eta hori ez da inondik inora zuzena: *jausi* eta *erori* biak dira batua. Sailez sail erakutsiko da euskara batua zertan datzan.

Herri hizkerei dagokienez ere, edozein ezaugarrik ez duela balio ekarri nahi dut gogora: *hiztun kopuru haziak bizi-bizi eta sarri-sarri* erabiltzen dituenak dira aintzakotzat hartu ohi direnak. Helburua ez da, beraz, txokokeriak puztea eta zaharkitutakoa piztea.

Ortografia

Zorrotz eta zehatz araututa dago ortografia, eta arauak, gainera, euskara baturako ez ezik, euskalki eta herri hizkeretarako ere guztiz berberak dira. Zuzena eta zentzuzkoa da erabakia, ortografiak hizkuntza bere osotasunean hartzen duelako, eta dialektoak, herri hizkerak, gazte hizkera, haur hizkera, argotak eta gainerakoak ere hizkuntzaren zati direlako.

Dena dela, bada zalantza bat: ez ote den Zuberoako *ü* bere horretan utzi behar. Behinik behin, bitxi (eta desegoki?) gertatzen da alderdi horretako *ü* —> *u* aldatzea. Zuberoan, era berean, fonema dira *ph*, *th* eta *kh* eta, beharbada, bere horretan utzi behar lirateke euskalki horretan dihardugunean.

Esan dezadan, horren harira, arauak aukera bat baino gehiago daudenean, horietako bakarra hautatzeko izan ohi direla: *ch* / *tch* —> *tx*, *b* / *v* —> *b*, *y* / *i* —> *i*, adibidez. Beraz, *Echeverria* / *Etcheverry* —> *Etxeberri(a)*. Era berean, alderdi bateko ahoskeran galdu edo aldatu den hotsa, idazterakoan, behintzat, gordetzeko eta, modu horretan, hizkuntzaren batasunari eusteko izaten da araua. Esate baterako, *ll* —> *y* ahoskatzeko joera dago Euskal Herri osoan, baina *langile* idazten da, ez **langiye*. Bidezkoa da, beraz, hasperena galdu den lekuetan ere idatzian gordetzea (*aho* vs *ago* / *abo* / *aba* / *ao*), eta *z* / *s* eta *tz* / *ts* ere zuzen bereiztea.

Zuberoako adibidea bestelakoa da. Hangoa ez da aukera kontua eta ezta besteetan dagoen hotsa ez izatea edo aldatu izatea ere. Besteetan ez dagoena izatea da arazoa, eta besteetan ez izan eta Zuberoan denari lekua egitea litzateke zuzenbidea.

Fonologia

Oso berandu, 1998an, aurkeztu ziren ahoskera batuko arauak. Berandu etortzeaz gainera, ez ziren behar ziren guztiak iritsi; besteak beste, azentua falta zen. Eta bazen, eta bada, azentuaz zer edo zer esateko garaia. Hutsuneak hutsune, etorri zirenak egoki azaldu ziren. Euskaltzaindiaren ohiko jokabidean eten garbia eginda, ez ziren batzuk aukeratu eta gainerakoak arbuiatu eta baztertu; aukeratutakoak *euskara batuko ahoskera zaindurako* zirela argitu zen, gainerakoak gutxietsi eta gaitzetsi gabe. Eta hortxe daude, hain zuzen ere, lagunarteko batua, tokiko batuak, gazte hizkera eta abarrak alboan utzitako horiei lekua egiteko gertu.

Euskara batuko ahoskera zaindurako, /e + a, e, o/, /o + a, e, o/, /i + a, e, o/ eta /u + a, e, o/ batzerakoan aldakuntzarik ez egitea erabaki da: *etxea*, *beroa*, *iturria* eta *burua* esatea. Bigarrenik, hitz hasieran [j] ahoskatzea erabaki da: *yan*, *yakin*, *yoan*, *yosi*. Hirugarrenik, txistukariak zuzen bereiztea erabaki da: *z* / *s* eta *tz* / *ts*. Laugarrenik, /g/ ahoskatzea erabaki da *geologia* bezalako hitzetan¹. Bosgarrenik, ez partikula *z-* duten adizkiekin batzean, *tz* ahoskatzea onartu da: *etzara* 'ez zara'. Beste erabaki batzuk ere hartu dira, baina Deba ibarretik begiratuta, horiexek dira nabarmentzekoak.

¹ Egiari zor, erabaki horren arrazoia ez da ulertzen erraza. Ez Iparraldean ez Hegoaldean ez da inon egiten ahoskera hori. Ez da, beraz, ikusten inork erabiltzen ez duena nor batzeko ekarri den.

Esan dezadan lehenengo eta behin, /g/ ahoskatzearena alde batera utzita, gainera-koak arau egokiak direla euskara batuko ahoskera zaindurako, baina malguago joka daiteke tokiko batuetan.

Bokalak batzean, *e* → *i* eta *o* → *u* Euskal Herri osoko leku askotan gertatzen dira (*etxea* → *etxia*, *beroa* → *berua*), eta tokiko batuetan ere izan dezakete lekua. Ere mu txikiagoetan gertatzen da *i* eta *u* ondorengo epentesia (*iturria* → *iturriya* / *iturrixa*, *burua* → *buruya*) eta *u* → *i* bilakaera (*burua* → *buria*), baina horiek ere eduki dezakete tokiko batuetan lekua. Deba ibarrari dagokionez, beraz, *etxia*, *berua*, *iturrixa* dira aintzakotzat har daitezkeen aukerak.

Euskara batu zaindurako [j] ahoskera egokia bada ere, tokiko batuetan bertako ahoskerek izan dezakete lehentasuna; [x], beraz, Deba ibarrean: *jaun* vs *yaun*. Ahoskera hori berori erabil daiteke *geologia* bezalako hitzetan, orain arte bezalaxe.

Aspaldi galdu ziren *z* eta *ts* mendebalean, eta zail egiten da ahoskera horiek berriro sartzea hango jardunean. Araua idatzian gordetzea, baina ahoskeran aukeran uztea izan liteke mendebalerako irtenbidea.

Mendebaleko euskararen ezaugarria da iraganaldiko adizkietan *ø*-izatea, eta ez *z*-orokorra, eta hori dela eta, *ezeukan* (vs *etzeukan*), *ezekarren* (vs *etzekarren* / *etzekarten*), *ezebizen* (vs *etzebiltzan*)... esatea da hango legea. Eredu horretara egokitu dira gainerako adizkiak sarritan: *ezara* (vs *etzara*), *ezatoz* (vs *etzaioz*)... Beraz, Euskal Herriko gainerako alderdietan baino malguago joka liteke mendebalean, eta bertako aspaldiko ohiturei amore eman.

Euskaltzaindiak ez duela azentuaren gaineko araurik eman esan da, eta beste horrenbeste gertatzen da *i* bokalak eragiten duen bustidurarekin. Tokiko batuetan ez dago zalantzarik: bidezkoa da leku bakoitzean bertako azentu ereduari eustea², eta bidezkoa, era berean, nork bere joerei jarraitzea hotsak bustitzean. Deba ibarrean, esan denez,

² Azentuari "euste" hutsa baino zertxobait gehiago egin beharko genuke. Eskoletan eta euskaltegietan aipatu ere ez da egiten azentua, euskarak azenturik ez balu bezala jokatzeko da. Eta, jakina, erdaretan dagoenak betetzen du sortzen dugun hutsunea

indartsua da bustidura, eta $n \rightarrow \tilde{n}$, $l \rightarrow ll$, $t \rightarrow tt$, $ild \rightarrow illdd$, $ilt \rightarrow illtt$, $ind \rightarrow i\tilde{n}dd$, $int \rightarrow i\tilde{n}tt$ gertatu ohi dira.

Zalantza bakarra dago honetan: $tt \rightarrow tx$ bilakaerarekin zer egin. Indartsua eta aspal-dikoa da joera ($aitta \rightarrow aitxa$, $ohittura \rightarrow ohitxura$), baina hizkera jasoan behintzat, tt gordetzearen aldekoa izan liteke aukera.

Hizkera jasoan, era berean, d bere horretan gordetzea da egokia, Deba ibarreko jardun arruntan hain ohikoa den $d \rightarrow r$ egin gabe: *edari* vs *erari*, *bidia* vs *biria*.

Laburbilduaz, hauexek dira Deba ibarreko batuetan ontzat eman litezkeen ahoskera arauak:

a. Leku bakoitzeko azentu ereduak gordetzea.

b. $/e + a, e, o/ \rightarrow i$ (*etxia*), $/o + a, e, o/ \rightarrow u$ (*berua*) eta $/i + a, e, o/$ arteko $-x-$ (*iturrixa*) onartzea.

c. $[x]$ ahoskera onartzea: *jaun* vs *yaun*, $[x]eolo[x]ia$ vs $[g]eolo[g]ia$.

d. i ondorengo hots bustiak onartzea: *burukomiña* (vs *burukomina*), *oillasko* (vs *oilasko*), *zaittut* (vs *zaitut*), *ahalegiñddu* (vs *ahalegindu*)...

e. $z \rightarrow s$ eta $ts \rightarrow tz$ bilakaerak aintzakotzat hartzea.

f. $ez + z-$ batzean, z ahoskera ere aintzakotzat hartzea: *ezetorren* / *etzetorren*.

Izenaren morfologia

Sail honetan oso malgu jokatu du Euskaltzaindiak; aukera zabala utzi du hiztunaren eskura, eta ez du muga eta debeku askorik ezarri. Deklinabidean, esate baterako, aukera asko onartu dira euskara batu orokorrean.

Destinatiboan, adibidez, *-entzat (lagunarentzat)* nahiz *-endako (lagunarendako)* onartu dira, eta zuzena da irizpidea, oso eremu zabalean erabiltzen delako bietako bakoitza. Biak erabiltzen dira Deba ibarrean, hizkeren arabera, eta tokiko batuetan ez ezik, euskara batu orokorrean ere biek dute lekua.

Mendebaleko euskaran badira euskara batu orokorrean lekua izan dezaketen beste zenbait ezaugarri. Badira han izenordain sail berezi bi: *edonor, edonoiz, edonon, edonora, edonondik, edozertan, edozergatik, edozertarako* motakoak daude alde batetik, eta *nor edo nor, non edo non, noiz edo noiz, nonora, nonondik, zer edo zer, zezertan, zezergatik, zezertarako* tankerakoak, bestetik. Deba ibarrean ez dira horiek guztiok erabiltzen, baina ematen du edozein euskaldunendako izan daitezkeela lagungarri, baina, hori bai, idazteko modua erabaki behar da: *nonor edo nor edo nor, nonora edo nora edo nora*.

Izenordain indargarrien multzoan hiru motatakoak daude euskalkien arabera: *neronek* gisakoak erabiltzen dira erdialdean eta euskara nafarrean, *nihaurk* tankerakoak Ipar Euskal Herrian, eta *neuk* sortakoak mendebalean. Euskara batuan denak utzi dira aukeran, eta mendebaleko berezi horiek ere badute, beraz, eskubidea.

Mendebaleko *herririk herri, etxerik etxe, plazarik plaza* egiturak ere badu euskara batu orokorrean eskubidea. Instrumentala (*herriz herri*) erabili ohi da gehienbat, eta bidezkoa

da lehentasuna horri ematea, bera delako eremurik zabalenekoa, baina mendebaleko ablatibo zaharrak ere ez dakar nahasbiderik eta kalterik.

Mendebalean gorde dira antzina Euskal Herri osokoak ziren hurbileko artikulua: *lagunau*, *lagunori*, *lagunok*. Denonak izandakoak direnez, denok daukagu erabiltzeko eskubidea.

Orain arte aurkeztu diren ezaugarriak euskara batu orokorrean erabil daitezkeela esan da, eta ondoren aurkeztuko direnak, berriz, Deba ibarreko tokiko batuetarako izan daitezke egokiagoak.

Euskara batu orokorrean Euskal Herri gehieneko *aldera* (*Paris aldera joan*), Ipar Euskal Herriko *-ra* / *-ri buruz* (*Parisera buruz joan*) eta Bizkaiko sartaldeko *-rantz* (*Pariserantz joan*) baliatu ohi dira. Deba ibarrean *-rutz* erabiltzen da, eta indarrez, gainera, eta lekua egin dakioke tokiko batuan.

Bizkaian eta Deba ibarreko alderdi batean NON kasuan erabiltzen da mugimenduzko aditzekin doan aditz izena: *egunkaria erosten joan da*. Aukera zaharra da, literatura tradizioan ondo sustraituta dagoena, eta ez dago baztertzeko eta gaitzesteko arrazoirik.

Aukera hirukoitza dago erdarako *-(c)ion* amaiera egokitze orduan: *-(z)ione* da Ipar Euskal Herrian (*kontribuzione*), *-(z)ino* mendebalean (*kontribuzino*), eta *-(z)io* erdialdean eta euskara nafarrean (*kontribuzio*). Horixe da euskara baturako onartu dena, baina beste biak ere onar daitezke tokiko batuetan.

Ondoren aurkeztuko den ezaugarriak badauka bere alderdi txarra: ahulduta dagoela. Mendebaleko *-ginan* atzizkiaz mintzo naiz, *eskopetaginan dihardute lantegi horretan tankerako adibideetan erabili ohi dena*.

Deba ibarreko iparraldean *-tikan* (*etxetikan*), *-gandikan* (*lagunengandikan*), *-gatican* (*zu ikusteagatican*), *-rikan* (*dirurikan*), *-(e)nikan* (*ez neban uste etorriko zanikan*) esan ohi dira. Ez dakit hizkuntza idatzian lekurik izan behar ote duten, baina ahozko jardunean, behinik behin, ez dakarte kalterik.

Laburbilduaz, hauxe da Deba ibarrak eskaintzen duena:

I) Euskara batu orokorrari:

- a. Hurbileko artikulak: *lagunau, lagunori, lagunok.*
- b. Destinatiboko *-endako / -entzat* atzizkiak: *lagunarendako / lagunarentzat.*
- c. Ablatiboko *-rik* atzizkia: *herririk herri.*
- d. *neuk* saileko izenordain indartuak.
- e. *edonor* saileko izenordainak.
- f. *nor edo nor* saileko izenordainak.

II) Tokiko batuei:

- a. Hurbiltze adlatiboko *-rutz* atzizkia: *etxerutz.*
- b. Mugimenduzko aditzekin NON kasuan aditz izenak: *egunkaria erosten joan da.*
- c. *-(z)ino* amaiera: *kontribuzino.*
- d. *-ginan* atzizkia: *eskopetaganan dihardu.*
- e. *-tikan, -gandikan, -gantikan, -rikan, -enikan* atzizkiak (behinik behin ahozko jardunean).

Aditzaren morfologia

Aditza izan da euskara batua egiteko korapilorik gaitzena. Sistema bat baino gehiago dago euskalkien arabera, eta horietako bat aukeratu beharra egon da. Sarri esan diren arrazoiengatik, erdialdekoa hautatu zen. Esango nuke —eta halaxe erakutsi du aditz batuak 1973tik hona egin duen bideak— Euskaltzaindiak bete-betean asmatu zuela, korapilo gaizto eta bihurri hura bikain askatu zuela.

Apurra da, beraz, herri hizkeretako aditzak euskara batuan izan dezakeen lekua, baina badira nabarmendu beharreko zenbait gertakari, tokiko batuetan ez ezik, batu orokorrean ere aintzakotzat har daitezkeenak.

Deba ibarrean eta Euskal Herriko alderdi zabalean, zaharkituta gelditu da ‘partizipioa + RIK’ egitura, eta ‘partizipioa + TA’ da ordezkioa: *aspertuta dago*. Ematen du euskara batu orokorrean ere aintzakotzat har daitekeela berrikuntza hori.

Euskal Herriko eremu zabalean, era berean, laguntzaile zereginetara mugatu da, gehienbat, **edun* aditza, eta *eduki* da haren ordezkioa: *ez daukagu dirurik*. Tokiko batuetan zalantzarik gabe eta, beharbada, batu orokorrean ere kontuan har liteke berrikuntza hori.

Arrotza da mendebalean *ari izan* orokorra, eta *egon* eta *ibili* dira haren ordezkioak. Deba ibar gehienez, gainera, *jardun* ere bada, eta indarrez erabiltzen dira haren adizki trinkoak: *dihardut*, *diharduzu*... Euskara batu orokorrean ere badute adizki horiek lekua, eta tokiko batuetan behinik behin, *egon* eta *ibili* ere aintzakotzat har litezke.

Adizkien jokamoldean gorabehera ugari dago euskalki batzuetatik besteetara. Ipar Euskal Herrian, esate baterako, NOR erara jotatzen dira *afaldu*, *bazkaldu* eta *gosaldu*: *afaldu naiz*, *bazkaldu gara*. Euskal Herriko eremu zabalean, era berean, NOR erara jotatzen da *mintzatu* aditza: *mintzatu da* vs *hitz egin du*. Mendebalean, oster, NOR-NORK erara jotatzen dira *irten*, *igo* eta *jardun*, eta NOR-NORI-NORK erara *jarraitu*. Tokiko batuetan behinik behin, kontuan har litezke aukera horiek.

Deba ibarreko zenbait alderditan dagoen *-t(z)eke* aditz atzizkia ere (*egiteke daukagu*) kontuan har liteke bertako batuan.

Nabarmentzekoa da atzizki horrek joan den aspaldian izan duen zabalkundea, nahiz eta, nonbait, *-t(z)eko* atzizkiarekin gurutzatu eta behin baino gehiagotan oker erabiltzen den. Esate baterako, hedabideetan entzuten eta ikusten diren *ikusteko dago zein hamaikako zelairatuko duen* tankerakoak ez dira zuzenak. Deba ibarrean behinik behin, bukatutako ekintzak adierazten dira *-t(z)eke* atzizkiarekin, eta etorkizunekoetan *-t(z)eko* —edo *-kizun*— erabiltzen da: *ikusteko*, *ikuskizun*.

Laburbilduaz, hauxe da Deba ibarrak aditzaren morfologian egin dezakeen ekarria:

I) Euskara batu orokorrari:

a. *eduki*-ren adizkiak, **edun*-en lekuan: *ez daukagu dirurik*.

b. *jardun*-en adizki trinkoak: *dihardugu*.

c. 'Partizipioa + TA' egitura: *aspertuta dago*.

II) Tokiko batuei:

a. *egon*, *ibili* eta, jakina, *jardun* aditzak, *ari izan*-en ordeztu: *ikasten dabil* / *ikasten dago* / *ikasten dihardu*.

b. Zenbait aditzen jokamolde berezia: *irten du*, *igo du*, *jardun du*, *jarraitu dio*.

c. *-t(z)eke* aditz atzizkia: *egiteke daukagu*.

Morfosintaxia

Hizkuntzaren sail zabal honetan euskara baturako ez da ezer erabaki. Ez da ezer baztertu eta ez da ezer debekatu. Aldez aurretik, beraz, denak dauka lekua euskara batuan, baina, jakina, senak ezartzen ditu zenbait muga: eremu urriko ezaugarriak, hiztun bana-banatzuek baizik erabiltzen ez dituztenak, ezin dira besteen maila berean ipini. Izatekotan, tokiko batuetan izango dute lekua.

Deba ibarreko ezaugarriak kontuan hartuta, bidezkoa da antzina Euskal Herriko eremu zabalagoan erabiltzen ziren perpaus kontzesiboetako *arren* (*jakin arren, ez du ezer esan*) eta *bi* zenbatzailea izenaren eskuinean jartzeko joera (*lagun bi*) euskara batu orokorrean aintzakotzat hartzea. Baita mendebalean eta handik kanpo ere erabiltzen den kausa perpausetako 'aditza + (*ela*) eta' egitura (*nekatuta dagoela eta, ez du etorri nahi*) eta kausa eta helburu perpausetako *-tearren* atzizkia ere (*zeu ikustearren etorri naiz*). Mendebaleko *etorri dator* tankerako egitura indargarriek ere eduki dezakete euskara batu orokorrean lekua.

Erdialdeko euskalkiaren berrikuntza da galdera perpausetan *al* erabiltzea, Deba ibarreko alderdi batera ere iritsi dena: *joango al gaituk?* Hori ere aintzakotzat har daiteke euskara batu orokorrean. Horrekin batera, gainera, galderen amaieran *ala* juntagailua jartzeari ere egin dakioke lekua euskara batu orokorrean: *joango gaituk, ala?* Oso errotuta dago mendebal osoan eta guztiz egitura jatorra da.

Perpaus osagarrietan *-ena* atzizkia erabiltzea, berriz, tokiko batuetan ikusten dut ego-kiago: *badakigu etorri dena*. Aspaldikoa da mendebalean, eta alderdi horretako hiztunen artean ondo sustraituta dago, baina ez dakar ñabardura eta onura berezirik.

Tokiko batuetarako utz daiteke, era berean, Bizkaian eta Deba ibarreko alderdi batean erakusleak izenaren aurrean jartzeko dagoen ohitura: *zer gertatzen zaiok horri lagunorri?*

Esandakoaren harira, hona hemen Deba ibarreko euskarari atera dakioken etekina:

I) Euskara batu orokorrerako:

- a. *bi* zenbatzailea izenaren eskuinean: *lagun bi*.
- b. Perpaus kontzesiboetako *arren*: *jakin arren, ez du ezer esan*.
- c. Kausa eta helburu perpausetako *-tearren* atzizkia: *zeu ikustearren etorri naiz*.
- d. Kausa perpausetako 'aditza + (ela) eta' egitura: *nekatuta dagoela eta, ez du etorri nahi*.
- e. *etorri dator* tankerako egitura indargarriak: *etorri hator ala joan hoa?*
- f. Galdera perpausetako *al*: *joango al gaituk?*
- g. Galdera perpausetako *ala*: *joango gaituk, ala?*

II) Tokiko batuetarako:

- a. Perpaus osagarrietako *-ena* atzizkia: *badakigu etorri dena*.
- b. Erakusleak izenaren aurrean ezartzea (behinik behin ahozko jardunean): *zer gertatzen zaiok horri lagunorri?*

Lexikoa

Lexikoari dagokionez ere ez da hitzik baztertu eta debekatu; denek dute lekua euskara batuan. Senak eta, jakina, hizkuntzaren ezagutzak esango digu oraingoan ere zeini eman lehentasuna. Ezin da maila berean jarri Euskal Herri gehiengan erabiltzen den hitza eta herri gutxi batzuetan erabiltzen dena. Ezta Euskal Herriko hiztunik gehienek erabiltzen dutena eta hiztun gutxi batzuek erabiltzen dutena ere. Edo literatura tradizio osoan sarri erabili dena eta atzo goizean agertu zena. Euskal Herri osoko eta mundu guztiko euskaldunek bata besteari erraz eta eroso ulertzeko egin zen euskara batua eta, oro har behintzat, eremu txikiko eta erabiltzaile gutxiko hitzak ez dira horretarako bitarteko egokiak.

Irizpide horiexek aipatu zituen Koldo Mitxelenak Euskaltzaindiak euskararen batasunari begira Arantzazun egindako Batzarrean (in *Euskera* 13 (1968): 212):

Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago.

Aipatutako irizpideak oinarri hartuta, Deba ibarrak euskal lexikoari egin diezaiokeen ekarria aztertuko dugu.

Alde batetik, mendebaleko edo erdialdeko eremu zabalean erabiltzen diren hitzak daude eskualde horretan. Zalantzarik gabe, euskara batu orokorrean ere badute horiek lekua; beste lehiakide egokiagorik ez dagoenean, gehienbat. Horietaoak dira *ainube* /

laiotz, argal, astun, bezero, ganora, igarri, jaramon, papar, peto, txukun... Ereku urriagoak izan arren, *anabasa, begitandu, biao, zama* ere lagungarri gerta daitezke. Edozein euskaldunek erabil ditzake hitz horiek, Deba ibarreko edozein hiztunek erabil ditzakeen bezala beste alderdi batzuetako *aholku, elebitasun, jauzi, maiztasun, nekazaritza, opor, zinegotzi* gisakoak.

Deba ibarreko bizimodua burdinari lotuta egon denez, hitz bereziak asmatu dira. Juan San Martinek (1958, 1958b, 1959) jaso zituen, esate baterako, Eibarkoak, eta badira bertan edozein euskaldunek erabil ditzakeenak: *barauts* 'broca', *barauts etxe* 'porta-brocas', *lokan ipini* 'poner en punto muerto', *maratila* 'destornillador'...

Ondorengo zerrendan aurkeztuko diren hitzak eremu zabalekoak dira. Euskara batu orokorrean badira, sarritan, horiek baino egokiagoak, baina, jakina, Deba ibarreko batuetan aintzakotzat hartu beharrekoak dira. Ondo legoke, beraz, gainerako euskaldunek ere horien berri izatea. Erabiltzen ez badituzte ere, behinik behin ezagutzea. Hona hemen zein diren:

a-: *abade* (eta *apaiza*), *abarketa* / *apreta* 'espartina', *aditu* 'ulertu', *adur* 'lerdea', *ahalegin-du* 'saiatu', *aita ponteko* eta *ama ponteko* / *aita besoetako* eta *ama besoetako* 'aitabitxi / amabitxi', *aitita* eta *amama* / *aitajaun* eta *amandre* / *aitona* eta *amona*, *albo* (eta *aldame-na*), *aldats* (eta *aldapa*), *amaitu* (eta *bukatu*), *amatatu* (eta *itzali*), *andra* 'emaztea', *aratoste* 'inauteria', *ardi* (eta *arkakusoa*), *ardura* 'axola', *arineketa* 'lasterka', *armo*zu 'gosaria', *artazi* (eta *guraizea*), *astiro* (eta *poliki*), *atzamar* / *atzapar* / *behatz* 'hatza', *atzena* (eta *azkena*), *aurrena* (eta *lehena*), *azoka* (eta *merkatua*)...

b-: *baba* 'indaba', *bailara* (eta *ibarra*), *baino* 'baizik', *batu* (eta *batzarra*) 'bildu, bilera', *behar* (eta *behargin*) (eta *lana, langilea*), *bekar* (eta *makarra*), *bekoki* 'kopeta', *berakatz* (eta *baratxuria*), *berba* (eta *berbeta*) (eta *hitza, hizketa*), *bider* (eta *aldiz*), *bits* 'aparra', *buzkantz* 'odolkia'...

e-: *edozenbat* (eta *asko*), *ei* (eta *omen*), *enparauak* (eta *besteak, gainerakoak*), *eragin* 'arazi', *erdu* (eta *zatoz*), *eroan* (eta *eraman*), *erpe* (eta *atzaparra*), *esate baterako* 'adibidez', *eseki* (eta *zintzilikatu*), *eskeko* (eta *eskalea*), *eskuminak* (eta *goraintziak*), *esnatu* (eta *itzartu*)...

g-: *Gabon* 'Eguberri', *Gabonzar* (eta *Urtezahar*), *gaitz* (eta *zaila*), *gaitzizen* (eta *ezizena*), *garau* (eta *alea* / *pikorra*), *gatzatu* 'mamia, gaztanbera', *gomuta* 'oroitzapena', *gura* (eta *nahi*)...

h-: *ha* / *haura* 'hura', *higuin* (eta *nazka*), *hobeto* 'hobeki', *hots egin* (eta *deitu*), *hur* 'hur-bil'...

i-: *inausi* (eta *kimatu*), *inor* (eta *beste*), *ipini* (eta *jarri*), *ira* / *garo* 'iratzea', *iretargi* (eta *ilar-gia*), *irten* 'atera', *isiotu* (eta *piztu*), *itzel* / *itzal* 'berebizikoa', *izara* 'maindirea', *izeko* 'izeba', *izentatu* 'zehaztu, adierazi'...

j-: *jardun* (eta *hitz egin* / *ari izan*), *jarri* 'eseri', *jaurti* (eta *bota*), *jausi* 'erori'...

k-: *karu* 'garesti', *katamixar* / *katagorri* 'urtxintxa', *keriza* / *kerizpe* 'itzala, itzalpea', *kirikino* / *triku* 'sagarroia', *korta* 'ukuilua', *kuma* 'sehaska'...

l-: *labain egin* (eta *irrist egin*), *laga* / *itxi* 'utzi', *lain* (eta *beste*, *adina*), *lako(xe)* (eta *beza-lako(xe)a*), *lantzean* (*behin*) (eta *noizean* (*behin*)), *lapiko* 'eltzea', *larregi* (eta *gehiegi*), *lau* 'ordokia', *legar* (eta *gatzagia*), *legez* / *legetxe* (eta *bezala(xe)*), *lorrin* 'lardatsa'...

m-: *makatz* (vs *madaria*), *mikatz* (eta *mingotsa*), *mingain* (eta *mihia*)...

o-: *odoloste* 'odolkia', *ogi(ta)* *gaztai* 'erbinudea', *oinaztu* / *oinaztarri* (eta *tximista*), *okaran* (vs *arana*), *okela* (eta *haragia*), *ondo* 'ongi', *oratu* (eta *heldu*), *orri* 'hostoa', *ortu* (eta *ortuari*) (eta *baratza*, *barazkia*), *osatu* / *saniatu* 'sendatu', *ostarku* 'ostadarra', *oste* (eta *atzealde* / *ondorena*), *ostera* (eta *berriz* / *itzulia*), *ostian* / *ostantzian* (eta *bestela*), *ostu* (eta *lapurtu*), *otzara* 'saskia'...

p-: *paita* (eta *ahatea*), *pernil* (eta *urdaiazpikoa*), *praka* (eta *galtza*), *puxika* 'maskuria'...

s-: *sama* (vs *lepoa*), *sarri* 'maiz', *sats* (eta *simaurre*)...

t-: *txarto* / *txarki* (eta *gaizki*), *txingor* 'kazkabarra', *txistu* (eta *tua*)...

u-: *ugar* (eta *herdoila*), *ugaraxo* (eta *igela*), *ugazaba* (eta *jabea*), *ume* 'haurra', *urruti* (eta *urrun*)...

z-: *zarata* (eta *hotsa*), *zatar* (eta *itsusia*), *zeharo* (eta *guztiz*), *zein* (eta *nahiz*), *zela(n)* (eta *nola*), *zil* 'zilborra', *zeintzuk* / *zertzuk* / *nortzuk* (vs *zein* / *zer* / *nor*)...

Sail honetan sar daitezke asteko egunen izenak ere: *martitzen* 'asteartea', *eguazten* 'azteazkena', *eguen* 'osteguna', *bariku* 'ostirala', *zapatu* 'larunbata', *domeka* 'igandea'.

Eremu txikiko hitzek, jakina, tokiko batuetan dute —oro har, behintzat— euren muga. Hortxe ikusten dut Deba ibarreko alderdi batzuetan erabiltzen diren hitz hauen lekua:

a-: *antxixika* / *takarrada* 'lasterka'.

b-: *barren* lokailua, *beilegi* / *laru* 'horia'.

e-: *eguakitz* 'ostirala', *emendatu* / *itxungi* / *atxingi* 'itzali', *enor* 'garitxo', *erripa* 'aldapa', *etzilimo* 'etzidamu'.

g-: *garbatu* 'damutu', *garranga* 'izotz burruntzia'.

h-: *hazkarri* 'legamia'.

i-: *irastu* 'tximista', *itua* / *zaltai* 'ukuilua', *itxura* 'itxura denez'.

j-: *jaregin* 'askatu' / bertan behera utzi / *narrasa*, *justuri* 'trumoia, ostotsa'.

l-: *lantxurda* / *zurda* 'antzigarra', *lekaio* 'irrintzia'.

m-: *ma(ra)sma* / *amarraz* 'armiarma'.

p-: *petrina* 'gerrikoa'.

s-: *samur* 'erraz', *satandera* 'erbinudea', *susuma* 'higuina'.

t-: *tril* egin 'topo egin', *txantxiku* 'igela', *txirritola* / *sirixola* 'argizaria'.

Aldaera lexikoak

Aldaera lexikoetan —oro har, behintzat— bakarra aukeratu da euskara baturako, eta zuzena da erabakia. Zuzena da *pago / bago / fago* hirukotetik bakarra aukeratzea. Zuzena, *eskaini / eskeini / eskini* artetik lehentasuna bati ematea, eta zuzena, era berean, *beltz / baltz* artean bakarra hautatzea. Oro har, hiztunik gehienek erabiltzen dituztenei eta zaharrenak direnei eman zaie lehentasuna: *barkatu vs parkatu, berdin vs bardin*. Baina bazterretako hizkerak bat datozenean, haiexek aukeratu dira: *burdina vs burni, arrain vs arrai*.

Batzuetan, dena dela, ez da aldaera bakarra hautatu, eta aukera bi —edo gehiago— utzi dira hiztunaren esku: *arlo* eta *alor*, *beste* eta *bertze*, *erran* eta *esan*, *hemezortzi* eta *hamazortzi*, *matrail / masail / mazela*... Bata eta bestea(k) oso eremu zabaletan erabiltzen direnean, eta zein den zaharra eta zein berria oso garbi ez dagoenean jokatu da horrela. Inoiz, gainera, aldaera guztiak onartu eta adiera bana eman zaio bakoitzari; esate baterako: *golko / kolko*, *gorputz / gorpu*, *itxi / herts*, *lasai / nasai*, *ukitu / hunkitu*...

Horretan ere Euskaltzaindiak zuzen jokatu du eta, beharbada, sarriago egin behar luke hori. Sarriago utz litezke aldaera bi hiztunaren esku; esate baterako: *apaiz / apez*, *belarri / beharri*, *borroka / burruka*, *guzti / guzi*, *txiki / ttipi*... Aldaera horiek guztiok zaharrak eta jatorrak dira, eta denak erabiltzen dira eremu zabaletan. Batzuek besteek adina eskubide dute, beraz.

Dena dela, beste bat da aldaeren auziari ikusten diodan akats larriagoa: batzuk behintzat, tokiko batuetan onartu ez izana. Gainera, euskaltzain jakin eta zehatz batzuek oso hitz gogorak esan dituzte zenbait aldaeraren aurka: *artzai* “okerra” dela, eta *artzain* erabili behar dela, esate baterako.

Gauzak ezin dira horrela aurkeztu. Egia da *artzain* onartu dela euskara baturako, baina *artzai* zuzena eta jatorra da, joan den aspaldi luzean oso eremu zabalean erabili dena; Gipuzkoa eta Nafarroa gehienez. Aldaera horixe baliatu dute alderdi horietako apaiz, idazle, bertsolari eta euskara jasoa eta landua egin duten hiztun guztiek. Zuzena eta egokia da, beraz, Donostiako Katedralari, esate baterako, *Artzai Ona* deitzea.

Modu berean jokatu behar litzateke hizkuntzaren tradizioan ondo sustraitutakoak eta gaur egungo jardunean bizitasun handikoak diren gainerako aldaerekin. Ipar Euskal Herrian, adibidez, zentzu betekoa da *Iratiko gasna*, *Irulegiko arnoa* edo *Ezpeletako biper-rada* esatea, eta baita *Kebenko* ‘hemengo’ deitzea Erronkariko Kultura Elkarteari eta *Xardoki* ‘jarduki [hitz egin]’ Zaraitzukoari ere. Mendebalean, era berean, *txarriboda* esatea da zentzuzkoa, eta ez *txerriboda* bihurtzea, euskara batuaren izenean. Arrazoi beragatik, idi demetan eta antzeko beste kiroletan neurri unitate moduan erabiltzen den *untza* ‘plaza’ ez dago zertan *iltze* bihurtu, edo *odoloste* hitza *odol* + *heste* batzetik datorrela eta, *odoloste* egin euskara batuan. Hitz hori mendebalekoa da, eta *odoloste* esan ohi da alderdi hartan.

Honetan ere, beraz, tokiko batuak dira aldaera zenbait erabiltzeko esparru egokia; betiere, jakina, *antzinakoak*, *eremu zabalekoak* eta *bizitasun handikoak* direnean.

Ondorengoak dira baldintza horiek betetzen dituztenak Deba ibarrean. Aldaera hauexek —edo hauetako batzuek, behinik behin— eduki dezakete lekua tokiko batuetan.

a-: *ahizta* ‘ahizpa’, *aitatu* ‘aipatu’, *alkar* ‘elkar’, *ardao* ‘ardo’, *aterri* ‘ateri’.

b-: *baltz* ‘beltz’, *barik* ‘gabe’ (eta *bako* ‘gabeko’), *be* ‘ere’, *bildur* ‘beldur’, *burruka* ‘borroka’.

d-: *dana* ‘dena’ (eta *danok* tankerakoak).

e-: *emon* / *emun* ‘eman’, *eskuma* / *eskubi* ‘eskuin’, *eskutur* ‘eskumutur’, *ete* ‘ote’, *etzin* / *etzun* ‘etzan’.

f-: *fan* ‘joan’.

g-: *gaztai* ‘gazta’, *gitxi* ‘gutxi’, *guntzurrin* ‘giltzurdin’, *guzur* / *gizur* ‘gezur’.

h-: *haura* 'hura', *hazur* 'hezur'.

i-: *ikutu* 'ukitu', *inuntz* / *iruntz* 'ihintz', *iruntsi* 'irentsi'.

k-: *kerten* 'kirten', *kipula* 'tipula', *kuma* 'kuna [sehaska]'.

m-: *mailuki* 'marrubi'.

o-: *okotz* 'kokots', *ordei* / *erdoi* 'herdoil'.

p-: *pake* 'bake', *postura* 'apostu'.

s-: *sapai* 'sabai', *solo* 'soro'.

t-: *txikin* 'txiki', *txindurri* 'inurri', *txirtxil* 'kilker', *txixa* 'pixa'.

u-: *urrin* 'urrun'.

Hor sartzen dira ihartutako arau zenbait ere:

a. Hitz hasieran *u-* dutenak: *ule*, *untza* / *ultza*, *urun*, *urten* (eta *erten*), *uzan* / *uzen*.

b. Dardarkari azkarraren aurrean *e* → *a* egin duten *barri*, *bardin*, *txarri*...

c. Hitz amaieran *-ain* → *-an* egin dutenak: *erran*, *ezpan*, *laban*, *zan*.

d. Hitz amaieran *-e* → *-a* egin duten *andra*, *bela*, *laba*, *landara*, *lora*...

e. *Vj + z / tz* → *V(j) + x / tx* egin dutenak: *atxur*, *gatx*, *hatx*, *itxi* 'utzi', *keixa*...

f. Hitz hasieran *n-* duten *nahar*, *narru* eta *nasai*.

g. *n* duten *mamin*, *mihin*, *premina*, *suhin*, *zentzun*, eta *esan*-en adizki trinkoak: *dinot*, *dino*, *dinozu*...

h. *d-* gorde duten *bedar*, *edur*, *idar* eta *zidar*.

i. *p* eta *t* duten *altara*, *denpora*, *jente*.

j. *nere, neri* tankerako izenordainak.

k. *eurak* 'berak' tankerako izenordainak.

l. -to atzizkia dutenak: *ederto, polito, txarto, zatarto* eta, *jakina, ondo* eta *hobeto*.

m. Partizipioan -gi dutenak: *ebagi, erabagi, eralgi, esegi, iregi, jagi*.

AZKEN HITZAK

Euskara batua da euskararen historia osoan egin den asmakizunik handienetakoa, denetan handiena ez bada. Bost mendeko lan luze eta neketsuaren ondorioa izan da eta, 1964an eraikitzen hasi zenetik hona, onura galantak ekarri ditu. Euskara batuari esker sartu da euskara irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan eta gure bizimoduko esparru guztietan.

Bidezkoa da, beraz, euskara batua zaintzea eta sendotzea. Argia da helburua: euskaldun denok ahalik eta errazen eta erosoan ulertzea eta erabiltzea euskara batua. Hori lortzeko bidea ere argia da: gaur egungo euskaraz zabalduen eta ezagunen diren ezaugarriei lehentasuna ematea.

Ondorio zehatzak dakartza baldintza horiek betetzeak:

1. Gaur egungo euskaraz zabalduena eta ezagunena denari lehentasuna emateak *arkaismoei muga jartzea* dakar. Adibide bat edo beste aipatzeko, *kanpo* hitza da Zuberetatik Bizkaira erabiltzen dena, eta nahiz eta erdaratik etorri, horixe da euskaldun guztiok ondoen ezagutzen duguna. Ez dago, beraz, aspaldi erabiltzen zen eta gaur egun guztiz galdua dagoen *at* hitza zertan indartzen ibili.

Era berean, Euskal Herri osoan ezagutzen da *saihets* hitza, eta hortik abiatuta, euskaldun guztiok neke handirik gabe uler dezakegun *saihestu* hitza asma dezakegu. Erosoago ibiliko gara hitz horrekin, aspaldiko garaietan baten batek behin edo behin erabili omen zuen *ekidin* ilunarekin baino.

2. Gaur egungo euskaran zabalduena eta ezagunena denari lehentasuna emateak *premiarik gabeko asmakizunei muga jartzea* dakar. Euskaldun guztiok *elkarriketak* **ekarriko** du bakea ulertzen badugu, ez dago *elkarriketak* **ahalbidetuko** du bakea zertan gizarteratu.

Asmatzekotan, gainera, zuzen eta senez asmatu behar da, eta joan den aspaldian asmakizun trakets ugarirekin bortxatu dugu euskara. Aipatu berri den *ahalbidetu* da horren adibidea, eta atzizkiak eta aurrizkiak suspertu nahian, horrelako hitz berri eta desegoki ugari plazaratu da. Betiko *edateko ura* —> *ur edangarria* egin da, betiko *nabarmentzekoa* —> *aipagarria* / *azpimarragarria*, betiko *Osasuna zaleak* —> *Osasunaren zalegoa* / *Osasunaren zaleria*, betiko *zabor biltzea* —> *zaborraren bilketa*, betiko *euskara nafarra* —> *nafarrera*, betiko *berriro ikusi* —> *birpasatu*, betiko *merkealdiak* —> *beherapenak*, betiko *gauzatzea* —> *burutzapena*... Euskara teknikoa eta zientifikoa eraikitzeko aitzakian egin dira aldakuntza horiek askotan, baina ez dezagun ahaztu euskara teknikoak eta zientifikoak ere “euskara” izan behar duela beste ezer baino lehen.

3. Euskaldun denok elkarri erraz ulertzeak *zenbait maileguri muga jartzea* dakar. Ez dut horrekin esan nahi berriro ere jokabide garbizaleak suspertu behar direnik. Alderantziz. Nazioarteko herri izan nahi badugu behinik behin, gero eta mailegu gehiago hartu beharko ditugu, baina maileguok ere *nazioartekoak* izatea komeni da, eta ez erdara bakarrekoak. Euskal Herria Estatu handi biren artean banatuta dagoenez, erdara bana da alderdi bakoitzeko hizkuntza ofiziala, eta horrek sortzen du alderdi batzuetakoek bestekoei ulertzeko hesia. Ez dezagun, gainera, ahaztu, Iparraldean eta Hegoaldean ez ezik, euskaldunak gaur egun mundu osoan daudela, eta horietako batzuek ez dakitela ez gaztelanirik ez frantsesik (zehatzago in Sarasola 1997).

Esan dezadan, horren harira, gaur egun Hegoaldean hitzetik hortzera eta esparrurik jasoenetan entzuten diren *apropos, auskalo, bistadizo, derrepente, derrigor, dextente, eskarmentu, estreinako, inkluso, makina bat, planteatu, peskizan, por zierto, primerako*... ez direla euskara batu orokorrerako egokiak. Ez dira ulertzen Bidasoatik gora, eta ez dira ulertzen Polonia, Ingalaterra edo Estatu Batuetako euskaldunen artean. Muga bera dute Iparraldeko *arrapostu, bisaia, deia* ‘dagoeneko’, *finitu, fite, xerka* tankerako ugariek ere.

4. Gaur egungo euskaran zabalduen eta ezagunen denari lehentasuna emateak *euskalkietako ezaugarri zenbaiti muga jartzea* ere badakar. Sarri esan dugu ezaugarri horiek

zein diren: eremu txikietan eta hiztun gutxiren ahotan erabiltzen direnak. Esate baterako, Zuberoako *tai gabe* baino hobe Euskal Herri osoan —eta Zuberoan bertan— erabiltzen den *eten gabe*. Deba ibarreko alderdi batzuetan erabiltzen den *barren* lokailua baino egokiagoa Euskal Herri osoan —eta Deba ibarrean bertan— erabiltzen den *eta* juntagailua.

Baina euskara batua zaintzeak eta sendotzeak ez du esan nahi herri hizkerak zokoratu eta lurperatu behar direnik. Euskara batua euskaldun guztiok elkarri eroso ulertzeko eta zenbait jardun jasotan erabiltzeko egin zen. Eremu euskaldunetako herri barruko jardunak, beraz, bertako hizkeran egin daitezke hemendik aurrera ere, eta zenbait jardun berezitan, gainera, herri hizkera horietan oinarritutako tokiko batuak erabil daitezke.

Tokiko batuei esker, hain zuzen, herri euskaldunetako bizilagunak errazago, lasaiago eta pozago ibiliko dira Euskararen Herrian, eta euskara ikasten duten erdaldunak ere errazago, lasterrago eta merkeago murgilduko dira Herri horretan.

Argibide bibliografikoak

Agirre, Txomin. 1901 [1967]. *Kresala*. [L. Villasante, arg], Oñati: Arantzazuko frantziskotar argitaldaria.

Agud, M. & K. Mitxelena. 1968. "Nombres de la 'comadreja' en el País Vasco". *ASJU* 2: 73-85.

Altube, Sebero. 1920-1921. "Euskaltzaindiko sarrera-itzaldia". *Euskera* 2-1: 3-49.

———. 1949. "La unificación del euskera literario". *Eusko-Jakintza* 3-2/3: 181-204.

Aranberri, Fernando. 1996. *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udala.

Arejita, A. & M. Alberdi (arg). 1985. "Amilletaren dotrinea". *Euskeraren iker atalak*-3: 7-68.

Areta, Nerea. 2003. *Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Arretxe, Jon. 1994. *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.

Arrieta, Jose Agustin. 1974. *Un estudio sobre el habla vasca de Motrico*. Deustuko Unibertsitateko Lizentziatura Tesina argitara gabea.

Aurrekoetxea, Gotzon. 1992. "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa". *Uztaro*-5: 59-109.

———. 1995. *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Leioa: EHU.

- Azkue, Resurrección M. 1905-1906. *Diccionario vasco-español-francés*. Berrargitaratua: Bilbo, Euskaltzaindia, 1984.
- Azpeitia, Agurtzane. 2003. *Zestoarren erretolika*. Zestoa: Zestoako Udala.
- Azurmendi, Joxe Migel. 1996. *Ataungo euskara*. Lazkao: VI. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- 1998. *Zegamako euskara*. Lazkao: VII. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- Bähr, Gerhard. 1926-1935. "Estudio sobre el verbo guipuzcoano". *RIEV* 17 eta hh.
- Barrena, Elena. 1995. "La formación territorial (s. VIII-XV)". In [J. Agirreazkuenaga, arg], *Nosotros los vascos. Gran Atlas Histórico de Euskal Herria*: 97-112. Bilbo: Lur.
- Basauri, S. & A. Sarasua. 2003. *Eibarko hiztegi etnografikoa*. Eibar: Eibarko Udala.
- Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegia. 2005. *Oñatiko aditz-taulak*. Deba ibarra: Badihardugu Euskara Elkartea.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1863. *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*. Londres.
- Camino, Iñaki. 2003. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- 2004. "Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian". *Euskera* 49-1: 67-102.
- 2004b. "Nafarroa Behereko euskara". *FLV* 36, 97. zb., 445-486.
- 2005. "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna". *FLV* 37, 99. zb., 265-286.
- 2006. "Irañetako eta Arakilgo mintzoaren gorpilean". *FLV* 38, 101. zb., 55-68.

- Campion, A. & P. Broussain. 1922. "Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera". *Euskera* 3-1: 4-17.
- Caro Baroja, Julio. 1943. *Los pueblos del norte de la Península ibérica*. Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- 1946. *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- Carrera, I. & I. García. 2005. *Legutiano aldeko euskara*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Díaz de Durana, José Ramón. 2003. "Crisis y cambios al final de la Edad Media". In [A. Rivera, arg], *Historia de Alava*: 155-183. Donostia: Nerea.
- Elxepuru, Juan Martín. 2004. *Bergara aldeko hiztegia*. Bergara: Bergarako Udala.
- Elortza, Jerardo. 1994. "Aditzaren izen-formak Deba Garaian eta Araba aldean". In [R. Gómez & J. A. Lakarra, arg], *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 465-477. *ASJUren gehigarriak*-28. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Elortza, J., E. Garro, J. L. Ormaetxea, J. M. Garai & E. Plazaola. 1998. *Arrasateko euskara*. Arrasate: Arrasateko Udala.
- Erdozia, Jose Luis. 2001. *Sakana erdialdeko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- 2004. *Sakanako hiztegi dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Erostarbe, Amaia. 1994. "Aditz izenak Oñatiko hizkeran". In [R. Gómez & J. A. Lakarra, arg], *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 495-517. *ASJUren gehigarriak*-28. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Etxabe, K.&L. Garmendia. 2003. *Zaldibiako euskara*. Zaldibia. Zaldibiako Udala.

——— 2004. *Ordiziako euskara*. Ordizia: Ordiziako Udala & Hitzaro Euskara Elkarte.

Etxebarria, Toribio. 1965. *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia, *Euskera* 10-11.

Etxepare, Bernat. 1545. *Linguae vasconum primitiae*. [P. Altuna, arg], Bilbo, Mensajero, 1980.

Euskaltzaindia. 1994-. *Arauak*. Bilbo.

——— 1995. *Eibarko hiri-toponimia*. Bilbo: *Onomasticon Vasconiae*-13.

——— 1999. *Euskal Herriko Hikuntz Atlasa. Ohiko mintzamoldeen antologia*. Bilbo.

EUSTAT. 2001. <http://www.eustat.es/estad/municipalista.asp>

Gaminde, Iñaki. 1984-1985. *Aditza bizkaieraz* (3 ale). Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.

——— 1999. "Elosu, Nafarrate eta Urrunagako euskaraz". *FLV* 31, 81. zb., 241-262.

——— 2001. *Mungia barbarik berba*. Bilbo: Mungiako Udala & Mungia euskaldunduz.

——— 2001b. *Arrieta barbarik berba*. Bilbo: Arrietako Udala, BBK, Eusko Jaurlaritza & Bizkaiko Foru Aldundia.

García Fernández, Ernesto. 2003. "Clérigos, caballeros, 'burgueses' y campesinos en la Alta Edad Media". In [A. Rivera, arg], *Historia de Alava*: 111-153. Donostia: Nerea.

- Garzia Albeniz, Julian. 1778. *Acto contriciocoa eriotzaco orduracò*. Berrargitaratua in [H. Knörr & K. Zuazo, arg], *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*: 517-523. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1998.
- Goikoetxea, Jon (arg). 1982. *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & Euskaltzaindia.
- Grandmontagne, Francisco. 1933. *Los inmigrantes prósperos*. Berrargitaratua: Madrid, Aguilar, 1960.
- Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- Ibarra, Orreaga. 1995. *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Intza, Damaso. 1957. "Larraun eta bere euskalkia". *Euskera* 2: 91-105.
- Irizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 ale). Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- . 1991-2002. *Morfología del verbo auxiliar* (14 ale). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Isazelaia, Jaione. 1997. *Linua, ehuna, artilea*. Bergara: Bergarako Udala.
- Izagirre, Kandido. 1970. *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. [L. Villasante, arg], *ASJUren gehigarriak*-7. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Jauregi, Oroitz (arg). 2005. *Correspondencia de Gerhard Bähr con R. M^a Azkue, H. Schuchardt y J. Urquijo (1920-1944)*. *ASJUren gehigarriak*-36/2. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kintana, Xabier et alii. 1977. *Euskal hiztegi modernoa*. Bilbo: Cinsa.
- Lacombe, Georges. 1924 [1952]. "Langue basque". In [A. Meillet & M. Cohen, arg], *Les langues du monde*: 255-270. 2. arg., osatua, Paris: CNRS.

- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*. 2. arg., osatua, Donostia: Elkar, 1979.
- Lafon, René. 1948. "Sur les suffixes casuels -ti et -tik". *Eusko-Jakintza* 2-2/3: 141-151. Berrargitaratua in *Vasconiana*: 199-207. Euskaltzaindia, *Iker-11*. Bilbo, 1999.
- Lakarra, Joseba Andoni. 1986. "Bizkaiera zaharra euskalkien artean". *ASJU* 20-3: 639-681.
- Landuchio, Nicolao. 1562. *Dictionarium linguae cantabricae*. [K. Mitxelena & M. Agud, arg], *ASJUren gehigarriak-3*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1958. Berrargitaratua in [H. Knörr & K. Zuazo, arg], *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*: 201-334. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1998.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin* (2 ale). Donostia: Imprenta Bartolomé Riesgo y Montero.
- 1969. *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. [J. I. Telletxea Idigoras, arg], Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Larrañaga, Jone. 1998. *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Laspiur, Imanol. 1979. "Azentu diakritikoa Eibarko euskaran". *Euskera* 24-1: 175-268.
- 1999. *Eibarrera jatorraren bidetik*. Eibar: ...eta kitto! Euskara Elkarte.
- Latxaga. 1983. *Acto para la Noche Buena*. Tolosa: Gráf. López-Mendizabal.
- Lekuona, J. M., J. I. López de Luzuriaga & A. Narbaiza. 1992. *1685eko koplak zaharrak*. Eibar: Ego ibarra.
- Leon, Jabi. 2004. *Elgoibartarren esanetan*. Elgoibar: Elgoibarko Udala.
- Makatzaga, Jesus Mari. 2007. *Elgoibarko euskara*. Laster argitaratzekoa.

- Mitxelena, Koldo. 1961 [1977]. *Fonética Histórica Vasca*. 2. arg., osatua, *ASJUren gehigarriak-4*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- . 1964. *Textos arcaicos vascos*. Berrargitaratua: *ASJUren gehigarriak-11*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990.
- . 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia* (16 ale). [I. Sarasola, koor], Bilbo: Euskaltzaindia.
- . 1988. *Sobre historia de la lengua vasca* (2 ale), *ASJUren gehigarriak-10*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mugarza, Pello. 2006. *Mallabiko euskara*. Mallabia: Mallabiko Udala, Eusko Jaurilaritza & Bizkaiko Foru Aldundia.
- Mujika, Serapio. 1914-1917. "El obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis". *RIEV* 8: 185-229.
- Narbaiza, Antxon. 1998. *Eibarko euskara: gutxiespenaren historia*. Eibar: Eibarko Udala.
- Oñederra, Miren Lourdes. 1990. *Euskal fonologia: Palatalizazioa*. Leioa: EHU.
- Ormaetxea, Jose Luis. 2002. *Aramaio euskara*. Aramaio: Aramaio Udala.
- . 2006. *Aramaio euskara. Azterketa dialektologikoa*. Leioa: EHU.
- Osaba baten instruccinuac*. XVIII. mende amaierako eskuizkribu argitara gabea. Oñati.
- Pagola, Inés. 2005. *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Euskaltzaindia, *Iker-18*. Bilbo.
- Perez Betolatza, Joan. 1596. *Doctrina Cristiana*. Faksimila in [H. Knörr & K. Zuazo, arg], *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*: 469-484. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1998.

Perez Lazarraga, Joan. 2004. *Eskuizkribua*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Plazaola, E., K. Agirregabiria & K. Bikuña. 2005. *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak Debarroko hizkeretan*. Eibar: Badihardugu Euskara Elkarte.

Rubio, Jesus. 2002. *Euskararen garabideak*. Irun: Alberdania.

Ruiz de Larrinaga, Juan (arg). 1954-1958. "Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte". *BAP* 10 (1954): 231-302; 13 (1957): 220-239, 330-348, 429-452; 14 (1958): 397-443.

Sagarzazu, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania.

Salaburu, P. & M. Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: Gramatika eta Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.

Salazar, Belene. 2001. *Ugaoko euskara*. Bilbo: Ediciones Beta III milenio.

San Martin, Juan. 1958. "Burdin laneko zenbait tekniku itz". *Euzko-Gogoa* 9-1: 39-51.

——— 1958b. "Eibarren erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikuak". *Euskera* 3: 141-158.

——— 1959. "Eibarren teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz". *Euskera* 4: 127-139.

Sarasola, Ibon. 1983. "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos". *ASJU* 17: 69-212. Faksimila: *ASJUren gehigarriak-11*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990.

——— 1997. *Euskara batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.

Sarasua, A., A. Agirrebeña & L. Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara*. Eibar: Eibarko Udala.

- Telleria, Alberto. 2003. *Berbeta berua*. Eibar: Badihardugu Euskara Elkartea.
- Trebiño, Imanol (arg). 2001. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Txillardeggi & G. Aurrekoetxea (zuz). 1983. *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Bilbo: UEU. 2. arg., osatua, 1987.
- Txurruka, A. & J. Urbietia. 2003. *Debako euskara*. Deba: Ostolaza Kultur Elkartea.
- Unanue, A. & N. Intxausti. 2002. *Kooperatibak eta euskara*. Arrasate: Mondragon Unibertsitatea & EMUN Kooperatiba Elkartea.
- UNED. 1988. *Bergarako euskera*. Bergara: UNED.
- Urkijo, Julio (arg). 1910. "Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores". *RIEV* 4: 233-297.
- Urkizu, Patri (arg). 1989. "Garibairen eskuizbribu galdu bat". *Mundaiz*-37/38: 33-85.
- Villasante, Luis. 1968. "Oñatiko euskera". *Egan* 27: 80-94.
- Zabala, Juan Mateo. 1848. *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*. Donostia: Imprenta Ignacio Ramón Baroja.
- Zuazo, Koldo. 1994. "Burundako hizkera". In [R. Gómez & J. A. Lakarra, arg], *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 297-364. *ASJ Uren gehigarriak*-28. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 1998. "Euskalkiak, gaur". *FLV* 30, 78. zb., 191-233.
- 1998b. "Arabako euskara". In [H. Knörr & K. Zuazo, arg], *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*: 127-189. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- 2003. *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.



Maltzaga auzoa (Eibar). Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bideen loturagunea.

DEBA IBARREKO EUSKARA

Dialektologia eta Tokiko batua

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean dago Deba ibarra, eta bertako euskaran ere ezagun da kokagunearen eragin hirukoitza. Hizkera interesgarri hori erakusten da liburu honetan eta, aldi berean, euskalkiak lantzeko eta erabiltzeko irizpideak aurkezten dira.

Beste bat da, dena dela, saioaren berrikuntza nagusia: lehen aldiz, *Tokiko batuen* adibidea plazaratzen da. Deba ibarreko ikastetxe, euskaltegi, lantegi, hedabide eta udaletxeetan, euskara batua erabiltzeko orduan, bertako zein ezaugarritz hornitu azaltzen da. Erabakien arrazoiak ere agertzen dira, beste alderdi batzuetako euskaldunei eredu edo, behintzat, zeri heldua eskaintze aldera.